




DESERROTUAK

BIPILTZE ETA MUGEN ARTEKO IBILBIDEA



DESERROTUAK

(zəhar)
errefuxiatuekin



DESERROTUAK



Argitalpen honek Creative Commons lizentzia bat dauka:

Aitortu – Ez Komertziala – Partekatu Berdin 2.5 Espainia.

Hirugarrenek argitalpen hau banatu, kopiatu eta erakuts dezakete, kredituetan argitalpenaren egileak eta jatorria aipatzen badira. Ezin da inolako etekin komertzialik lortu, eta eratorritako obrek jatorrizko lanaren lizentzia baldintza berdinen pean egon behar dute.

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es>



Edizioaren urtea eta lekua: Bilbo, 2024. // **Itzulpena:** Komunika komunikazio agentzia // **Diseinua:** GuajeVoltaje // **Inprimatze:** Erreka Multimedia S. Coop // **Lege gordailua:** LG BI 01299-2024

Zehar Errefuxiatuekin Kristo kalea, 9 Bis, 5. solairua, 48007 // Tel: 944 05 95 66 // info@zehar.eus // www.zehar.eus

Jarrai iezaguzu



Finantziazioa





GUAPINOL IBAIAREN DEFENDATZAILEA IZAN ZEN JUAN LÓPEZEN OROIMENEAN,
TXOSTEN HAU ARGITARATU AURREKO EGUNETAN ERAIL BAITZUTEN.

Txosten hau landa-laneko prozesu luze baten azken zatia izan da. 2023an hasi genuen ibilbide hori, Zehar-Errefuxiatuekin eta CEAREko kideekin eseri ginenean, harrerarekin eta laguntza juridiko eta sozialarekin lotutako taldeetan arreta ematen zuten pertsonen errealitateari buruz hitz egiteko. Eskerrak eman nahi dizkiegu euren ezagutzagatik, irakurketagatik eta jendearen errealitatearekin duten konpromisoagatik.

Haiei esker lortu genuen landa-lanean parte hartu duten senegaldar guztiekin harremanetan jartzea eta eurak ezagutzea. Hitz eginez, euren jarrerak, begiradak eta esperientziak entzunez eta partekatuz, euren jaioterrietara, ibilbideetara eta Euskadin dituzten bizitzetara hurbildu gaituzte. Eskerrak eman nahi dizkiegu euren denbora eta prestutasuna eskaintzeagatik hain delikatuak, ziurgabea eta prekarioak den momentu batean, asiloa eskatzeko prozesuan, hain zuzen ere.

Eskerrak eman nahi diogu bereziki Abdoulaye Sarr-i, bere babesagatik. Berak egindako itzulpen eta bitartekaritza lanik gabe ezinezkoa izango zen Senegalgo kideekin antolatutako eztabaida taldeak dinamizatzea. Bere esperientzia eta azterketa-gaitasuna gidari izan ditugu, literalki eta metaforikoki, Senegalgo arrantza munduaren mapa konplexuan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ere Carmen, Giovana eta Brendari. Kolonbiako kide hauek estraktibismoaren, indarkeriaren eta desplazamendu behartuaren arteko loturak kontatu zizkiguten, eta duela oso gutxi gertatutako minei egin behar izan zieten aurre horretarako. Brendaren kasuan, eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, EAEn errefuxiatuek oraindik ere dituzten eskubide gabeziak irudikatzeko emandako laguntzagatik; eta bere ahultasuna, adimena eta aurrera egiteko duen kemena erakusteagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiogu buruzagi kolonbiarre, «zaintzaileei»: Paola Andrea Ararat Nazarit, Danelly Estupiñán Valencia, Darlis Rojas Parra, Gisela Rivera Castro y Marta Lucía Castro, euren jakintzak, minak, grinak, sentsibiltatea erakusteagatik, eta baita euren komunitateak eta Ama Lurra, bizitza, defendatzeko indartsu agertzeagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Dalila Arguetari. Guapinol ibaiaren defendatzailea da bera, Basoa-Defendatzaileen Etxeko eta IM-Defensorak ekimeneko partaidea. Kidea eta laguna ere bada, eta eskerrak eman nahi dizkiogu bere konfiantza eta denboragatik. Haren zintotasunetik, koherentzia politiko sakonetik, amorrutik eta samurtasunetik ikasten jarraitzen dugu.

RAQUEL CELIS SÁNCHEZ, ALESSANDRO BRENTANA PELI ETA ELENA CALVAR
HERREROK EGIN DUTE TXOSTEN HAU.

MARTA GARCÍA TERÁNEK, ARANTZA CHACÓN ORMAZABALEK, LEIRE LASA FERNÁNDEZEK,
VERÓNICA ÁLVAREZ GARCÍAK, ANCA CRETUK, BITTOR URAGA LAURRIETAK
ETA LORENA PATRICIA MONTERO SOSAK LANDA-LANEAN, EDUKIEN KONTRASTEAN ETA
TESTUEN BERRIKUSPENEAN PARTE HARTU DUTE.





AKRONIMOEN ZERRENDIA

MAPEN IRAKURKETARAKO GAKOAK..... **008**

HITZAURREA **010**

**1. BABESLEKUARI BESTE BEGIRADA BAT,
EUSKADIRAINOKO BIDAIA.** **012**

**2. EB 'BESTEEN' BIZITZAREN AURKA:
ESTRAKTIBISMOA ETA MUGAPOLITIKAK**..... **028**

3. SENEGAL ITSASOTIK..... **046**

FATOU NDOYE:
«Arrantza emakumeen erdigunean
dago, eta emakumeak arrantza jardueraren
erdian daude» **070**

4. LURRALDE DEFENDATZAILEAK:
«Gure aukera bakarra erresistentzia
da, edo bidegabekerian murgiltzea
Eusten diogunean, lortu egiten dugu» **076**

5. DALILAREN ISTORIA:
«Etetik atera gintuzten, ostiko egin
ziguten, ehizatu gintuzten, baina hemen
gaude. Haurra ibaitik atera dezakete,
baina ez ibaia haurraren baitatik» **084**

6. ETENIK EZ DUTEN INDARKERIAK:
ESKUBIDEAK ESKURATZEA EUSKADIN..... **097**

7. ONDORIOAK..... **110**

**8. JANARI KONTUAK: LEKUALDATZERA
BEHARTZEN EZ DUTEN BIZITZA EREDUAK
EREITEN EUSKAL HERRIAN. ALTERNATIBAK
AGROEKOFEMINISMOTIK** **114**

SIGLEN ZERRENDIA

- > **UNHCR** Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataria
- > **ACONC** Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkartea
- > **APDHA** Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartea
- > **CAED** Larrialdi, Harrera eta Deribaziorako Zentroa
- > **EAE** Euskal Autonomia Erkidegoa
- > **CATE** Etorkinentzako Behin-behineko Arreta Zentroak
- > **AE** Autonomia Erkidegoak
- > **CFR** Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak
- > **EB** Europako Batzordea
- > **CEAR** Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea
- > **ECHR** Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena
- > **EBBZ** Etorkinak Behin-behineko Barneratzeko Zentroa
- > **CIAR** Asilo eta Babeslekuari Buruzko Ministerioarteko Batzordea
- > **ABZ** Atzerritarrak Barneratzeko Zentroa
- > **CREADE** Harrera, Abegi eta Bideratze Zentroa
- > **DGAHISI** Immigrazioaren Arreta Humanitariorako eta Gizarte Inklusiorako Zuzendaritza Nagusia
- > **EABB** Europako Asilo eta Babes Bulegoa
- > **AEB** Ameriketako Estatu Batuak
- > **ELN** Askapen Nazionalerako Armada
- > **HHE** Helduentzako Hezkuntza
- > **EURODAC** European Asylum Dactyloscopy Database
- > **FARC** Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak
- > **FRONTEX** Muga eta Itsasertzetako Guardiaren Europako Agentzia
- > **IM-D** Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras
- > **LOEX** Atzerritartasunari buruzko Lege Organikoa
- > **ABB** Asilo eta Babes Bulegoa
- > **OMAL** Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia
- > **GKE** Gobernu Kanpoko Erakundea
- > **OPI** Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra
- > **ABE** Afrikaren Batasunerako Erakundea
- > **PCN** Komunitate Beltzen Prozesua
- > **EPO** Etxebizitzarako Prestazio Osagarria
- > **EAJ** Eusko Alderdi Jeltzalea
- > **PP** Alderdi Popularra
- > **PSOE** Espainiako Langile Alderdi Sozialista
- > **DBE** Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta
- > **SAR** Bilaketa eta erreskate lanak (Search and Rescue)
- > **SMH** Itsas Salbamendu Humanitarioa
- > **OTI** Osasun Txartel Indibiduala
- > **EB** Europar Batasuna
- > **UNWRA** Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslarietako Laguntzeko Nazio Batuen Agentzia

MAPEN IRAKURKETARAKO GAKOAK

	Ibai		Mendia
	Errepidea		Itsasoa
	Hiria/Herria		Parke nazionala
	Portuko hiria/herria		Immigrazio lurreko bidea
	Hiriburua		Immigrazio itsasbidea
	Meategia		

HITZAURRE

Deserrotuak, bipiltze eta mugen arteko ibilbidea lana bideratuta dago, berriz ere, desplazamendu behartuen analisiak eredu desarrollista ulertzeko zurrumbilo berean haize kontra kokatzera. Geroz eta premiazkoagoa den ikuspegi bat eskaintzen du, dialektika instituzional eta mediatiko baten eraikuntzari erantzuteko, zeinak migrazioa hartzen baitu Europara modu irregularrean heltzeko erabaki indibiduala hartu duten hainbat subjektuk eragindako mehatxutzat.

Asko pentsatu eta eztabaidatu dugu, babeslekuaren eta migrazioaren artean, desplazamendu behartua jasaten duten horiek izendatzeko moduz. Kategoriek mugak ezartzen dituzte, eta beti uzten dute norbait kanpoan —batez ere emakumeak—. Bazterkeria sorrarazten dute. Baina, era berean, errealtatea ulertzen eta xehatzen laguntzen digute, indarkeria salatzen eta ikusezin direnak argitara ateratzen. Eta, gurea bezalako erakunde batean, nazioarteko babeserako eskubidea defendatzen ere laguntzen digute, geroz eta handiagoa den errepresioaren nahaspilaren artean.

Migrazio fenomenoak izendatzeko, ulertzeko eta ezaugarritzeko egin beharreko hasierako galdera oso erraza da: zer eskubide urraketa jasaten ari ziren pertsona horiek alde egin behar izateko? Abiapuntu horretatik bakarrik planteatu daitezke analisiak konplexuago bilakatzen dituzten beste galdera batzuk: nork lortzen dituen etekinak urraketa horietatik, zergatik gertatzen diren, zein den jatorrizko estatuaren eginkizuna eta zein beste estatuena. Zergatiei so egitea desplazamendu behartuak Europaren erantzukizunetatik ere planteatzea da. Europak pertsonentzat irits ezinak diren kapital kopuru ikaragarriak inbertitzen ditu, eta entzungor egiten dio alde egin behar izateko baldintzak sortzean duten rolari. Europak aspaldi ahaztu ditu bere konstituzioari bultzada eman zioten baloreak: duintasuna eta Giza Eskubideak —gutxiengoenak barne— errespetatzea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbidezko estatua.

Desplazamendu behartuan dugun nozioa corpus juridiko batean oinarritzen da, eta kategoria politiko bat da. 1951ko Genevako Konbentzioaren irakurketa bereziki hertsiki bat egin dezakegu, Espainiako estatuak egiten duen bezala, edo gaur egungo garaiarekin bat datorren bat, erakunde espezializatuak arlo juridiko eta diskurtsiboan defendatu duguna bezalakoa. Nahiz eta badakigun, dena den, irakurketa horrek ez duela guztia barne hartzen. Ez dira soilik errefuxiatuak beren jaioterriak uztera behartuak izaten ari direnak. Txosten honetan eta aurrekoetan gaitzetsi ditugun politika ekonomiko erabazleen ondorioetako bat da desplazamendu behartua. Gainera, ondasunak eta lurraldeak bipiltzeko eta protesta soziala desartikulatzeko estrategia ere bada.

Zehar-Errefuxiatuekin erakundetik ezin dugu txosten hau lotzen duten gaiei —ingurumen degradazioa, desarrollismo estraktibista, mugen politika— buruzko analisi konplexuagorik edo argiagorik egin, guretzat ikaskuntza iturri diren lankideak egiten ari direna baino.

Guk ezagutzen ditugu jatorrian, bidean eta helmugan migratzaileek eta Euskadira nazioarteko babes bila iristen diren errefuxiatuek aurre egin behar dieten egoerak; eta ezagutzen ditugu, halaber, giza eskubideen defendatzaileen aurka errepikatzen diren indarkeria ereduak, bai eta lurra, lurraldea eta ondasun komunak botere korporatiboaren aurrean babesteko duten rola ere.

Egiturazko analisiak —ikerketa eta eragin prozesuetan egiten ditugunak— artatzen eta laguntzen ditugun pertsonen errealtatearekin lotzea konplexua bezain beharrezkoa da. *Deserrotuak, klima aldaketak behartutako*

desplazamenduen inguruko interpretazio kritiko bat txostenean, eredu desarrollistak eta ingurumen degradazioak behartutako desplazamenduan izandako ondorioak datuetan eta azterketa kasuetan lurreratzeari ekin genion, eta asmo handiko lana izan zen. Herrialde ezberdinetako zenbait testuinguruetan jarri genuen begirada, zeintzuetan bideragarria izango zen, orrialde gutxitan, indarkeriaren, estraktibismoaren, ingurumen degradazioaren eta desplazamenduaren arteko harremana marraztea. Era berean, gure garai eta baliabideen neurri apalean, euskal enpresen interes korporatiboen eta desplazamendu behartuaren arteko lotura agerian uzten saiatu ginen. Horretarako, bigarren mailako iturrien bidez, arrantza sektoreak Senegalen dituen inpaktuei heldu genien.

Kasu honetan, Senegalen arrantza intentsiboak dituen ondorioei erreparatuko diegu berrirori ere, baina oraingoa, beren bizibideak agortuta Euskadira iritsi diren arrantzaleen esperientzietatik abiatuta. Haien esperientzia kontatzea Kanarietako artxipelagoan baldintza gaitzesgarrietan konfinatu dituzten gizon askoren migrazio prozesuaren parte ere kontatzea ere bada. Ez da Senegali buruzko txosten bat. Elkarrizketatu ditugun senegaldarren historia erabilgarria da, desplazamendu behartuak eskubideen ikuspegitik ulertzen laguntzeko dugun bokazioari erantzuteko.

Desplazamenduz hitz egin dugu ez soilik ondorio gisa, baizik eta estraktibismoa inposatzeko estrategia gisa ere. Orain, lan hori berriz ere egiteko ahaleginean ari gara, Zehar-Errefuxiatuekin ezagutu eta lagundu ditugun pertsonen errealtate espezifikoetik abiatuta: Euskadin aldi baterako edo modu iraunkorrean deserriratuak izan diren emakume defendatzaileak. Beren komunitateak, eta botere korporatiboaren aurrean, bizitza posible egiten duten ondasunak defendatzeko egiten duten lanagatik erbesterratuak izan diren horiek.

Askotan galdetu digute zertarako balio duen desplazamendu behartua kontzeptualizatzeko, baldin eta, nolanahi ere, pertsonen oraindik ere ukatzen bazaie eta ukatzen jarraituko bazaie leku seguru bat lortzeko aukera, zein beren bizitzak babesteko nazioarteko babesa edo beste eskubide batzuk eskatzeko aukera. Tokikoa globalarekin lotzea botere harremanak agerian uzten lagunduko duen pedagogia kritikoaren zerbitzura dago.

Desplazamendu behartua eragiten dutenek horren ezaugarriak zehaztu ditzaten saihestu nahi dugu; Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea urratzen dutenek hori interpreta dezaten saihestu nahi dugu. Alternatibarik ez dagoela pentsa dezakegu, eta horrekin kontakizun hegemonikoaren garaipenean lagundu, nekropolitika neoliberalaren ezkutatzeko kontakizunean; genozidioari *defentsa*; espoliazioari *ekoizpena*, eta errepresioari *kontrola* deitzen dion nekropolitika. Edo bizitza defendatzen dutenen alde jar gaitzeko: norberaren bizitza, beste batzuen eta sostengatzen gaituen Lurrarena.

Javier Canivell Fradua, Zehar Errefuxiatuekin Zuzendari



IRATIA



BABESLEKUARI BESTE BEGIRADA BAT, EUSKADIRAINOKO BIDAIA

Zehar-Errefuxiatuekinek duen bilera geletako batean eseri gara Euskadira 2022 eta 2023 artean iritsi diren hiru emakume kolonbiarren kontakizunak entzuteko. Beraiekin hitz egingo dugu, izan ere, gure elkarteko kideek antzekotasunak ikusi dituzte hiru kasu horietan emakumeek beraien herrialdeetatik ihes egiteko izan dituzten arrazioen eta txosten honetarako egiten ari garen lanaren artean

Landa eremuetatik datoz. Leku horiek industria estraktiboen jardunaren ondorioz gizartean eta ingurumenean jasan duten eragina handia da: burdin eta urre meategiak, petrolioak, palma monolaborantza... Hainbat mapa zabaldu ditugu: Kolonbiako mapa osoa, Cesarren mapa, Santander Iparraldekoa, Nariño, Putumayo, Bucaramanga. Ez da nahikoa. Barne desplazamenduaren haria markatzeko geografia batetik bestera igarotzen dira. Hiruretako bat Venezuelan jaioa da, bere gurasoek hara ihes egin behar izan baitzuten Wilches haien jaioteritik. Joan-etorriko barne bidaia badira; eta badira itzulerarik gabeko joanekoak. Eta guztien artean bada bat, ezberdina, batzuetan biziari eusteko balio duen bakarra. Onartzen zailena. Beti. Euskadira ekarri dituen.

Gure helburua da bistaratzea lurralde batean enpresa estraktibistak sartzearen, lurralde horrek sorturiko interes ekonomikoen, talde armatuen presentzia areagotzearen eta behartutako desplazamenduen arteko loturak. Indarkeriak, ordea, botere egituren eta ihes egiten dutenen bizitzaren arteko loturari buruz hitz egitea xede dugunon kontakizun analitikoak zailtzen du.

Hiru emakume horien gurasoek —amek— jazarpena —estortsioa, indarkeria fisikoa, mehatxuak— bizi izan zuten talde armatuen eskutik. Hirurek haurrak zirela egin behar izan zuten ihes, eta hirurek egin behar izan dute ihes ama izanda ere. Orain beraiek babesten dituzte alabak, seme-alabak. Horrez gain, emakume helduak dira, lanbideak dituzte, analisi politikoak egiten dituzte, bizi esperientziak dituzte, lagunak, proiektuak, maitasunak, abandonuak. Baina gaur, hemen, erbesteratua izateak eskaintzen duen lasaitasun arraro hori soinean, beraien seme-alabengatik dira beldur, batez ere. Batez ere, alabengatik. Beldur bera da eta ez da beldur bera. Ez dute inork haiei minik egiterik nahi. Beraiek bizi duten egoeran, minak esanahi jakin batzuk ditu: derrigorrezko errekrutatzea, indarkeria fisikoa, sexu indarkeria, estortsioa, desplazamendua, pobrezia. Jaio ziren egunetik saiatu dira babesten, gaur arte, osteguna, 2024ko otsailaren 1a. Eta bihar zer?

Meatzaritzaren gaiari sakon heldu baino lehen, Brendak ezin izan dio negarrari eutsi. Atzo, asteazkena, bere seme nagusiari eraso egin zioten. “Ni aurkitzen ez nautenez, bere bila doaz”. Bere seme nagusia bera baino apur bat gazteagoa da. 13 urterekin izan zuen. Mukizapiak zabaldu ditugu, nola mapak lehen. Historia errepikatu egiten da. Brenda bortxatu egin zuten, bere gurasoen kontrako eraso batean. Bere amari min eman nahi zioten,

bere aitari, eta ondo zekiten minik gehien zerk emango zien. Orain bere semeari egin diote eraso. Indarkeriaren aurpeirik eroena da hau: hura hil nahi dutenak hura sorrarazi zuten berdinak izan litezke.

Edonola ere, Brenda ez dago han babesa eskaintzeko. Ihes egin du. Baina erruak hor dirau. Batzuetan aukeratu egin behar izaten da: gorputza aurrean jarri, edo babesa bilatu beste latitude batzuetatik saiatu ahal izateko. Zer ote da hobe beraientzat? Nola zaindu?

Euskal gizartearen begietan Brenda, Carmen eta Giovana ez dira emakume errefuxiatuak. Kanean haiekin topo egingo dugu eta pentsatuko dugu beraien baldintza ekonomikoak hobetzeko etorri direla, zeina beste edozein motibazio bezain onargarria baita, bestalde. Egia esan, beste batzuetatik bereiztea zaila da oso, indarkeriak pobrezia baitakar, eta pobreak ere eragiten baitu desplazamendua. Geure buruari galdetu nahi ez dioguna da zirkuitua non hasten den eta «gure» garapen ereduak —euskaldunak, europarrak— zer rol duen emakume hauek bota eta «gure» hirira, «gure» herrialdera bultzatzeko. Pentsatuko dugu ez dutela paperik, etxe zerbitzuan lan egiten dutela... Eta oso litekeena da hori guztia, berandu baino lehen, egia izatea.

Txosten hau argitaratzen dugunean, prentsak galdetuko digu ea zergatik ihes egin duten. Gauza bera egingo dute erakundeek. Erantzun motzak nahiko dituzte. Genero indarkeriagatik egin dute ihes? Orain martxan «ez» dagoen gerra egoera batetik egin dute ihes? Inork ez ditu migratzaile klimatikotzat hartuko, ingurumen errefuxiatutzat: Ez datoz Ozeano Barean desagertu den irla batetik. Mapan ageri da.

Bizitza ahalbidetzen duten baldintza materialen besterentzeak, galerak, hutsala dirudi talde armatuen presentziaren aurrean. Zer axola dio orain merkurioak Magdalena ibaian, Telembí ibaian? Zer axola dio aita nekazaria izan bazen? Orain koka landareak dauden lekuan lehen juka bazegoen, lehen mandarinak bazeuden orain palma afrikarrak lurra beste 15 urterako lehortzen duen lekuan.

Zer dira, emakume migratzaileak? Errefuxiatuak? Oso litekeena da Asilo eta Babeslekuari Buruzko Ministerioarteko Batzordea (CIAR) emakume horiei nazioarteko babesa eskaintzearen kontra agertzea. Barne Ministerioak ezezko inprimakia errubrikatu¹ eta aurrera jarraituko du, ez dio arreta askorik eskainiko gai horri. Gauzak horrela, gutun bat iritsiko zaie: hamabost egun izango dituzte herrialdetik irteteko. Derrigorrezko irteera esaten zaio.

Materia dokumentalari eta Asilo eta Atzerriartasun legediei dagokienez, behin-behineko bizileku eta lan baimenak izango dituzte, nazioarteko babesa izapidetzen den artean eskaini ohi denez —*txartel gorri* desiratu. Dena den, baimen hori agortu egingo zaie haien kasuak argitu eta Espainiako Gobernuak, bere barne gaitako eskumenen bidez, asilo estatutua ukatzen dienean. Babes subsidiarioa bat eskaini liezaiekete. Haiei honako hau adierazteko modua litzateke: ez dugu uste errefuxiatuak zaretenik; baina uste dugu zuen jatorrizko herrialdera bueltatzen bazarete, zuen bizitzak arriskuan egongo direla.

Posible da nazioarteko babesa jasotzeko bi aukera horiek ukatu (asilo estatutua eta babes subsidiarioa jasotzekoa, Asilo legean jasota dauden biak²) eta erabakitzea bizileku baimena merezi dutela, ezohiko arrazoi humanitarioak tarteko. Baimen hori Atzerriartasun Legeak arautzen du³. Ez litzateke babes bat —Nazioarteko Zuzenbideari dagokionez—, baina dokumentazioa eskuratu ahalko lukete. Hori bera egin izan da Venezuelako herritarrekin eta, oso gutxitan, beste herrialde batzuetakoekin.

Ez da horrela izango: 2023an Kolonbiatik etorrirako 53.618 pertsonak eskatu zuten Nazioarteko Babesa Espainian. Barne Ministerioak 16.086 espediente ebatzi zituen, eta % 95ek baino gehiagok ezezko erantzuna jaso zuten. 724 pertsonak baino ez zuten asilo estatutua eskuratu, eta soilik 12 pertsonak lortu zuten babes subsidiarioa. 15.098 eskabidek jaso zuten ezezkoa. Eskuragarri dauden 2024ko datuei dagokienez, joera antzekoa da. Kolonbiatik ihesi hona iristen diren pertsonen % 96k jasotzen dute ezezkoa⁴.

Pasa den urtean Kolonbia izan zen, Venezuelarekin batera (zeinak 60.566 eskabide egin baitzituen 2023an), espainiar estatuari babes gehien eskatu zion herrialdea. Eskakizunen % 70 bi herrialde horietako herritarrek egin zituzten. Sorterri ohikoenen artean hirugarrena Peru izan da (14.314 eskabide). Ihes egin eta muga politika egun den heriotzaren ginkanan bizirauteko ranking horretan askoz beherago daude 4.000 eskabidetara iristen ez

diren herritartasunak: Honduras (3.694) eta Kuba (3.086). Horien ondoren ageri dira Marokoko, Nikaraguako eta Senegalgo pertsona errefuxiatuak.

BABESLEKUAREN KARAKTERIZAZIOA: DATUAK

Pasaden urtean EB-ak ⁵ (Europako Batasuna) 1.229.800 asilo eskabide jaso zituen⁶. Espainiak 163.642 jaso zituen. Pertsona errefuxiatu gehien jaso dituzten herrialdeen artean hirugarrena da, Alemania (351.510) eta Frantzia (166.880) ditu soilik aurretik.

2023an Espainian asilo eskaera egin zuten 163.642 pertsonetatik 77.423 ziren emakumeak, eta 86.219 gizonak. Txosten hau 2024ko uztailaren 31n itxi zen. Data horretara artean, urteko lehen 7 hilabeteetan 100.137 pertsonak lortu dute estatura sartu eta asiloa eskatzeko beraien eskubidea erabiltzea: 42.888 emakumek eta 57.249 gizonak. Horrek esan nahi du urtea bukatzean pasaden urteko zifra baino handiagoa izango dela aurtengoa.

Zifra hauek ulertzeko, honako hau da testuingurua: Errefuxiatuei laguntzeko NBEren agentziak (UNHCR) inoiz erregistratutako pertsona errefuxiatuen zifrarik handiena da, 110 milioi pertsona 2023 bukatu zenean (horietatik 63,5 milioi barne desplazatuak dira⁷). Israel Gazan egiten ari den genozidio odoltsuak 1,7 milioi pertsonaren barne desplazamendua eragin du. Halaber, 5,9 milioi pertsona errefuxiatu daude egun Nazio Batuen Erakundeak Ekialde Hurbilean Palestinako Errefuxiatuentzako duen Agentziaren agindupean (UNRWA, ingeleseko siglen arabera). Zenbaki horrek behartutako desplazamenduaren zati bat baino ez du erakusten. Indarkeria uholde horrek ia 39.000 pertsona⁸ hil ditu, Gazaren aurkako sarraskia hasi zenetik, txosten hau ixterakoan argitaratutako zifren arabera (10.000 gorpu gerra hondakin artean daude oraindik).

Gazaren aurkako erasoaldiak herritarren elkartasuna piztu du, Euskadin eta espainiar estatuko beste zenbait lekutan, bederen. Ezinbestean, jendea gure mugetarantz mugiarazi duten eta indarkeria zein behartutako desplazamenduak eragiten jarraitzen duten beste gatazka batzuk ere ikusarazi ditu; Afganistanen, esaterako, talibanek boterea hartu eta herritarren aurkako indarkeria areagotu dute. Nazio Batuetako adituek diote «genero apartheid»⁹ izan daitekeela. Horrez gain, Siriako gatazka armatua ere ikusarazi du honek guztiak.

Aylán umearen gorpuari duela hamar urte atara zioten argazkia, itota, hondartza batean. Jarraian datorren epigrafean ikusiko dugu hamar urte horietan pertsona errefuxiatuen kontrako muga politikak gaiztotu egin direla, Lotsaren Hitzarmena sinatu den arte¹⁰.

Afganistanek hartu zituen albistegi nazionalak izenburuak, Torrejón de Ardozera pertsona errefuxiatuz beteta iristen ziren hegaldien bidez. Ohiz kanpoko esperientzia izan zen, kontra egiten baitzion joera orokorrari; Europan nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea erabiltzen saiatzen diren pertsona errefuxiatuei aurre egiteko, muga politika errepresibo gero eta sofistikatuagoak heriotza baitu «defentsa» mekanismo.

Afrikan, Sudango gerrak milaka pertsona kanporatu ditu, baina oso gutxi iristen dira Espainiara. Senegaldik iristen dira askoz gehiago; tartean, zailtasun handiak igarotzen dituzte, bizitza asko galtzen dira, gorpu asko itsasoan. Kanarietara pasaden urtean iritsi ziren 40.000 pertsonetatik asko dira Afrikako herrialde horretakoak. Espainia eta EAERanzko migrazioan mugarria da. Testuinguru askotan kalean duten presentziagatik ezagutzen ditugu. Batzuek kale saltzaile gisa bizirauten baitute, *top manta* ere esaten diogu. 2022an eta 2023an herabeki hasi ziren nazioarteko babesa eskatzen, gobernu kolpistaren partetik errepresio bortitza bizi baitzuten: oposizioko buru nagusia atxilotu zuten, eta haren alderdia legez kanpo utzi. Gauzak horrela, egoera larritu egin zen. Jende gehiago hasi zen, ondorioz, handik ihes egiten. Txosten honetan aztertuko dugu.

Herrialde horietako bat bera ere ez dago iritsi eta Espainian nazioarteko babesa eskatzea lortu dutenen zifren zerrendan lehen postuetan. Aurrez aipatu dugunez, Espainiara iristea lortzen duten pertsona eskatzaile gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira. Gainera, jarraian ikusiko dugun gisan, gehienek jaso izan dute ezezko erantzun bat.


Ia asilo eskaera ia guztiak egin ziren lurraldean bertan. Horrek esan nahi du pertsonak estatura iritsi ondoren formalizatu direla, eta beraz, kontra dituen gerra makineria eta oztopo militar zein burokratikoak gainditu, mugetatik igaro, eta herrialdera sartu dela. Mugako postuei dagokienez, gehienak (3.386) Barajas¹¹ aireportuan formalizatu

ziren; hots, ofizialki espainiar estatua zapaldu aurretik. Mugako prozedura Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan (ABZ) ere erabiltzen da. Prozedura azkarra da, eta babes beharrak dituen pertsonarik ez sartzea du «xede»; zeina, batez ere, deportazio sistemarentzako funtzionala baita.

2023an Espainia bihurtu zen pertsona errefuxiatuei nazioarteko babesa onartzeko muga gehien jartzen zituen herrialdea, % 12,7ko erantzun positiboen tasa izan zuen, % 42ko Europako batez bestekotik oso urruti. 7.327 pertsonari eskaini zion asiloa. Babes subsidiarioko estatutua, aldiz, 88.063tik 3.833ri baino ez urte osoan.

1 GRAFIKOA

2023an estatu osoan aurkezturiko eskabideak guztira, aurkeztu ziren lekuaren arabera¹²:



1 TAULA

Barne Ministerioak 2023an nazioarteko babesa (asilo estatutua eta babes subsidiarioaren estatutua) emateko edo ez emateko sinaturiko ebazpenak¹³:

2023	HERRIALDEA	ERREFUXIATU ESTATUTUA	BABES SUBSIDIARIOA	KONTRA	EBAZPENAK GUZTIRA	% ALDE
1	Venezuela	34	0	124	40.851	0,1 %
2	Kolonbia	724	12	15.089	16.085	4,6 %
3	Maroko	273	0	3.787	4.060	6,7 %
4	Peru	88	0	3.197	3.477	2,5 %
5	Honduras	719	17	2.583	3.338	22,0 %
6	Mali	68	2.294	29	2.391	98,8 %
7	El Salvador	567	8	1.047	1.626	35,4 %
8	Nikaragua	833	0	462	1.298	64,2 %
9	Senegal	209	4	1.067	1.283	16,6 %
10	Afganistan	993	124	163	1.280	87,3 %
GUZTIRA		7.327	3.833	35.397	88.063	12,7 %

Iturria: geuk egina, Barne Ministerioaren 2023ko Estatistika Urtekariko datuekin.

2 TAULA

Barne Ministerioak sinaturiko ebazpenak, jatorri herrialdeen arabera, 2024ko uztailera arte¹⁴:

2024	HERRIALDEA	ERREFUXIATU ESTATUTUA	BABES SUBSIDIARIOA	KONTRA	EBAZPENAK GUZTIRA	% ALDE
1	Venezuela	7	0	115	13.577	0,1%
2	Kolonbia	378	0	8.560	9.132	4,1%
3	Peru	58	0	1.505	1.657	3,5%
4	Maroko	89	0	1.114	1.206	7,4%
5	Honduras	239	9	895	1.153	21,5%
6	Mali	24	760	13	797	98,4%
7	El Salvador	191	6	503	700	28,1%
8	Nikaragua	498	0	150	648	76,9%
9	Afganistan	352	53	200	605	66,9%
10	Brasil	4	0	385	389	1,0%
GUZTIRA		2.790	1.551	15.972	34.179	12,7 %

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren Asilo eta Babes Bulegoaren (ABB) datuetatik abiatuta.

UKRAINA ETA VENEZUELA, UKO POLITIKAREN SALBUESPEN

Uko politika hori ez zaie aplikatzen 2022ko otsailaren 24ko Errusiar inbasioaren ondorioz Ukrainatik ihes egin behar izan duten pertsona errefuxiatuei. Pertsona horiei Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua¹⁵ aplikatzen zaie. Erantzun hori martxan jarri zenetik aurtengo (2024) otsailera arte, Espainian 200.154¹⁶ behin-behineko babes estatutu izapidetu eta onartu zaizkie herrialde europarretik etorritako pertsonen. 2023an, zehazki, barne ministerioak 33.973 estatutu berri eman dizkie barne ministerioak gerratik ihesi iritsi direnei. Zuzentaraua horrela aplikatzea Zehar-Errefuxiatuekinek begi onez ikusten du, praktika ona dela deritzogu, eta beste herrialde batzuekin ere halako akordioak sinatu eta aplika daitekeela.

Orain arte ez da horrelakorik gertatu inoiz, 2001ean Zuzentaraua indarrean jarri zenetik gaur arteko historian¹⁷. Inoiz ez, munduko herrialde bat berarekin ere ez, gatazka armatu bat berarekin ere ez, ez axola larritasunak, EBren ardura politikoak, ezta gizartearen iritziak ere. Ez zen aplikatu Irakeko gerran, ez Siriakoan, ez Afganistangoan. Eta, noski, ez da orain, Gazaren aurka Palestinan gertatzen ari den sarraskiarekin ere aplikatuko. Errusiak Ukraina inbaditu duenean baino ez da martxan jarri. Guk, hala ere, ospatu egingo dugu martxan jarri izana.


Venezuelatik ihes egiten ari diren pertsonen ere harrera politika eredugarria jaso dute, zeina aplika bailitzaieke Kolonbiatik ihesean ari direnei eta indarkeriaren eraginez desplazatu behar duten beste herrialde batzuetako pertsonen ere. Aurreko urtean, jatorri venezolarreko 34 pertsonak baino ez zuten nazioarteko babesa jaso, Espainian eskatzaile gehien zituen herrialdea izan arren. Hala ere, nazioarteko babesa eskatzen ari diren jatorri venezolarreko pertsonen, oro har, bizileku baimena eskaintzen zaie, arrazoi humanitarioak tarteko, hala arautzen baitu Atzerriartasunari buruzko Lege Organikoak¹⁸ (LOEX): 40.693 pertsonak jaso zuten baimena 2023an, beste herrialde batzuetatik zetozen 813k baino ez.

2019an jarri zen martxan praxi hau. ABMBk berak erabakitzen du bizileku baimena ematea arrazoi humanitarioak tarteko, LOEXean jasota dagoen gisan, nazioarteko babesa ukatzen duten ebazpenetan. Baimen horien % 98,7 Venezuelako herritarrei eman zaizkie.

Garrantzitsua da azpimarratzea ez garelako nazioarteko babesaz ari, bi urterako bizileku baimenez baizik.

2 GRAFIKOA

Arrazoi humanitarioengatik bizileku baimenak (LOEX):



Iturria: geuk egina, Barne Ministerioaren 2023ko Estatistika Urtekariko datuetan eta Asilo eta Babes Bulegoaren datuetan oinarriturik.

NAZIOARTEKO BABESERAKO SARBIDEA ETA ONARPENA EUSKADIN

2024an (uztailaren 31ra arte), 4.596 pertsonak eskatu dute nazioarteko babesa Euskadin. Pasaden urtean 6.157 pertsonak izapidetu zuten nazioarteko babesa jasotzeko eskabidea Euskadin.

3 GRAFIKOA

Nazioarteko babesa jasotzeko eskabideak autonomia erkidegoka, 2023an eta 2024an¹⁹:

2023

1	Madrilgo Erkidegoa		52.696
2	Andaluzia		25.970
3	Katalunia		14.782
4	Kanariar Uharteak		8.653
5	Galizia		8.451
6	Valentziako Erkidegoa		8.050
7	Gaztela eta Leon		7.373
8	Aragoi		6.439
9	Euskal Autonomia Erkidegoa		6.157
10	Gaztela-Mantxa		5.787

2024 (Urtarrila-uztaila)

1	Madrilgo Erkidegoa		27.451
2	Andaluzia		15.455
3	Katalunia		10.935
4	Aragoi		5.306
5	Galizia		5.177
6	Valentziako Erkidegoa		4.664
7	Kanariar Uharteak		4.662
9	Euskal Autonomia Erkidegoa		4.596
9	Gaztela eta Leon		4.390
10	Gaztela-Mantxa		4.271


Iturria: geuk egina, Barne Ministerioaren 2023ko Estatistika Urtekariko datuetan eta Asilo eta Babes Bulegoaren datuetan oinarriturik.

2023an Euskadin aurkeztutako eskabideen artetik, 3.841 pertsonak Bizkaian eskatu zuten, 1.229k Araban eta 1.087k Gipuzkoan. 2024ko joera antzekoa da: urteko lehen zazpi hilabeteetan 2.898k eskatu dute Bizkaian, 851k Araban eta 847k Gipuzkoan.

Euskadiko joera estatukoaren parekoa izan da: 2015ean hasi zen gorakada, Siriako gerrak Europaranzko exodoa abiarazi zuenean. Ordutik, etenik ez du izan, pandemiako urteetan izan ezik. Tarte horretan, pertsonek sorterritik ihes egin eta kontinentean leku seguru batera iristea saihesteko murrizketak areagotu egin ziren.

4 GRAFIKOA

2017tik 2024ko uztailera arte Euskadin izan diren asilo eskatzaileen xehakapen historikoa:



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren Asilo eta Babes Bulegoaren (ABB) datuetatik abiatuta.


Datu hauetan Euskadiko polizia etxeetan asilo eskaera egin duten pertsona kopurua ageri da; ez, ordea, autonomia erkidegoan bizi den asilo eskatzaileen kopurua. Eskatutako plaza Nazioarteko eta Aldi Baterako Harrera eta Babes Sistema kudeatzen duen Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioak esleitzen du, eta eskabidea izapidetu den lekuak eta esleitzen zaien plazarenak ez dute zertan bera izan. Halaber, ez dute zertan babes eskabidea biziko diren lekuan egin baldin eta, egoera ohikoena den gisan, beraien baliabideei esker bizirauten badute.

Txosten hau itxi denean, ez dugu 2024 hasieran Euskadin nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen herritartasunari buruzko daturik, eta Asilo eta Babes Bulegoak (ABB) ez ditu 2023koak ere argitaratu. Zehar-Errefuxiatuekin esperientziak eta analisi historikoari esker, esan liteke estatuko datuen oso antzekoak direla; hots, gehienak Venezuela, Kolonbia eta Perutik iristen direla; horien ondotik, azken bi urteetako aldaketak aldaketa, Honduras eta El Salvador ageri ohi dira zerrendan; eta lehen hamar postuen barruan egon ohi dira Georgia eta Errusia, Siria, Nigeria, Mali eta Senegal herritartasunen arabera zein urtetako xehakapena izan eskuen artean: 2022koa, 2023koa edo 2024ko aurrerapena.

2017tik 2022ra igarotako bost urteetan nazioarteko babesa eskatu duten pertsona guztien artetik (eskuragarri dauden herritartasunaren arabera Euskadiri buruzko azken datuak), honako hau da jatorriaren arabera hurrenkera:

5 GRAFIKOA

2017tik 2022ra arte Euskadin izan diren asilo eskatzaileen xehakapen historikoa²⁰:



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren Asilo eta Babes Bulegoaren (ABB) datuetatik abiatuta.

Barne Ministerioak ematen dituen ebazpenei dagokienez, esanguratsua da Espainian eta EAEn nazioarteko babesak jasotzen duten zenbat pertsona bizi diren adierazten dutela, haien herritartasunaren arabera. 2023ko abenduaren 31n Asilo Estatutua eta Babes Subsidiarioaren Estatutua onartuta indarrean zeukaten pertsonak dira. Txikieria dirudi, baina datu hori aipatzen dugu, izan bailiteke aitoren hori duela bost urte baino gehiago jaso eta espainiar herritartasuna eskuratu duten pertsonak egotea, eta beraz, ez lirateke asiloari buruzko estatistiketan agertuko.

3 TAULA

2023ko abenduaren 31n nazioarteko babeserako estatutuen bat onartuta duten pertsonak²¹:

	HERRIALDEA	ESPAINIA	EAE	%	EMAKUMEAK EAEN
1	Nikaragua	2.587	394	15 %	177
2	Kolonia	2.945	196	7 %	118
3	Siria	17.239	172	1 %	69
4	Mali	7.931	156	2 %	1
5	Honduras	2.499	150	6 %	93
6	Afganistan	3.729	108	3 %	50
7	Marruecos	1.054	69	7 %	41
8	Ukraina	2.473	60	2 %	38
9	Palestina	1.221	59	5 %	13
10	Errusia	1.461	57	4 %	29
	GUZTIRA	58.133	1.909	3,3 %	866

Iturria: Geuk egina, Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioaren Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren (OPI) datuetan oinarrituta.

ABMBk ez ditu nazioarteko babeserako ematen dituen baimenak izapidetu diren autonomia erkidegoen arabera sailkatzen. Izan ere, eskabideei erantzutea Estatuaren eskumena da eta, orain arte, asilo prozedurari lotutako harrera sistema ere bai. EAEra nazioarteko babesak jasotzeko beharraz iritsi eta aldeko erantzuna jaso duten pertsonen buruzko datuak ez dira, bere horretan, eztaba daezinak, baina argazki bat egiteko balio dute: 2023 bukatu zenean, EAEn nazioarteko babesak jasotzen zuten 1.909 pertsona bizi ziren, horietatik 866 emakumeak ziren. Estatu osoan 58.133 eta 23.182 ziren, hurrenez hurren.

BRENDA SARTUKO AL DA ONARPEN ESTATISTIKETAN?

Brenda komunitate beltz batetik dator, Nariño departamenduko Barbacoas herritik. Roberto Payánen bere aitak lursail handi bat zuen, Santa Rosa izenekoa, bere aitak —diosku— bere amarentzat arrosa bat landatu zuelako behin. Nekazaritza ingurua zen, eta patatak, juka, mandarinak, platanoak, laranja landatzen ziren. Arrantzatik ere jaten zuten; horrez gain, meatzaritza artisauaren bidez Telembi ibaitik urrea eskuratzen zuten.

Urrea malkarretatik erauzten zen, produktu kimikorik erabili gabe. «Ibaiari errespetu handia genion. Erauzketarako ez zen teknika kimikorik erabiltzen». 80 eta 90eko hamarkadetan EEBetako enpresak sartu ziren arte. «Gizon zuriak ziren, nire aitak Einstein esaten zien». Bere ustez, ume bat besterik ez zela, oporretan joan eta urrea aurkitu zuten han. Eta orduan bai: produktu kimikoak, merkurioa, talde armatuak eta indarkeria iritsi ziren.

Urre ustiategiak eta lege kanpoko koka haztegiek legezko eta lege kanpoko eragileak erakarri zituzten. FARC, ELN eta beste hainbat talde paramilitar eta banda kriminal hasi ziren inguruan jarduten. Jatetxe bat eta Barbacoas eta Roberto Payan artean garraio negozio bat zuten, eta estortsioa jasan zuten, «mordida» ezaguna.

Brendaren kasuan, ezin izan dugu ikertu lehengaietan interesa zuten megaproiektuen sarrerak eta korporazio horiei funtzionala zitzaien indarkeriaren iritsierak loturarik ote zuten, komunitateak desplazatzen, lurra merkatzen eta gizartearen protesta isilarazten duenez. Ezin esan dezakegu. Esan dezakeguna zera da: herrialdean zehar leku askotan dokumentatu izan den modus operandia da, baita Latinoamerika osoan ere.

Tebaidara desplazatu ziren, Brenda artean umea zela. 13 urteko neskatoa zela, nerabezaroan sartu berri, oporretan Barbacoas aldera itzuli zirenean bortxatu zuten. Bere gurasoei mendeku hartzeko egin zuten. Bortxaketa horren ondorioz jaio zen bere lehen semea.

Vacuna eskatze hori, estortsioa alegia, Armenian (Quindio) ere errepikatuko zen urte batzuk geroago. Brenda gizarteko buru bilakatu zen, eta familietako ama ziren emakumeak laguntzen hasi zen, indar zitezen. Orduan, ordea, Brendak ordaintzeari uko egiteaz gain, beste batzuei ere lagundu zien estortsioaren aurrean men ez egiteko. Uko egiten dio diru sarrera hori talde armatuei emateari. Gainera, «estortsioak gora egiten duela eta inoiz ez dela gelditzen» azaltzen du.

Bilboko eztabaida taldeko saioan kontatu zigun bere seme nagusiari eraso egin ziotela, eta bera Kolonbiara joan zedin galdegin ziotela. Adierazi zuen bere erruz egin ziotela eraso, *vacuna* ordaindu nahi ez izateagatik; bera bere heriotzari errazago egingo liokeela aurre, baina bere semeak urruti eta arriskuan izatea askoz ere gogorragoa egiten zaiola.

Brendaren kasua Espainian asilo eskubidea ukatzeen zaien beste kolonbiar askoren kasu berdina da. Ez du komunitateen kontrako jazarpen eta kanporaketa dinamika «linealik», argirik erakusten, lurrez eta itsasoz zein guztien ondasunez gabetzearen ondorioz. Aurreko argitalpenetan ere landu izan dugun gaia da, eta txosten hau horri buruzkoa da. Meatzaritza enpresak eta talde armatuak erakarri zituen urre horren arrastoari jarraitu beharko genioke, gauza jakina dena begien bistara ekartzeko. Non ote dago?

NOIZ ESAN GENEZAKE DESPLAZAMENDU BAT BEHARTUA DELA?

Azaldu berri dugu Asilo Eskubidearen aplikazioa erabat murriztailea dela. Zehar-Errefuxiatuekin elkartean urteak daramatzagu argudiatzen premiazkoa dela interpretatzea biztanleriaren mugimenduak eragiten dituzten iturrien arabera eta nazioarteko zein eskualdeetako zuzenbideak dituen tresnen oinarrian dauden giza eskubideen arabera. Izan ere, saihestu egiten dira egun, Europako legedi gero eta murriztaileagoen mesedetan.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen markoan, desplazamendu bat behartua dela esateko, pertsona bat errefuxiatu bihurtzen duten ezaugarrien arabera aztertzen da; edo aztertzen da ea babesen bat jasotzea merezi ote duen, izan nazioarteko babesa zein barne desplazatu bati legokiokeena. Hala ere, irizpide argirik ez dago; ez dute ahalbidetzen definitzen edo zedarritzen desplazamendu bat giza eskubideen urraketa batek behartua ote den, eta zerk bereizten duen migrazio mugimenduen ohiko izaera hertsatzailetik. Tresna guztiek ez dituzte kausa berdinak biltzen —barne desplazamenduari dagozkionak zabalagoak dira, nahiz eta herrialde bakoitzeko legedietan murriztu egiten dituzten— eta migrazio mugimendu asko borondatezkoztat edo ekonomikoztat hartzen dituzte, nahiz eta behartutakoztat har daitezkeen, Zehar-Errefuxiatuekin elkartearen hainbat azterketa eta ikerketatan argudiatu izan dugunez²². Administrazioako praktikek eta ebazpen judizialek erabakitzen dute legediaren tresnak nola interpretatzen diren.

Giza eskubideak interpretatzeko joera horrek migrazio mugimenduen zati handi bat uzten du babesik gabe, juridikoki zaugarri. Hain zuzen ere, kolapso ekosozialean gauden eta garapen eredu estraktibista zalantzan jartzen ari garen honetan. Migrazio mugimenduak hain adierazgarri diren honetan.

BABESLEKUA: KONTZEPTUALIZAZIOA

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioak arrazagatik, erlijioagatik, herritartasunagatik, gizarte talde baten parte izateagatik edo politikari buruzko iritziz jakin bat izateagatik jazarpena jasateko beldur oinarriak dituen pertsonak errefuxiatutzat hartzen ditu.

Bereziki adierazgarria da «jazarpen» kontzeptua, «*jazarpena jasateko beldur oinarriak*» dituzten pertsonak baino ez baitira errefuxiatuak. Esan liteke, konbentzioaren aburuz, jazarpen kontzeptuak barne hartzen duela

edozein «kalte larri», jatorrizko herrialdeak eskaini beharreko babesean arrakalaren bat dagoenean. Egungo jurisprudentzian adostasun zabala dago: kalte larria edo jazarpena dela esaten da giza eskubideen bortxaketak larriak, jarraituak edo sistematikoak direnean.

«Motibazio» kontzeptua ere giltza da zedarritzeko zer unetan aitortu beharko geniokeen pertsona bati errefuxiatu izaera. 1951ko Genevako Konbentzioaren arabera, bortxaketa larri, jarraitu edo sistematiko hori jasateko arrazoiak artean arraza, erlijioa, herritartasuna, gizarte talde jakin baten parte izatea edo politikari buruzko iritziak daudenean baino ez dira errefuxiatuak. Genevaren joera da pertsonak babestea bazterkeria larrien ondoriozko giza eskubideen urraketaren aurrean. Horrez gain, azken interpretazioek ahalbidetu dute genero arrazoiengatik jazarpena ere asiloa jasotzeko kausatzat hartzea.

Afrikaren Batasunerako Elkartearen (ABE) 1969ko konbentzioak, 1966ko Bangkokoko Printzipioak eta Errefuxiatuei buruzko 1984ko Cartagenako Deklarazioak (azken bi horiek ez dute izaera loteslerik) zabaldu zuten gerora pertsona bat errefuxiatutzat hartzeko kausen zerrenda. Cartagenako Deklarazioak aintzat hartzen ditu kanpoko erasoetatik, indarkeria orokortutik, barne gatazketatik, giza eskubideen urraketa masibotik eta ordena publikoa larriki hausten duten bestelako egoeretatik ihes egiten dutenak. ABEn Konbentzioak eta Bangkokoko Printzipioek atzerriko okupazioa eta menderatzea ere jasotzen dituzte, eta jazarpen arrazoiak artean generoa, kolorea eta jatorri etnikoa ere gehitzen dituzte.

Genevan planteatu zirenez gain, beste jazarpen arrazoi batzuk ere gehitzen dituzte tresna hauek: giza eskubideen urraketa masiboa, indarkeria orokortua eta barne gatazkak, kasu.

BARNE DESPLAZAMENDUAREN BORTXAZKO IZAERA

Bestalde, 1998ko Barne Desplazamenduaren Printzipio Gidariekin definitzen dituzte barne desplazatutako pertsonak edo beraien etxeetatik zein ohiko bizilekutik ihes egin behar izan duten pertsona taldeak. Bereziki, gatazka armatu baten ondorioetatik edo haren ondorioak saihesteko asmoz ihes egin dutenak, indarkeria orokortuta dagoen egoeretatik joaten direnak, giza eskubideen urraketetatik edo hondamendi naturaletatik zein gizakiak eragindakoetatik salbu egon nahi dutenak, baina nazioartean onartuta dagoen estatuen arteko mugarik gairik ez dutenak.

2009ko Kanpalako Konbentzioan Printzipio Gidariekin darabiltzaten hitz berdinekin definitzen du barne desplazamendua; horrez gain, desplazamendu arbitrarioari aurka babesteko betebeharrak ere biltzen ditu (4.4. art.), Printzipio Gidarietakoekin alderatuta zenbait xehetasun aldatzen badira ere.

Kanpalak egin zuen ekarpen garrantzitsuenetakoa da parte hartzen duten estatuen betebeharrak gisa jasotzea estatuz kanpoko eragileen gaineko ardura, desplazamendu arbitrarioari kasuetan izan dezaketen parte-hartzeari edo konplizitateari dagokionez; eragile horien artean daude enpresa multinazionalak, segurtasun enpresa pribatuak edo militarrek. Halaber, jasotzen du miaketa jardueretan parte hartzen duten estatuz kanpoko eragileek arduraz joka dezaten bermatu behar dutela, baita desplazamenduak eragin ditzaketen baliabide natural zein ekonomikoak ustiatzeko orduan ere.

Kanpalako Konbentzioa loteslea den tresnarik berriena da, eta Hegoalde globaleko herrialdeetan egun dagoen baliabide naturalak kentzeko eta desjabetzeko testuingurura egokituta dago.

Zehar-Errefuxiatuekin, eta gurekin lan egin ohi duten beste hainbat egilek ere bai, azpimarratu dugu halako tresnek aukera eskaintzen digutela nazioarteko izaera duten antzeko mugimenduen berri izan eta zer ezaugarri dituzten ezagutzeko. Aipatzekoa da Europara nazioarteko babes bila iristen direnetako askok aurrez barne desplazamendua bizi izan dutela, Printzipio Gidarietan eta Kanpala jasotzen denaren arabera.

Hala, Desplazamenduaren Nazioarteko Zuzenbidetik eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidetik zenbait ideia laburbil ditzakegu, behartutako desplazamenduaren nondik norakoei buruzko zertzelada batzuk ematen dizkigutenak:

- Pertsonak Genevan jasotako jazarpen arrazoiak oinarritutako giza eskubideen urraketetatik ihes egiten dutenean (larria, jarraitua edo sistematikoa). Botila lepoa da hori, pertsona errefuxiatuaren definiziorik hertsiena.

- > Giza eskubideen urraketa masibotik, indarkeria orokortutik eta gatazka armatuetatik ihes egiten dutenean, zeina iruditeria kolektiboan pertsona errefuxiatuaren kontzeptua baita (Espainian behintzat); dena den, kontzeptu hori Genevan adostutako esparrua baino zabalagoa da. Cartagenak, ABEn Konbentzioak eta Bangkokeko Printzipioek aipatu diren beste kausa batzuk ere jasotzen dituzte.
- > Aipatu barne desplazamenduarentzako tresnetan honakoak planteatu dira: Katastrofe eta hondamendi naturaletatik zein gizakiok eragindakoetatik ihes egiten dutenak edo, horien ondorioz behar ez diren ebakuazioak jasaten dituztenak; eta interes publiko gorenak edo behinenak justifikatzen ez dituen eskala handiko garapen proiektuen ondorioz ihes egin edo desplazamendu arbitrarioa jasaten dutenak.
- > Printzipio Gidariak eta Kanpalako Konbentzioak hainbesteko interesa sortzea da barne desplazamenduari dagokionez erreferenteak direlako, mugak gurutzatzen dituzten desplazamenduei buruz hausnartzeko gida gisa balio beharko liguke.

Legez kontrakoa litzateke aldarrikatzea pertsona bat bere herrialde barnean desplazatutzat jotzeko nahikoa dela irizten den kausa batek kausa nahikoa izateari uztea nazioartean onartutako muga bat igarotzen denean?

EUROPAKO INSTANTZIEK IRITZIA EMAN DUTE GAI HONI BURUZ

EBko instituzioek hainbat gomendio eman dituzte. Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak, esaterako, estatu kideei eskatu diete aurrera pausoak eman ditzatela Barne Desplazamenduaren Printzipio Gidarietan oinarrituriko babeserako tresnen sorkuntzan, ingurumenaren degradazioak eragiten dituen behartutako desplazamenduei erantzuteko. Horrez gain, Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua aplikatzearen alde agertu da (aurrez aipatu denez, Ukrainatik ihes egin behar izan duten pertsonekin aktibatu orain), ingurumenaren degradazio gogorretik ihes egiten dutenak babesteko.

Horrez gain, komunitateak dituen tresnen bitartez eskain daitekeen babesa hedatzea ere proposatu du. Adibidez, Onespren Zuzentaraua aldatzea, klima aldaketaren ondorioak kalte larrien artean bildu ditzan; Aldi Baterako Babeserako Zuzentaruaren aplikazio eremua hedatzea; eta, gainera, Itzulera Zuzentaruaren berme gehiago sartzea, natura hondamendien kasuan itzulerarik egon ez dadin, eta bisa humanitarioak erabil daitezen.

Horien artean, gogoratu beharra dago 2021ean Europako Parlamentuaren Garapen Batzordeak «Klima aldaketak garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleria zaurgarriarengan duen inpaktuari buruzko txostena» (2020/2042 (INI)) argitaratu zuela, eta Batzordeari eta estatu kideei honako hau eskatzen diela bertan:

- > «(...) sustatu ditzatela Barne Desplazamenduen Printzipio Gidariak Batasuneko estatu kideetan eta hirugarren herrialdeetan aldebiko akordioen eta eskualde mailako akordioen bidez. Horrez gain, sustatu dezatela Europan eta haren ondoko herrialdeetan eskualde mailako tresnak sortzea, klimaren ondorioz desplazatu beharra duten pertsonak babesteko, eta Afrikan Batasunaren Konbentzioa Afrikan barne desplazatuak babestu eta haiei laguntzeko (Kanpalako konbentzioa) har dezatela inspirazio» (Europako Parlamentua, 2021).
- > «(...) eskain diezaietela babesa klima aldaketaren ondorioz herrialdearen parte bat edo osoa bertan bizitzeko egokia ez delako beraien burua ihes egin beharrean ikusten duten pertsonen; bereziki, bisa humanitarioak eskainiz eta aldi baterako zein epe luzerako onesprenaren bidez, edo jendea herririk gabe ez gelditzeko neurrien bidez» (idem).

Bestalde, Kontseilu Europarraren Parlamentu Biltzarrak 2009an dei egin zuen ingurumen migratzaile estatua onartzeari buruzko Europako Hitzarmen Markoa garatzeko, eta Estatu kideei proposatu zien 1998ko Barne Desplazatuaren Printzipio Gidariak eredu gisa erabiltzeko, ingurumen arrazoien ondorioz mugaz gaindiko pertsona desplazatuaren babesari buruzko marko globala garatzeko.

IZENDATZEA, GURE PROPOSAMEN POLITIKOA

Irtenbide egokiena ez da giza eskubideen nazioarteko markoaren araberakoa, lankidetzarako babes estalki egoki eta behar besteko bat ezartzeko borondate politikoaren araberakoa da; eta batez ere, Naomi Kleinek eta beste egile

batzuek ekonomia krimen deitu izan dioten horiek geldiaraztearen arabera. Krimen horien ondorioz, kapitala eta boterea inolako neurririk gabe metatzen dute gutxi batzuek, eta biziraupenerako ezinbestekoak diren ondasunak haien esku gelditzen dira, eta hauxe dakar: lurren jabetza metatzea, desplazamendu behartuak, defendatzaileen jazarpena eta hilketa, gizakien eta gizakiak ez direnen bizitzekin espekulatzea eta planeta suntsitzea.

Galdetu izan digute ea zertarako balio duen desplazamendu bat behartua dela argudiatzeak, gero ez baldin bada babeserako mekanismorik garatuko. Desplazamenduak nekropolitikaren parte direla ikusi behar dugu, eta ez gara mugekudeketaz eta «migrazio fluxuez» soilik ari; ari gara baliabidez gabetzeko estrategiaz, desjabetzeari buruz, ezkutuan eta indarkeriaz usurpatzeari buruz, zeinak, azken buruan, klimaren degradazioa eragiten baitu. Gizarte zibil antolatuak izendatzeko eskubidea erabili behar du. Mugitu beharra daukagu, garai hau geurea da, eta daukagun baliabideak eta ezagutzak erabili behar ditugu. Indarkeria ezin dute indarkeria eragiten dutenek definitu. Desplazamenduak zer ezaugarri dituen ezin dute desplazamendua eragiten dutenek adierazi. Saihestu egin behar dugu.

OHARRAK

1 Eginiko eskaera izapidetzea onartzen ez bada, Espainiatik derrigorrez irteten behar duzula aginduko da. Egoerari dagokionaren arabera itzulera, itzultzea, kanporatzea, derrigorrezko irteera edo asilo eskaera aztertzeako ardura duen herrialdera lekualdatzea izan daiteke, baldin eta ez badituzu Espainian egonaldia egiteko edo bizitzeko baldintzak betetzen.

2 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen.

3 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa aldatua, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa aldatua, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa aldatua, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa aldatua.

4 Kapitulu honetan aipatzen diren espainiar estatuko asilo eskaerei eta horiek jasotako erantzunei buruzko zifrak Barne Ministerioaren iturri ofizialetatik eskuratu dira (eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioarenetatik). Zifra horiek erkatu egin dituzte

Zeharreko langileek pertsona errefuxiatuen egoerari buruz eginiko azken txostenean. Kasu batzuetan ezinezkoa da zifrak bat etortzea, txosten honetan Barne Ministerioak argitaraturiko estatistika eguneratuagoak erabili baitira (2024ko abuztuaren 20an egin da kontsulta).

5 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**INFORME 2024. Las personas refugiadas en España y Europa**». EBko asilo-eskatzaileei eta errefuxiatuei buruzko zenbakiak txosten honetan eskuratu dira.

6 Datu hauek adierazitako denboraldian nazioarteko babeserako eskaera egin duten edo familiako kide gisa izena eman duten pertsonen kopurua adierazten dute. Lehenengo aldiz zein babesa berriz eskatu zuten pertsonak barne hartuta daude. Aurkeztutako eskaeretatik, 1.049.020 lehenbizikoak izan ziren, 2022an baino % 19 gehiago (881.230).

7 UNHCR-rek jada 2024ko maiatzean 120 milioi kontabilizatzen zituen.

8 France 24 (2024ko uztailak 20). «**Gaza registra casi 39.000 muertes tras nueve meses de ofensiva israelí**».

9 United Nations, UN News (2023). «**Afghanistan: Taliban 'may be responsible for gender apartheid' says rights expert**».

10 Giza eskubideen erakundeek eta aktibistek Migrazio eta Asilorako Europako Itunari hala deitu diogu.

11 CEAR, Urteko Txostena (2024). **«INFORME 2024. Las personas refugiadas en España y Europa»**. «2023an Espainiako muga guztietan 3.386 eskatzaile egon ziren, ZEHARek 2.325 lagundu zituen Adolfo Suárez Madrid-Barajas aireportuan, batez ere Kenya y Somaliakoak (585), Venezuelakoak (304), Kolonbiakoak (220), Marokokoak (150) eta Senegalekoak (117)».

12 Enbaxadako eskaerak asiloa familiari luzatzeko eskaerak dira, jada nazioarteko babesa lortu dutenen senideentzako.

13 Barne ministerioak emandako ebazpenen kopuru osoak arrazoi humanitarioetarako baimenak biltzen ditu, nahiz eta ez dan nazioarteko babeserako estatuto mota bat.

14 ibid

15 Kontseiluaren 2001/55/EK Zuzentaraua, 2001eko uztailaren 20koa, lekualdatuen etorrera handia dagoenean aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauetara buruzkoa, eta estatu kideen artean bidezko ahalegina sustatzeko neurriak, pertsona oriek hartzeko eta haien harreraren ondorioak beren gain hartzeko.

16 Moncloa, Prentsa-oharra (2023ko otsailak 26). **España supera las 200.000 protecciones temporales concedidas a ciudadanos ucranianos desde marzo de 2022.**

17 Kontseiluaren 2001/55/EK Zuzentaraua, 2001eko uztailaren 20koa, lekualdatuen etorrera handia dagoenean aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauetara buruzkoa, eta estatu kideen artean bidezko ahalegina sustatzeko neurriak, pertsona horiek hartzeko eta haien harreraren ondorioak beren gain hartzeko.


18 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerriarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, 8/2000 LO, 14/2003 LO eta 2/2009 LOk erreformatua

19 Enbaxadetan eta berriz finkatzean aurkeztatuko eskaerak ez dira kontuan hartzen.

20 Ukrainako datuak asilo eskatzaileei dagozkie eta ez aldi baterako babes eskatzaileei.

21 Ukrainiatik etorritako aldi baterako babes estatutua dutenak —eta arrazoi humanitarioak direla eta baimenak dituztenak— ez daude datu hauen baitan.

22 Celis Sánchez R. y Aierdi Urraz X., Cuadernos Deusto de Derechos Humanos Núm. 81 (2015). **“¿Migración o desplazamiento forzado? Las causas de los movimientos de población a debate”**.



EB 'BESTEEN' BIZITZAREN AURKA: ESTRAKTIBISMOA ETA MUGAPOLITIKAK

*Deserrotuak, klima-aldaketak behartutako desplazamenduen irakurketa kritikoa*¹ txostenean Ariadna Estevezek² behartutako desplazamenduaren nekropolitikari buruz eginiko analisiari heldu diogu, eta ikusi dugu behartutako desplazamenduaren xedea «jende pobre eta arrazializatua kapitalismo estraktibistarentzat eta hiperkontsumoarentzat» oztopo ez izatea bermatzea dela.

Estevezek azpimarratzen du, desplazamendua ondasun natural aberatseko lurraldeetan bizi diren pertsonen libratzeko ekoizpen prozesuaren emaitza dela, eta prozesu hori errazteko, halako lurraldeetan indarkeria kriminalak gora egiten duela. Sistemaren erraiak erakusten ditu eta azaltzen du zer mekanismok «instrumentalizatzen duten izu politikoa eta kriminala, [kapitalismo estraktibistaren] kontra agertzen diren komunitateak hiltzeko eta bizirauten dutenak eta desplazatzea lortzen dutenak hiltzen uzteko(...)». Ondorioztatzen du heriotza horiek irabaziak sortzen dituztela, eta atzean legezko zein legez kanpoko interes ekonomikoak daudela. Nekrobotereak hurrenkera neokolonialen arabera ordenatzen eta antolatzen du geografia: generoaren, herritartasunaren, etniaren eta klasearen arabera.

«Indarkeria neokoloniala; hots, erauzten dutenen eta jabetzak kentzen dizkieten arteko dominazioa, leku jakinetan gauzatzen da: ondasun naturalak erauzten diren lekuetan, gutxiengoaren segregazio legala denetan, subjektu arrazializatuak masiboki giltzaperatzen diren —kartzelak eta atxilotze-zentroak— eta eskala handiko krimen-jarduerak egiten diren —narkotrafikoa, sexu-esplotazioa eta pertsona-trafikoa—. Espazializazio nekropolitiko neokolonial hori sortzen laguntzen duen teknologia zuzenbidea da, eta ez salbuespen-egoera,».

2024ko ekainean Ekologistak Martxan taldeak eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL)-Bakea eta Duintasunak editatutako *Europar Batasuna eta kapitalismo berde militarra: estraktibismo neokolonialerako lehengaiak eta merkataritza-akordioak*³ txostenean, Juan Hernández Zubizarretak eta Pedro Ramirok Batasunaren estrategiak aztertu eta «gainbeheran dagoen potentzia» dela adierazten dute. Bertan azaltzen dutenez, pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondoren, «(...) balio-kate globalak eteteak eta energia- eta materia-hornidura eteteak, agerian utzi dute Europako metabolismo ekonomikoaren ahultasuna».

Egileen esanetan, kapitalismoaren barruan krisitik irteteko modu bakarra «esplotazio eta dominazio neokoloniala» areagotzea da, eta horretarako EBren estrategia «militarizazioa-mugak-estraktibismoa» hirukoa erabiltzea izango da.

Batasunak bere lehengaien % 62 inportatzen du, eta murgilduta dago ingurumen-kolapsoan eta gerren gorakadan; indarkeriatik ihes egin nahi dutenek errepresioa jasotzen dute ordainetan, ingurumena degradatzen ari da eta bizi-

baldintza materialak galtzen ari dira. Kapitalismo estraktibistaren buru diren eliteek «aurrerantz ihes» egin nahi dute, «oliba-berdez» mozorrotuta; Batasunak «enpresen dibidenduen bermeari gizarte- eta ingurumen-justiziari baino garrantzi handiagoa eman dio» eta eliteek energia-hornidura izango duela bermatzea dute xede.

EBn sustatzen ari diren auto-erreskaterako hiru estrategiak laburbiltzen dituzte: shock militarren doktrina (armagintza-industria suspertzearen eta ideologia militarra birlegitimatzearen bidez); kanpo-mugak «eta barnekoak» indartzea (ekintzaileen eta iragaitzazko pertsonen kontrako errepresioaren bidez); eta ofentsiba estraktibista neokoloniala. «Hirurak daude lotuta eta koordinatuta erabiltzen dituzte».

Europaren oinarriak esplotazio neokolonialaren gainean eraikiak izan direla ahaztu gabe, egileen ustez «gelditzen ziren balore europar apurrak desagerrarazi dira, jabe handien interesak bermatzeko gas naturalaren eta mineral kritikoaren hornidura bermatu beharragatik, mugak kontrolatu beharragatik eta deriba militaristaren aldeko apustua egin beharragatik».

2023ko bigarren seihilekoan Espainiako presidentetzak EBko Kontseiluari eginiko bultzada aipatzen dute. Izan ere, Sanchezek «akordio historikoak Europako proiektu komunean aurrera egiteko arrakastatsuak» izan zirela adierazi baitzuen, eta aipatutako gaietan «kontraeraso erregulatzaila» sustatu. Nabarmentzen dute paradoxa dela merkataritza-akordioak eta Batasunaren hornidura berma dadin blindatzeko egin beharrekoak zeinen azkar egiten diren eta, aldiz, ez dagoela gaitasunik Gazako genozidioa geldiarazteko ekintza eraginkorrik adosteko.

• «Halaxe ikus daiteke, beste behin ere, proiektu europarraren araudien asimetria: milaka arau eta jarduketa azkar eta irmo, interes komertzialak blindatzeko, eta bakarrik zenbait adierazpen eta neurri konkretu eraginkor bat bera ere ez, giza eskubideak defendatzeko».

Estraktibismoaren ardatzean, EBren estrategia komertziala aztertzen da, eta lehengai kritikoak eskuratzeko eta merkatu «berde» eta digital berriak sustatzeko interes geostrategikoak errepasatzen dira. Horien artean, Sanchezen gobernuaren bultzada aztertzen dute, kontseiluaren presidente izan zen agintaldian EBren eta Mercosurren arteko merkataritza-akordioa sinatzeko eta Txile zein Mexikorekin zituen hitzarmenak eguneratzeko. Lehen biei ere heltzen diete aztergai gisa.

Estrategia militarri dagokionez, Defentsari buruzko epigrafean, azpimarratzen dute Ukrainako errusiar inbasioak izan duen trataera politikoaren laguntzaz «armak bidaltzeak eta defentsa-aurrekontuak handitzeak onarpen orokortua izan duela Europako Batasunean». Munduko errekorrak gainditu ziren urte horretan, «Europako Batasuneko herrialde guztien gastu militarra % 16 igo zen denera, gerra hotzetik izan den gorakadarik handiena». Hernandez Zubizarretak eta Ramirok deriba militaristaren eta ofentsiba estraktibistaren artean lotura ikusten dute: «Titanioa eta aluminioa lehengai estrategikoen zerrendan sartu izana aeronautikaren eta armagintzaren lobbyen presioaren ondorio da. Eta *Global Gateway*⁴ lankidetzak publiko-pribatuko makro-programak merkataritzaren ardatza eta migrazioarena lotzen ditu sinatutako akordio askotan, batez ere Afrikako herrialdeekin sinatu direnetan». Europako Batzordeak ⁵Afrika-Europa estrategia-paketea lehen mugarritzat jo du, «150.000 milioi euro inguruko inbertsioa bideratuko baita bazkide afrikarrekiko lankidetzak sendotzeko».

Kanpo-mugak blindatzea izan da EB eta Schengen espazioaren sortzetiko elementuetako bat, eta Mauritaniarekin sinatutako akordioa da inbertsio ekonomikoaren, energia-horniduraren eta mugen kontrolaren arteko lotura estrategikoaren azken adibidea.

2024ko otsailaren 8an honako hitz hauek erabiliz eman zen akordioaren berri Moncloaren web-orrian: «Pedro Sanchezek jakinarazi du Espainiak hidrogeno berdearen garapenerako proiektuak sustatuko dituela Mauritaniari».⁶ Oharrean errepasoa egiten da: balore komunak, enpresa-inbertsio «berdea», Saheleko egonkortasunean herrialde afrikarrak duen rola, pertsona errefuxiatuen egoera eta legez kontrako Europaranzko immigrazioaren kontra borrokatzeko erronka.

Hiru agintariek, hots, Von der Leyenek, Sanchezek eta Mauritaniako Errepublika Islamiarreko presidentea Mohamed Ould Ghazouanik «legez kontrako Europaranzko migrazioak gora egin izanak sortzen dien kezka adierazi zuten», eta Europak eta Espainiak trafiko-sareak desagerrarazteko Mauritaniarekin lankidetzan aritzeko duten konpromisoaren



berri eman zuten. Gauzak horrela, azaltzen da garrantzitsua dela «Mauritaniako segurtasun-indarrei laguntzea, migratzaileen trafikoaren aurkako borrokan», eta horretarako «laguntza finantzarioa handitu eta FRONTEX europar agentziaren esperientziara joko dutela».

Hernandez Zubizarretak eta Ramirok zera salatzen dute: «Europako bi liderrek Nuakchoten iragarri zuten 500 milioiko pakete horren —EBren 210 milioi eta Espainiaren 300 milioi sektore pribatuari laguntzeko hainbat tresna finantzariotan banatuta— xede nagusia da migrazioak kontrolatzea da, baina baita energia-konpainien negozioak nazioartekotzea ere. Kooperazioa eta inbertsioa esaten diote, baina (mugen) kanporatzea, (lehengaien) erauzketa eta (espainiar enpresa handien) nazioartekotzea esan nahi dute.

Egileek 2023ko urriaren 5ean eta 6an antolaturiko Granadako Goi-bilerak hartu zuen norabidea ere aipatzen dute: zeina Espainia Kontseilu Europarraren buru zen garaian egin baitzen, eta anfitrioi lanetan aritu baitzen. Kontseilu horretan «aurrera pauso» batzuk egin ziren: batetik, EB ekialderantz zabaldu zen, eta Ukraina sartu; bestetik, Europako Migrazio eta Asilo Hitzarmena desblokeatu zen; eta azkenik, «kapitalismo berde eta digitalaren garapenari eusteko ofentsiba estraktibista» hasi zen.

Goi-bileraren osteko egunetan, Jesus Roiz Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkarteko kideak (APDHA) tristuraz eta ironiaz beterik *El Saltorentzako* artikulua idatzi zuen gai horri buruz, «Blindatzeari eta pertsona migratzaileen kriminalizazioari buruz»⁷ jarri zion izenburua: «EBko Presidentetza espainiarrari zegokion, beste puntu batzuen artean, Europako Migrazio eta Asilo Hitzarmenari buruzko eztabaida eta bozketa gidatzea. Esan liteke erabaki logikoa eta zentzuduna zela Europako estatuetakoko 51 buruzagi ekartzea. Ez zen lan zaila. Mediterraneoko eta Atlantikoko kostaldeetara bertaratu eta egunero bizitzak itotzen eta pertsona migratzaileengan izua pizten duen urari erreparatu besterik ez zuten egin behar».

Egileen esanetan, Batasunak hartu duen ikuspuntu berri hori justifikatzeko narrazioa hiru ideia nagusitan oinarritzen da: «Estrategia-autonomia, segurtasuna eta subiranotasuna». Egileek eskaintzen diguten analisiari erreparatuz gero, ondoriozta genezake autonomia eta subiranotasuna diotenean energien eta lehengaien hornidura jasotzeko ziurtasunari buruz ari direla, hots, EBko ekonomia-sektore estrategikoek behar dituztenei buruz. Horien artean dago armagintza-industria. Ez da kasualitatea, industria horrek bi betekizun garrantzitsu betetzen ditu-eta: aipatutako hornidura bermatzen du, eta industria horrek berak eragiten duen indarkeriatik, jabetzez gabetzetik eta degradaziotik ihesi datozenen kontra blindatzen ditu mugak. Zirkulu horrek elikatzen eta blindatzen du Batasunaren *statu quo*.

Babesari buruz ari garenean, segurtasuna botere korporatiboak blindatzera bideratzen da. Egileek Espainiako gobernuak eginiko ResilientUE 2030⁸ txostena aipatzen dute. Beraien ustez, segurtasun juridikoaren doktrina klasiko berreskuratzen da txosten horretan: «Merkatu bakarrak esparru juridiko komun, argi eta koherentea izan behar du, mugaz gaindiko jarduerak sustatuko dituen, Europako industria berritzaileei hazteko aukera emango diena eta inbertsioetarako segurtasun juridikoa sortuko duena».

Eta subiranotasuna Batasunarentzako beharrezkoak diren lehengaien hornidura «ziurtatzeari» dago lotua: «Ukrainako gerraren osteko European, subiranotasunak esan nahi du ekonomia-sistemari martxan eustea, Errusiak gas-hornidura etetearen aurrean. Gauzak horrela, EBk bere burua burujabetzat hartzen du, Persiako golkoko petromonarkien erregai fosilen eta 30 bat mineral kritikoren menpe badago, nahiz eta ia mineral horien meategirik ez egon Europako lurretan. Hain zuzen ere hori da merkataritza-hitzarmenak sustatzearen bidez bermatu nahi dena, Txinari kontra egiteko».

Europako Parlamentuan⁹ materia kritikoen erregelamenduaren onarpena organo legegilearen komunikatu baten bidez aurkeztu zen. Honako hau azpimarratu zuten egileek: «Funtsezko lehengaiak: hornidura eta EBren burujabetza bermatzea [...]» «Europa burujabe eta lehiakorreranzko bidea markatu dugu», nabarmendu zuen araua aurkeztu zuen hizlariak. Baina Batasunak aurreikusten duen eszenatoki egingarriena da bere lurretan erauzitako funtsezko mineral horien % 10 baino ez erabiltzea»

GIZA MUGIKORTASUNAREN GOBERNANTZA: INDARKERIAREN AZPIKONTRATAZIOA, ITXIALDIAK LEGITIMATZEA ETA NAZIOARTEKO BABESERAKO SARBIDEAREN GALERA

Txosten hau itxi den garaian eman da ezagutzera SMH euskal GKEaren Aita Mari¹⁰ ontziaren azken erreskatea, erdialdeko mediterraneoan egin duen hamahirugarren misioarena. Lau aste baino gehiago pasa dituzte Pasaian itsasontzia puntuan jarri eta itsasoan erreskatatzen dituzten pertsonentzako osasun-materialez, elikagaiez eta tresneriaz betetzen. Tarte horretan beraien lana publikoki txalotzen duten euskal politikari eta instituzioen bisitak jaso dituzte. Guztiek atera dituzte argazkiak 34 pertsona —gehienak Siriatic datozenak— hartu eta Italiak esleitzen dien kaira eramango dituen branka berean.

Ohiko argazkia egin dutenen artean, alderdi sozialistako kideek publikoki adierazi dute GKEak egiten duen erreskate eta laguntza humanitarioko lanaren aldeko jarrera dutela. Horrez gain, azpimarratu dute pertsonen duintasuna eta giza bizitza bakoitzaren balioa eztaba daezinak direla.

Ez da diputatuak eginiko adierazpen isolatu bat. Europako sozialdemokraziak eskuin-muturraren eta «muturreko eskuinaren» guztiz kontrako jarrera azaltzen du jendaurrean¹¹. Gorroto-diskurtsoak elikatu eta arrazakeria elikatzen duen indarkeria sinbolikoa ezin dira konparatu; aldiz, botere korporatiboaren alde eta harengandik ihesi doazenen kontra egiten dituzten politikak bai.

Giza bizitza bakoitzaren balioa negoziatu egiten da, batez ere «komunitateaz kanpoko» bizitza bat baldin bada eta, are gehiago, bizitza «arrazializatua» bada.

SHMren itsasontzia Libiako SAR inguruan ari zen nabigatzen¹², herrialde afrikarreko kostaldetik 40 bat miliara, arriskuan dagoen batela begiztatu duenean. Erreskatea hasteko autoritateei abisua eman ostean, Libiako hiru itsasontzi inguratu zaizkio, barruan kaputxadun gizon armatu batzuk zeramatzatenak. Bada, beraiek eraman dute batela behin erreskatea bukatu ondoren.

Italiako gobernuak 990 miliara dagoen Ravennako portua esleitu die, 1.700 km baino gehiagora. Bost eguneko itsasaldia dute aurretik, erreskatatu dituzten pertsonak lehorreratzeko. Pertsona horiek Libiatik ihes egin nahi zuten, eta gehienak Sirian dute jatorria, nahiz eta Egipto, Nigeria eta Bangladeshko gizonak ere bazeuden.¹³ Urrutiko portu bat esleitzea higadura praktika bat da, eta euskal GKEak urte asko daramatza horri aurre egiten. Praktika horrek erregaitan milaka euro gehiago ordaindu beharra dakar, eta zaila da hori finantzatzeko. Horrez gain, beste pertsona batzuk itota hil baino lehen itsasotik ateratzeari eskaintzen zaion denbora murrizten du eta, beraz, haien zaurgarritasun-egoera, tentsioa eta erreskatatutako pertsonen beldurra luzatzen.

Aita Mariren erreskate lanak setiatu dituzten gizonak libiar kostaldeko guardiaren parte izan litezke, edo milizianoak. EBk Libiari kontrataturiko «migrazio-kudeaketa» kontuan hartuta, aktore armatu legezkoek eta legez kontrakoek batera diraute lanean.

2023an mila pertsona hil eta 1.256 desagertu dira Libiako kostaldean. Amnistia Internazionalak salatu duenez¹⁴, «Europako Batasunak babesturiko kostazainek Libia mendebaldean eta Libiako Indar Armatu Arabiarrekin lotu izan den Libiako Itsas Armada Bereziak eta Tariq Ben Zeyad talde armatuak ekialdean 15.057 pertsona atzeman eta bueltatu zituzten Libiara».

2023 bukaeran Zehar-Errefuxiatuekin elkartearen bidez eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta Oñatin kudeatzen dugun Larraña Etxea harrera-etxera iritsi zen Togoko emakume bat, hona iristeko Libia eta Maroko igaro behar izan zituen: Waki. Libian bi urtez egon zen kartzelan. Giltzapean zeuden emakume horien gorputza eskaintzen zitzairen gauero haien zerbitzuengatik ordaintzeko prest zeuden bezeroei.

Libiako korridoretik igaro behar izan duten beste emakume asko bezala, Waki kartzelaratuta, ogiz eta urez elikatu eta prostituitzera behartu zuten. Beraien herriak uzteko kausak ez ziren inoiz aintzat hartu. Norbaitek Europara iritsi nahi duelako ustearen aurrean, indarkeria fisikoa, sexu-abusua, askatasun-gabetzea, desagerraraztea eta heriotza legitimoak dira eta finantzatuta daude.

Libian pertsona migratzaileen eta errefuxiatuen kontrako atxiloteta masibo eta arbitrarioak izaten dira, pertsonak baldintza penagarrietan kartzelaratzen dira eta tortura, bortxazko lanak eta lan- eta sexu-esklabutza ohikoak dira. Hala eta guztiz ere edo, agian, horregatik hain zuzen, 2017an Italiako Gobernuak, EBren babesarekin, Libiarekin Migrazioari buruzko Akordio Memoranduma sinatu zuen, Europaranzko migrazioa geldiarazteko. Lehen bost urteetan (2017tik 2022ra) itsasoan 82.000 pertsona errefuxiatu eta migratzaile atzeman eta Libiara bueltatu zituzten¹⁵.

Libiarekin sinatu zen akordioa da EBko estatu kideek duten kanporatze sistemaren adibide ikaragarrienetako bat. Izan ere, neurriak gogortu egin ziren 2015ean, Siriako gerratik (2013an hasi zen) eta Afganistango indarkeriaren gorakadatik ihesi Europara iritsi ziren pertsona errefuxiatuen igoerari erantzuteko. Pertsona arrazializatuen bizitzak negoziatu egiten dira.

2013an 45.298 pertsona iritsi ziren Italiara, Afrika Iparraldetik abiatu eta Mediterraneo Erdiguneko bidean zehar. Hurrengo urtean 170.664 izan ziren. Grezian eta Zipren 2013ko zifrak bikoiztu egin ziren, eta 50.834 pertsona iritsi ziren. Zifra hori 17 aldiz biderkatuko zen hurrengo urtean, 2015ean: 885.386 pertsona iritsi ziren, Mediterraneo Ekialdeko bidean zehar. Urte horretan Balkanen mendebaldeko bidetik ere askoz gehiago iritsi ziren: 764.033 pertsona, hain zuzen¹⁶.

Afganistan eta Siriatic ihes egin zuten pertsona errefuxiatuak ziren gehienak. Irteeren gorakada horri erantzuteko, 2016ko martxoan adostu zen EB-Turkia Adierazpena¹⁷. Akordio horretan herrialde mugakideak konpromisoa hartu Turkian barrena EBranzko itsasoko zein lehorreko migrazio-bide gehiagorik ireki ez zedin hartu beharreko neurriak hartuko zituela. Horren trukean, Turkiara bueltatutako siriar bakoitzeko, EBk Turkiatik iritsitako siriar bat birkokatuko zuen. Egeo itsasoko mugimendua murriztea lortu zen, baina Italiako kostaldera gero eta jende gehiago iristen zen, Mediterraneo Erdialdeko bideetan barrena.

CEARen arabera¹⁸ «Turkia da behartutako desplazamendua jasaten duten pertsona siriar gehien hartzen dituen herrialdea: ia 3,3 milioi. Aurreko urtean baino pixka bat gutxiago, 2023an Turkiako gobernuak milaka siriar Siria iparraldera kanporatzea erabaki baitzuen. Turkiako mugazainek inolako bereizketarik egin gabe egin zieten tiro siriar

jatorriko zibilei. Horrez gain, asilo-eskatzailleak eta Turkiara iritsi nahi zuten migratzaileak torturatu eta gehiegizko indarrez hartu zituzten». Mugetako indarkeriari buruzko dokumentazio asko dago, eta Human Rights Watchek salatu du¹⁹.

Orduan sinatu zen memoranduma Libiarekin. Haren helburua zen Europako mugen «sekuritizazioa», pertsona errefuxiatuen exodoari aurre egiteko. 2020an berriro egin zen memoranduma, eta 2025erarteko indarraldia du. Libiak migratzaileak atxilotu eta gas naturala ematen du. Giorgia Meloni ultraeskuindarrak hara eginiko lehen bisitaldi ofizialean haxe adierazi zuen: «Libia lehentasuna da Italiarentzat, mediterraneoaren orekarentzat, Italiaren segurtasunarentzat eta Europak begien bistan dituen erronkenezat, energiaren krisia, kasu».²⁰ Adierazpen horien ondotik akordio bat itxi zuten bi herrialdeek, 8.000 milioi dolarreko gas-ekoizpenerako.

Hernandez Zubizarretak eta Ramirok beste bi akordio ere aipatzen dituzte: Europako Batasunak Tunisiarekin sinaturiko akordioa, Von der Leyenek, Ruttek eta Melonik adostu zutena 2023ko udan, «mugak kontrolatzeko lana azpikontratatzeko, migratzaileak desertuan hiltzen uzteagatik ardua kriminala onartuta»; eta 2024ko martxoaren erdialdean Egiptorekin adostutakoa, «Europako Batzordeko presidentek Cairora bidaiatu zueneko, Italia eta Greziako gobernuburuen laguntzaz, diktadura militar bati 7.400 milioi —Global Gatewayren izenean— emateko, Israelek desplazatu eta Gazako genozidiotik ihesi zihoazen pertsonak blokeatzearen truke».

ESPAINIA, AITZINDARIA ETA LABORATEGIA

EBren praktika sistematiko bat da, askok salatu izan dutena eta konplexua fiskalizatzen, eta Espainia aitzindaria da horretan. «1990eko hamarkadaz geroztik, Espainia aitzindaria da mugen tradiziozko nozioaren deseraikuntzan; horretarako, bere lurraldera doazen migrazio-bideen kontrola kanporatu egiten du», azaldu du Gustavo de la Orden ikertzaileak²¹, eta García Andrade aipatu du bere «Asilo-eskubidea Europar Batasuneko kanpo-mugetako migrazio irregularraren kriminalizazioaren aurrean: Espainia ikertzeko kasu» doktore-tesian.

Schengen Espaziora atxiki zenetik, hegoaldeko muga gisa duen kokapen geografikoagatik, Espainiak rol garrantzitsua du mugak lurraldetik kanpora ateratzeaz eta deslokalizatzeaz gain, mugen kontrola eta asilo-politika azpikontratatzeko.

Espainiari dagokionez, *subjektu migratzaile eta errefuxiatuaren* kriminalizazioak izan duen bide luzea elikatu izan da, besteak beste, behar-beharrezko duen lagun baten bidez: Marokoko Erresuma. Bertara sartzeak zein legez kontrako egonaldiak egiteak kartzela zigorra dakarte. Halaber, herrialdetik «klandestinoki irteteak» ere zigor bera dakarkio bertako zein kanpoko edonori. Horrez gain, aipatu horiek egiteko laguntza eskaintzea ere jazarri egiten da. Hainbestearino, ezen pertsonak klandestinoki garraiatzeak biziarteko kartzela-zigorra baitakar, pertsona horiek bidean bizia galtzen badute²².

Giza-bizitza bakoitzak duen balioa negoziatu egiten da. Etengabe negoziatzen da eta, are gehiago, pertsona errefuxiatuak, orokorrean, Europako Batasunerantz eta, bereziki, Espainiarantz «igortzeko» edo igarotzen uzteko susmagarri izan daitezkeen herrialdeekin egiten den negoziazio oro baldintzatzen du gai horrek —negoziazioa gai horri buruzkoa ez denean.

• «[...] urbazterreko Estatuek eta erakunde europarrek Espainiak erabili errezetekin erantzun diote egoerari: sekuritizazioa, militarizazioa eta mugak kanpora ateratzea»; gerra-diplomazia da, eta forma asko hartzen ditu: hesiak, teknologia militarra, nazioarteko lankidetzaren baldintzatzea, atxiloketak eta kartzelaratzea, itsasoan jendea atzematea, desagertuak, arrazakerian eta patriarkatuan oinarritutako muturreko indarkeria darabilten herrialdeetara jendea deportatzea eta herrialde seguru batera iritsi eta nazioarteko babesa eskatzeko eskubideaz gabetzea.

Lehentasunezko estrategia izan da Espainia Europako Komunitatera (EK) 1986an sartu zenetik, eta etenik gabe inplementatu da popularren zein sozialisten gobernupean. Kriminalizazio-logika da, eta jendea arbitrarioki kartzelaratzea izan dezake ondorio —edo are larriagoak diren beste indarkeria mota batzuk. Izan ere, oraindik gertatu ez den arau-hauste administratibo bat egiteko susmagarri izatea du oinarri: Espainiaren bitartez EBn sartzea.

Espainiak Afrikako geografian aplikatu dituen kanpo-politikei dagokienez, «mugen segurtasunak» behera egin du —De la Ordenek hala adierazi zuen—, kontinentearen iparraldetik Saharaz hegoaldeko herrialdeetara, lankidetzakordio formalen (parlamentuaren baimenarekin eta baimenik gabe) eta informalen bidez (sarbide publikoa oztopatu du horrek). 2006tik aurrera, Espainiaren kanpo-politikak bat egin du EBk eta Afrikako, Karibeko eta Pazifikoko 69 herrialdek 2000. urtean Cotonoun sinatutako elkartzeko-akordioarekin. «(...) Cotonouko Akordioaren 13.5 artikulua ezartzen du, lankidetzak-helburuak bermatzeko xedez, estatu guztiek hartzen dutela konpromisoa “EBren estatu kide batean legez kontra bizi den herritar ororen itzulera onartzeko, estatu horrek hala eskatzen badu, eta inolako izapiderik egin beharrik gabe”. Ondoren, 2002an Sevillan egin zen Kontseilu Europarraren bileran adostutakoak eskatzen du EBk beste edozein herrialderekin egiten dituen lankidetzak- edo elkartzeko-akordio guztietan zein horien baliokidetasun klausula bat sar dadila migrazio-fluxuen kudeaketa komunari eta legez kontrako etorkinak nahitaez berriz onartzeari buruz»²³.

Giza eskubideen aldeko elkarteek Afrika Planari (I, II eta III)²⁴ buruz eginiko hainbat analisik eman dute horren berri. 2023an, Oxfamen «Garapenetik disuasiora?»²⁵ txostenak Libian, Nigerren eta Tunisian mugak kontrolatzeko Europako lankidetzak funtsak erabiltzea salatzen zuen, zehazki: «EBk garapenerako aurrekontuetatik gero eta diru gehiago bideratzen du migrazioa oztopatzen duten jardueretara, eta jarduera horiek giza eskubideak arriskuan jar ditzakete, migrazio seguru eta legezkora sustatu eta horren bitartez ekonomia indartu beharrean» txostenak Libian, Nigerren eta Tunisian mugak kontrolatzeko Europako lankidetzak funtsak erabiltzea salatzen zuen, zehazki: «EBk garapenerako aurrekontuetatik gero eta diru gehiago bideratzen du migrazioa oztopatzen duten jardueretara, eta jarduera horiek giza eskubideak arriskuan jar ditzakete, migrazio seguru eta legezkora sustatu eta horren bitartez ekonomia indartu beharrean».

IBILBIDEEN BLOKEOA ETA KRISI HUMANITARIOAK: KANARIAR UHARTEAK

2015 eta 2017 artean Europako Batasunak, Italiak eta Greziak iragaitzazko pertsonen kontrola kanporatzeko akordio gehiago sinatu zituzten, eta Mediterraneo erdialdeko eta ekialdeko sARBIDEAK blokeatu zituzten. Ondorioz, migrazio-bideak mendebaldera igaro ziren. «(...) Espainia gero eta iritsiera gehiago hasi zen erregistratzen: penintsula hegoaldeko kostaldera itsasoz iristen ziren, eta lehorretik Ceuta eta Melillara». Aurreko urteekin konparatuta, Espainiara iristen zen jende kopurua bikoiztu egin zen 2017 eta 2018an; % 50 baino gehiagoko igoera izan zuen bi urte horietan»²⁶.

Gora egin zuten Maroko eta Algeriaren bidez Mediterraneo mendebaldetik iristen zen pertsona kopuruak eta Senegal, Gambia, Mauritania, Maroko eta Mendebaldeko Saharatik Kanariar Uharteetara iristen zenak.

2018ko uztaillean Pedro Sanchez presidente aukeratu berria zen Espainiako gobernuburua, eta Valentziako portua 31 herrialdetako 630 pertsona erreskatatu zituen Aquarius itsasontziari ireki zion, Salvinik Italiako portuak ixtea agindu ondoren. Ameskeria besterik ez zen izan, hurrengo urteetako muga-politikari erreparatuz gero.

Hurrengo urtean, 2019an, legez kontrako iritsierak % 50 murrizteko xedez²⁷, Espainiako Gobernuak mugatu egin zuen Itsas Salbamenduak bilaketa- eta erreskate-lanak egiten dituen eremu geografikoa, eta Marokoko agintariei egotzi zien horren erantzukizuna, nahiz eta gertakariak bere eskumeneko itsas eremuetan gertatu. Espainiak ez zuen erreskaterik egiten Marokorekiko muga-lerrotik harago, baina herrialde alaiak badu muga hori igarotzeko baimena, migrazioa «kontrolatzeko» operazioak egiteko.

«2021ean Espainia bihurtu zen itsasoz migratzaile gehien jasotzen zituzten herrialdeen artean bigarrena, Italiaren atzetik, eta mundu mailako migrazio-biderik hilgarriena. Gehienak Kanariar Uharteetara iritsi ziren, eta Ozeano Atlantikoko bideak arrisku handiagoak dituzte mediterraneokoek baino. Irtsiera kopurua ez da Italiaren mailara iristen, heriotza-ratioa bai».

Ezinezkoa da neurtzea zenbat pertsonak ez duten bidaia horri bizirautea lortu. Estatistikak beti geldituko dira motz. Lehenik eta behin, zifrek ez dutelako bizitzarik kontatzen eta haien dolua egiten laguntzen. Hondoratutako itsasontziek ez dute aztarna materialik uzten, nazioarteko uretan itotako gorpuak ez dira errekupe ratzen. Familiek ezin dituzte beraien hildakoak lurperatu.

OIMk, Missing Migrants Project-en bidez, 2014tik 2024ko uztailera 34.800 hildako pertsona²⁸ zenbatu ditu denera Grezia, Italia eta Espainiaranzko mediterraneoko bideetan eta Kanarietarako bide atlantikoan. 8.600 Espainiara

iritsi nahian hil ziren²⁹. Zifra horiei beste 6.200 pertsona inguru gehitu behar zaizkie, Sahara basamortuko eskualde erraldoia gurutzatzen hil direnak.

Ca-minando Fronteras³⁰ erakundeak jasotako datuei erreparatzen badiegu, 2018tik 2024ko maiatzera Espainiaranzko bideetan 23.200 biktima izan dira, izan Balearretara, Kanarietara, Ceutara edo Melillarakoetan. GKE horren hildakoen zerrendak OIMk argitaratutako datuak hirukoiztu egiten ditu. Kanariar Uharteetarako bide atlantikoa da hilgarriena, eta 18.680 biktima izan ditu.

Bizitzeko eskubidea monitorizatzen txostenetan jasotako zifrak lehen lerroan eginiko lanaren emaitzak dira. Pertsona migratzaileen, jatorriko komunitateen eta biktimen familien testigantzak jaso dituzte.

Bideari bizirautea lortu zutenen artean, 2023an, 56.852 pertsona iritsi ziren estatura legez kontrako bideetatik. Zifra horrek 2018koa gainditu egiten du, eta % 80ko igoera dakar 2022arekin alderatuta. CEARK³¹ Barne Ministerioaren³² datuak aipatuz azaltzen duenez, iritsi ziren pertsonen % 98 itsasoz iritsi ziren. Horrez gain, hamarretik zazpi, hau da, 39.910 denera, Kanarietarako bide atlantikotik.

Gauzak horrela, Europara itsasoz eta legez kontra sartu ziren 292.985 pertsonen % 19 Espainian erregistratu ziren. «Aurreko urtearekin alderatuta, iritsiera kopuruak % 48,4ko igoera izan zuen. 2016tik (Siriako irteera masiboaren urtea) jasotako kopururik handiena. 2023an Europara legez kontra iritsitako pertsona guztien % 90 itsasoz izan zen, eta % 9 baino ez lehorretik. Pertsona gehienak Italiara (% 54), Espainiara (% 19) eta Greziara (% 16) iritsi ziren. 2022arekin alderatuta, 2023an bide guztietatik iritsi dira pertsona gehiago».

ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONA ASKOK, ZERGATIK EZ DUTE MUGAK LEGEZ KONTRA IGAROTZEA BAINO BESTE AUKERARIK IKUSTEN?

Iritsieren gorakada ez zaio jatorrizko herrialdeko baldintzei soilik lotzen —Senegal ikergai gisa jorratuko dugu—, eta ibilbideen buxadura bisatuen politikarekin lotuta dago berez; bisatuen politika da pertsonak beren bizitzak arriskuan jarri beharko dituzten ibilbideei ekitera bultzatzen dituen lehen oztopoa. Beraiek ez dute hobeto bizitzea edo, askotan, seguru bizitzea besterik nahi.

EEren 539/2001 Erregelamenduak herrialde zerrendak ditu. Herrialde batzuetako pertsonen lista ³³eskatzeko (blacklist), eta beste batzuetakoei ez (whitelist). Ez dira jazarpen-egoerak eta babes-beharrek aintzat hartzen. Salbuespenetan ere ez zaie erreparatzen babes-beharrei. Afrikako herrialde guztietako pertsona denei eskatzen zaie bisa sartzeko, baina kontsulatuak ez dute ia bulegorik betekizun hori izapidetzeko, ezta baldintzak betetzen dituztenei emateko asmorik ere.

Aipatuaz gain, Espainiak beste oharkabeko politika bat ere erabiltzen du: herrialde seguru batera iritsi eta nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea erabiltzeko aireko bideak aurkitzen dituzten pertsona errefuxiatuei igarobide-bisak eskatzen dizkie. CEARK salatu du³⁴: «kezkarria da Barajas aireportuaren gehiegizko okupazioari [2024an salatu ziren pilaketa-uneei erreferentzia eginez]³⁵ aurre egiteko neurriak nazioarteko babesa behar duten pertsonak airez ez iristeko erabili izana. Horretarako, aireportuetako igarobide-bisak eskatu zaizkie Kenyako (2024ko urtarrilaren 24tik aurrera) eta Senegalgo (2024ko otsailaren 19tik aurrera) pasaportearen zuten pertsonen, justu eskatzaile gehien zituzten herrialdeak ziren une horietan». Praktika hori etengabe erabili dute gobernu popular zein sozialistek pertsona errefuxiatuen kontra. Aireportuetako igarobide-bisen eskariak aktibatu eta mantendu egiten dira Burkina Fasotik, Siriatic, Yemendik eta Palestinatik ihes egiten dutenentzat, besteak beste.

KANARIETARA IRITSIERAK 2023AN

CEAREk azken «Espainian eta Europan errefuxiatutako pertsonen egoerari buruzko txostena» txostenean adierazi duenez, 2023an Kanariar Uharteetara iritsitako pertsona kopuruak —39.910 pertsona, 610 ontzitan—³⁶ ez du aurrekaririk 2006ko «kayukoen krisia» deritzona izan zenetik. Orduan 31.678 pertsona iritsi ziren artxipielagora. Erakundearen hitzetan, «iragarrita zegoen larrialdi baten kronika da, 30 urte geroago». 2022an eta 2023ko lehen seihilekoan izandako beherakada egozten die «alaukiako erresumaren eta Espainiaren arteko migrazio-arloko akordio ekonomiko eta politikoei³⁷ indartu dituzten Marokon eta Mendebaldeko Saharan migrazioari eusteko hartutako

neurriei». Marokoko Barne Ministerioaren datuak aipatzen ditu. Diotenez, 2023an «75.184 legez kanpoko migrazio-saiakera» saihestu zituzten, eta itsasoan 16.818 pertsona erreskatatu³⁸.

Beste batzuk ez zituen inork erreskatatu, eta askoren gorpuak desagerturik diraute. 2023an, Kanariar bidea soilik aintzat hartuta, gutxienez 959 pertsonak bizia galdu zutela erregistratu zen. Haietako 20 haurrak ziren³⁹. Caminando fronterasen arabera, 6.000⁴⁰ hildako eta desagertu baino gehiago izan dira. Zifrek zenbaketak baino ez dituzte islatzen. Pertsona askok adierazten dute, beraien bidaia kontatzen dutenean, beste ontzi batzuk desagertzen ikusi dituztela. Ontzi batean, batez beste, 65 pertsona sartzen badira—2023ko datuetan oinarrituta eginiko kalkulua—, zenbat bizitza beltz galdu diren irudikatze hutsa edonor dardaraka jartzeko modukoa da. Beraien familiek gorpuak berreskuratu ezin izatea, dolua ezin ixtea, lurperatu ezin izatea indarkeria adierazezina da.

Artxipielagora iristea lortu zuten gehienak senegaldarrak ziren: 17.000. Gainontzekoak marokoarrak (6.120), maliarrak (5.560), ganbiarrak (4.450) eta, neurri txikiagoan, ginearrak eta bolikostarrak⁴¹. CEAREk azpimarratzen du gero eta gehiago direla emakumeak migrazioan eta bide oso maskulinizatu horretan. Halaber, adin txikiak beraien kargu dituzten gizonak ere gero eta gehiago dira —lehen ez zen halakorik gertatzen. Azkenik, bidaiari bakarrik ekiten dioten gero eta nerabe gehiago ere iristen dira. Horien iritsierak, gainera, gobernu zentralaren eta autonomia erkidegoen artean beste arrakala batzuk zabaltzen ditu, baita sozialdemokraziaren, eskuin-muturraren eta muturreko eskuinaren artean ere.

KANPORATZEA ETA ERREPRESIOA

Pertsona migratzaileak giltzaperatzeko politika berezkoa izan du atzerriartasun politikak. De la Ordenek Rodríguez Candelaren analisia⁴² aipatzen du, eta esaten du 1933ko Alfer eta Gaizkileen Legeak «kanporatze-agindu bat urratu zuten eta arriskutsutzat jotzen zituzten atzerritarrentzako zigor gisa barneratzea agintzen zuela», zeina ABZen aurrekari izan baitzen.

Pertsona migratzaileak eta errefuxiatuak atxilotzeko tresnen artean, Atzeritarrak Barneratzeko Zentroek (ABZ) askatasunez gabetzeko espazioen funtzioa betetzen dute. Etorkinak Behin-behineko Barneratzeko Zentroek (EBBZ), aldiz, berez mugatuta dauden inguruetan dauden espazio irekien funtzioa. Halako tokietan, askatasunez gabetzeko lana geografiak berak eta penintsulara igarotzeko iruzurrezko murrizketek egiten dute. Arau-hauste administratibo bat egin duten pertsonak askatasunez gabetzea funtzionala da lurraldetik kanporatzeko sistemarentzat eta pertsona arrazializatuen kriminalizazio zigortzailearentzat zein kontrol sozialarentzat.

Ceuta eta Melillako hesiak Espainia Schengen espaziora sartu ondoren eraiki ziren, eta Europaren eta Afrikaren arteko lehorreko muga hori Europako inguru zainduenetakoa bilakatu zen. Euste fisikoari eta legez kontrako egoeran dauden pertsonen penintsulara joatea eragozten dien ad hoc ezuzenbide baten inplementazioaren ondorioz, egile batzuek diote hiri autonomoetako EBBZk ABZen luzapenak direla.


Nahiz eta mugaldean dauden, edo horregatik hain zuzen, Ceutak eta Melillak ez zuten asilo-bulegorik izan 2015ean errefuxiatu siriarrak iristen hasi ziren arte. Migratzaileek asiloa eskatzeko aukerarik ez izatea zuen xede jokabide politiko horrek. Gainera, Tarajalen dagoen Ceutako asilo-bulegoa ez zen erabili 2019ra arte. Besteak beste, Siriatik, Iraketik, Palestinatik, Yemendik eta Tunisiatik ihesean iristen ziren pertsonen Melillan formalizatu ahal izan zituzten asilo-eskaerak ordutik aurrera. Horretarako aukerarik ez zuten izan Saharaz hegoaldeko Afrikatik iristen zirenek. Pertsona beltzek sartzea debekatua izan dute beti. Marokoko agintariak galarazi egiten diete Espainiaren agintepeko muga-postuetara iristea.

Tarajalgo ⁴³gertakarietan 15 pertsona hil ziren itota, Guardia Zibilak Ceutara iritsi nahi zuten pertsona talde baten aurka egin zuen erasoaren ondorioz. Gertakari haien ondoren, estatuak *beroan egindako itzulketak* ere legeztatu egin zituen. Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoak lege-babesa ematen dio Guardia Zibilaren ohiko jardunari, hau da, «egitatezko bidetik eta inolako prozedurarik gabe Marokoko agintariei Espainiako lurraldean atzeman dituzten atzerriko herritarrak entregatzeari».

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek⁴⁴ bermerik gabe egindako euste- eta kanporatze-neurriak errazteko eta legitimatzeko, migratzaileak bermerik gabe kanporatzen dituzte —‘arbuio’ gisa legeztatua— eta de facto sartzen ez

GRAFIKOA 1

EBren ESTRATEGIAK, Juan Hernández Zubizarreta y Pedro Ramiroren analisia oinarri hartuta (2024).
"La Unión Europea y el Capitalismo Verde Militar: Materias Primas y Acuerdos comerciales para el
Extractivismo Neocolonial". Ekologistak Martxan eta Observatorio de Multinacionales en América Latina
(OMAL) - Paz con Dignidad.



ESPLOTAZIO HARREMANAK ETA MENDERATZE NEOKOLONIALA

EBak estraktibismo neokoloniala
areagotzen du mugak militarizatzen,
lehengaiak ziurtatzen eta enpresen
interesei lehentasuna ematen, natura eta
gizarte justiziaren gainetik.



MILITARIZAZIOA

Shock militarren doktrina, armen industriaren indarberritzearekin eta ideologia militarren legitimazioarekin.



MUGAK

EBren herrialdeen kanpo eta "barne" mugen indartzea.



ESTRAKTIBISMOA

Garapen ekonomiak dituzten herrialdeen ustiaketa dakarten estrategien indartzea.

uzteko fikzioa erabiltzen dute, zeinak muga Espainia aldeko hesien ingurueta hedatzen baitu. Beroan egindako itzulketek berezkoa dute nazioarteko babesa eskatzeko aukera ukatzea, «ez-itzulketaren printzipioaren» berme oro deuseztatzen dute eta, taldekakoak direnean, urratu egiten dute kanporatze kolektiboak egiteko debekua.

Arbuio-erregimen berezia dute Ceutak eta Melillak, errepresiorako eskubidea beren beregi diseinatu. Mozal Legea izenez ezaguna den lege hori Alderdi Popularraren gobernuak sustatu zuen, eta gobernu sozialistari ere balio izan diola argi dago. Izan ere, kanpainen hura indargabetzeko eman zuen hitza ez betetzeaz harago, Melillako sarraskiak argi eta garbi erakutsi zuen muga-ingurueta indarkeriaren inpunitateak gora egin duela⁴⁵.

2022ra arte, eta Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak zuen jarrera errepikakorrari aurka eginez, Ceutako eta Melillako asilo-eskatzailleak penintsulara lekualdatzea eragozten zuen politika orokorraren menpe zeuden. Gainera, asilo eskubidea erabiltzeak EBBZetan geldirik igaro beharreko epea luzatu egiten zuen.

CATEAK AL DIRA ESPAINIAKO HOTSPOTAK?

2018an beste tresna bat jarri zen martxan, ABZe «laguntzeko» estatura Andaluziako eta kanarietako kostaldetik itsasoz sartzen diren pertsonak identifikatzen eta kokatzen. De la Ordenek azaldu duenez, EBBZe gain «CATEak [Etorkinentzako Behin-behineko Arreta Zentroak] egoten dira itsas-mugetan. CATE horiek ez dute euste-neurririk, itsas espazioak zaintzea baino; azken urteotan, migrazio-presio egoerak bizi izan dituzte, eta ezin izan diote iritsiera guztiei behar bezala aurre egin, baliabide nahikorik ez baitzegoen eskuragarri».

Nahiz eta erregulazio juridikorik eta erregelamendurik ez izan martxan, normaltasunez inplementatu da, eta finkatzen joan da, Kanariar Uharteek 2020tik bizi izan duten iritsieren gorakadari aurre egiteko. Ez dira ahaztu behar, besteak beste, pasa den urtean Arguineguín⁴⁶ gertatutakoa. Izan ere, 2.600 pertsona baino gehiago atxiki zituen poliziak kaian, Herriaren Defendatzailearen bitartekotza iritsi eta Barranco Secoko poliziaren kanpamendura lekualdatu zituzten arte. Gerora, denda militarren ilara hori prefabrikatutako moduluen truke aldatu zuten, Europako Batzordeak «harrera» egituretara bideratu zituen 13,5 milioien zati bat jaso ondotik.

POLIZIA NAZIONALAREN POLIZIA-ETXEEN HEDAPENA

Barne ministerioak berak adierazi duenez, CATEek polizia-etxeek duten antzeko funtzionamendua dute⁴⁷. Pertsonak identifikatu egiten dituzte, eta itzulketa-prozedurara (hala badagokio, ABZn barneratzearen bidez) edo asilo-prozedurara bideratzen dituzte. Hala, eraginkortasuna handitu egiten da, «azkarrago eta merkeago itzultzen dira». «Itsasoz iritsi ondorengo prozedurak dibertsifikatu egiten dira pertsona migratzaileen herritartasunaren arabera» —adierazi du De la Ordenek— «baita haiek kanporatzeko aukera materialen arabera ere». Herriaren Defendatzaileak praktika hori gaitzetsi du Tortura Prebenitzeko Mekanismo Nazionalaren urteroko txostenetan⁴⁸, eta azaldu du prozedura dibertsifikatzeak herritartasunaren araberako tratua eragiten duela.

De la Ordenek bezala, Iker Barberok⁴⁹ ere bat egin zuen CATE plataformen operatiboarekin, Europako Batzordeak 2015ean «Grezia eta Italiara iristen ziren migratzaile andana kudeatzeko» aurkeztu zuen ikuspegiarekin (*hotspot approach*); herrialde horiek «fronteko lerroa» zirela esaten zuen, eta Europako agentzien sare osoa (Frontex, EASO, Eurojust, etab.) ezarri zitzaizen gainean «legezko asilo-eskatzailleak» erregistratu (register), sailkatu (screening) eta legez kontrako migratzaileengandik bereizteko (debrief) —Italian gelditu behar zirenak eta berehala kanporatu behar zirenak bereizteko—; eta lan zaila zen hori».

Campesiren hitzetan⁵⁰, «euste-logika» bat, «konfinamendu-logika» bat, eta «dispertsio-logika» bat ikusten ditu. Administratiboki, legez kontrako migratzaileak eta asilo eskatzailleak bereiztea eragiten du horrek, kategorizazio ofizial-polizial baten bidez, «Europako Batzordeak eta Immigrazioari eta Asiloari buruzko Hitzarmen berriak ezarritakoaren ildotik»; baita «Ceuta, Melilla eta Kanariar Uharteak atxilotze-makrozentro bihurtzea ere». «Espainiak erakutsi nahi du Hegoaldeko Mugaren zaindari ona izateko gaitasuna izan duela, dela eta izango duela» itxi du Barberok.

Bi egileek Campesi aipatzen dute⁵¹, eta ondorioztatzen dute CATE direlakoek «arautu gabeko mekanismoak irudikatzen dituztela, eta horien bidez segurtasun logikak instituzionalizatu nahi direla».

ESKUIN MUTURREKO HITZARMEN BAT, EUROPAKO SOZIALDEMOKRAZIAK ONARTUA

Waki Libiako kartzela batean sistematikoki bortxatzen zuten urte horietan eztabaidatu ziren Europako Migrazio eta Asilo Hitzarmenaren azken puntuak. Mugak giza eskubideen babes-estandar baxuak edo ezdeusak zituzten herrialdeei azpikontratatzeko politikak gogortzea zuten xede, pertsona arrazializatuen kontrako errepresioa gauzatzeko prest zeuden herrialde horiei.

Aurrez azpimarratu den gisan, Espainia Ministroen Kontseiluko buru izan zen 2023ko uztailetik abendura, seihileko bakoitzean txandakatzeko sistemari esker. Institutio horretan, EBko ministroak «kolegegile» lanetan aritzen dira, Europako Parlamentuaren ondoan. Espainia buru zen artean, «Krisi-egoeretarako erregelamendua» adosteko prozesuan aurrera egin zen, eta blokeatuta zeuden negoziazioak behingoz martxan jartzea lortu zen. Izan ere, Hitzarmen horrek dituen hamar araudietatik, horri eta beste biri buruz estatu kideek zeuzkaten desadostasunen ondorioz blokeatuta zeuden —asilo-prozedurei eta asiloaren eta migrazioaren kudeaketari zegozkienak.

Desblokeatu izana Espainiako presidentetzaren lorpena izan bailitzan aurkeztu zuten Moncloan. Fernando Grande-Marlaska Barne Ministroaren hitzetan, «EBren etorkizunerako giltza den gai batean aurrera pauso ikaragarria⁵²» egin zen. Aurrerapen ofizialak dio estatuen arteko «elkartasuna» sartu behar dela modu irregularrean sartzen diren pertsonen kudeaketarako eta asilo-eskaeren azterketarako, erantzukizunaren pisu guztia lehen lerroan dauden herrialdeen gain eror ez dadin; ikusiko dugunez, elkartasunetik gutxi du honek guztiak.

Migrazioari eta Asiloari buruzko Hitzarmen Berria 2024ko maiatzaren 14an onartu zuen Kontseiluak. Europako hauteskundeak egin aurretik onartzeko erronka betetzea lortu zen, non aurreikusten baitzen —hala gertatu zen— eskuin muturrak gorakada handia izango zuela. Beldur ziren, Polonian eta Hungarian gertatu den gisan, eskuin muturreko gobernu berriek hura onartzeari uko egingo ziotelakoan.

Hitzarmen horrek ustez Schengen espaziora iristeko ahaleginetan ari direnen aurkako errepresioa sofistikatzeko du, eta asilo-eskubidea kanporatzen. Nazioarteko babesaren beharra duten pertsonak kriminalizatzeko estrategiaren beste aurrerapauso bat da, are *zehatzagoa*.

«Migrazio- eta asilo-fluxuen kudeaketa» politika neokoloniala da, eta mugak lekualdatzeaz gain, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen marra gorriak eta konpromiso politikoak ezereztzen ditu; errepresio-neurrien ondorioak pertsonak desagertzea eta hiltzea dira, eta neurri horiek Europako proiektu politikoari eusteko berezko zutabeak dira. Europako Migrazio eta Asilo Hitzarmena, oinarrian, eskuin-muturreko hitzarmena da, eta Europako sozialdemokraziak onartu egin du.

Araudi guztien transposizioa da integrala, eta PPren, PSOEren eta Ciudadanosen aldeko botoa jaso dute⁵³, haien Europako talde parlamentarioen bidez. Voxek ere alde bozkatu du kanpo-mugetan hirugarren herrialdeetako herritarren kontrola arautzen duenean eta European Asylum Dactyloscopy Database (Eurodac) erakundearen bidez aurrekari penalei eta zaintza digitalari buruzko informazioari dagokionean. Unidas Podemos eta Esquerra Republicana de Catalunya araudi guztien aurka agertu dira, 'Batasuna Birkokatzeko eta Onarpen Humanitariorako Markoa' ezartzen duenaren aurka izan ezik, horren alde agertu dira; eta abstenitu egin dira nazioarteko babesaren eskatzaileak hartzeko arauak ezartzen dituen erregelamenduari buruzko bozketan. EAJk bi araudi horien alde bozkatu du, eta abstenitu egin da beste guztietan.

CEARek salatu duenez, hitzarmenaren helburua da pertsonarik ez iristea eta, iristen badira, ahalik eta lasterren kanporatzea. Grezia eta Italiako *hotspot* setan jada egiten den eta etorkizunean Andaluziako eta Kanarietako CATEetan egingo dela aurreikusten den gisan, aurretiazko azterketa bat egiteko prozedura txertatu da («screening»), sarbideari dagokionez aurretiazko onargarritasun-kontrola egiteko eta asilo eskariak izapidetzeko.

Muga-prozedurak kanpo-mugetatik harago hedatzeak eta ez sartzeko fikzioaren aitzakiaz prozedura azkarrak aplikatzeak ez dute argi uzten asilorako prozedura zein tokitan egiten den: igarobideetan, muga-postuetan edo atxilotze-zentroetan. Ezin da baztertu prozedura EBtik kanpo egitea⁵⁴. «Ez sartzearen» fikzio juridikoaren helburua da justifikatzea pertsona bat «ez dela Europar Batasunera iritsi harik eta estatu kideak baimena ematen dion arte, Europako lurretan egon arren, eta horrek Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta nazioarteko beste hitzarmen batzuk urratuko lituzke⁵⁵».

Asilo-prozedura azkarra orokortzearen oinarrian dago EBra iristen diren pertsona gehienek babes beharrik ez dutelako ustea «Muga-prozedura aplikatzeko, kontuan hartu ahalko dira —CEARk salatzen duenez— herritartasunaren arabera onarpen-tasa eta «hirugarren herrialde segurua» kontzeptuaren aplikazio diskrezionala. Gauzak horrela, ez itzultzeko printzipioa urratzeko benetako mehatxua mahai-gainean dago», eta pertsonak herritartasunaren arabera mailakatzeko jarraitzen da.

Horrela finkatzen da Europarazko bidea egin duten pertsonen kontrako atxilotetaren gehiegizko erabilera, sartzea lortzen ez badute ere. Bitxia dirudien arren, «ez sartzearen fikzioa» finkatu egin da Europako mugak igaro dituzten pertsonen jasan beharreko prozedura gisa —Ceuta eta Melillan «arbuioa» aplikatzen den gisan—, eta bermeren bat eskaintzen duen prozedurarik gabe utzi ditu; horrez gain, kriminalizazio zigortzailea ere finkatu egin da igarobideetan, eta pertsonak atxilotu eta deportatu egiten dituzte egin ez duten arau-haustek aitzaki hartuta, Europara sartu nahi dutelako aitzakiaren izenean.

«Nahierako» elkartasun mekanismoa jarri da martxan, «malgua». Horren bidez, herrialde europarrek jendea «ez jasotzeko ordaintzea» finantza dezakete, estatu kideek asilo-eskariak aztertzeko daukaten ardura zehazteko irizpideak jartzeko aurrera egin beharrean. Horrek, CEAREN esanetan, areagotu egingo du «Espainia eta mugako beste herrialdeek duten presioa. Gainera, herrialde horiek beste ardura batzuk hartu beharko dituzte orain, aurretiazko sarbide-kontrolen prozeduraren ondoriozkoak, eta mugan egin beharreko asilo- eta itzulera-prozedurei dagozkienak», Marlaskak bere garaian ospatu zuenaren kontrara.

UKRAINA VS KANARIAK

2001etik indarrean dagoen Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua 2022ko martxoaren 4an aplikatu zen lehen aldiz, Errusiak Ukrainari eraso egin eta astebetera. Desplazamendu masiboek erantzuteko sorturiko mekanismo hau ez zen ordura arte inoiz martxan jarri. Giza eskubideen aldeko elkarteok hura martxan jartzeko eskatu genuen Irakeko errefuxiatuak babesteko, Espainiak eta beste herrialde europar batzuek Estatu Batuen inbasioarekin bat egin zutenean —gogora ekar dezagun Azoreetako bilera lotsagarri hura—, eta biztanleria kalera irten zen gertakari hari gerraren kontrako erantzun argia emateko.

Siriatik ihes egin zuten pertsonak babesteko ere ez zen martxan jarri. Baliabide ekonomikoak eta materialak zein giza baliabideak eskaini ziren Estatuko Harrera Programa zabaldu eta beraiei kabuz iristen ziren pertsonen erantzuna emateko. Gobernuak kideak inaugurazio-argazkietan agertzen ziren, baina sistematikoki egin zioten uko birkokatze-akordioak betetzeari. Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua aktibatzeaz gain, aurrez azaldu den gisan, errefuxiatu gehiago iritsi ez zedin, indarkeria kanporatzeko eta azpikontratatzeko akordioak indartu eta zabaldu egin ziren: Aylánen antzera, haur asko Europako politiken ondorioz itota hil ziren.

Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua 2022an Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz Espainiara iritsi ziren pertsona ukrainarrentzat jarri zen martxan eta pertsona horientzat eskuragarri ziren giza baliabide zein baliabide material kantitateak ez du antzeko aurrekaririk. Harrera, Abegi eta Bideratze Zentroak (CREADE) jarri ziren martxan Madrilan, Bartzelonan eta Alacanten, izapideak 24 ordutan egin ahal izateko; eta autonomia-erkidego guztietan zabaldu ziren orientazio-baliabideak.

Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioak harrera sistemari 21.000 plaza gehiago emateko esparrua eta baliabide ekonomikoak eman zizkion. CEARk azaltzen duenez, aurrekaririk gabeko lankidetzak gertatu zen administrazioen (estatuak, autonomia-erkidegoetakoak eta tokikoak) eta eragile publiko eta pribatuen artean, eta erakundeen arteko koordinaziorako espazioak sortu ziren; halako espazio intersektionalak ere eratu ziren, eta gizarte zibileko erakundeek ere parte hartu zuten horietan. Udalek jarrera proaktiboa erakutsi zuten, eta pertsona ukrainarrei ahal bezain laster eskaini zieten gizarte eskubidetarako sarbidea; osasun arreta jasotzeko, hezkuntzarako eta kirolerako izapideak azkar egin zitzaizkien. Horrez gain, jendearen elkartasuna ere presente egon zen: pertsona ukrainarrak beraiei etxeetan hartu zituzten, eta beraiei enpresetan lan egiteko kontratatu.

Hori guztia posible izan zen Ukrainatik ihes egin zuten pertsonak Espainiara segurtasunez eta inolako izapide-legalik gabe sar zitezkeelako. Pentsa zenbateraino erraztu zitzaizen sarbidea, ezen Europa alderik alde gurutzatzeko trenak ere dohainik izan baitziren beraientzat. Aldi baterako babesa eskuratu ahal izatea ez zen beraiei baliabide pertsonalen edo setioaren eta indarkeriaren aurrean bizirauteko zeukaten gaitasun fisiko indibidualaren menpe gelditu.

CEAREK⁵⁶ adierazi duenez, pasa den urtean, Espainiak beste emergentzia egoera bat bizi izan du, itsasoz iritsi den pertsona kopurua asko hazi delako. «Oraingo honetan, nazioarteko babes sistemaren erantzunak ez die pertsona horiei leku seguru

baterako lekualdatzerik eskaini, ezta mugitzeko askatasunik ere, eta Administrazioen edo gizartearen aldetik ez da egon elkartasun keinu handirik ere».

2022ko abendutik 2023ko uztailera, Migrazioen Estatu Idazkaritzak mugatu egin zuen nazioarteko babes-eskatzailleen zirkulazioa Arreta Humanitarioko Programako **57** baliabideetatik nazioarteko babesaren harrera-sistemaren balorazio faseko baliabideetara igarotzea, barneko jarraibide baten bidez. 2023ko uda iritsita, beste instrukzio batek murrizketa hori indargabe utzi zuen eta «penintsulako nazioarteko babeseko harrera-sistemara helarazten hasi ziren, Kanariar Uharteetan babesgabetasun egoerak saihesteko asmoz **58**».

2023ko urriaren 11n, Gobernuak larrialdi-egoera deklaratu zuen, eta Arreta Humanitarioko Programarentzako plazen ohiz kanpoko finantzazioa, Kanarietatik penintsulara pertsonak lekualdatzea eta artxipielagoko egoera arindu eta etorkizuneko porturatzeei lekua egitea ahalbidetu zuen. Kanarietatik iristekoak ziren pertsona horiei harrera egiteko borondaterik ez zuten erakutsi autonomia erkidegoek eta udaletxeek, ezta gizarteak ere, CEAREk zehazten duenez; horrez gain, administrazio jakin batzuek, izan autonomikoez zein tokian tokikoez, pertsona haiei harrera egiteari uko egin zioten **59**.

Arreta Humanitarioko Programaren esparruan, Inklusio Ministerioak Larrialdi, Harrera eta Deribaziorako Zentroak (CAED **60**) jarri zituen martxan 2023aren amaieran, eta uharteak arintzeko egitura iraunkorrak ezarri zituen penintsulan. 3.700 plaza baino gehiago ireki ziren eta Merida, Cartagena, Madril (Alcala **61**) eta Carabanchel) hirietan banatu ziren; zehazki, erabilerarik ez zeukaten hiru kuarteletan eta Meridako Udalak utzitako aterpetxe batean. Ministerioak emandako aurrerapenen artean, honako hau irakur daiteke **62**: «*Larrialdi, Harrera eta Deribazio zentroaren lehen fasea martxan da, Alcala de Henaresko "Primo de Rivera" kuartelean*», zegokion prentsa-oharra.

Laguntza humanitarioko programetan militarren lursailak egokitu ziren, eta egonaldiak mugatu —hirutik hilabetera—, harrera egiten zitzaizen pertsonen errotazioa errazteko. «Gidalerro horrek, harrera egin zitzaizen pertsonak babesgabetasun handiko egoeretan utzi zituen» **63**. Aldaketak ez ziren horiek soilik izan. Immigrazioaren Arreta Humanitariorako eta Gizarte Inklusiorako Zuzendaritza Nagusiak (DGAHISI) zazpi aldaketa egin zituen Arreta Humanitarioko Programaren bitartez Kanarietako egoerari erantzuteko ezarritako instrukzioetan.

Etenik gabeko aldaketek eta egonaldiak murrizteak, CEAREN hitzetan, «eragin negatiboa izan zuten gizarte-erakundeek pertsona horiengan egin zuten esku-hartzean; izan ere, zaurgarritasunak zeintzuk ziren antzematea zaildu egin zen eta artatutako pertsonen gizarte-erakundeengan zuten sinesgarritasunean eragin zuen horrek». Egoera horri gehitu behar zaio asilo-eskaerak izapidetzeko hitzorduetan zailtasunak eta atzerapen handiak egon zirela, eta harrera-sisteman sartu ahal izateko ezinbesteko baldintza zirenez, «eragotzi egiten ziren nazioarteko babes-plazetatik irteten aurretik prozedura eskuratu ahal izatea, eta, beraz, haietako asko babesgabetasun handiko egoeran geratu ziren».

OHARRAK

1 Zehar-Errefuxiatuekin (2023). «**Deserrotuak, Klima aldaketak behartutako desplazamenduen inguruko interpretazio kritiko bat**»

2 Estévez, Ariadna (2022). «**El proceso necropolítico de la migración forzada. Una conceptualización de la producción y administración del refugio en el siglo XXI**». Estudios Políticos (Antioquiako Unibertsitatea), 63. 243-267 or.

3 Juan Hernández Zubizarreta eta Pedro Ramiro (2024). «**La Unión Europea y el Capitalismo Verde Militar: Materias Primas y Acuerdos comerciales para el Extractivismo Neocolonial**». Ekologistak Martxan eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL) - Bakea eta Duintasuna

4 Europako Batzordea. Strategy and Policy, Una Europa Más fuerte en el Mundo - **Global Gateway**.

5 Europako Batzordearen atariaren arabera, «Global Gatewayk lotura jasagarri eta fidagarriak sustatzen ditu pertsonentzat eta planetarentzat». Munduak dituen erronka premiazkoenei aurre egiten laguntzen du: klima-aldaketaren kontrako borroka, osasun-sistemak hobetzea eta munduko hornidura-kateen lehiakortasuna eta segurtasuna hobetzea. Ikus: **Plan de recuperación para Europa - Europako Batzordea**

6 Moncloa, Presidentearen Jarduna (2023). «**Pedro Sánchez presenta las prioridades de la Presidencia española del Consejo de la Unión Europea**».

7 El Salto Diario – **Andaluzia (2023ko urriak 16)**. «**De blindajes y criminalización de las personas migrantes**».

8 Honako hau ageri da Moncloaren web-orrian: «Pedro Sanchez jarduneko gobernuko presidentek CEOEren **Resilient EU2030** egoitzan eman du jakitera energia-, osasungintza- eta elikadura-sektoreetan zein teknologia digitalen sektorean Europako Batasunaren erresilientzia eta lehiakortasun globala indartzeko Espainiako Presidentetzaren proposamena».

9 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1252 (EB) Erregelamendua, 2024ko apirilaren 11koa, funtsezko lehengaien hornidura seguru eta jasangarria bermatzeko markoa ezartzen duena.

10 2024ko uztailaren 15eko **Post maydayterraneo**, X-Twitter.

11 Hernandez Zubizarretak eginiko aipamena. Ekonomia- eta migrazio-politikei dagokienez, eskuin-muturra, muturreko eskuina eta zentro-muturra konparatzen ditu.

12 Itsas espazio mugatua da, zeinaren barruan erreskate-lanak Libiaren ardura diren.

13 Tercera información (2024ko uztailak 15). «**Aita Mari rescató esta madrugada 34 personas la mayoría de ellas procedentes de Siria**».

14 Amnistia Internazionala (2023). "Perspectiva Regional: Oriente Medio y Norte de África".

15 Amnistia Internazionala (2022ko otsailak 1). «**Libia/UE: Las condiciones siguen siendo "infernales" cuando se cumplen cinco años de los acuerdos de cooperación de la UE**».

16 FRONTEX, **Monitory and Risk Analysis**.

17 Kontseilu Europarra, prentsa-adierazpena (2016ko martxoa). **EB-Turkia Adierazpena, 2016ko martxoaren 18a**.

18 CEAR, Urteko Txostena (2024). **2024 TXOSTENA .Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».

19 Human Right Watch (2023). «**Turkish Border Guards Torture, Kill Syrians**».

20 Governo italiano, presidenza del Consiglio dei Ministri (2023ko urtarrilak 28). **Dichiarazioni con il Primo Ministro al-Dabaiba, l'intervento del Presidente Meloni**.

21 De la Orden, Gustavo (2024). «El derecho al asilo ante la criminalización de la migración irregular en las fronteras exteriores de la Unión Europea: España como un caso de estudio».

22 Ibid.

23 Ibid.

24 2006-2008ko Lehen Afrika Planak, 2009-2012ko Bigarren Afrika Planak eta 2023an onartutako Hirugarren Afrika Planak garapenerako lankidetzaren instrumentalizazioa finkatzen dute, migrazioa kontrolatzearen eta Espainiak Mendebaldeko Afrikan dituen merkataritza-interesen alde. Gai horri buruzko saiakeren artean, ikus: Romero, Eduardo (2007). «Quién invade a quién, el Plan de África y la migración».

25 Oxfam (2023). **¿Del desarrollo a la disuasión? El gasto en migración en el marco del Instrumento de Vecindad, Desarrollo y Cooperación Internacional de la Unión Europea**.

26 Ibid.

27 De la Orden, Gustavo (2024). «El derecho al asilo ante la criminalización de la migración irregular en las fronteras exteriores de la Unión Europea: España como un caso de estudio».

28 OIM, Migrant Missing Project (2024). **Migration within the Mediterranean**.

29 Ibid.

30 Ca-minando Fronteras (2024). **Txostenak**.

31 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».

32 Barne Ministerioa, Balantzeak eta Txostenak (2022 y 2023). Legez kontrako immigrazioari buruzko hamabosteroko txostena - **2022** eta **2023**ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra metatutako datuak.

33 De la Orden, Gustavo (2024). «El derecho al asilo ante la criminalización de la migración irregular en las fronteras exteriores de la Unión Europea: España como un caso de estudio».

34 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».

35 elDiario.es, Desalambre (2024ko urtarrilak 31). «**España pide a Marruecos que no deje embarcar a los senegaleses sin visado para impedir que pidan asilo en Barajas**».

36 Barne Ministerioa, Balantzeak eta Txostenak (2023). **Immigrazio irregularrari buruzko hamabosteroko txostena - 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra metatutako datuak**

37 Moncloa, Prentsa-oharrak (2023ko otsailak 26). Espainia eta Marokoren arteko Maila Altuko XII. Bileran **Espainiak eta Marokok lankidetzan indartu dute migrazioari dagokionez.**

38 Newsroom Infobae (2024ko otsailak 7). «Marruecos intercepta una patera con 93 migrantes subsaharianos, marroquíes y un pakistaní».

39 OIM, Missing Migrant Project (2023). **Migrazioa Afrikan.**

40 Ca-minando Fronteras (2024). **Txostenak.**

41 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA.Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**». Espainiako Gurutze Gorriak emandako datuak.

42 RODRÍGUEZ CANDELA, José Luis (2007). Atzeritarrak Barneratzeko Zentroak. In CEREZO DOMINGUEZ, Ana Isabel & GARCIA ESPAÑA, Elisa (eds.). Kartzela Espainian. Ikuspuntu kriminologiko bat. Granada: Comares, 365–404.

43 Amnistia Internazionala (2021) **Zazpi urte igaro dira, eta Tarajalgo ezbeharraren arduradunek zigorrik gabe jarraitzen dute.**

44 **4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, herritarren segurtasuna babestekoa.** Mozal-legea izenez ezaguna.

45 BBC News Mundo (2022ko azaroak 2). «**Investigación BBC: cómo la policía española vio y no impidió que decenas de migrantes murieran en su frontera con Marruecos**».

46 elDiario.es, Canarias Ahora (2022ko urtarrilak 2). «**Arguineguín, el campamento donde la vulneración de derechos de los migrantes no fue delito**».

47 Diputatuen Kongresuko bilkura-egunkaria, 577 zk., 2018ko abuztuaren 29koa, 31. or

48 Herriaren Defendatzailea (2021). «**Informe anual 2021 Mecanismo Nacional de Prevención**».

49 Barbero, Iker. «**Refugiados en contención: lógicas de (in) movilidad en materia de derecho de asilo en la Frontera Sur**». *CIDOB d'Afers Internacionals aldizkaria*, 129. zk. (2021eko abendua), 179-202. or.

50 CAMPESI, Giuseppe (2018a). Between containment, confinement and dispersal: The evolution of the Italian reception system before and after the "refugee crisis". *Journal of Modern Italian Studies*, 23 (4), 494–506.

51 Ibid.

52 Moncloa, Prentsa-oharra (2023ko urriak 4). Europako Batasunak Migrazio eta Asilo Hitzarmena desblokeatu du

53 Iturria: Europako Parlamentuko bozketak, 2020ko apirilak 10. **Bozketa Izendatuen Eraitzen akta - Eranskina**

54 De la Orden, Gustavo (2024). «El derecho al asilo ante la criminalización de la migración irregular en las fronteras exteriores de la Unión Europea: España como un caso de estudio».

55 CEAR (2024). «**El Pacto Europeo de Migración y Asilo será «devastador» para los derechos humanos**».

56 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».

57 Arreta Humanitarioko Programaren helburua da narriadura fisikoagatik eta gizarte-, familia- eta ekonomia-laguntzarik ez izateagatik egoera ahulean dauden etorkinen oinarritzko premiei erantzutea; etorkin horiek Espainiako kostaldera iristen dira edo lehorretik sartzen dira gure herrialdera, Ceuta eta Melilla hirietatik. Horrez gain, larrialdiko gizarte- eta osasun-arreta, harrera, oinarritzko beharrak asetzeko material-horniketa, oinarritzko laguntza ekonomikoak eta lekualdaketa ere barne hartzen ditu.

58 CEAR. Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».


59 CEAREK esandakoaren arabera, 2023ko urriaren 27an, 17 pertsona helarazi ziren Nafarroara, 36 EAEra eta 1988 Kataluniara.

60 CEARN arabera, «CAEDak bazeuden 2018az geroztik, baina eredu berri honen ezaugarria da egitura askoz ere zabalagoak izatea, askoz ere ahalmen handiagokoak, Defentsa Ministerioak lagatakoak, TRAGSA enpresa publikoak diseinatu eta eraikitako karpa egonkorren eredu batekin egokituak».

61 Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Albisteak (2023ko azaroak 23). Larrialdi, Harrera eta Deribazio zentroaren lehen fasea martxan da, Alcalá de Henaresko «Primo de Rivera» kuartelean.

62 Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Albisteak (2023ko azaroak 10). **Larrialdi, Harrera eta Deribazio zentroaren lehen fasea martxan da, General Arteaga kuartelean.**

63 CEAR, Urteko Txostena (2024). «**2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak**».



SENEGAL ITSASOTIK

AITAK ETA NAVIGATEURS

Aita.

Aita da Amadouk euskaraz entzun zuen lehen hitza, Euskadi izeneko herrialde bat bazegoela ere jakin aurretik.

Hitz hori oso txikitik ikasi zuen, aitari entzuten ziolako. Aita ez zen bere buruaz ari, baina, ezta aitonaz ere, eta beste ezein aitaz ere ez.

Amadou haur bat zen, urte gutxikoa, hitz berri horren letrak adina urtekoa, eta ezin zuen haren esanahia irudikatu.

Entzutean, itsasoaz pentsatzen zuen, eta arrantzaz, lan gogorraz, neke lazgarriaz eta itxaronaldi luzeez.

Izan ere, Aita zen aita arrantzale ibiltzen zen itsasontziaren izena.

Beste izen arraro batzuk esaten zituzten lanaz aritzen zirenean, Hondarribia eta Getaria, esaterako. Leku exotiko eta urrunekoak, kokatu ezinik ere, Amadouk bazekienak itsasoko herriak zirela, arrantzaleenak eta *navigateur*renak.

Navigateurra, itsasgizona, halakoa zuen aita, baita anaia zaharra eta herriko ia gazte guztiak ere. Askok Aitaren flotan egin zuten lan, edo Dakarretik itsasoratzen ziren atzerriko beste itsasontzi batzuetan.

Hiriburuko portura nazioarteko merkataritzako kontainer ontzi izugarriak heltzen dira, eta Europako herrialdeen banderak kulunkan daramatzaten arrainontzi handiak ere bai, bereziki Espainiakoak eta Frantziakoak, Senegalgo gobernuarekin akordioak sinatu dituztenak hango itsasoetan arrantzan egiteko, eta Senegalgo bandera daramatenak Asiako edo Europako enpresenak izan arren.

Amadou jaio zenean, 1995ean, aitak Hondarribiko enpresari batentzat egiten zuen lan, euskal arrantza flota txiki batean. Ezinbesteko lana zen, kostako familia askori baliabideak ematen zizkiona; izan ere, itsasoan egun asko baziren ere, urrunean, Atlantikoan barrena bidaiatzen, nazioarteko enpresek ondo ordaintzen zuten.

Navigateur izatearen handitasuna, baina, itsasoko kultura; haizeak irakurtzeko eta kala jorienak topatzeko jakinduria; arraina artisau eran ketzeko eta lehortzeko teknika menderatzea; eta haren salerosketarako adimena ez ziren atzerriko ontziekin batera etorri.

Senegalgo itsasertzean bizi diren gizon-emakumeak, hasi Mauritaniarekiko mugako Ndarretik –Saint Louisen wolofezko izena–, Kayartik barrena eta hegoaldeko eskualdeetako Casamance ibaiaren bokalera arte, arrantzan jardun izan dira beti, eta eskualde osoa elikatu izan dute haien lanari eta ezagutzari esker.

Ndar, Kayar, M'Bour, Joal-Fadiouth, Djifer, Kafountine eta kostako beste herri batzuek¹ sona handia dute Senegal osoan, arrantza tradizio luzea dutelako.

*Navigateur*rak egunero itsasoratzen dira, eguzkia bizkarrean utzita, iluntzean itzultzen dira eta arraina emazteei ematen diete. Haiek prozesatzen dute, kontserbatzeko eta eskualdeko merkatua hornitzeko, ez soilik Senegalen, baizik eta Malin eta beste herrialde mugakide batzuekin ere bai, esaterako, Gambian, Ginea Bissaun eta Ginea Konakryn.

Itsasoa Senegalgo eskualdeen lotunea da, baita itsasertzeko hiri eta herrietan bizi ez direnentzat ere. Horregatik *ceebu jën*², arroza –*ceeb*– arrainarekin –*jën*– da herrialdeko janari tradizionalik garrantzitsuena eta Senegalgo platerik ezagunena.

Nahiz eta plater horren errezetak aldatu egiten diren herrialdeko eskualde batetik bestera, osagaien artean izan ohi dituzte arroza, arrain freskoaren xerrak eta garaiko ortuariak edo bestelako barazkiak, adibidez, tomatea, azenarioa, batata, juka, gonboa, tipula, baratxuria, piperrak eta perrexil hostoak.

Plater horrek bateratu egiten ditu nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen diren barnealdeko gizon-emakumeen lana eta Atlantikoko kostaldean arrantzatik bizi direnena.

Jola, wolofa edo *soninkéa* hitz eginda ere, edo *puular*³ –Amadouren amak bezala– edo *sereer* –aitak bezala– hizkuntzak hitz egin arren, Ndar edo Koldan jaiota ere, *ceebu jënaren* zaporea aho sabaiaren oroimenean izango duzu, eta itsasoarekin lotuko zaitu.

Itsasertzeko herriak eta arrantza tradizioko bertako komunitateak ezinbestekoak dira herrialdeko ekonomian eta elikagaien ekoizpenean.

Espezie pelagiko txikiek hartzen dute arrantza ontzi ez-industrialek harrapatutakoaren gehiengoa (% 70)⁴, eta funtsezkoak dira Senegalgo elikagaien segurtasunean. Gainazaleko arraina eta itsaskia eskualde osoko populazioarentzako elikagai iturri ordaingarri eta elikagarriak izan dira, eta herrialdean kontsumitzen den animalia proteinaren % 40 inguru⁵ da.

Itsasoaren gehiegizko ustiapenak eta arrantzaren esportazioak, ordea, arriskuan jarri du arrainaren eskuragarritasuna tokiko merkatuan. Gainera, 2000 eta 2019 artean, herrialdeko populazioa 9,5 milioitik 16 milioira hazi zen. Egoera hori izanik, arrainaren eta itsaskien kontsumoa murriztu egin da, urteko *per capita* 32,2 kg-tik 17,8 kg-ra⁶.

Amadouren aitaren familia *sereer* kulturakoa da, Fatik eskualdekoa, Sine eta Saloum ibaiek itsaso atlantikoa topatzen duten lekukoa. Ibai delta erraldoi bat da, uharte , uhartetxo eta mangladi artxipelago bat, labirinto bat, belaunaldiz belaunaldi nautikaren artearen bitartez ezagutu diren bidez osatua.

Itsasoak eta arrantzak hango kulturaren, gizartean eta ekonomian eragina izan dute. Txikitatik ikasi zituen kostaldeko hiri nagusien izenak: M'Bour, Joal eta Djifer; eta haien portuenak, milaka gizon-emakumek lan egiten zuten leku bizi-bizi haienak.

*Navigateur*rek eta *mareyeuseek*⁷, eta haien familiak, gutxika-gutxika bost, sei, zazpi kaiuko –artisau arrantzarako ontziak– eros zitzaizkion, baita hamabost ere, eta beste batzuk kontrata zitzaizkion beren tokiko enpresetan arrantzan egiteko, baita arraina kontserbatzeko eta bertan saldu beharreko arraina lehertzeko eta ketzeko ere.

Senegalgo gobernuaren txosten baten arabera⁸, 2019an artisau arrantzak zuzenean 75.500 arrantzaleri eman zion lana. Gainera, kalkulatu da 45.250 lagun aritzen direla merkataritza sektorearekin lotutako lanetan, eta beste 47.500 artisau prozesamenduari lotutakoetan. Lan «gehigarriak» dira, gehienbat emakumeek eginak. Horrez gain, kalkulatu da ia 800 lanpostu daudela arotzeria , mantentze eta konpontze lanetan, eta, hortaz, artisau arrantzaren sektorearekin lotutako enpleguak, guztira, gutxienez 169.000 dira, Senegalgo lan indarraren % 3,2 inguru⁹.

Dena den, hor ez dira sartzen lan osagarrietan edo arrantza sektorearekin zeharka lotutako lanetan dabilen pertsona ugari, eta, beraz, gutxi gorabeherako zenbakiak besterik ez dira. Adibidez, Amadouk dio badaudela enpresa txikiak ere, gehienak Senegalgoak edo Gineakoak, arraina hozkailu furgoietan garraiatzen dutenak lehorretik. Produktua herrialdeko barnealdera eramaten dute, eta Malira, Gambiara, Gineara eta Mauritaniara. Eskualdea hornitzen dute eta lotura ekonomikoak eta sozialak indartzen dituzte.

Hortaz, estatistika batzuen arabera, zuzenean edo zeharka arrantza sektorearekin lotutako lanpostuen kopurua 600.000¹⁰ eta 825.000¹¹ pertsonakoa izan daiteke, eta, horrenbestez, funtsezkoa da Senegalgo ekonomian. Mundu horren guztiaren oreka arrantzan oinarritzen da, kalen aberastasunean, gizonen eta emakumeen lanaren arteko koordinazioan, eta itsasoaren eta kostaren arteko orekan.

Amadouk beti jakin izan du, txikia zenetik, aitari *Aita* hitza entzun zionetik, kostatik urrun nabigatzen zuela aitak

nazioarteko ontzietan, kostaldetik hurbil arrantzan zebiltzan herriko kaiukoek ez bezala. Ezin zuen egunero joan eta etorri egin. Aita bera joaten zen itsaso zabalera, ontziak ez baitziren haien kostaldeetara hurbiltzen.

Amadourentzat hori ere bazen orekaren parte.

BELAUNALDI BERRIA ETA ITSASOA

NEKAZARI EXODOA

Dakar hiria Senegalgo erdigune demografiko eta ekonomikoa da. Metropoli barrutia hiriburutik harago zabaltzen da, eskualde osoan, eta herrialdeko biztanleen laurdena biltzen du: ia 4 milioi biztanle baino gehiago¹². Portua Afrikako kosta atlantiko osoko 10 portu handienetako bat da¹³, Marokotik Angolara artekoen artean, duen garrantziagatik eta bertan saltzen eta erosten den ondasun bolumenagatik.

Herrialdeko arrantza gune handiena ez bada ere –artisau piragua guztien % 15¹⁴ bakarrik daude Dakarreko eskualdean–, han daude arrantza industrialean aritzen diren ontzi nazional eta nazioarteko guztiak, Amadouren hitzetan. Horiek hiriburuan topatzen dituzte porturatzeke, konponketak egiteko eta materiala eta arraina ontziratzeko eta deskargatzeko beharrezko azpiegiturak. Dakarren bertako itsasgizonak kontratatzen dituzte, nazioarteko uretara bidaia luzeak egiteko. Horrelakoetan ontziratzeak esan nahi du egun eta aste asko ematea lehorreratu gabe, baina soldata handiagoa da artisau arrantzan lor daitekeena baino, eta diferentzia gero eta handiagoa da.

Hori dela eta, 80ko eta 90eko hamarkaden artean, Fatick eskualdeko itsasertzeko herrietako familia asko hiriburura joan ziren. Horietako bat izan zen Amadourena, zeinaren aita, *navigateur* aditua, euskal ontzi industrial batean ontziratu baitzen, eta amak arraina saltzen jarraitu baitzuen Dakarreko portuko tokiko merkatuan.

Nazioarteko ontziak iristean, eta nazioarteko kapitala eta nazioarteko enpresak etengabe handitzen zirenez arrantzan, nekazaritzan –bereziki aktiboak baitira kakahuetea lantzen– eta meatzaritzan, Senegal nazioarteko merkatura ireki zen, eta garapen eredu neoliberalaren eredua indartu egin zen herrialdean¹⁵.

Dena den, kostaldeko herriek ez zuten haien arrantza tradizioa galdu. Senegal barneko eskualdeetako, esaterako, Koldako edo Tambacoundako, askoren helmuga bihurtu ziren, eta aurretik nekazari edo abeltzain ziren pertsona asko arrantzale bihurtu ziren. Nekazari exodoa izan zen, kostalderantz, nekazaritza sektorearen krisiak¹⁶ eragina, kakahuetearen monolaborantzaren gehiegizko ustiapenaren ondorioz, baita artisau arrantzaren sektoreko langileen eskariak ere.

KOSTALDERANTZ

Sasoikakoak.

Horrela esaten diegu Iberiar penintsulan uda beroan soroetan lanean egoten direnei. Aldi baterako gauza da, une jakin batekoa, salbuespentzat jotzen dena eta, askotan, ikusezin egiten duguna. Langileak uztarako «agertzen» dira, eta hura amaitzean «desagertzen».

Tambacoundan, Lamineraren jaioterrian, jende gehiena nekazaritzan aritzen da, nagusiki, eta soroan lan egitea ez da salbuespentzat jotzen, eta ez da ikusezina, baizik eta eskualdeko familia eta komunitate askoren zutabea, haiek elikatzen dituen eta haien bizitzaren erritmoa ezartzen duena.

Hala eta guztiz ere, funtsezko jarduera bada ere, Tambacoundan ere nekazaritzako lana sasoiaren araberakoa izaten da. Montzoien eta euri ugarien sasoiak ekainetik urrira bakarrik irauten du. Hilabete horietan kontzentratzen da ia prezipitazio guztia, airea hezetasunez ase egoten da, lurra emankorra da eta ugaria da soroetako lana.

Sasoi horretan, itsasoa eta arrantza tradizioa bizitzatik urrun ditu Laminek eta, gurasoekin batera, energia guztia lurra lantzen eta zaintzen agortzen du, fruituak eskuratzeko familiaren sailean. Dena den, sasoi lehor luzean, askoz lan gutxiago behar da lurrian. Gurasoek eta aurreko belaunaldiko beste kide batzuek sasoi lehorrean migratzen ez bazuten ere, Laminek eta komunitateko beste gazte batzuek mendebaldera egin behar izan dute, itsasoan lan egitera.

Bost urtez, 19 bete zituenetik Europara jo arte, hilabete horietan arrantzan egiten zuen.

Senegalgo ibai handien bide bera egin du, barnealdetik kostaldeko arrantzale herri txikietara, herriko gazte askorekin batera sortutako korrontean. Kostarantz jotzen zuten, Thiès-eko edo Dakar-eko eskualdeetara, edo Mauritaniarekiko mugara, Saint-Louisen eskualdera.

Lamine azken horretara joan ohi zen, Ndar¹⁷, eskualdeko hiriburua, delako ospe oneneko arrantza tradizioa duena. Bertako jabeen txalupetan aritzen zen lanean, eta eskifaian *navigateur* profesionalak zein Laminek bezalaxe itsasoan lan osagarri gisa ziharduten gazteak zeuden.

Gogor lan egin beharra zegoen, gogoan duenez, ez baitzuten kontratu formalik, eta soldata, egunaren amaieran, egunean harrapatutako arrain kantitatearen arabera baidatzen. Asko harrapatu bazuten, soldata ona, baina gutxi harrapatuz gero, gasolina, sareen konponketa eta nabigazioko gainerako gastuak ordaindu ondoren soberan zegoena jasotzen zuten.

Ontziaren jabeak, kapitainak, *navigateur* profesionalek, lehen aldiz ontziratzen diren gazteek, portuan arraina lehortzen eta saltzen lan egiten duten emakumeek, guztiek batera irabazten eta galtzen dute, xede berari helduta.

Wolofa zen komunikazio hizkuntza, eta itsasoan garrantzitsua da elkar ondo eta bizkor ulertzea. Barneko eskualdeetatik zetozenentzat, zeinak ez baitziren kostako herrietan hazi, eta nabigatzearen artea eta itsasoaren sekretuak lanean ikasi baitzituzten, are arrazoi pisuzkoagoa dago. Izan ere, Laminek bezalaxe, ia batek ere ez daki igerian.

Horregatik eta beste arrazoi askorengatik, adi-adi entzun behar zaie kapitainaren aginduei, *gaal*-aren bidea koordinatzeko. Wolofez halaxe deitzen diete bertako arrantzaleek artisau arrantzan erabilitako piragua handiei. Piragua da *gaal* hitzaren, hots, kaiuko ere esaten zaion horren, itzulpen literaletik hurbilen dagoen terminoa.

Bi *gaal*-ekin batera nabigatu ohi da.

Lehen *gaala* handiagoa eta gogorragoa da, eskifaia-aren zatirik handiena, janaria, ur geza, gasolina eta arrantzarako behar den gainerako materiala garraiatzeko balio duena. Gainera, eragiketa guztien gidari den kapitainak une zehatz batean seinalea ematean itsasora bota beharko diren sareak ere garraiatzen ditu. Bigarren *gaala* txikiagoa izaten da, tradiziozko arrantza teknikan, laguntzaile lanak egiten ditu, eta arrantza ugaria bada, zati bat hark harrapatzen du.

Itsaso zabalera heltzean, motorrak itzaltzen dituzte kapitainak arrain sardak topatzeko olatu artean miatu bitartean. Ozeanoaren gainazala irakurtzen du hark, itsasoa tindatzen duen bristada baten bila, ezberdin mugitzen den olatu baten esperoan: hor dago arraina. Jakinduria, teknika, sena, bere esperientziaren denbora sakona; besoa altxatzen du puntu bat seinaltatzeko, eskua konpasaren orratza balitz bezala, itsasontziaren kulunka sentitu ere egin gabe.

Harantz joaten dira, helburua arrain sardari bidea moztea baita.

Apurka-apurka botatzen dituzte sareak, dozenaka metro sokaz eta hainbat buiaz lotuta. Lehen *gaala* bizkor mugitzen da, biribil bat eginez, hasierako buiara itzultzeko.

Uretan, sareak bertikalean mantentzen dira, goiko zatian dituzten buiei eta beheko aldean dituzten berun pusketei esker. Horri esker, arrainek hesia topatzen dute bidean, eta sarezko horma handi batek inguratzen du.

Bigarren *gaala* bizkorragoa eta arinagoa da, eta azkar jartzen da abian, sareak poltsa bat izango balira bezala ixteko balio duen soka baten muturra daramala.

Sarda inguratuta dagoenean hasten da eskifaia-arentzako lanik gogorrena: sareak eta harrapatutako arraina *gaal*-era igotzea. Lan horretan, erritmoa eta koordinazioa besoen indarra bezain garrantzitsuak dira. Horregatik, marinel asko behar da artisau arrantzarako.

Arrantza tradizio handiko hirietan, jarduera hori komunitateen zutabea den lekuetan, bi *gaaleko*, bi kaiukoko, artisau arrantza horri *Gaal Napp Gaal Topp* deritzo, hau da, wolofez, *kaiuko batek arrantzan egin, bestea jarraitu*. *Fila Tourne esamoldea* ere erabiltzen da, hau da, frantseseko *fil à tourner (biratzeko soka)* esaldiaren laburketa bat, marinelen wolof hiztegian asimilatua, arrain sarden inguruan sareekin biribil bat egiteko teknikaz ari dena.

Arrantza saioa ona bada, nahikoa irabaz dezakete familiari laguntzeko, baina gero eta urriagoak dira itsasoratzeko arriskua justifikatzeko moduko lanegunak.

UR DESERTU BAT

«Arrantzara zoaz eta itsasoa desertu baten modukoa da»

Amadou

Kontakizun hori behin eta berriz entzuten da taldeetan: lan ordu eta lanegun askoren ondoren, portura itzultzen ziren ziurtzat jota ozeanoa apurka-apurka urezko desertu bihurtzen ari zela.

Moha Thièsekoea da, eta Dakarren bizi zen familiarekin, emaztearekin eta bi alabekin. Igeltseroa da ofizioz, eta lana falta zenean arrantzale aritzen zen. Horixe egin zuen azken 4 urteetan, artisau arrantzarako *gaaletan* ontziratu baitzen.

Kontatu digu behin Dakarretik abiatu eta Kafountineraino iritsi behar izan zutela –hiriburutik 300 km-ra–, Casamanceko arrantzale herri batera, hegoaldera, Ginea Bissauko mugatik hurbil, nahikoa arrain lortzeko eta lanaren gastuak estaltzeko. Azaldu digu dinamika hori oso ohikoa dela eta gurpil zoroa dakarrela.

Txalupa betetzeko hiruzpalau egun behar badira segidan, horrek esan nahi du izotza eraman beharko dela kontserbatzeko, gasolina gehiago beharko dela, eta janari gehiago ere bai, eskifaia rentzat. Gastu horiek ordaintzeko, gutxiago ordaintzen zaie marinelei, edo zifra bera lanegun gehiagorengatik, eta arrainaren prezioa igo egiten da.

Youssoufek dio duela urtebete, 2023ko ekainean, arkumearen jaietan, arrantzara irten zirela 20 litroko 15 botila gasolinarekin. Hiru egun eman zituzten nabigatzen, ezer harrapatu gabe: sareak igotzen zituzten bakoitzean, ia hutsak zeuden. Laugarren egunean itzuli ziren, arrainez betetako kaxa gutxi batzuekin eta 2 botila gasolinarekin bakarrik. Ados dago Moharekin, gero eta egun gehiago egiten da lan diru beraren truke, eta eskasiak arrainaren prezioa handitzen du.

Goizetik gauera egin behar da arrantzan, eta portura nekatuta heldu, atsekabetuta, ahalegina nahikoa izan ez delako. Zama arriskutsua da, Moussak dioenez, arrantzatzea arrisku handiko lana delako, besoetan indarra behar delako, eta kontzentrazio handia.

Sasoi lehorrean, herriko lagun batekin batera joaten zen Ndarreko *gaaletan* lana bilatzera. Nabigatzen ematen zituzten egun horietako batean, arraina harrapatu berri zutenean, lagunak sareei eutsi zien harrapatutakoa igotzeko eta, bat-batean, elkarren ondoan zeuden bi *gaalek* talka egin zuten indarrez, olatuek bultzatuta. Lagunak 4 hatz galdu zituen. Lehorreratu zirenean, Moussak lagundu zion herriraino, eta bera arduratu zen gurasoekin hitz egiteaz –baliabide ekonomiko gutxiko nekazari familia bat zen–, eta haiei gertatutakoa azaltzeaz eta semea zauria osatu arte zaintzeko botikak erosten laguntzeaz.

Ohikoa da hori, itsasoan istripuren bat gertatzen denean eskifaia kideak arduratzen dira zauritutako edo hildako arrantzaleari eta haren familiari laguntzeaz.

Istripuak gero eta ohikoagoak dira. Arrantzaleek ordu gehiagorik egin behar dute lan, urrunago nabigatu behar dute; argitu aurretik abiatu behar izaten dute, eta argirik ez dagoenean itzuli. Bikoitza lan egin, gero eta arrain gutxiago lortzeko. Nekea, atsekabea, arrasteko ontziak eta haien saretzarrak ibiltzen diren ur berberetan arrantzan ibiltzearen arriskua handitu egiten dira. Goizean goiz edo iluntzean, itsasoa eta zerua kolore ilun berekoak direnean, gora egiten du arriskuak. Ez dakite itsasontzi handiek kaiukoak ikusten ez dituzten edo ez ikusiarena egiten duten artisau arrantzarako uretan sartzen direnean.

*Navigateur*ak portura sare hutsik itzultzearen amesgaiztoa olatu bat da, itsasotik datorrena kostaldea gogor jotzeko, eta *mareyeuseetara*, arrain prozesatzaileetara, eta *gaalak* eraikitzen eta konpontzen dituzten artisauetara zabaltzen dena, oraintxe arte jana, lana, baliabideak eta akidura partekatu duten gizon-emakume horietara.

AHOTSAK

Badago irudi bat migrazioei buruzko ikerketetan edo kontakizunetan erabiltzen dena: prozesu horiek *ahotsik ez dutenei ahotsa ematea* direla dioena. Egia alderantzizkoa izaten da, ordea. Idazleak ez luke ahotsik izango hitz egin nahi izan duten eta haien ezagutza eta istorioak partekatu nahi izan dituzten desplazatutako pertsonen ezagutarik, kontakizunik eta gaitasun eta borondaterik gabe.

Moha eta Moussa izen asmatuak dira, kontakizun hau eraikitzeko solaskide izan ditugun 20 gizon senegaldarretako biri emanak. Horiek guztiek nazioarteko babesa eskatu zuten, Euskadira heldu ziren Kanariar Uharteetatik, 2023tik aurrera, herrialdeko indarkeria soziopolitikoak gora egin zuenean. Zehar-Errefuxiatuekin eta CEAR erakundeetako gure kideei esker ezagutu ditugu.

Kontatu digute zer ondorio dituen arrantza eredu intentsiboak haien bizimoduetan eta desplazamenduetan. EBren eta Senegalen arteko merkataritza akordioaren eragina 2022an argitaratutako *Deserrotuak: Klima aldaketak behartutako desplazamenduen inguruko interpretazio kritiko bat* txostenean aztertu genuen. Argitalpen horretan, Kolonbiako, Kongoko, Yemeneko eta Senegalgo kasuak aztertu genituen. Azken horren egoera oso konplexua da, eta laburpena, aldiz, oso soila: arrantzaleak desplazatzen dituzten arrantza akordioak.

Orduan erabili genuen irudia izan zen estraktibismoa mugak binomioarena: senegaldar gizonak gure kostaldeetan oinarritutako ontzietan lanean, Afrika mendebaldeko uretan kokatutako kalak husten dituztenetan. Orain lanean dabilzan ontziaren bizkarretik Dakarreko kosta ikusten dute, haien bizimoduak desagertzen ari direlako ihes egin duten leku hori, ahaideak besarkatzera itzuli ezin dutena.

Jaioterrik irtetera behartu dituzten baldintzak sortu dituzten eragile berberengatik helmugan esplotatuak.

Egoera horrek bultzatu gintuen Euskadira heldu direnen esperientzia zehatzak sakon aztertzea, batera analizatzeko zirkuitu neoliberal hau, non politika ekonomikoak eta muga politikak erabilgarriak zaizkien euskal eta europar botere korporatiboari: ihes egiten dutenak lumatzen eta zigortzen dituen eredu baten adibidea.

Wolofez egindako entzute aktiboko eta hizketako prozesu horretan, gaztelaniarako eta frantseserako itzulpenetarako gakoa izan da Doudou Sène senegaldarra, interprete eleaniztuna eta bitartekari kulturala¹⁸; izan ere, haren analisi sozialerako eta narrazio historikorako gaitasunari esker, topaketak eta elkarriketak espazio seguruak bihurtu ziren. Hizkuntza auzi hori, talde ikusmoldea eta solaskideak banakako xehetasunengatik eta jaioterriengatik identifikatu ezin izateko konpromisoa –anonimotasunetik haragoko kontua– direla medio, estilo literarioa erabili genuen narrazio kolektiboaren zerbitzura. Hortaz, narrazio hau ez da pertsona zehatz baten biografia. Parte hartzailetako bat ere ez da kontakizunaren protagonista, baina, aldi berean, guztiak ditugu protagonista. Alegiazko izenak erabili dira, eta haien esperientziak nahasi dira, baina kontatu den guztia gertatu da.

ESTRAKTIBISMOA ETA GABETZEA

ATZERRIKO ONTZIEN PRESENTZIA ETA ERRESISTENTZIA ESPERIENTZIAK

Eztabaida taldeetan parte hartu zuten gizonak artisau arrantzaren munduarekin lotutako askotariko esperientziak partekatu zituzten. Batzuk *navigateur* profesionalak ziren, beste batzuentzat, marinel izatea aldi baterako lana besterik ez zen; batzuk arrantza tradizio luzeko familietatik zetozen, eta beste batzuk, aldiz, lehen aldiz herrialdetik irten behar izan zutenean itsasoratu ziren. Dena den, guztiek jasan behar izan zuten egunero-egunero haien bizimoduari eusteko ezintasuna zekarren gabetzea eta ingurumenaren narriadura.

Guztiak jasan zuten bi ereduren talka, bi mundurena. Batetik, artisau arrantza, zurezko *gaalak* eta arraina kontserbatzeko teknika tradizionalak erabiltzen dituen, sakon errotua kostaldeko herrien eta hirien kulturean. Bestetik, arrantza industrial, eskala handikoa, kanpoko jatorri eta kapitalekoa, azken 40 urteotan Senegalgo arrantzaren historia nahasi duena askotariko pantailen, negoziozuen eta banderen pean.

Senegalgo araudiaren arabera, artisau arrantzako ontziak dira bizkarrik gabeko ontziak, mekanikoki kontrolatu gabeko arrantza moduak darabiltzatenak, eta kontserbazio era bakar moduan izotza edo gatza erabiltzen dituztenak¹⁹.

Arrantza industrialaren xede nagusia da arraina kanpoko merkatuetara esportatzea; horregatik, Senegalgo gobernuak pribilegioak ematen dizkio, eta kapital gehiago behar du, energia gehiago kontsumitzen du harrapatutako tona bakoitzagatik, enplegu gutxiago sortzen du artisau arrantzak baino, eta errentagarritasun handieneko espezieen gehiegizko ustiapenaren erantzule nagusia da²⁰.

Nahiz eta formalki arrantza industrialak eta artisau arrantzak ustiapen gune mugatuak dituzten –araudiaren arabera, artisau arrantza kostaldetik sei itsas miliara arteko tartean egin behar da, eta ontzi industrialek, aldiz, urrunago egin behar dute arrantzan–, praktikan, zedarritze hori ez da errespetatzen. *Gaalek* muga horiek gainditu egiten dituzte, artisau arrantzarako tartean ez dagoelako espezierik, eta ontzi industrialek ere egiten dute, Senegalgo autoritateen kontrol faltaren ondorioz zigorgabetasun gune bat sortzen delako, *de facto*²¹.

Senegalgo kideen arabera, arrantzaleen bizimodua desagertzearen arduraren parte bat ontzi industrialei dagokie. Hurrengo orrialdeetan aztertuko dugu arrantza industrialaren inpaktua eta sortzen dituen arazoak.

ATZERRIKO ONTZIAK ETA ARRANTZA INDUSTRIALA

«*Dakarren atzerriko ontzi asko eta asko dago, baita, ordea, Mauritanian ere, Ndarretik hurbil. Atzerriko ontzi batzuk itsasertzera hurbiltzen dira*».

Babakar

Senegalgo gobernuaren txosten baten arabera²², 197 ontzi industrialek eskuratu zuten Senegalen arrantzan egiteko lizentzia. Urte horretan, ontzi horietatik 129 egon ziren aktibo; 110, Senegalgo banderarekin. Gainerako 19ak Espainiako eta Frantziako itsasontziak dira, Europar Batasunaren eta Senegalen arteko Arrantza Politika Erkideko (APE) akordioei esker dihardutenak.

Beste ezein atzerriko ontzi ez zen arrantzan aritu Senegalgo uretan, formalki behintzat. Dena den, Senegalgo banderarekin erregistratutako ontzietako batzuk pantaila enpresenak dira, hau da, formalki Senegalgo enpresaren baten jabetzakoak dira, baina, egiaz, atzerriko inbertsiogileek kontrolatzen dituzte *joint venture* baten bidez, esan nahi baita Senegalgo entitatearekin (*Société Mixte de Pêche*) egindako partzuergo edo enpresa bateratu baten bitartez.

Enpresa bateratuak tresna ohikoa dira atzerriko flotek Afrika mendebaldeko uretan lan egiteko, sarbide akordioetatik kanpo, eta gogor kritikatu izan dituzte haien opakutasunagatik eta artisau arrantzan duten eragin negatiboagatik.

Senegalgo ontziek egiten dituzte flota industrialaren deskarga gehienak, hain zuzen, % 83,3, 2010 eta 2019 artean. Flota industrial nazionalaren deskargak etengabe ugartu dira azken hamarkadan: 40 000 tona baino gutxiago ziren 2010ean, eta 118 000 tona baino gehiago izan ziren 2018an.

2019an, Senegalgo banderarekin arrantzan aritu ziren ontzi industrialek, guztira, 81 375 tona arrain deskargatu zituzten, 70 400 milioi CFA frankoko²³ balioa zutenak (107 milioi euro), hau da, ekoizpen nazional guztiaren % 15, eta haren merkataritza balioaren % 26. Flota industrialaren ekoizpen gehiena esportatu egiten da, eta zati txiki bat bakarrik bideratzen da bertako merkatura.

Senegalen arrantzan diharduten ontzi industrial ia guztiak arrastekoak dira. Arrantzan egiteko lizentzia zuten hondoko arrasteko 2019ko ontzi gehienek Senegalgo bandera bazuten ere (102tik 99k), analisi batzuek²⁴ iradokitzen dute ontzi horien % 52 gutxienez atzerriko jabeek kontrolatzen dituztela: arrantza ontzien % 23 Espainiakoak ziren, % 20, Txinakoak, eta %6, Italiakoak. Gainera, %25en jabetza erreala zein den ez dakigu. Beraz, Senegalgo bandera duten ontzi industrial guztietatik, % 23 bakarrik ziren egiaz Senegalgoak.

Egitura korporatibo opakoak, Senegalen erabilitako enpresa mistoetako eskemak, adibidez, eta banderaren gardentasunik ezarekin eta kostako estatuetoako arrantzako gobernantzarekin batera, zaildu egiten du arrantza eragiketen onuradunen arrastoari segitzea.

2019an Senegalen arrantzan egiteko lizentzia duten arraste ontzien egiazko jabetzak iradokitzen du nazioarteko hainbat arrantza korporaziok zeregin garrantzitsua izan dutela eta izaten jarrai dezaketela Senegalgo arraste industrian. Adibidez, Txinako Arrantza Korporazio Nazionala (CNFC), estatuko arrantza enpresa, gutxienez lau arraste ontziren jabe zen, eta Armadora Pereira Espainiako enpresak Senegalgo banderadun sei arraste ontzi zituen gutxienez, SOPERKA izeneko enpresa partaidetu baten bitartez.

Enpresa horiek, askotan mendebaldeko Afrikako ur guztien gehiegizko ustiapenaren zubi burua dira. SOPERKAko arraste ontziak, adibidez, Senegalen erregistratuta daude, baina jatorriz Espainiakoak dira, eta salatu da²⁵ Liberiako uretan jarduten direla Senegalen eta Liberiaren arteko aldebiko akordio baten bitartez arrantzan egiteko baimena jaso ondoren. Salatu da ontziak izkirak harrapatzen ari direla era intentsiboan ur sakonetan, eta horrek kezka sortu du hauskortzat jotzen diren baliabideetan arrantza horrek duen eraginaren inguruan.

CNFC mendebaldeko Afrikan legez kanpoko, aitortu gabeko eta arautu gabeko arrantzan ibiltzen dela ere salatu dute²⁶, esaterako, 2000 eta 2014 artean Senegalgo flotaren tonak aitortu ez dituztela.

Senegalgo gobernuak argitaratutako dokumentuek ez dute inoiz ere agerian uzten pantaila enpresen arazoa. Haren datuek Senegalgo flota industrial jasotzen eta aztertzen dute egiaz enpresa nazionalak kontrolatuko balute bezala. Ez da ontzi industrialen izenik ematen, ezta armadoreari buruzko daturik ere, eta ontzi bakoitzaren lizentzia mota ere ez. Gainera, azken estatistika ofizialak 2019koak dira.

Hala eta guztiz ere, 2024ko maiatzean, martxoaren 24ko hauteskundeen ondoren, gobernu berriaren lehen ekintzen artean, Arrantzako eta Itsas eta Portu Azpiegituretako Ministroak 2024ko maiatzaren 6an arrantzan egiteko baimena zuten ontzi industrialen zerrenda²⁷ argitaratu zuen.

Zerrendan, guztira, 151 ontzi industrial daude: 19 Europako ontziak dira, Senegalgo Ekonomia Eremu Esklusiboan (EEE) sartzen direnak EBren APEaren abaroan: 8 Frantziakoak dira, eta 11, Espainiakoak; azken horietatik 9 euskal ontziak dira, Bermeokoak, Hondarribikoak eta Euskadiko beste portu batzuetakoak

Gainerako 132 ontzi industrialek, ofizialki, Senegalgo bandera dute, baina litekeena da horietako batzuek aipatutako sozietate mistoaren eskemapean egotea (*joint venture*).

Zehar-Errefuxiatuekin-eko taldeak egiaztatu ahal izan duenez, horietatik gutxienez 19 ontzi dira Espainiako enpresek kontrolatutako armadoreenak, zehazki:

- > SOPERKA S.A.: GRUPO PEREIRA enpresa espainiarrak kontrolatua, 6 arraste ontziren eta inguratze ontzi baten jabea²⁸;
- > SENEVISA: GRUPO S.A. EDUARDO VIEIRA enpresa espainiarrak kontrolatutako sozietate mistoa, 6 arraste ontziren jabea²⁹;
- > HISEPEC: BALTIMAR S.A. enpresa espainiarrak kontrolatutako sozietate mistoa, 6 arraste ontziren jabea³⁰.

APEko akordioen abaroan arrantzan diharduten Europako ontzi ia denak inguratze ontziak dira, baina Senegalgo bandera duten 132 ontzi industrialetatik 122 arraste ontziak dira, eta esan ohi da horiek direla itsas ekosistemarako kaltegarrienak. Orain arte egindako analisia ikusita, ez litzateke harritzekoa izango banderen banaketa hori kanpoko jabeek egindako gabetzea ezkutatzeke estrategia baten ondorioa izatea.

ESPOLIAZIO ETA ERREPRESIO POLITIKAK, ALDAKETARAKO ITXAROPENA

Senegalgo kalen narriadura da Senegalgo klase politikoaren zati batek azken 20 urteotan ingurumen baliabideekin izandako kudeaketa txarraren adibideetako bat, baita enpresa multinazionalak horiek metatzeko izandako strategiarena ere.

Gizarte zibilaren 2019ko ekaineko mobilizazioek, hain zuzen, boterearen kudeaketari eta goi kargu politikoen eta atzerriko multinazionalen arteko klientelismo harremanari aurre egin nahi izan zieten. Gobernuak protestari polizia

indarkeriaren bidez erantzun zion, eta indarkeria hori herritarren erantzunaren hein berean handitu zen 2021etik aurrera.

Protesten jatorria Senegalgo azken aldiko historiako ustelkeriako eta ondasun naturalen metatzeko eskandalurik handienetako bat da. 2011n, Petro-Tim Ltd.³¹ enpresak –Vasile Frank Timiş espekulatzaile australiarrarekin lotua³²–, petrolio industrian ia ezezaguna zenak, Abdoulaye Wade presidente ohiaren gobernutik bi emakida lortu zituen Senegalen bi gas- eta petrolio depositu izan zitezkeenak zundatzeko. Emakiden trukean eroskeria egon izanaren susmoek erraztu egin zuten 2012an Macky Sall boterera heltzea, hauteskundeetarako «eroskeria gobernu sistema gisa» izatearen aurkako programarekin aurkeztu baitzen.

Herrialdeko presidente zenean, legez kanpokoak zirela publikoki egiaztatu zen arren, Macky Sallek emakidak sinatu zituen. Hilabete beranduago, Aliou Sall, ordurako Petro-Tim enpresaren jabe Frank Timişen aholkulari zena, enpresako Senegalgo kudeatzaile izendatu zuten. Ikerketek Aliou Sallen eta Petro-Tim enpresaren arteko akordio bat azaleratu zuten, presidentearen anaia kudeatzaile bihurtzekoa Senegalgo gobernuak emakidak eman bezain laster, hilean 22.300 euro jaso zitzaizkion³³ bost urtez, baita hiru milioi dolarreko balioa zuten akzioak agindu izana ere.

2014an, Timişen enpresa mamuak bere akzioak saldu zizkion, ehunka milioi euroren truke, BP p.l.c. petrolio enpresa erraldoiari³⁴ eta haren bazkide estatubatuar Kosmos Energyri.

BP multinazional berak adierazi zuen Petro-Timekiko kontratua inoiz lortu duten kontraturik eskuzabalenetakoa dela³⁵.

Petro-Tim afera deritzona ikertu eta salatu zuten, besteak beste, Baba Aidara senegaldar kazetariak eta orduko diputatu Ousmane Sonkok, 2018an argitaratutako *Senegalgo petrolio eta gasa, espoliatio baten kronika* liburuaren autoreak.

2019ko ekainean, hauteskundeek Macky Sallen presidentzia berretsi ondoren, kasua eztabaida publikoaren erdigunera itzuli zen, BBC Afriqueren *Senegal: hamar bilioi dolarreko eskandalua*³⁶ erreportajea eman zutenean, gobernuko goi karguen inplikazioaren froga berriak azaleratu baitzituen.

Erantzuna 2019ko ekainaren 8an –dokumentala eman eta egun gutxira– sortutako *Aar Li Nu Bokk*³⁷ kolektiboaren inguruan antolatu zen, Dakarren. Herritarren fronte zabala da, alderdi politikoek, erakunde sozialek eta mugimendu herrikoiek osatua. Haren helburua da borroka egitea Senegalgo politikako goi karguen konplizitatearen abaroen diharduten klientelismo sareek eta multinazionalen herrialdeko aberastasunak arpila ez ditzaten.

Lehen manifestazioa debekatu egin zuten, «ordena publikoaren aurkako mehatxu» posibleak tarteko. Atxilotetak atxiloteta, eta poliziaren jazarpena gorabehera, herritarrek kalera irten ziren, eta Aliou Sallek dimisioa ematea lortu zuten. Eskaria harago zihoan, ordea: kudeaketa politikoan eta baliabide naturalen kudeaketan errotiko aldaketa nahi zuten. Protestek diasporaren babesa ere izan zuten, Madrilen eta Bartzelonan manifestazioak egin baitziren, baita Europako beste hiri handi batzuetan ere.

Ousmane Sonko protestaren bozeramaile bilakatu zen. Lanbidez zerga ikuskaria izanik³⁸, tartea zeraman funtzionarioen eta goi kargu politikoaren ustelkeria eta klientelismoa salatzen, baita enpresa multinazionalarekin zuten konplizitatea ere³⁹. Hurrengo hilabeteetan, Ousmane Sonko oposizioko buru nagusi bihurtu zen, boterean zegoen klase politikoaren ustelkeria salatu baitzuen. 2021eko martxoaren 3an, Ousmane Sonko atxilotu egin zuten, eta «bortxaketa eta heriotza mehatxuak» egin izana leporatu zioten.

Liskarrak egon ziren, 11 manifestari hil ziren, hamarka zauritu zituzten eta arpilatze handiak ere egon ziren.

Hortaz, 2023ko lehen hilabeteetan, eta akusazioak bertan behera geratu arren, Sonkok bi urteko kartzela zigorra jaso zuen «adingabeen ustelkeria»gatik. Herrialdeko gazte asko eta asko kalera irten ziren hari babesa adierazteko, eta botere judizialari ustelkeria eta gobernuaren zerbitzura egotea leporatu zioten: liskarretan 23 lagun hil eta 500 zauritu zituzten, Senegalgo historiaren gertakari bortitzenetako batean.

Protestak 2023ko uztailan egin zituzten berriz, Sonko berriz atxilotu zutenean «matxinadarako gogo berotzeagatik, Estatuaren segurtasuna ahultzeagatik, liskar politikoak eragiteagatik eta elkarte kriminalagatik», eta uztailaren 31n ere bai, alderdia (PASTEF⁴⁰) legez kanpo utzi zutenean. Azken protestak 2024ko otsailan gertatu ziren, gobernuak hauteskunde presidentzialak atzeratuko zituela iragarri zuenean. Gazte asko irten ziren Saint Louisen, Dakarren eta Ziguinchorren manifestaziora. Senegalgo polizia agenteek horietako hiru hil zituzten⁴¹ –haien artean, 16 urteko mutiko bat– eta ehunka atxilotu⁴².

2024ko martxoaren 25ean hauteskundeak izan ziren, Ousmane Sonkoren alderdiak irabazi zituen, Bassirou Diomaye Faye errepublikako presidente bihurtu zen⁴³ eta Sonko, lehen ministro –Faye Diomaye Président koalizioko hautagai izan zen, PASTEF alderdia legez kanpokoak izan baitzen 2024ko martxoaren 24ra arte, hau da, hauteskunde presidentzialak egin eta bi egun beranduago arte–. Haien konpromisoen artean dago aurreko administrazioak sinatutako petrolio eta gas akordioak, meatzaritzakoak eta arrantzakoak berrikustea edo birnegoziatzea, Senegalentzat kaltegarritzat joz gero⁴⁴.

Politika horiek erakusten dute belaunaldi berriek nazioarteko harremanak –bereziki Mendebaldearekikoak– aldatzeko gogo dutela eta herrialdearen baliabide komunak kudeaketa aldatu nahi dituztela, baita harreman neokolonialak gainditu ere. Lehen urratsak itxaropen iturri dira. Gobernu berriaren gardentasuna eredugarria izan da, bereziki arrantzaren eremuan. Gobernua osatu eta bi hilabete baino gutxiago, ontzi industrialen (nazionalak eta nazioartekoak) arrantza baimenen zerrenda argitaratu zen, ontziaren eta armadore jabearen izena, erabil zezakeen arrantza teknika eta arrantzatzeko gune baimendua zehazten zituen.

Elkarriketatuek itxaropenez eta zuhurtziaz begiratzen dute, ezin baitute ahaztu duela 12 urte Macky Salles presidentzia lortu zuela «ustelkeriaren kontrako bokazio berritzaileagatik».

IRTEERA

KAIUKOEN SALMENTA ETA THIAMANA

Diakiték gogoan du nabigatzera atara izana eta arrantzatutakoa nahikoa ez izana gasolinaren, sareen eta lizentziaren gastuei aurre egiteko. Ez zen ezer gelditzen, ez ontziaren jabeentzat, ez eskifaientzat. Esan zuen bi astean orduak eta orduak arrantzan eman arren, familiari jaten emateko beste irabazten zuela, ez gehiago.

Aldaketarako itxaropenari ere ezin eutsi, itsasoa saldu zuen gobernuak berak adosten baitzituen Espainiatiko deportazio hegaldiak, ez baitzituen atzerriko arrantza ontziak kontrolatzen, baina kosta patruilatzen baitzuen Europarantz ihes egiten duten kaiukoen irteera blokeatzeko.

Diakité, istorio bera duten gainerako kideak bezala, Senegaldik atara zen herrialdean indarkeria soziopolitikoa areagotu zenean eta gobernuaren kontrako manifestazioak kriminalizatzeko prozesua hasi zenean. Gogora ekarri du protesta sozialak indarkeriaz zapaldu zituztela eta poliziak kontzentrazioetan parte hartu izanaren susmagarri orori jazartzen zitzaiola.

Dioufek kontatu digu poliziak etxeratze aginduak ezartzen zituela gobernuaren aurka protesta egiten zutenak bil ez zitezen, batez ere hauteskundeak hurbildu ahala. Garai hartan, arrantza gisa zebilen lanean, eta eguneko orduak ahal beste zuzentzeko asmoz, itsasora argitu aurretik irteten ziren. Etxeratze agindua indarrean zegoela kalean ikusi zutenean, poliziek borrekin kolpeka hartu zuten, manifestari gazte bat zelakoan. Esan ziren arrantzara zihoala, kideak zain zituela, baina ez zioten sinetsi eta kolpeka jarraitu zuten, harik eta konortea galdu zuen arte.

Hain zen etsigarria egoera, ezen egun batean, kideekin batera lanera joan zenean, jakin baitzuten jabeak *gaala* eta piragua saldu zituela eta haren berririk ez zela.

Diouf ez zen harritu, egoera ikusita, *gaal*arekin egin zitekeen gauza bakarra baitzen balio zuena baino sos gutxiagorengatik saltzea. Nork erosiko zuen orain, itsasoa ur desertu baten modukoa denean?

Lamine *thiaman*az aritu da, itsasoko olatuen eta etsipenaren arteko azken negozio posiblea egiten duenaz. Senegalen *thiaman* deritze *gaalak* erosten eta Kanariar Uharteetara bidaiak antolatzen dituztenei.

«Haiek antolatzen dute konboia, patera; kaiuko handiak erosten dituzte eta kaiuko horrekin bezeroak bilatzen dituzte».

Lamine

Txalupak azkar betetzen dira, gazte askok ikusi baitituzte haien bizimoduak desagertzen, eta Europara jo nahi baitute; eta gazte asko dira arazoak izan dituztenak zuzenean edo zeharka gobernuaren aurkako manifestazioetan ibili direlako, eta poliziaren jazarpena jasan dutenak.

Halaber, asko dira lanik gabe gelditu diren kapitainak, *navigateur*rak, haizeak ezagutzen dituztenak, nabigatzen dakitenak eta ospa egin nahi dutenak. Horrelaxe osatzen da eskifaia.

Konboira igotzeak, gutxienez, 400.000 CFA franko balio du; 600 euro baino apur bat gehiago lagun bakoitzeko, eta asko eta asko dira ordaintzeko prest daudenak, Europara heltzeko bide bakarra baita. Seguruena hegazkinez egitea izango litzateke, baina oso zaila da bisa lortzea. 2023an, Dakarren Europako kontsulatueta (EB eta Schengen) aurkeztutako 63.249 eskabideen %42 baino gehiago ukatu egin ziren⁴⁵. Espainiak are ukatze tasa handiagoa du: kontsulatuaren 7.036 erantzunetatik % 47 baino gehiago izan ziren ezezkoak⁴⁶. Gainera, 2. kapituluan esan dugunez, iaz aireportuko iragaitza bisa bat ezarri zuen bizitza itsasoan galtzera arriskatu gabe iristen saiatu zirenentzat.

Bisa ukatzeak bidaia segurua ukatzea esan nahi du. Txanpon bat botatzea bezala da. Ukatzen den bakoitzean, bisa eskatzeko behar den dirua galtzen da, joan-etorrirako txartelen kostua, egonaldikoa, seguru medikoarena eta burokraziako gainerako kostuena. Kalkulatu da 2023an Senegalgo herritarrek Europari 2.122.480 euro⁴⁷ ordaindu zizkiotela ukatutako 3.312 bisa eskaerengatik bakarrik. Espainiak ia 265.000 euro jaso zituen Senegalgo herritarrei ukatutako bisen truke.

Bisa lortzen laguntzeko, aukera dago funtzionario bati ordaintzeko, behar diren dokumentuak lortzea errazten duen burokrataren bati, eskaerak aurrera egin dezan jakin beharrekoa dakien norbaitekin harremana duen bati. Senegalgo kideek diote diru asko dela, 4 milioi CFA franko izan daitezkeela, 6.000 euro baino apur bat gehiago. Inork ez daki zehazki nola funtzionatzen duen, zenbat diru balio duen eta norekin hitz egin behar den; nolahi ere, ados daude kontaktuak eta dirua behar dela, diru asko, hainbeste, ezen ez baitirudi aukera erreala denik ere.

Itsasoko bidea, arriskutsu eta hilgarriena, horixe bihurtzen da aukera bakarra.

Bidaia luzea da, bost eta zazpi egun artekoa, irteera nondik den: Ndarretik, ipar muturretik; edo M'Bouretik, hau da, hiriburuaren hegoaldeetik. Itsasoaren araberakoa ere bada iraupena, eta kaiukoak bidaia irau dezakeen. Ez dira ontzi berriak erabiltzen, eta berriak balira ere, ez daude hainbeste jenderen kargari –70 edo 100 pertsona, kasu batzuetan– hainbeste egunez eta itsaso zabalean eusteko eginak.

Gainera, batzuetan gauzez irten behar da, eta bide zailetatik joan beharra dago, kostatik ahalik eta urrunen, nazioarteko uretan, eta arriskua dago Atlantikoko haizeek txalupa mendebaldeantx bultzatzeko, ozeano erdirantz. Jende asko marinel lanetan aritu izan da, eta badute baldintzak nabigatzeko onak diren jakiteko nahikoa esperientzia. Dena den, badago inoiz ontziratutako ez denik eta *thiamanak* dioenean itsasoratzen denik ere.

«Gu zorionekoak izan ginen, itsasoan lanean ari ginen, eta *thiamanak* bidaia antolatu zuen interesatzen zaiona dirua delako. Kaiukoarekin irteteko esan zigunean, bagenekien eguraldia ez zela ona.

Orduan, esan genion ezetz, guk heldu egin nahi genuela, eta itxaron egingo genuela eguraldia ona izan arte. Beste batzuk, ordea, irten egiten dira, eta itsasoan galtzen, *thiamanari* ez zaiolako inporta, fidatu egiten direlako eta itsasoa gaizki dagoenean irteten direlako».

Lamine

Askotan, irteera ezin da planifikatu.

«*Egia esan, eguraldia gaizki egon izan balitz ere ni gaalera igoko nintzatekeen, ezin nuelako han jarraitu, Senegalen*».

Moustapha

«*Etxean nengoen, joan egin nahi nuen, baina ez nuen ezer antolatu, beldur nintzen. Bat-batean, lagun batek esan zidan bazihoazela, portuan txalupa bat prestatzen ari zirelako, itsasoratzeko. Ni ikustera joan nintzen, eta jendeari txalupara igotzen laguntzeko. Leku bat zegoela jakin nuen, eta txalupa irteten ari zenean, igo egin nintzen*».

Babakar

HELMUGA KANARIAR UHARTEAK, EUROPARA HELTzea

Zer da europar ametsa?

Sekourentzat, txikitan entzuten zuen ipuin bat, aitak, anaia zaharrak eta osabak bizitza berri bati heltzea erabaki zutenean; beste batzuentzat, mugikor baten pantailaren beste aldetik begiratzen dutenean gero eta erreago bihurtzen den ideia bat.

Errotzen den hazi bat, egunero-egunero Frantziatik, Italiatik, Espainiatik, Ingalaterratik eta abarretik heltzen diren kontakizunekin eta irudiekin ureztatzen dena. Erraza da pentsatzea gaur egun dena jakin daitekeela: albisteak irakurri, bidaiaren arriskuak ezagutu. Askorentzat, eskura duten aukera bakarra da, gorpil zorotik irteteko era bakarra, eta, beste aukerarik ez dagoenean, hobe da aukera ona dela pentsatzea.

Europa itsasoaren beste aldean dago, baina oso hurbil dago kolonoen hizkuntzaren, historiaren, futbol taldeen, ekonomia harrapariaren, base militarren eta hamarkadaz hamarkada normalizatzen jarraitzen duen indarkeriaren bidez. Haien banderek Senegalen kulunkan jarraitzen dute, eta ez soilik kontsulatueta eta arrantza ontzietan. Espainiakoa eta haren koloreak, gorria, horia eta gorria, ondo ezagutzen dituzte marinela ez direnek ere. Guardia zibilek eta polizia nazionalak kostan zehar patruilatzen dute, marinarekin eta Senegalgo beste kidego armatu batzuekin batera, egiaztatzeko arrantzan egitera doazen kaiukoek dagoeneko ez dauden arrain horiek dituztela, eta ez direla ari gaztez, emakumez eta hurrez beteta, gaez Mauritaniako, Marokoko eta urrunagoko uretarantz itsasoratzen, Kanariar Uharteak helmuga dituztela.

Sekouk hamalau saiakeraren ondoren lortu zuen Espainiara heltzea. *Navigateur* familia batean jaio zen, eta bera inoiz arrantza profesional lanetan aritu ez bazen ere, jakinduria horretaz inguratuta hazi zen, eta gazte-gaztetik ikasi zuen nabigatzen.

25 urte baino gutxiago zituela, konboira igotzea erabaki zuen. Kapitain gisa aurkeztu zuen bere burua, bidaiari ordaindu behar ez izateko.

Lehen aldian, ez zekien nola zebilen motorra, baina bazekien noiz zen seguruen nabigatzea, eta nola mantendu kostatik distantzia egokia eta norabidea, mendebalderantz desbideratu gabe. Ez zuen beldurrik. Lehen saiakerak, baina, gutxi iraun zuen, 5 ordu nabigatu ondoren Marokoko kostazainek ontzia nazioarteko uretatik hurbil harrapatu eta kostara itzularazi zuten arte.

«Hamahiru aldiz saiatu naiz, eta hamalagarrenean lortu dut. [...] Marokoko itsasoan harrapatzen gintuzten eta lehorrera eramaten gintuzten, edo kostatik irten behar genuenean. [...] Beste batzuetan, kaiukoa urez betetzen zen eta arraunean itzuli behar izaten genuen».

Marokoko jendarmeei itsasertzera itzultzen zituzten: batzuetan, ezerezaren erdian uzten zituzten, hegoaldeko mugatik hurbil; beste batzuetan, espetxeratu egiten zituzten. Sekou askotan egon zen preso. Askatzen zutenean,

lana bilatzen zuen. Ez soilik ura eta jana lortzeko eta bizirik irauteko, baizik eta ez «zoratzeko» beste konboi baten zain zegoen bitartean. Beste batzuk ezkutatuta egoten ziren, inork lapurtzeko edo min egiteko beldur, edo poliziak kolpatzeko edo berriz espetxeratzeko beldur.

«Esan nien ezin nuela horrela bizi. Irten egin nintzen, igeltsero lana topatu nuen, eraikin batean adreiluak igotzen eta jaisten. [...] 100 dirham lortu nituen astebetez irauteko. Egun batean, 17 pertsonako talde bat topatu nuen, eta dirua eskatu zidaten. Aurre egin nien eta ospitalean amaitu nuen. Hurrengo egunean, berriz ere bilatu behar izan nuen bizimodua».

Sekouk gogora ekarri du bertako gazte batzuek eta poliziek beltzen aurka zerabilten indarkeria. Bazekien gurutzatu egin nahi zutela, ez zutela eskubiderik eta inork ez zituela defendatuko.

«Oso zaila zen, oso gogorra [...]. Hango gazteek ez gintuzten bakean uzten, poliziak espetxeratu egiten zintuen. [...] Nik irauteko modua bilatzen nuen, borroka eginez eta espetxezainekin ere sarea egiten saiatzen. Bizirik irauteko nire modua nuen, eta ez nuen amore ematen. Oso-oso zaila zen; lau hilabete izan ziren, baina infernu hutsa izan zen. Ahal nuen moduan irauten nuen».

Kartzelatik irteten nintzenean, segidan bilatzen nuen konboi bat eta neure burua kapitain aurkezten nuen, ordaindu behar ez izateko. Beste batzuek, ordea, urtebete ere itxaron behar izaten zuten, dirurik ez zutelako, lapurtu egin zitelako edo bidaian kostara itzuli zituztelako eta ezin zutelako berriz ordaindu.

«Espetxetik askatzen nindutenean, konboi bat bazegoen, kapitain aurkezten nuen nire burua, ordaindu beharrik ez izateko. [...] Batzuek hilabeteak edo urteak itxaroten dituzte, dirurik ez dutelako eta beren burua kapitain aurkeztu ezin dutelako.

Sekouk bazekien zer arrisku zuen txalupako kapitain aurkezteak; *thiamanarekin* zerikusirik ez izan arren, hala egiteak Espainiara heltzean pertsona trafikatzailatzat jotzeko arriskua baitzekarren.

«Txalupan, bidaide guztiak konbentzitu behar nituen: Espainiara heldutakoan ez zela kapitainik, guztiok berdinak ginela. Bidaiaaren amaieran denek lagundu eta arraun egin behar zutela ere bai. Gaur ere gogoan dut mutil batek ez zekiela arraunean, eta irten ginenetik itsas salbamenduak erreskatatu gintuen arte ez ziola utzi kaiukotik ura edalontzi batez ateratzeari».

Sekouk kaiukoan ontziratzen zirenei beti esaten zien talde bat izan beharra zutela. Haiek lasaitzen saiatzen zen, eta haien erreferente izaten, jakin bai baitzekien beldurra olatuak bezain arriskutsua dela. Itsasoaren erdian, begiek lurra urduritasunez bilatzen dutenean zerumugari begira eta zerua eta ozeanoa bereizi ezin direnean, haren esanetan; haizeak hotz jotzen duenean eta txalupa dardarka hasten denean; une horretan, urduritasuna eta beldurra zabaltzen da jendearen artean. Orduan, pertsona oro izan daiteke arriskutsua.

«Taldea bat izan behar dugu, ez dago txorakerietarako unerik. Kaiuko asko hondoratzen dira urduritasuna heltzen delako itsaso erdian, ezer ikusten ez denean. Jendea zoratu egiten da, kaiukoan ura sartzen hasten da, ia elkar hiltzen dute, mugitu egiten dira eta hondoratu egiten da ontzia».

SENEGALGO MUGEN KONTROLA

Muga ez da mapa batean egindako marra ikusezin bat; zabala eta luzea da, olatu baten moduan heltzen da arrantza portuetara eta Dakarreko auzoetako kaleak blaitzen ditu.

Aurreko urtearen amaieran, Espainiako Barne Ministerioko komunikatu batek⁴⁸ nabarmendu zuen urriaren 29ra arte «Senegalen zabalduetako Espainiako segurtasun indarren kooperazioak eta bertako autoritateen jardunak» lortu

zutela «jatorrian 7.132 migratzaile atzematea, guztira». Halaber, adierazi zuen «Kanarietara herrialde horretatik era irregularrean heldutakoen % 49 saihestu zituztela».

«Espainiak Senegalen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen zuzkidura iraunkorra du, tokiko segurtasun indarrekin lanean aritzen dena [...], guztira 38 kide izaten dira (33 guardia zibil eta 5 polizia nazional), lau ontzi, helikoptero bat eta lur orotako 13 ibilgailu erabiltzen dituztenak patruilatze bateratuko (lurra, itsasoa eta airea) misioak egiteko. Gainera, [...] Guardia Zibilaren CN-235 hegazkin bat dago Dakarren Senegalgo eta Mauritaniako⁴⁹ kostak patruilatze»ko, komunikatuak dioenez.

«Itsas zaintzarako hegazkin» hori erabiltzeak aukera eman du bi hilabeteen (2023ko urriaren 16tik abenduaren 15era) urteko lehen hilabeteetan adina pertsona harrapatzeko, Senegalgo eta Gambiako uretan 59 ontzi geldiarazi baitzituzten, guztira 7.000 pertsona baino gehiago zeramatzatenak⁵⁰.

Senegalek, Mauritaniak, Gambiak eta Marokok Kanariar Uharteetarako bidean atzemandakoak batuz gero, Afrikako kostara 17.400 lagun baino gehiago itzuli zituzten⁵¹ 2023ko lehen hamar hilabeteetan.

Datu izugarriak dira, kontuan hartuta 2023an kanariar artxipelagora 39.910 pertsona⁵² heldu zirela, eta horrek krisi politiko eta humanitarioa sortu zuela.

Barne Ministerioak goratu egin du mugak kontrolatzeko ezarri duen lankidetzaren emaitza, «jende gehiago» iristea saihestu baitu, baina logika hori gezurrezkoa da, ez ikusiarena egiten baitio atzemandakoak berriz ahaleginduko direla. Horrelako diskurtsoek agerian uzten dute Espainiak hirugarren herrialdeekin dituen akordioen matrize nekropolitikoa: zenbat eta igaroaldi saiakera gehiago, orduan eta aukera gutxiago bidean bizirik irauteko. Heriotza arriskua disuasio elementu gisa erabiltzen da.

SENEGALDARRAK, NEKROPOLITIKAREN BIKTIMA

Ezinezkoa da zehazki neurtzea zenbat senegaldar hil diren Europarako bidaian. Estatistikak beti motz gelditzen dira. Lehenik eta behin, zifrek ez dutelako bizitarik kontatzen, ezta heriotzengatik dolurik pasatzen ere. Hondoratutako ontziek ez dute arrasto materialik uzten, eta nazioarteko uretan itotako gorpuak ez dira berreskuratzen. Familiek ezin dituzte desagertuak lurperatu.

Topaketetan parte hartu zuten senegaldar guztiak itsasoz heldu ziren Espainiara, Afrikako ipar mendebaldeko kostatik Kanariar Uharteetara nabigatzen. Batzuk behin baino gehiagotan saiatu ziren, beste batzuek, aldiz, lehen saiakeran lortu zuten. 20ek asiloa eskatu dute herrialdeko egoera politikoa dela eta. Eskubide zibil eta politikoen urraketak bat egiten du han eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen urraketaekin.

Afrikatik Espainiara heltzen direnen datuak, Barne Ministerioak berak «dokumenturik gabeko migratzaile» izendatzen dituen horien ingurukoak, ez daude nazionalitatearen arabera banatuta, ezta profilaren arabera ere (sexua, adina, jatorri testuingurua eta abar). Beste iturri batzuk erabiliz bakarrik jakin daitezke haien jaioterriak heltzen direnen eta iristen diren lekuen –Kanariar Uharteak, Balearrak, Andaluziako Kosta, Ceuta edo Melilla– profil orokorragoa erakusten diguten beste gai batzuk.

Barne Ministerioak tinko heltzen dio bere jarrera politikoari, eta ez du argitaratzen desplazatuena jaioterririk, ezta banakako ezaugarriarik ere. 2022ko irailean, Kongresuak 2021ean Espainiara iritsitako hirugarren herrialdeetako, adibidez, Senegalgo, nazionalen kopuruari buruz egindako galdera idatzi sorta bati⁵³ erantzunez, honako hau erantzun zuen Gobernuak:

«Egindako galderei dagokienez, jakinarazi da Espainian 2021ean era irregularrean 42.492 pertsona heldu zirela. Horrez gain, 3.594 lagun bueltatu ziren. [...]

Azkenik, azpimarratu beharra dago etorkinen sarrera eta itzulera eskatzen den nazionalitateei dagokienez, horrelako datu estatistikoak zabaltzeak kanpo harremanen arazoak ekar diezazkiokeela Espainiari, eta zaildu egin dezakeela

etorkizunean enbaxadek eta kontsulatuak atzerriko herritar irregularrak dokumentatu ahal izatea. Horrek, gainera, gure kanporatzeen eraginkortasuna asko murriztuko luke.»

Gobernuaren erantzuna, 184/92521 - 184/92526 **54**, 2022/09/30

XIV. legegintzaldian (2019-2023) oposizioko buru zen Alderdi Popularreko diputatuak berariaz adierazi zuten heldutakoen datuak jakin nahi zituztela, bueltatutakoen kopuruarekin alderatzeko. Sei galderek formula bera errepikatzen dute: «[...] nazionalitateko zenbat etorkin sartu ziren era irregularrean [...] eta zenbat bueltatu ziren?» 2022ko ekainaren 24ko Melillako sarraskitik bi hilabetera, Alderdi Popularrak auzitan jarri zuen Espainiako Gobernuaren mugen kudeaketa, etorrerak saihesteko eta deportazioak bizkortzeko gaitasunari zegokienez, batez ere.

Adibide hau estatuko politikaren ikusmolde komunaren erakusgarri da; izan ere, bai galderek eta bai erantzunek, azpimarratu egiten dute mugen kudeaketaren eta datu bilketaren helburua: sarrera galaraztea, pertsona asko identifikatzea eta kanporatzea, gelditzen direnak prekarizatzea eta izutzea.

2024ko otsailean, Gobernuari Marokotik, Mauritaniatik eta Senegaldik etorkinak ez heltzeko duen disuasio gaitasunaren inguruan egindako beste galdera batean, adierazi zuen faktore sozioekonomikoak direla pertsonen irteeraren kausa generikoa, eta jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeekiko lankidetzaren politikaren garrantzia azpimarratu zuen, mugak blokeatzeko:

«Horrez gain, adierazten da Afrikatik datorren migrazio presioa egiturazkoa dela, eta, nagusiki faktore sozioekonomikoek eragina. Gainera, azken urteotan faktore horiei beste faktore koiuntural batzuk gehitu zaizkie, eragin bikoitza dutenak: gure bazkideen prebentzio gaitasunari eragiten diete, eta Europar Batasunerako migrazio presioa handitzen dute. Hori horrela, Espainiak jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeekiko lankidetzaren indartu du, hori baita immigrazio irregularren aurka egiteko modu egiaz eraginkor bakarra».

Gobernuaren erantzuna – 9742 zk. – 2024/02/24

Etorrera masibo eta bereizi gabeen iruditeria elikatzen da, eta, ondorioz, desplazamenduaren fenomenoak ez da ulertzen jatorrizko testuinguruetatik eratorritako kausa zehatzen ondorio gisa, baizik eta etorrera lekuetan krisi egoerak sortzen dituzten banakako erabaki multzoen emaitza moduan.

Epigrafe honetan aztertu ditugu Afrika mendebaldeko bidetik Espainiarako senegaldarren migrazioari buruzko datuak, hain zuzen, Afrikatik kanariar artxipelagora doan itsas bidetik heldutakoenak.


Afrikako migrazioaz hitz egiten denean, Espainiako prentsak etengabe aipatzen du aipatutako 2006ko kaiuko krisia, 39.000 lagun Espainiara txalupen bidez heldu zirenekoa (31.700 Kanarietara). Horrez gain, urte horretan 2.000 lagun inguru heldu ziren Ceutara eta Melillara. Guztira, 41.200 lagun inguru heldu ziren. 2018ra arte ez zen antzeko zifratarik iritsi. Hori dela eta, urte hori izan da erreferentziazkoa 2023an uharteetan bizitako egoerara arte.

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen txosten baten⁵⁵ arabera, 2006an Kanarietara heldu ziren ia 31.700 pertsonetatik ia erdiak senegaldar herritarrek ziren. Txosten horrek berak, beste estatistika batzuekin bat etorritik, agerian uzten du 2014aren eta 2015aren artean Senegalgo migrazioak izandako garrantzia.

EBko kanpoko muga guztietatik gertatutako sarrerak 2014tik aurrera hazi ziren nabarmen. Nahiz eta gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikakotzat erregistratzen diren, orokorrean, litekeena da gehienbat Boli Kostatik, Gambiatik, Gineatik, Malitik, Nigeriatik eta Senegaldik etorriak izatea, hangoak baitira 2014tik Mediterraneo erdiko (Italia), Mediterraneo mendebaldeko eta Kanariar Uharteetako (Espainia) bideetatik sartu direnetako gehienak.

1 GRAFIKOA


Senegaldik eta Saharaz hegoaldeko beste herrialdeetatik EBra 2009aren eta 2024ko ekainaren artean heldutako pertsonak:



Iturria: bertan egina, Frontexen datuetatik abiatuta.

2 GRAFIKOA

Senegaldik eta Saharaz hegoaldeko beste herrialdeetatik Espainiara 2009aren eta 2024ko ekainaren artean heldutako pertsonak.



Iturria: bertan egina, Frontexen datuetatik abiatuta.



2011 eta 2017 artean, Europara heldutako senegaldarren % 93k Mediterraneo erdiko bidea egiten zuten Italiaraino, eta 2018tik, ordea, ia % 80k Atlantikoko bidea hartzen dute Espainiaraino. Horren arrazoia da Italiaren eta Libiaren arteko memorandumak, migrazio bideak kontrolatzeko sinatu zutena 2017an, eta 2025a arte berritu zutena, 2. kapituluari aipatu dugunez. Gainera, datuek iradokitzen dute Libiako mugen kontrolean (herrialde horrek 10 urte baino gehiago daramatza zatikatuta eta hainbat talde armatuk kontrolatuta) gehienbat Saharaz hegoaldekoen eta, zehazki, desplazatu beltzen kontra egiten ari direla migrazio bidean, beste nazionalitate batzuk baino askoz errazago ezagut daitezkeelako. GKE batzuek salatu dute Saharaz hegoaldekoena dela migratzaileak atxikitzeko Libiako zentroetan⁵⁶, Italiak finantzatutakoetan, indarkeria gehien jasaten duen kolektiboa.

Italiako sarreren estatistikak ikusita, Kanarietako bidea bihurtu da Afrika mendebaldetik eta, bereziki, Senegaldik datozen desplazatuen aukera bakarra. Hortaz, geografikoki segurtasun gutxieneko bidea, Atlantikoan 7 egunez nabigatzea eskatzen duena, aukera posible bakarra bihurtu da.


Lehorretik Ceuta eta Melillako barrendegi autonomoetara heltzea ia ezinezkoa da, Espainiari presio egiteko Marokok zaintza txikitzen duenean izan ezik.

ASILO ESKUBIDEA ESKURATZEA ETA AITORTZEA

Azken 10 urteotan (2014 eta 2023 artean), 63.900 senegaldarrek eskatu dute asiloa EBN, bereziki Frantzian, Italian eta Espainian.

3 GRAFIKOA

2011 eta 2023 bitartean Espainian, Italian eta Frantzian nazioarteko babesa eskatu zuten senegaldarrak:



Iturria: bertan egina, Espainiako Barne Ministerioaren datuetatik abiatuta.

ESPAINIA


2014tik aurrera, Europar Batasun osoan handitu egin zen Senegaldik zetozen asilo eskatzaileen kopurua. Dena den, 2018an Libiatik Mediterraneo erdialdean barrena Italiarantz egiten zen bidea itxi zenean, orduan hasi ziren ugaritzen senegaldarren etorrerak eta nazioarteko babes eskaerak Espainian.

Eskaeren eta itsas bideetatiko etorreren grafikoak alderatzen baditugu, ikus daiteke eskaerek bilakaera paraleloa dutela hazkundeari dagokionez, oso gutxi badira ere etorrerekin eta herrialdeak bizi duen egoerarekin alderatuta.

Azken zortzi urteotan (2017tik 2024ko uztailera arte) Espainian, guztira, Senegaldik datozen 13.764 pertsonak eskatu dute asiloa. % 4 inguru dira emakumezkoak.

4 GRAFIKOA

2017 eta 2024ko uztail artean Espainian nazioarteko babesa eskatu duten senegaldarrak:



Iturria: bertan egina, Barne Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Desplazatu gehienak 19 eta 34 urte arteko gizonak dira (% 80 inguru) eta asilo eskaera Espainiako lurraldean formalizatzen dute. Horrek, askotan, esan nahi du itsasotik heldu direla, bai bisa lortzeko eta bide seguruetatik bidaiatzeko zailtasunagatik, bai praktikan ezinezkoa delako eskaera bulego kontsularretan eta enbaxadetan egitea – legez bermatuta badago ere–.

Espainiako estatura heltzea lortu duten emakume senegaldarrak guztien % 4 dira bakarrik. Handiagoa da muga postuetan egindako eskaerei bakarrik erreparatzen badiugu, % 20 ingurukoa, Ministerioak 2022ra arte argitaratu dituen datuei erreparatuz gero (2023an mugan egindako asilo eskaeren daturik ez dugu sexuaren arabera banatuta). Beraz, litekeena da bisa lortu duten eta Madril-Barajas aireportuan nazioarteko babes eskaera egin duten emakumeak izatea.

Txosten honen ondorioetan landuko ditugu mugetako politikei emakumezkoen gorputzetan eta nazioarteko babesa lortzeko aukeretan dituzten ondorioak. Oso kontu larria da, beste argitalpen batzuetan ere luze eta zabal aztertu duguna⁵⁷.

Senegaldarrek tarte horretan egin dituzten asilo eskaerei emandako 5.905 erantzunen % 94 baino gehiago ezezkoak izan dira, azken urte eta erdian –2023ko urtarriletik 2024ko uztailera– baieztukoek gora egin badute ere, herrialdeko egoera soziopolitikoa dela eta, non nazioarteko babesaren aitorpena % 16ra heltzen baita.

2023an, aurreko epigrafean aztertu dugun Kanariar Uharteetako krisi humanitarioaren urtean, Espainiara 18.088 lagun heldu ziren Senegaldik, ia guztiak (17.993), kanariar artxipelagora. 2024ko lehen seihilekoan, 4.121 senegaldar ailegatu ziren (26 izan ezik, guztiak irletara iritsi ziren). Tarte horretan Espainiara eta EB osora iritsi ziren ia senegaldar guztiak Kanariar Uharteetatik arribatu ziren.


Denbora tarte horretan, 7.109 lagunek formalizatu dituzte asilo eskaerak (2023ko urtarilaren eta 2024ko uztailaren artean), gehienak, aurtun. Kontuan hartuta eskaerak izapidetzeko hitzordua lortzeko hilabeteak behar direla, konparazioa gutxi gorabeherakoa da, askotan ez baitatuz bat etorreraren urtea eta prozedura hastekoa; dena den, balio digu, irudikatzeko senegaldar gehienak ez direla nazioarteko babeserako eskubidera jotzen ari.

EUSKADI

Datu gutxi ditugu eskuragarri autonomia erkidegoen arabera asilo eskatzaileen inguruan. Soilik dakigu 2017 eta 2022 artean 94 senegaldarrek eskatu zutela nazioarteko babesa Euskadiko hiru kapitaletako atzerritarren bulegoetan. Zifra orokorrak ikusita, litekeena da guztiak gizonetakoak izan izana.

5 GRAFIKOA

Senegaldarren nazioarteko babes eskaeren ebazpenak eta baieztoko erantzunak 2017 eta 2024ko uztaila artean:



Iturria: bertan egina, Barne Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Eztabaida taldeetan parte hartu duten senegaldarrek aipatu zuten ez zutela haiek aukeratu Euskadira heltzea. Kanariar artxipelagora iritsi ziren, eta han egon ziren penintsulara eraman zituzten arte. Horietako batzuk Almeriatik eta Madrildik pasatu ziren, eta gehienak zuzenean eraman zituzten Euskadira. Estatuko Harrera Programaren bidez iritsi ziren, eta hango plazak Ministerioak banatzen ditu, zuzenean.

Doudouk, tailer guztietan bitartekari eta itzultzaile lanetan lagundu digunak, esperientzia bera du Euskadiko migrazioaren errealitatearen inguruan. Egoera konplexua da, haren esanetan, kuantifikatzen zaila, baina baieztatu du asiloa formalki eskatzen duten senegaldarren kopurua baino handiagoa dela babes formaren bat beharko luketen senegaldar desplazatuena. Haren esperientzia pertsonalaren eta hezitzaile eta aktibista gisa izan duenaren arabera, gehienak familia sareen laguntzaz baliatzen dira. Harentzat asilo prozedura bideragarritzat jo ez duten errefuxiatuak dira. Hitzordua lortzeko zailtasunak, sistemarekiko mesfidantza, prozeduraren iraupenak eta haien herrialdera itzuli ezin izateko beldurrak handitu egiten du ziurgabetasuna eta une prekario batean eta leku ezezagun batean erabakiak onartzeko eta hartzeko zailtasuna.

Dodouk gogoan dauka lehengusua heldu zenean, duela bost urte, ez zuela Espainiako estatuan bizitzeko eta lan egiteko legezko dokumenturik. Senegalen arrantzalea zen eta hemen ere halaxe jarraitzen du. Euskadin bizi da eta Hondarribitik itsasoratzen da, Dakarreko itsasertzetik oso urrun arrantzan egitera, Atlantiko iparraldean. Ndar, Kajar, Dakar, M'Bour, Joal eta Kafountineko *navigateur* entzat ez bezala, Europako armadoreentzat erraza da beste itsaso eta beste portu batzuetara begiratzea kala bat agortutakoan. Hura bezalaxe, 1.600 gizon-emakume senegaldarrek egiten dute lan itsas sektorean 2024an Espainian. Itsas arrantzako edo merkataritzako ontzidiko itsasontzietako eskifaiako kide gisa aritzen dira, portuetan zamaketari lanetan edo akuikulturako instalazioetako langile moduan⁵⁸, eta sektoreko atzeritar langile guztien ia laurdena dira. Horietako asko arrantza tradizio luzea duten autonomia erkidegoetan bizi dira, Katalunian, Galizian eta Euskadin, esaterako, eta han egiten dute lan⁵⁹, hau da, Afrika mendebaldeko itsasoak arpilatzen dituen kapitala duten horietan.



OHARRAK

1 Esaterako, Ndar, Mboro, Kajar eta Tanji ere bai (Gambian).

2 *Thieboudienne* da frantsesez ahoskatzeko era

3 Haalpulaar'en da hizkuntzaren izen osoa.

4 Zehar-Errefuxiatuekin (2022). "**Deserrotuak. Klima aldaketak behartutako desplazamenduen inguruko interpretazio kritiko bat**".

5 FAO (2021). FAO Yearbook. "**Fishery and Aquaculture Statistics 2019**".

6 FAO (2023). "Aquaculture growth potential in Senegal. WAPI factsheet to facilitate evidence-based policy-making and sector management in aquaculture".

7 Arraina saltzen lan egiten dutenak dira. Zuzenean arrantzaleei erosten diete, portuan, gero tokiko merkatuan saltzeko, edo, bestela, eskualdeko merkatua hornitzen duten garraiolariei. Sarritan emakumeek egiten duten lana da. Itzulpen literala arrainketaria da, mareyeuse=arrainketari frantses hitzetik.

8 Direction des Pêches Maritimes (2019). "**Résultats Généraux des Pêches Maritimes 2019**".

9 Environment Justice Foundation (2023). "**At the tipping point: How bottom trawling is precipitating the collapse of Senegal's artisanal fisheries**".

10 Ministère de la Pêche et des Affaires maritimes (2013). "**Conseil interministériel sur la pêche, document introductif**".

11 Harper, Sarah y U Rashid Sumaila (2019). "**Distributional Impacts of Fisheries Subsidies and Their Reform - Case Studies from Senegal and Vietnam**". International Institute for Environment and Development. Londres.

12 Agence Nationale de la Statistique et la Démographie (ANSD), (2023). "**Données de population**".

13 Fernando González Laxe (2023). "**Los puertos africanos antes su modernización**". Boletín Económico ICE 3155.

14 Ministère des Pêches et de l'Economie Maritime (2019). "**Résultats Généraux des Pêches Maritimes 2019**".

15 Susana Moreno Maestro, Juan Pablo Aris Escarcena (2013). «**La pesca en Senegal. Entre el mercado global y la**

subsistencia comunitaria». Revista Andaluza de Antropología. 2013ko 4. zk..

16 Ibid.

17 Saint Louis hiriaren wolofezko izena.

18 Doudou Sène ere alegiazko izena da. Eztabaida-taldeetan bitartekari- eta itzultzaile-lanetan aritu den pertsonaren egiazko izena aldatu dugu, haren pribatutasuna mantentzeko.

19 Ministère de la Pêche et de l'Economie Maritime. "**2016-1804 Dekretua, 2016ko azaroaren 22koa, itsas arrantzako kodeari buruzko 2015eko uztailaren 13ko 2015-18 Legea ezartzen duena**".

20 Susana Moreno Maestro, Juan Pablo Aris Escarcena (2013). "**La pesca en Senegal. Entre el mercado global y la subsistencia comunitaria**". Revista Andaluza de Antropología. 2013ko 4. zk..

21 Ibid.

22 Direction des Pêches Maritimes (2019). "**Résultats Généraux des Pêches Maritimes 2019**".

23 Franc de la Communauté financière d'Afrique terminoaren akronimoa, hau da, Afrikako Erkidego Finantzarioko frankoa.

24 Environment Justice Foundation (2023). "**At the tipping point: How bottom trawling is precipitating the collapse of Senegal's artisanal fisheries**".

25 Coalition for Fair Fisheries Arrangements (CFFA), (2021). "**Experimental Fishing or experimental pillaging in Liberia?**".

26 Greenpeace (2015). "**Africa's fisheries paradise at a crossroads**".

27 Ministre des Pêches et des Infrastructures Maritimes et Portuaires (2024). "**Liste des Navires Autorisés à Pêcher au Sénégal**".

28 Espainiako Merkataritza Ganbera Ofiziala Senegalen (2024). **Bazkideen direktorioa**.

29 Ibid.

30 Huelva Información (2017). "**Baltimar suma a su flota un nuevo buque**".

31 Enpresak 2014an ustiapen-eskubideak saldu zizkion Timiş beraren jabetzako eta Birjina britainiar uharteetan erregistratutako Timis-Corporation enpresari.

32 Organized Crime and Corruption Reporting Project, OCCRP, (2019). **"Senegal's Offshore Oil Reserves a Pricey Pawn in Covert Deal"**.

33 «Soldada oparoa petrolioaren eremuan esperientziarik ez duenarentzat», esan zuen Jeremy Carverrek, ustelkerian espezializatutako abokatuak, BBCren ikerketan.

34 The British Petroleum Public Companyren akronimoa.

35 El Salto Diario (2019). **"Aar Li Nu Bokk: el pueblo senegalés dice basta al saqueo"**.

36 BBC Afrique, (2019). **"Sénégal: un scandale à 10 milliards de dollars - Enquête intégrale"**. Ingeleseaz, eskuragarri, BBC Africa Eye-n. **"The \$10 Billion Energy Scandal"**.

37 Kolektiboaren izenak «onura publikoa babestu» esan nahi du, wolofez.

38 Inspecteur Principal des Impôts et des Domaines.

39 Organized Crime and Corruption Reporting Project, OCCRP, (2018). **"West African Leaks. How Billions are Leaving Africa for Offshores"**.

40 PASTEF 2014ko urtarrilean Ousmane Sonkok sortutako alderdia da, eta haren izen osoa da Patriotes Africains du Sénégal pour le Travail, l'Éthique et la Fraternité, hau da, Senegalgo Abertzale Afrikarrak Lanaren, Etikaren eta Anaitasunaren alde.

41 The Guardian (2024). **"Senegal police and protesters clash in first major unrest over vote delay"**.

42 Amnistia Internazionale (2024). **"Senegal: Las autoridades deben investigar los homicidios y la brutalidad policial contra manifestantes"**.

43 eL.Diario.es (2024ko martxoaren 25a). **"Cambio en Senegal: el opositor Diomaye Faye gana las elecciones tras salir de la cárcel hace 11 días"**.

44 France 24 (2024). **"Senegal se suma al club de productores de petróleo"**

45 European Commission (2023). **Short-stay visas issued by Schengen countries**.

46 Ibid.

47 Marta Foresti. **"Las tasas de los visados que cuestan a los más pobres del mundo más de 100 millones de euros al año"**. El País (2024ko uztailaren 30a).

48 Barne Ministerioa, Espainiako Gobernua (2023ko urriaren 30a). **"Grande-Marlaska fortalece en Senegal la cooperación en la lucha contra las mafias de tráfico hacia Canarias"**.

49 Ibid.

50 Barne Ministerioa, Espainiako Gobernua (2023ko abenduaren 15a). **"El refuerzo del despliegue español en Senegal frena en un 46 por ciento las llegadas irregulares a Canarias"**.

51 Barne Ministerioa, Espainiako Gobernua (2023ko urriaren 30a).

52 Barne Ministerioa. Espainiako Gobernua (2023). **"Inmigración Irregular 2023. Datos Acumulados de 1 enero al 31 diciembre"**.

53 Diputatuen Kongresuak Espainiako Gobernuari idatzitako galderak (2022). **229509-229514** arteko galderak.

54 Espainiako Gobernuak Diputatuen Kongresuak idatzitako galderei emandako erantzunak (2022). **184/92521 eta 184/92526** arteko erantzunak.

55 OIM, Research Brief - West and Central Africa (2019). **"New Migration Dynamics in Senegal: Understanding the Reactivation of West African Route"**.

56 Infobae (2021ko abenduaren 1a). **"El infierno libio donde confinan a los inmigrantes africanos para impedir que lleguen a Europa"**.

57 Zehar-Errefuxiatuekin (2020). **"Muga gurutzatzen dituzten bizitzak.Hegoaldeko mugaren analisi feminista"**.

58 Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datu-base estatistikoak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa (2024ko uztaila). **Personas extranjeras en alta laboral según régimen de afiliación**.

59 Itsasoko Gizarte Institutua (ISM), Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa (2022ko apirilaren 1a). **Aprobado el convenio con Senegal**.



«ARRANTZA
EMAKUMEEN BIZITZAREN
ERDIGUNEAN DAGO,
ETA EMAKUMEAK
ARRANTZA JARDUERAREN
ERDIAN DAUDE»

FATOU NDOYE SOZIOLOGOA, EKINTZAILEA,
FEMINISTA ETA ARRANTZA SEKTOREKO LANGILE
SENEGALDARRA

Eztabaida taldeetan arrantza sektorean lan egin zuten gizon senegaldarren testigantza zuzena entzun ahal izan genuen. Askok euren emazte, ama, amaginarreba eta arrebak eraldaketaren eremuan eta arrain saltzaile gisa aritu zirela kontatu ziguten, eta arrantza bizimodua atzerriko ontziek eta ingurumenaren degradazioak arriskuan jartzen zutenean, komunitate osoari eragiten ziola baieztatu dute.

Kontakizun horiek, emakumeek arrantza herri eta komunitateetan duten rolari buruz eskura zegoen bibliografia – ikerketa akademikoak eta kazetaritza erreportajeak – babesten zuten. Lehen aipatu bezala, arrainaren eraldaketan eta, neurri txikiagoan, honen merkaturatzean, emakumeen presentzia da nagusi, eta generoan oinarritutako lan banaketa irudikatzen duela esan daiteke. Gizonak itsasoko arrantzaz arduratzen dira, portura lehorreratzeko diren arte, eta une horretatik aurrera, lan tekniko (kontserbaziorako prozesatzea) eta logistikoa (salmenta eta banaketa) emakumeek kudeatzen dute.

Hala ere, emakume horien testigantza zuzena falta zitzaigun, langileena, sarri herrietan geratzen direnena, emakumeena; euren analisia falta zitzaigun, euren begirada. Senegalgo asilo eskatzaileen profil nagusia Espainian (18-34 urte bitarteko gizonak) nolakoa den ikusita, ezin izan dugu Euskadin arrantza sektorean izandako esperientzia, desplazamendu behartua eta nazioarteko babes bilatzaile gisa izan duen esperientzia kontatuko digun emakume langilerik topatu.

Azkenean, Enraiza Derechos elkartearekin, elikadurarako giza eskubidearen aldeko Euskadiko elkarteak, izandako

harremanari esker, Fatou Ndoeye elkarrizketatzeko aukera izan dugu, elikagaien segurtasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde lan egiten duen ekintzaile senegaldarra.

Fatou soziologoa da ikasketaz, eta jatorriz Lebou senegaldar komunitatekoa, tradizioz arrantzan aritzen den gizarte taldekoa. 1998an hasi zen arrantzaren sektorean lanean Ndarren, eta gaur egun *Socali Jigéen* elkarteak jarri du martxan, “emakumeak ahalduntzea” esan nahi duena. Enraíza Derechos eta Enda Graf Sahel elkarteekin lankidetzan, emakumeei laguntzen diete, klima aldaketak eta ingurumenaren degradazioak mehatxatutako testuinguruetan beren elikadura segurtasuna indartu eta bermatu dezaten; zehazki, arrantza eta nekazaritza sektoreetan, genero ikuspegia landuz eta ingurumenaren aldeko lanketa eginez.

Elkarrizketa egiteko Dieynaba Sow interpretearen laguntza izan dugu, generoan aditua den senegaldarra eta EHUKo doktoregaia. Sow eremu ikerketa fasean elkarrizketatu dugu.

—Zein da zuen proiektuetan parte hartzen duten emakumeen profila?

—Batez ere arrantzaren sektorean lan egiten duten emakumeekin egiten dugu lan, produktu iktiologikoak eraldatzen, kontserbatzen eta saltzen dituztenekin, *mareyage* izenez ezagutzen dena. Baita nekazaritzan lanean dihardutenekin ere, adibidez, zerealen laborantzan, elaborazioan eta salmentan. Lebou emakumeekin ez ezik, komunitate desberdinetako emakumeekin ere lan egiten dugu Senegalgo hainbat



lekutan, batez ere, kostaldeko komunitate eta herrietan, hala nola, sereer emakumeekin *Sine-Saloumeko* deltan.

Komunitate horietako emakumeei laguntzea da helburua, beren lana egokitu dezaten eta klima aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren aurrean erresilientzia gaitasuna indartu dezaten. Jarduerak egokitu egin behar dira, testuingurua aldatzen ari delako eta horrek bizimodu tradizionalari eragiten diolako elikadura eskubidea arriskuan jarritz.

—Zein da Senegalgo arrantza komunitateetan emakumeek duten rola?

—1998tik arrantzaren sektorean egiten dut lan, bereziki arrainaren artisau eraldaketaren sektorean. Lebouen artean, artisau arrantzak komunitatearen bizitza bera irudikatzen du, eta argi eta garbi eragin zuzena du emakumeon eguneroko bizitzan.

Senegalen, oro har, emakumeei buruzko estereotipo bat dago: esan ohi da ez dutela bizitza laborean parte hartzen, eta hori gizonen erantzukizuna baino ez dela. Bada, ez ba hori arrantza sektorearen kasua, lebouen arteko arrantza jarduera ekonomiko bat baino asko gehiago baita, familia sistema bat. Gizon zein emakumeek berdin berdin parte hartzen dute, eta lebou emakumeak ekoizpen bitartekoen jabe dira. Piragua, sareak, motorra ere emakumearenak dira.

Marinelak arrantzatik itzultzen direnean, harrapatu denaren balioa hiru zatitan banatzen da: bat piraguarentzat, bat motorrarentzat eta beste bat *pêcheur*arentzat (arrantzalea). Emakumeak lehen bi zatien gaineko eskubideak ditu, hau da, harrapatu denaren bi herenen gainekoak. Gainera, emakumeak arrantzalearen zatia erosi ohi du (normalean senarra izaten dena), gero beste zatiekin batera saldu ahal izateko. Irabazi gehiago lortzeko, alegia. Horrela, gasolinaren eta konponketen gastuak eta navigateurren soldata ordaindu ondoren soberan geratzen den guztia emakumearena den dirua da. Berak prozesatu eta merkatuan saltzen du.

Arrantza emakumeen bizitzaren erdigunean dago, eta emakumeak arrantza jardueraren erdian daude, bereziki, Lebou komunitatean.

—Nola eragin diote ingurumenaren degradazioak eta klima aldaketak emakumeen bizitzari eta haien baldintza ekonomikoiei?

—Emakumearen rola funtsezkoa da arrantza sistema tradizionalan, eta ez da egitura ekonomikoa soilik, gizarte eta familia egitura ere baita. Beraz, ingurumenaren degradazioak arrantza sektorea mehatxatzen duenean, horren eragina du bai finantza bizitzan, bai eta emakumeen gizarte rolean ere.

Sistema hau aldatzen ari da, klima aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren ondorioz eraldatzen ari da.

Klima aldaketarekin itsas maila igo egin da, eta berau kostaldean sartzeak lurra gazitu du. Horrek herri arrantzaleen higadura dakar eta, gaur egun, nekazarietako zailtasunak, ez baitut lur emankorrik izango landatzeko. Beren bizimoduarekin jarraitu ezin dutenez, kasu askotan nekazariak soroak utzi egiten dituzte arrantzale eta *mareyeuse* (arrain saltzaile) bihurtzeko.

Lehen, nekazaritza eta arrantza txandakatzen ziren, baina, klima aldaketaren ondorioz, gaur egun, pertsona gehiago aritzen dira arrantzan, itsasoko baliabideetan presio handiegia sortuz. Arrain espezie batzuk jada ez dira ugaltzen gehiegizko arrantza dela eta. Gainera, dinamika horrek sektorean lehiakortasuna areagotzea dakar, eta horrek eragin finantzarioa du arrantza komunitateetan.

Klima aldaketaren eraginari eta haren inplikazioei, arrantza industrialia egiten duten arrantza ontzien presentzia gehitu behar zaie.

70eko eta 90eko hamarkaden artean, handitu egin zen arrantza baliabideen gehiegizko ustiapena, Senegalgo Estatuaren eta Europako zenbait Estaturen arteko akordioak sinatu eta berritu zirenean, Espainiarekin,



bereziki, bai banaka bai Arrantza Politika Bateratuaren (APB) bidez.

Atzerriko ontziak sartu ondoren, 2005 eta 2010 artean, fenomeno berri bat hasi zen: arraina eraldatzeko lantegiak instalatzea.

Atzerriko itsasontzi industrialak izateaz gain, atzerriko enpresek, batez ere txinatarrek, baina baita europarrek ere, arraina prozesatzeko fabrikak ezarri dituzte, zehazki, arrain olio eta arrain irina ekoizten dutenak, kostaldeko herrietan, hala nola, M'Bour eta Kayar-en.

San Louisetik (Ndar) Cap Skirringera arteko mugimenduak batu dituen. Hau da, iparraldetik hegoaldera, Senegalgo kostalde osoan zehar. REFEPAS¹ du izena, *Réseau des Femmes de la Pêche Artisanale du Sénégal*, Senegalgo Artisan Arrantzako Emakumeen Sarea.

Salaketa jarri eta Senegalgo gobernuari zuzendu gatzazkio, baina ez dugu inolako emaitzarik lortu; izan ere, atzerritarrek egindako akordio horietan gehien irabazten dutenak, askotan, gobernuan kargu publikoak dituzten berdinak baitira. Sarea gure kezkak eta interesak partekatzen dituzten beste kolektibo eta

GIZON ZEIN EMAKUMEEK BERDIN BERDIN PARTE HARTZEN DUTE, ETA LEBOU EMAKUMEA EKOIZPEN BITARTEKOEN JABE DIRA

Hala, baliabide berengatik lehiatzen diren lantegi hauek emakumeen rolari zuzenean eraso egin diote. Tradizioz, emakumeek sardinekin eta beste espezie txiki batzuekin egiten dute lan, eta horiek dira arrain fabrikak erosten dituztenak. Ondorioz, emakumeek ezin dituzte baliabide horiek eskuratu, eta horrek izugarrizko eragina du haien bizitzetan.

—Arrantza bizimoduaren mehatxu testuinguru honetan, zein dira emakumeek garatutako erresistentzia estrategiak?

—Emakumeok 2008az geroztik borrokan dihardugu, izan ere, urte hartan arrain olio eta arrain irina ekoizteko lehen lantegiak ezarri zituzten.

Tokiko protestetatik hasita, talde lana indartzen joan gara erronka horiei aurre egiteko, sare nazional bat sortu dugu,

talde batzuetara zabaldu da, baina nazioartean ere. Green Peace bezalako erakundeek sarea lagundu dute emakumeen eskubide ekonomikoen aldeko borroka honetan, baina orain arte ez da ezer lortu.

—Azken urteetako egoera politikoaren eta honek ingurumenaren degradazioarekin duen loturaren ondorioz, arrantza sektorea kasu, senegaldarrek Europara joan behar izaten dute askotan. Bisa bat lortzea eta bide seguruetatik bidaiatu ahal izatea oso zaila da eta geratzen den ibilbide bakarra Kanariar Uharteetara joatea da. Bidaia oso arriskutsua da, eta datuen arabera, gehienbat gizonak dira bidaiari aurre egiten diotenak, nahi eta azkenaldian emakumeak ugaritu egin diren.

Zure esperientziatik, nola eragiten die migrazioaren fenomenoak Senegalen geratzen

diren emakume eta familiei? Nork eta nola hartzen du migratzeko erabakia?

—Niretzat ikaragarria da Senegalgo itsasoetan gertatzen ari dena eta gero eta pertsona gehiagok erabakitzen dute migratzea. Erabaki horrek eragin handia du emakumeengan, senarrak, nebak edo beste senitartekoren batek migratzen badu, familia eta ekonomia erantzukizunen gainkarga dakarkielako.

Argi dago gizon senegaldar bat Europara iristen denean ez duela esan nahi desiratzen duen guztia aurkitzen duenik eta arazoak berehala konpontzen dituenik, guztiz kontrakoa. Gertatzen dena da bidaiatzen ez duten emakumeek migrazioa finantzatzen dutela eta gizonak ekonomikoki laguntzen dituztela.

Senegalen badago aurrezteko sistema tradizional bat, *tontine*² izenekoa; emakume talde bat eratzen da, eta emakume bakoitzak hilero diru kopuru bat ematen du. Hilabetearen amaieran, emakume bat bildutako guztiarekin gelditzen da (bankuen ordezkotako finantza sistema informal bat da, eta askotan ez dute zerbitzu horiek erabiltzeko aukerarik). Errepikatu egiten da denek dirua jasotzeko txanda izan duten arte. Sistema hau euren seme-alaben, senarren edo neba-arreben migrazioarako finantzaketa sistema bihurtzen ari da. Gero eta ohikoa da. Horregatik diot migrazioaren pisu ekonomikoa emakumeen bizkar dagoela.

Senegaldik irtetea emakumearekin – kasu askotan emaztearekin – eta, oro har, familiarekin batera hartzen den erabakia da, eta hori gero eta gehiago gertatzen da.

Horregatik, gure elkarteak emakumeak migratzeak dakarrenaz eta suposatzen duenaz sentsibilizatzen ditugu. Emakume asko ikusi ditut bere bizitzako aurrezki guztiak senarraren irteera finantzatzeko ematen. Zinema foroen bidez amak sentsibilizatzen ere saiatzen gara, *La Pirogue* bezalako filmak jarritz, ikus dezaten Europa ez dela beti irtenbidea.

Gobernuak erabakiak hartu behar dituela uste dut, gazteak gera daitezen formatzera animatzeko, arrantza ez den beste sektore batzuetan ere bai.

Gainera, migratzaileen profila aldatzen ari dela ikusi dut, orain emakume gehiago dira, baita familia osoak ere, denak itsasontzi berean. Beraz, funtsezkoa da gobernuak erabakiak hartzea.

—Zein bide aukeratzen dute migratzen duten pertsonak? Nondik abiatzen dira?

Itsasotik abiatzen dira beti, ibilbiderik arriskutsuenetik, alegia. Aire ibilbideetarako sarbide edo aukera gehiago balego, ez litzateke hori guztia gertatuko, migrazio fenomeno oso bestelakoa izango litzateke.

Europaren atzean bada mito bat, gaur egun ere oso idealizatuta dago Europa. Migratzen duten pertsonak, hegazkinez bidaiatu ahalko balute, ez lukete betirako bertan gelditu beharko, joan eta itzultzeko aukera izango lukete Europa euren arazoaren konponbidea ez dela ikusten badute. Baina itsas ibilbidea aukera bakarra denez, eta horrela bidaiatzeak migratu ondoren esfortzua, arriskua eta dirua suposatzen duenez, nahiago da ez itzuli, porrot gisa ikusten delako. Aire bidezko sarbidea erraztuko balute, erabakia hartzeko aukera edukiko lukete.

Pertsona migratzaileek ez dute inoiz kaiukoa jaioterritik hartzen, beste toki batera joaten dira beti, klandestinoan den zerbait delako. Lehen gehiago egiten zuten kostaldean bizi ziren pertsonak, baina gero eta gehiago joaten dira barnealdetik, Tambacounda bezalako lekuetatik, adibidez.

—Nola eraikitzen da migratu duen pertsona baten (emakume ala gizon) eta lurraldean geratu den pertsonaren arteko harremana?

Gaur egun komunikazioa etengabea da eta harremana telefono bidez, aplikazio, sare sozial edota bestelako tresnei esker mantentzen da. Noski, bikote edo familia bakoitzaren araberakoa da. Argi eta garbi, horrek aldaketak eragiten ditu familia bizitzan, eta bereziki emakumeengan, Senegalen. Gizonak izan ohi dira migratzera behartuta daudenak eta emazteak uzten dituztenak, gehienetan familia politikoarekin bizitzen amaitzen dutenak. Horrek arazoak sor ditzake; izan ere, kasu gehienetan urteak itxaron behar izaten dira senideak dokumentazioa izan dezan berriz batu daitezen.

Denbora hau, urte hauek, norbaiten zain Senegalen, oso konplikatuak dira, ez da erraza familia politikoarekin egotea elkarbizitza arazoak sortzen dira. Horrek eragina izan dezake harremanean, noski, eta, azkenean, bikotea hautsi eta dibortzioa eragin dezake.

—Ba al dago migrazio fenomeno horretara egokitzeo estrategia kolektiborik gizarteari, familiari edo alor ekonomikoari dagokionean?

Gauzak kausa edo sorburuei helduz konpondu behar dira, eta ez ondorioei erreparatuz. Gobernuak esku hartu behar du, gazteei lagunduz, herrialdean, arrantza sektorean edo besteren batean gera daitezen, eta hona itzuli eta proiektuak egin ditzaten. Europak Afrikako herrialdeez baliatzeari utzi egin behar dio, arazo askoren kausa nagusia delako, hala nola, pobrezia eta behartutako migrazioa.

—2024an, Senegalen gobernu aldaketa ikusi dugu, eta atzerriko eragileekin (Estatuak eta enpresa multinazionalak) egindako akordio ekonomikoen gardentasun handiagoa eta logika neokolonialak eta estraktibistak hautsen dituzten baliabideen kudeaketa agindu ditu, batez ere, gas eta petrolio hobien ustiapenari eta arrantza politikei dagokienez. Arrantza eta Itsas eta Portu Azpiegituretako Ministroak atzerriko industria ontzi guztien zerrenda argitaratu du, eta badirudi gardentasunerako hasiera positiboa dela. Nola ikusten duzu etorkizuna eta biztanleriaren desplazamenduaren eragina?

—Egia da, baina gogorarazi beharra dago migrazioarena fenomeno globala dela. Senegalen daude ezarri diren atzerriko arrantza ontzi guztiak. Ekosistema batzuk erabat suntsitu dira. Beldur naiz petrolioaren eta gasaren aurkikuntzek ez ote duten egoera are gehiago okertuko, Nigerian gertatu dena ikusi dugulako. Emakumeentzat ondorioak nabarmenak dira, eta egoera hori aldatzen ez bada, pobretzea areagotu egingo da.

Estatuak emakumeei entzun behar die eta familiako arrantza berrezarri behar du. Ez da lanbidea soilik, familiarik familiara jasotako tradizioa da, milaka


pertsonaren kultura, ekosistemak suntsitu gabe gauzatzen dena. Atzerriko itsasontzien arrantza intentsiboa mugatu behar da, eta beste energia eredu bat ere sortu.

Garrantzitsua da emakumeek erabakiak hartzen parte hartu ahal izatea eta beste aukera batzuk bultzatu ahal izatea errespetu handiagoko arrantza ereduak berreskuratzeko, akuikultura kasu, ozeanoak berreskuratzen laguntzeko. Hori gertatzeko, emakumeek gobernu organoetan ere egon behar dute, eta eredua eraldatzera bideratutako erabakiak hartzeko aukera izan.

OHARRAK

1 GREENPEACE, News and Stories, Protéger l'Environnement (2022ko martxoaren 11). **“Femmes du secteur de la pêche: Sous l'enclume de la précarité et le marteau des politiques”.**

2 EL TOPO, 22. zbk, La Cuenta de la Vieja. **“Repensando la Encomia: Las Tontines de las Mujeres Africanas”.**





“GURE AUKERA BAKARRA ERRESISTENTZIA DA, EDO BIDEGABEKERIAN MURGILTZEA. EUSTEN DIOGUNEAN, LORTU EGITEN DUGU”

Paola txikiak uniformeak jantzi eta arkatzei punta atera die. Ozta-ozta goizeko ordu bata dira, eguna hasteko oraindik orduak geratzen dira. Gaur ere euria ari du, bidean koadernoak bustiko zaizkio. Horrek amorrua ematen dio, eta eskolarako joan-etorrietan zortzi orduz ibili behar izateak ere bai. Baina ume zentzuduna da eta ez da kexatzen. Zailena basoa zeharkatzean talde armatuak saihestea izango da. Horrek benetan beldurtzen du.

Kolonbian beste hainbat bezala, bere komunitatea, Alsazia, desplazamendu behartutik jaioa da. Afro-ondorengo familia talde baten elkarlanetik sortu zen, Cauca ibaian enpresa multinazionalak etekinak lortzeko La Salvajina¹ presak bipildu ostean —beste 3.000 pertsona bezala—. Enpresa horietako bat Unión Fenosa izan zen.

Paolak, Alsaziako beste ume batzuek bezala, eskolara heltzeko sei urtez gurutzatu beharko du basoa. Eta eskolara helduko da, eta batxilergora, eta unibertsitatera. Segur aski ez da helduko (edo agian bai) herrialdeko lehendakariorde izatera, Francia Márquez bezala, baina bere istorioek —Danelly, Darlis, Gisela eta Martarenak bezala— kapitulu batzuk partekatzen dituzte: arrazakeria, patriarkatua, eta lurra lapurtu nahi dieten talde armatu eta eragile korporatiboei aurre egitea. Zapaltzen duten lurra da lapurtu nahi dietena eta gure planetari izena ematen diona. Eta erresistentzia. Guztiek miresten dute Márquez, ez soilik lehendakariordea izateagatik, baizik eta borrokatutako bizitza eta jendearekin duen konpromisoa ezagutzen dutelako. Bera miresten dute elkar miresten duten bezala, eta haien aurretik hainbeste heriotzaren artean bizitzari bidea egin zioten beste emakumeak miresten dituzten bezala.

Paola Andrea Ararat Nazarit giza eskubideen eta etnia lurraldeko eskubideen defendatzailea da, Komunitate Beltzen Prozesuko (PCN, *Proceso de Comunidades Negras*) militantea eta Giza Eskubideen eta Integritate Etniko eta Kulturalaren Esparruko dinamizatzailea Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkartearen (ACONC, *Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca*). Bere arbasoek jada etsipenarekiko erresistentzia maila handia zuten. «Esklabotasun garaian, nagusiek askatasun prozesua lortu ahal izan bazuten, guk, girgilu fisikorik gabe, afro-ondorengo herriak behar duen askatasuna bilatzeko bidean aurrera egin genezake, ez Kolonbian soilik, baizik eta mundu osoan».

Danellyren hitzetan, ez daukate beste aukerarik, honakoa erantzun du borrokarako arrazoia zein izan zen galdetzean: «Emakume beltzok eta emakume indigenok ez daukagu beste aukerarik. Gure aukera bakarra erresistentzia da, edo

bidegabekeria murgiltzea. Eusten diogunean, lortu egiten dugu. Franciak egindakoa erresistentziaren froga da. Bera murgildu eta makurtu izan balitz, gaur ez litzateke herrialdeko lehendakariordea izango, bizi behar duen arrazakeria eta diskriminazioarekin». Danelly Estupiñán Valencia PCNko ekintzailea da Buenaventuran, lurraldeko eskubideak aldarrikatzeko intzidentzia prozesuetan komunitate afro-urbanoak laguntzen ditu, eta Buenaventuran Itsasoari Irabazitako Lurren Elkartearen fundatzailea da. Eta, guztien gainetik, Filo Andrearen alaba da, bere lehenengo inspirazioa. «Nire aita europar jatorrikoa da, lurralde hauek kolonizatzeraz heldu ziren espainiarren ondorengoa. Eta nire ama afrikar jatorrikoa da. Haien artean beti egon zen botere harremana. Nik etxearen baitan bizi izan nuen arrazakeria».

Kolonialismoaren eta patriarkatuaren arteko loturak emakumeen biziak eta haien lurraldeak menderatzen ditu, eta, Kolonbiako Córdoba, izen propioa duen gertakaria eragiten du: «meatzaritzaren seme-alabak». Horrela esaten diete multinazionalen ingeniarien indarkeria matxistak ernalarazitakoei. Heldu, lurra zabaltu, aitortu gabeko seme-alabak erein eta ardurarik hartu gabe alde egin zuten. Darlis Rojas Parrak, San Jorge Goiko Babesleku Nagusiko zenú indigena gobernatzaileak, kontatu digu.

«Zertarako heldu da garapen eredu? —galdetu dio bere buruari— Gure biziak hondatzeko heldu da, lurraldeetako bizitza hondatzeko, emakume baten bizitza hondatzeko, Ama Lurrarena, eta zorigaitza eta heriotza baino ez zaizkigu geratzen». Multinazionalak heldu ahala, —izan atzerrikoak zein Kolonbiakoak, argitzen duen bezala—, *deskulturalizazioa* heltzen da, legez kanpoko taldeak heltzen dira eta, haiekin batera, indarkeria patriarkala areagotzen da. «Espainiarrak heldu zirenetik —esaten du, gelan daudenei barkamena eskatuz— hori da gertatzen dena».

Darlisek azaltzen du «Kontinente amerikarreko nikel hiriburua» departamenturik pobreenetakoa dela. «Kontraesan hain zekena. Chocóko anai-arrebak nola bizi dira? Muturreko pobrezian eta meategiz inguratuta. Guajirako anai-arrebak, era berean...» Eta hala da, munduko barne desplazamendu zifrarik altuenak izan dituen herrialdean geratzen den meategi espoliazio arrastoa, multinazionalen eta talde armatu legal eta ilegalen adostasuna argi utzi duena.

Santander de Quilichaon gaude, Cauca departamentuan, Kolonbian, Euskadiko Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Programan parte hartu duten emakume liderrekin hizketan. Programa Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak sortu zuen 2011n eta Zehar-Errefuxiatuekin elkarrekin koordinatzen du. Indarkeria patriarkala eta indarkeria arrazista botere korporatiboaren konplizeak eta funtzionalak diren testuinguruan, lurra eta gorputza (haiena zein beste emakumeena) defendatzeak suposatzen duen arriskua arintzeko gurekin dauden emakumeek tresna hori erabili behar izan zuten.

Baina gaur ez diogu tokia egin nahi soilik guztia fagozitatzen eta menderatzen duenari. Bizitza posible egiten duena ere jorratu nahi dugu: erresistentzia eta ahizpatasun feminista, haiek ahalbidetu baitute emakume hauek eta haien komunitateak «lurraldean izatea». Gisela Rivera Castro, ACONCeko emakumeen aholkularia, eta Marta Lucía Castro, ACONCen azken horren gonbidatua, laguna eta kidea, Paola, Danelly eta Darlisekin batera daude.

Martak izan ezik, guztiek Euskadiko Programan parte hartu dute, El Salvador, Honduras, Guatemala, Peru, Nikaragua eta Ekialdeko Saharako beste emakume batzuekin batera, ibili dituzten hamahiru urteetan. Defendatzaile izatearen kontzientzia dute, curriculumean eta Europan publikoki parte hartzen dutenean defendatzaile gisa aurkezten dute haien burua, baina ez dute horrela aurkezten haien lurralde eta gorputzean. «Liderrak» eta «zaintzaileak» dira. Horrela identifikatzen dute haien burua ikuspuntu kolektibotik gidatzen eta zaintzen duten emakume hauek, batera hazten dira eta elkarrengandik zein elkarrekin ikasten dute.

Besteek nola ikusten dituzten galdetean, emakumea izateak eta haien lurraldearen alde borrokatzeak esan nahi duenaren laburpenarekin erantzuten dute. Gure komunitateek «gure *arbasotasuna*, gure kultura gordetzen duten harroputz gisa ikusten gaituzte. Gure erresilientzia txalokatzen dute, zailtasunak gorabehera, presentzia mantentzen dugula txalokatzen dute». Baina beraiek dira garapenari «uko» egiten diotenak. Paolaren arabera, jasotzen dituzten presioak «gure lurraldearen inguruan dauden talde armatu eta enpresa sektoretik datoz». Darlisek laburbildu du: «Enpresak borrokarazten gaitu eta komunitateengan banaketa eta zatiketa sortzen du horrek».

Kolonbian haien aktibismoak eta emakume liderrak izatearen bereizgarriak suposatzen dutenaren inguruan haiekin hitz egiten egotea ez da kasualitatea. Front Line Defendersen arabera², 2023an 28 herrialdeko gutxienez

300 giza eskubideen defendatzaile erail zituzten haien lana gelditzeko eta isiltzeko asmoarekin. Kolonbian soilik 142 erailketa erregistratu ziren. Aktibisten erailketen ranking izugarrian lehenengo postuan dago oraindik ere. Era berean, txostenaren hasieran adierazi dugun bezala, Espainiako estatura nazioarteko babesaren bila heltzen diren errefuxiatuen jatorrizko herrialde nagusienetakoa da, gehienetan ukatzen zaien arren; eta, gainera, Europako, Espainiako eta Euskadiko inbertsiorako interesgune nagusienetakoa da.

Zehar-Errefuxiatuekin elkarrekin desplazamendu behartua estrategia bezala ikusten du³ aukerak itotzeko edo ezkutatzeko eta erresistentziak ezerezteko pertsonak eta komunitateak jazartzen eta bortxatzen direnean. Ez dira noizbehinkako estrategiak, baizik eta, testuinguru eta herrialde desberdinetan, eredu hau ezartzeko oztopo diren pertsonen eta komunitateen aurka antzeko patroiekin errepikatzen diren estrategia sistematikoak.

2020 eta 2022 urteen artean salatutako kasuen analisiaren bidez, giza eskubideen defendatzaileen egoeraren Errelatore Bereziak, Mary Lawlorrek⁴, argi utzi du haien kolektiboen, lurren eta komunitateen alde borrokatzen dutenak kriminalizatzeko eta beldurtzeko estrategia gisa gero eta gehiago erabiltzen direla atxiloteta arbitrarioak, kartzelatzeak eta salaketa penalak; horiekin batera, mehatxuak eta intimidazioa, jazarpen judiziala eta, besterik ezean, tortura, tratu txarrak eta eraso fisikoak erabiltzen dituzte.

2023ko lehenengo sei hilekoak soilik, Somos Defensoresek⁵ Kolonbian giza eskubideen defendatzaileen aurkako 466 eraso erregistratu zituen. Erasoak jasan zituztenen artean, 109 emakume eta 329 gizon zeuden. 85 eraso erailketan amaitu zuten.

Elkarriketaren harira, Darlisek zehazten du: «Herri indigenak ez gaude garapenaren aurka, benetan ezetz. Garapena gurekin batera ibiltzea nahi dugu, gure Ama Lurra errespetatuz eta egindako kaltea berreskuratuz. Hori da nahi duguna, zuek eta guk nahi duguna». «Zuek» esaten duenean, gelan haiekin hizketan gauden Euskadiko emakumeoi egiten digu erreferentzia. Inor ez dago garapenaren aurka, baina guztiak daude —guztiok gaude— garapen «honen» aurka, lurraldeen eta gorputzen estraktibismoarena, arrazakeria jasaten duten emakumeen gorputzen eta lurraldeen estraktibismoarena, bereziki.

ERAGIN BEREIZGARRIA BORROKAN

Autoritate indigena gisa, Darlisek normalean erabakiak emakumeekin negoziatzen ez dituztenen matxismoari ere egin behar dio aurre. Autoritate tradizionalen aurrean, zuzendariek erabili egin dute lurraldean aritzen diren multinazionalen jardueren —aurretiko kontsultak soslai ebakitzea, nahiak erostea...— kontrako erresistentzian emakume lider bat egotea: «Agure hori etorri egin zen eta gizonak poltsikoan sartu zituen», errepikatu du Darlisek, bera seinalatzen dutenen aipu gisa. Meategiko eremu zuzenean eginkizun hori daukan emakume bakarra bera da eta «etengabe seinalatzen» dute.

Kideek baiesten dute. Haientzat inoiz arrotza izan ez den errealtatearen aurrean elkar begiratu eta ezagutzen dute. Borrokan bizi izan dute, giza eskubideen defentsa emakumeek gidatzen duten testuinguru guztietan ohikoa den estrategia baita. Baina matxismoa ez da espazio publikoa hartzen dutenean hasten, gizonezko kideek ere erabiltzen dute, printzipioz, haien alboan egon behar direnek.

«Objektu sexual gisa ikusten gaituzte», adierazi du Gisalak. Emakumeen ahalmenen galerari erreferentzia egin dio: «Aurrera egiten baldin badu, gizon batekin sexu harremana izateagatik da» eta botere harremanak zeharkatzen dituzten sexu abusuak aipatu ditu: «hori eskaintzen dizut eta zuk beste hori onartuko duzu». Aipamena aipatu gabe egiten du, erreferentzia egiten du baina erreferentziarik egin gabe, haien indarkeria zalantzan jarri gabe besteenaren aurka egiten duten kide horietako batzuk —asko— kudeatzen ikasi behar izan duten beste hainbeste emakumek bezala.

Martak iruzurtiaren sindromean jarri du azpimarra. Horren ondorioz, toki mistoetan emakumeek mendeko eginkizunak hartzen dituzte: «Idazkariak eta gai logistikoak kudeatzaileak garela irakatsi ziguten. Orduan, beste eginkizun bat izan dezakegunean, edo aukera ematen zaigunean, kikildu egiten gara».

«Egiten dugun lanaren truke ez dugu ordain duina jasotzen. Hori ez da gizonekin gertatzen», baietsi du Danellyk. Txikia izan arren, gizonek egiten duten jarduerak beti dakar lansaria. «Baina gureak, ez. Boluntarioak izango garela jakintzat



hartzen da, guretzat diruaren kontua hain beharrezkoa ez balitz bezala. Eta, ematen zaigunean, ezin da *soldata* izan, *hobaria* edo *aitorpena* da».

Haientzat zalantzan dagoena ez da «soilik» haiek eta haien familiek bizirauteko aukera, baita borrokatzeko aukera eta segurtasun emozional zein fisikoa ere.

Matxismoak arrisku diagnostikoetan eta babes mekanismoen ezarpenean ere eragina du. Parte hartzen duten gune mistoetan, lider gehienak gizonak dira, hitza hartzen dute eta analisiak haien ikuspuntu eta beharretatik monopolizatzen dituzte. Ikuspegi komunitarioen artean ere, heteropatriarkalak gailentzen dira eta komunitateetako emakumeek aurre egiten dituzten berezitasunak ez dira kontuan izaten.

«Emakumeak izan ohi dira liderrak eta pisu nagusia dutenak. Mobilizazioetan, emakumeak lehen lerroan gaude eta burua gara, estrategikoki, gizonen laguntzarekin», dio Giselak. Hala ere, gutxitan dituzte gizonezko kideek izan ditzaketen baliabideak, denborak, espazio seguruak eta legimititatea.

Haien bizitza eta lan testuinguruetan, gaizkileen jazarpenak eta lotura patriarkalek amatasunean eta hazkuntzan ere eragina duen sarea eratzen dute. Testuinguru arriskutsuan, liderra eta ama izatea erronka bat da, eta ahizpatasun feministari esker da posible.



Haietako askok, ez soilik gaur Kolonbiako hego-ekialdean haien esperientzia partekatzen digutenak, aitaren laguntzarik gabe seme-alaben hazkuntza beregain hartzen dute. «Lider gehienak etxeko buruak eta amak gara», dio Martak. Bera hala da, eta baita Gisela, Darlis eta lehendakariordea ere. «Zailagoa da orduan, seme-alabentzako diru sarrerak lortu, eta etxeko lanez eta familia zaintzeaz arduratu behar duzulako». Barruan zein kanpoan zaindu, eta estutasunean. «Gizonak oso onak dira gauzak besteen esku uzten», dio ironiaz.

«Ekintza komunitarioak gidatzen dituzten emakume gehienak ezkongabeak dira, senarra izateak mugatzen baititu: ezin direla joan, zera egin behar dutela, beste hori, janaria prestatu... eta gizon gutxi dira horren jakitun», azaldu du Paolak.

Seme-alabek haien gorputzak, egunerokoa, harremanak, jarduera politikoa, beldurrak eta erruak zeharkatzen dituzte. Erditu dituzten seme-alaben bizitzak babesten dituzten bitartean arriskuei aurre egitea adierazezina delako. Darlis horren inguruan mintzatu da San Jorge Goiko Babesleku Nagusiko Jakintsuen Kontseiluarekin duen harremana azaltzen digunean. «Batzuetan galdetu egiten diet, haiek esaten didatelako: "Gure lurraldearen ardura zure eskuetan dago". Eta negarrez hasten naiz. Gehiegi hitz eginez gero, akabatuko naute. Eta sinetsi ezazue, akabatzen banaute, zuek beste bat jarriko duzue. Zama itzela jartzen digute batzuetan».

Jakintsuen Kontseiluak badaki eta gelan gaudenok, lerro hauen bestaldean, baita ere. Emakumezko kideak erailtzen dituzte. Erailtzen ari dira. Beldurra gero eta handiagoa da etxean zein komunitateetan zer, nor eta nola babestu

kudeatu behar dutenean. «Batzuetan sentitzen dut une bat iristen dela eta nire buruari galdetzen diodala: "Zuzena al da hau? Eta akabatzen banaute, zer gertatuko zaie nire alabei? Beraiek sufrituko dute". Prozesuek aurrera egin edo geldituko dituzte. Horixe da lurraldeetan dauden enpresa ugari nahi dutena, kolektiboak hondatu eta ahuldu».

Bizitza bermatzeko gorputza non jarri ez da erraza. «Bakarrik uzten gaituzu», hots egiten dio bi alabetako nagusiak Darlisi. «"Ama, zu gero eta kanporago zaude, denbora gehiago ematen diozu komunitateari, proiektuei, eta bakarrik uzten gaituzu", esaten dit. Eta hor sartzen da bakoitzak sentitzen duen errua». Euskadiraino ekarri zuen erru hori, Euskadiko Babes Programara jo behar izan zuenean.

«Ni akabatzen banaute, nire alabak bakarrik geratuko dira». Hori ez da testuinguru arriskutsuetan ama liderrek aurre egin behar dioten beldurrik handiena. Seme-alabak amak menderatzeko bide zaugarriena da. Eta baita beste lurralde posible bat eraikitze bultzada ere, beste Kolonbia posible bat. Ama horiek irudikatzen eta defendatzen duten lurraldean ez delako beldurgarria eskolara oinez joatea.

ARRISKUEI AURRE EGITEKO SAREAK ETA AHIZPATASUNA

Horregatik alabek haien falta sentitzen dute eta miresten dituzte. Darlisen alaba nagusiak kanpoan egoteagatik errieta egiten dion bitartean, txikiak bere lanagatik miresten du: «Nagusia naizenean, zu bezalakoa izan nahi dut, hori guztia egin nahi dut».

Alaben, familiaren eta komunitatearen aitortpena energia eta segurtasun iturri nagusia da, gaizkileek komunitatean banaketa eragitea lortu ez dutenean. Izan ere, haien lurraldeetan, kideek pausoz pauso botere korporatibo eta patriarkalaren eraginak lehengoratzten dituzte, testuinguru oso bortitzean.

Giselaarentzat, «entzun ez gaituzten guneetara ahotsa eramatea» kemena da, eta «nork bere burua proiektatzen eta irudikatzen duenean, gauzak mugitzen diren» frogatzen. Lurraldeko zenbait emakumeren bizimodua aldatzea ahalbidetu duten mikroenpresak sortzeaz ari da, haren komunitatearen garapenaz eta emakume beltzek 70 Legeari⁶ emandako bultzadaz. Pazifikoko antzinako lurralde komunitarioak aitortzeko lege horri emakumeek egindako ekarpena Danellyk ere miresten du.

Horren inguruan hitz egiten dute aurrera jarraitzeko motibazioen inguruan galdetzen diegunean. «Besteek ez dezatela jasan guk pairatzen duguna». Paolak zalantza gabe esaten du. Eta haren erreferente diren beste emakumeen lanean oinarritzen da ziurtasun hori. «Estatuaren baitan beste emakume batzuek rola izatea oso esanguratsua

OHARRAK

¹ La Salvajina Cauca ibaiko arro hidrografikoan dago, Morales, Suárez eta Buenos Aires (Cauca) udalerrietan. Zentral hidroelektrikoa 1985ean jarri zen martxan. Handik aurrera, kudeaketa eskuz esku ibili da. Hasiera batean, Cauca Bailarako Eskualdeko Korporazio Autonomoak (Corporación Autónoma Regional del Valle del Cauca) kudeatu zuen. Gero, Kolonbiako energia pribatizazio politikari erantzunez, EPSA (Empresa de Energía del Pacífico) enpresa instalazioaz jabetu zen. 2000 urtean, Unión Fenosak EPSA erosi zuen. 2009an, Antiokiako Enpresa Gremioak (Gremio Empresarial Antioqueño) enpresa horren partaidetza erosi zuen, eta, une hartatik, kide nagusia da kapitalaren % 64rekin. Herri indigenak,

herri beltzak eta nekazairtza komunitateak egondako lurraldeetako uholdeek 3.000 pertsona baino gehiago desplazatzen zituzten, batez ere, ohiko meatzaritzan eta nekazaritzan aritzen zirenak.

² Front Line defenders (2023) **Análisis Global 2023/24.**

³ Zehar-Errefuxiatuekin (2022) **Deserrotuak: Klima aldaketak behartutako desplazamenduen inguruko interpretazio kritiko bat. (40 or).**

⁴ Nazio Batuak (2023) Errelatore Bereziaren giza eskubideen egoeraren inguruko Txostena. Caminos hacia la paz: las defensoras de los derechos humanos en situaciones de conflicto, posconflicto y crisis (14. or.)

eta oso handia da niretzat. Emakume afrokolonbiarrak, emakume indigenak, haien lurraldea eraldatzeko eremurik ezkutuenetik irten dira, dauzkaten beharrak dauzkatela, aldaketa lortzeko itxaropenarekin».

Besteen errealtateak besteekin aldatzea bultzada eta entzumen ariketa da Martarentzat, «etxetik hasita, ama, lagunak, eta lehendakariorderaino». «Min ematean emakumeak nola sentitzen diren jakitun izatea nahi dut [...] Ahalduntzen direnean eta indarkeria ikusi dezaketenean, haiengan duen eragina uler dezakete, beren buruak berriz ere maitatu, gidatzeko beren buruan duten konfiantza berreskuratu... Nik motibazio handia daukat».

Paolaren kontakizunean ere ama agertzen da. Eta amama, eta bere inguruan egon diren emakume guztiak: «Zorte handia daukat eta guztiek babesten nautela sentitzen dut, haien jakinduriarekin, haien ezagutzarekin... Uneoro laguntzen didate». Eta Danellyren kontakizunean ere, Filo Andrearen inguruan hitz egin digu berriz ere: «Ezagutu eta maitatzen eta zaintzen ez duen inor ez dago, komunitate horren erdigunea da. Bera izan zen nire lehenengo eredua, tratatu txarren eta arrazismoaren aurka hasi nintzen borrokan bertan, bidegabekeriak lehenengoz mugitu zidan bihotza bertan, nire etxean».

Eta haien guztien erreferenteen artean, berriz ere Francia Márquez ageri da, bide antzekoari jarraituz heldu da lehendakariorde izatera. Emakume lider beltz eta prekarizatuek; landaguneko ama ezkongabeek; lurraldearekin, komunitatearekin eta aberriarekin konpromisoa duten emakumeek bide horri aurre egin behar diote eta aurrera egin. Ikuspegi feministatik Kolonbiari erreparatzen hasi ginenean, erbestean dagoen beste kide batek aberri horri gazteleraz *matria* esaten zion.

«Márquezek bizitakoa ezagutzen dut —dio Gisela—, badakit oso gogorra izan dela. Miresteko moduko emakumea da niretzat, ez gaur lehendakariordea izateagatik, baizik eta egin duen bideagatik». Bide horrek Márquez Gobernura eraman baldin badu, haiek ere eraman ditzake. «Nik prozesuetan egon nahi dut, liderra izatera heldu eta ahalduntze hori izan. Márquezek erronka oso handia jarri zidan, lehendakariordetza ez delako edozer gauza, indarrak emateko ahalmena izan du beti», hausnartzen du.

Bideari ekiteko lurraldetik, tokikotasunetik eta haien kolektibo propioetatik emakumeen artean gunea hartu behar dute. Darlisek argi dauka. «Honaino helduko da kontua. Han gizonak dauden bitartean, lehentasuna beraiek izango dira, emakumeok ez gara lehentasuna izango. Sinetsi iezadazue, ez da hala izango. Aurrekaria ezarri behar dugu: zuk espazio bat baldin baduzu, posturen batean baldin bazaude, erabili hori eta hasi emakumeak sartzen eta ikuspuntu feminista nola sartu dezakegun ikusten. Izan ere, oinarrizko instituzio eta erakundeetan jalgitzen da dena: has gaitezen gu guretzako eskatzen».

A/HRC/55/50: **“No solo somos el futuro”: desafíos afrontados por los niños y jóvenes defensores de los derechos humanos - Informe de la Relatora Especial sobre la situación de los defensores de los derechos humanos | OHCHR**

ohiko ekoizpen praktikak erabiltzen dituzten eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten komunitate beltzak dauden lugorrietan, landaguneetan eta urbazterretan» ere aplikatuko da. Eskuragarri **Ley 70 de 1993.pdf** (minagricultura.gov.co)

5 Programa Somos Defensores (2023ko urriak 23). **La espera, 2023ko urtarrila-ekaina sei hileko txostena.**

6 1993ko 70 Legearen helburua «Bareko Arroko ibaietako urbazterretako landaguneetako lugorrietan egon diren komunitate beltzak aitortzea»; eta «talde etniko gisa, Kolonbiako komunitate beltzen nortasun kulturala eta eskubideak babesteko mekanismoak ezartzea» da; eta, Konstituzioaren arabera, «herrialdeko beste eremuetan

“ETXETIK ATERA
GINTUZTEN, OSTIKO
EGIN ZIGUTEN, EHIZATU
GINTUZTEN, BAINA
HEMEN GAUDE.
HAURRA IBAITIK ATERA
DEZAKETE, BAINA EZ
IBAIA HAURRAREN
BAITATIK”

Elkarriketa zilborretik atera zaio, utzi behar izan zuen lurretan ereindako zilborretik. Guapinol ibaitik Arratia ibaiko (Basoa) magaletaraino merkurioaren eta odolaren indarragatik gaindi egindako biografian ernetzen eta adarkatzen da elkarriketa, bertan urperatzen da antsietateak eztarria zeharkatzen dion egunetan, hotza egiten badu ere. Lurraren defendatzailea da, baina gerora jakin zuen, bere atzetik joan zirenean. Dalila Argueta alaba, biloba, nortasunez nekazaria, emaginen alaba, komunitatearen alaba, gorputz eta arimaz borrokatzen dutenen alaba da. Ukabilak ixten ditu samurtasunari ekiten dion bezalaxe. Bere istorioa marrazteko ez du lorezko metaforarik nahi.

«Emakumeok antolatutako Guapinolko kanpalekua. Guk ireki genuen txorrota eta esan genuen: “Nola prestatuko dugu janaria? Nola garbituko dugu? Nongo ura edango dute gure seme-alabek, gure familiek?”»

Mendian gora helikopteroak igarotzen, lurreratzen eta burdinazko tutu erraldoiak uzten ikusi zituzten, «burdinbideak egiteko asmoa izango balute bezala», tutuak lotu eta jendeak bistatik galdu arte eramaten zituzten. Ez zuten ulertzen nortzuk ziren ezta material horiek nora zeramatzaten. Inork ez zuen erantzunik ematen. Ezta Guapinolko kooperatibak ere. Herriari kontsultarik egin gabe harekin bildu izan zen Los Pinares enpresa.

«Ibaia iturburua kutsatuz gero, komunitate osoaren ura kutsatzen duzu. Gure ibaia mehatxupean ikusteak Guapinol esnatzea eragin zuen. Orduan aire zabaleko burdin meategia ustiatuko zutela jakin genuen».



«Gizonezko familiaburuen» gizarteko amek sustatu zuten ikerketa. Ibaiak kafe kolorea zeukala ikusi zuten eta miatzen, biltzen, sinadurak jasotzen, komunitateko indar biziei dei egiten hasi ziren. «Onura ekonomikoak lortzen ari zirenek esaten ziguten: "Burutik jota zaudete". Emakume menderakaitz izatea leporatu ziguten, guk nahi genuena kontent uztea zela esaten zuten: bortxaketa eta intimidazio mehatxuak jaso genituen. Bertan armak eramatea legezkoa da. Orduan, bat-batean, beldur emateko armak ateratzen zizkizuten. Etxeetara, emakume isilkorren sumisiora itzuli eta ondo portatu gintezen izutu nahi gintuzten».

Enpresa, militarrek, polizia eta Los Pinarenen interesen aldeko instituzioak, lurraldeko inplementaziotik mozkinak lortzen ari zirenak —legezko zein legez kanpoko negozioekin— eta, askotan, haien bikotekideak aurrez aurre zituzten.

«Oraindik ere emakumeak gizonen soldaten mende zeudela ikusten nuen, enpresak heldu eta gizonei ematen zietelako lana. Emakume bat kontratatzen baldin badute, jantokietarako eta gizonak zerbitzatzeko da».

Gizonezkoen soldaten mendekotasuna handitzea multinazionalen beste estrategia bat da: gizarte borrokaren aurrean familia haustea. Mendekotasun horrek kalean zein etxean haien burua defendatu behar izatea eragiten du.

... «Zure burua uneoro defendatu behar duzu, zure bi lurraldeak babestu behar dituzu: zure *gorputz lurraldea* eta zure *lur lurraldea*. Egunero. Eta hori gure arteko bakoitzak bizi du. Emakume askok etxea galdu dute horregatik».

Prozesua hasi zenean, Dalilak 9 urteko alaba eta semea, ozta-ozta 2 urte eta erdikoa, zituen. Bere ahizparen laguntzarekin sartu ahal izan zen borrokan. «Gu espazio honetan egon ahal izateko, beste ama batzuek gure seme-alabak zaintzen dituzte. Traba guztiak gorabehera, nahiz eta bikotekideen indarkeriak jasan, ibaia defendatzearen alde egiten jarraitzen zuten emakumeak asko miresten ditut».

Dalilak salatzen duenaren arabera, elizek ere, ama txarrak direla leporatuta, etxera bidaltzen dituzte. «Emakumeek beraien gain ere gauza asko hartzen dituzte, presio handiaren mende daude».

Hari, beste hainbat emakumeri bezala, Los Pinarenen interesak babesten zituzten militarren eta paramilitarren indarkeria ez ezik, indarkeria patriarkala jasatea ere egotzi zitzaion. «Nik gizonezko lankideekin oso hurbila nintzen eta beti izan naiz oso maskulinoa. Horrek kritika eta pentsamendu txar ugari sortzen zituen».

Denborarekin, lankide horiek «borrokan aritzeko moduaren inguruan eta espazio horietan gudan sortzen duten indarkeria guztiaren inguruan deseraikitzen» hasi izana espero du Dalilak. «Izan ere, han inork ez zigan feminismoaren inguruan hitzik egiten, orduan ez nekien zer esan nahi zuen».

Haien artean, gizon batzuk konfiantzazko aliatuak izan ziren, komunitatearen defentsan helmuga partekatu zuten Dalilarekin eta elkarren ondoan aritu ziren. Erresistentzian, Guapinol nazioarteko mapan jarriko zuen erresistentzia kanpalekuan, aliatuak ziren, eta eskola garaitik ziren lagunak. «Gogoan daukat 16 urterekin zoro garbia den lagun batek eskuak atzetik hartu eta esan zidala: "Defenda zaitetz! Gogoratu, norbaitek joko bazaitu, ez dizu aurretik erasorik egingo. Defenda zaitetz!" Burukada itzela eman nion, eta sudurra leher eginda utzi nion, odola eta guzti».

Txikitatik, «astakilo» bezala bere burua defendatzen ikasi zuen haiekin. Inoiz ez zuen pentsatu horrek gerora bizitza salbatuko ziola. Inoiz ez zuen pentsatu bere tresna propioak zalantzan jartzea eragingo ziola, Hondurasen Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionalera (*Red Nacional de Defensoras de Derechos Humanos*, aurrerantzean Sarea) heltzean, entzuten eta laguntzen hastean. Baina hori aurrerago dator.

Txikitatik lagunak izandakoak borroka kide bihurtu ziren: hasiera batean bizitza defendatzeko ibaia babesten hasi ziren, eta, amaieran, beraien bizitzak babestu behar izan zituzten ibaia defendatu ahal izateko. «Elkarrekin geunden: bata bestea zaintzen zuen eta gure artean konfiantza genuen, testuinguru honetan ezin duzulako edonorengan konfiantzarik izan. Enpresaren edo poliziaren mehatxu edo indarkeria ekintza baten aurrean erantzuteko estrategiak antolatu genituen. Bizikidetzeta eta komunitatea zaintzeko moduan pentsatzen genuen».

Joan den urtean, 2023an, hiru erail zituzten.

«Kendu egin zizkidaten».

Basoa Defendatzaileen Etxeko jardinean jesarrita, Dalilak oraindik ere lotsati distira egiten duen eguzkiari erreparatzen dio eta isildu egiten da. Bere bizitzak bezala atsedenek gabe aurrera egiten duen elkarrizketan lehenengoz gelditzen da. Ia ez da galderarik izan, modu miresgarrian ordenatutako oroitzapenen jariora besterik ez, bizitasun berarekin txantxatik haserrera, poztasunera, minera igaroz... entzuleak erresilientziaren baitako urradura bereiztea lortu baino askoz lehenago.

Dalilaren zintzotasuna desgogkitasunean eta samurtasunean blai eginda dago eta ez dauka mugarik, bere kultura politikoa basoan soildutako eta gorputzetik bereizitako *eskolakoa* da, enpresa erauzleen, politiko eta instituzio ustelen, militarren eta paramilitarren interesak aurrez aurre —edo bat eginda— daude bertan.

Urrunetik, nola hartzen ditu bere gain hain duela «kabroiak»? Dalilak faltan botatzen duen eta sakon miresten duen beste gizon baten besarkadarik gabe egin du, bere aitaren besarkadarik gabe.

«Ni militar jatorrikoa naiz. Nire aitona, nire osabak, guztiak izan dira militarrek, nire aita militarra izan zen. Salvadortarra da, baina soldadutza Hondurasen egin zuen. Hori esateak lotsa ematen dit. Nik aita maite dut, eta egongelan metraila mantekin eta kide militarrekin zuen argazkia ikusten nuen... Berak ez zeukan orain militarrek daukaten papera», argitu du. «Nik aita asko miretsi izan dut, gizon apala, solidarioa, maitekorra, eta oso zentzuduna izateagatik. Gauzak egin aurretik, mila aldiz pentsarazten dit. Edozein gatazkaren aurrean —izan pertsonala zein kolektiboa—, beste begiradak bilatzen, ikuspegi desberdinak entzuten, konponbide ezberdinak bilatzen lagundu egin dit horrek».

Une zailetan, bere aholkuek beti lagundu diote. Eta, zailenen artean, Guapinol ibaiaren eta izen bereko komunitatearen defentsa dago. «Bere istorioak kontatzen zizkidan eta nik gauza asko hartzen nituen: nola erantzuten zuten, nola mapatzen zuten, lursaila nola aztertzen zuten. Askok lagundu zidaten. Gure aurkako militarren estrategiei erantzuteko erabili genituen eta eraginkorrak izan ziren. Ikuspegi handiagoa eduki izana gustatuko litzaidake, aurretik ibili izana».

«Nitaz harro sentitu zen, hori badakit».

Dalilak indarkeria armatua pairatu du. Indarkeria militarrek eta paramilitarrek komunitatearen eta herriaren gainetik kapitalaren interesak zaintzen ditu, beste hainbat latitudeetan bezala. Ez zekien defendatzailea zenik. Lehian aritzen zekien. «Nik harriak jaurtitzen dakit, haiek bezala modu oldarkorrean erantzuten dakit, ukabildakak jotzen dakit. Lehiatzen dakit».

Taktika militarrek aitarengatik ikasi zituen. Inork ez zion irakatsi indarkeria matxistei aurre egiten, gorputzetik ikasi zuen, eta txikitatik. «Testuinguru honetan 13 urte dituzunetik kaleko losintxetatik, hitz erasoetatik, eraso psikologikoetatik, begiratzeko modu morbosotik babestu behar duzu zure burua. Orduan zure burua defendatzen hasten zara. Nire lurraldea defendatzeko unean, gauza askori aurre egiteko beharra dago, baina etxekoei ere».

Guapinolen erasotzaileekin hazteak maite duzuna defendatzen ikastea dakar: zure gorputza, zure familia, zure ibaia, zure komunitatea. «Nire bila badatoz, bi alderdi dauzkat. Maitasun handia dakart, nire maitasuna nahi duzu? Ba maitasunez tratatu. Baina utzi bakean maite ditudanak, sumendi bihurtuko naiz bestela. Psikologoa eduki aurretik, boxeo zakua zen nire psikologoa».

Txikitatik «makal» etiketari uko egin dio. «Lore gisa marraztuko banaute, kaktusa naiz», barrezka esan du. «Militarren eraso bat gogoratzen du. Batek “txakur txoro” esan zidan. Zortzi kide neuzkan alboan. Orduan nik esan nion: “Bai, txakurra naiz, baina ez naiz zu bezalako katuekin nahasten”.

Gizon batzuek esaten zidaten: “Nik ez duk onartzen ama batek esaten duena”. “Benetan? —esaten nien nik— Eta nor erditu zen zutaz? Zure aita?” Haiekin obarioak zotz egitera heldu nintzen. Negar egin behar banuen, ez nuen jendearen aurrean egiten. Dena irentsi, erantzun eta gero kudeatzen nuen».

Kontatu dituen momenturik gogorrenen eta bortitzenen artean Guapinolko kanpalekutik bota zituzten unea dago. 87 egunez espazio horretan komunitateko hamarnaka pertsonak uraren eta herri ondasunen defentsan Inversiones Pinares meategi enpresaren aurkako erresistentzia antolatua mantendu zuten. 2018ko urriaren 27an eta 28an, 1.500 polizia eta militarren taldeak bortizki joanarazi zituen¹.

Meategiaren aurkako erresistentzia «ehuna» izan ziren, «dena kabi hartan hasi zen» eta Dalila prozesu horretan sentitzen da harroen: «Beste kanpalekuekin aliantzak, komunitate osoak leku izatea eta bata bestea zaintzea, batzuek txanda baterako janaria ekartzen zuten, besterik ez, beste batzuek logistika antolatzen zuten, zenbaitek haurrak zaintzen zituzten, nagusien esperientziatik ikasi genuen» eta, beste batzuek, errepresioaren aurkako aurrez aurreko defentsa artikulatzen zuten. «Dena izan zen lagungarria», aldarrikatu du. «Gu gara Guapinol».

⋮ «Etzetik atera gintuzten, ostiko egin ziguten, ehizatu gintuzten, baina hemen
⋮ gaude. Haurra ibaitik atera dezakete, baina ez ibaia haurraren baitatik».

«Bigarrenez kanporatu gintuztenean armapean izan zen, komunitate osoaren aurka tiro egiteko agindua zuten. Mehatxuak, atentatuak, hildakoak egon ziren». Kanpalekutik bota ostean, militarrek mendian gora jarraitu zituzten. Gaseztatu zituzten. Hesiak igarotzen eta behien urasketatik edaten biziraun zuten, «gosea, hotza, beldurra, amorrua, dena generaman soinean». Ihes egitean adrenalinak gorputzak astintzen zituen eta komunitatea isilpean zegoen, etxeratze aginduan. «Gutiz izugarria izan zen».

«Enpresako langileek armak zituztela ikusi genuen, gure komunitateari eraso egin zioten. Borrokatik mina eman zidan momentu bat nabarmendu behar badut, hori izan zen. Ezagutzen ditudan pertsonak lagun minak destatzen zituztela ikusi nuen, eta enpresa horiek kontzientzia eta duintasuna erostea eta maite ditugunak etsai bihurtzea nola lortzen duten ulertu nuen. Nik badakit behar handia dagoela, bizi duten pobrezia, eskasia eta hori guztia ezagutzen dut, baina etxekoei eraso egitea? Etxekoak saltzea?»

Kanpalekutik bota ostean, Guapinolko borrokak tokiko zein nazioarteko mailan «eztanda» egin zuen, komunikabideak eta nazioarteko behaketa erakundeak heldu ziren. Komunitateak enpresari erantzuteko errebel디아 ekintzak aurrera eramaten zituen eta Dalila horietan zebilen. Sareko kideak kanpalekuko emakumeak elkarriketatzeko heldu ziren.

Dalilak gero eta arrisku handiagoan zegoen: telefonoz —ahots mezuak, deiak— mehatxu zuzenak eta jazarpenak pairatzen hasi zen. «Banekien meategiko langileak zirela, zalantzarik gabe, salmenta jada egin zutela zirudien». Konfiantza handiko kide batzuek, baita mugimenduko lider batek ere, garrantzia kendu zioten: «Zurea baino profil handiagoak daude». Begirada patriarkalak batzuetan lurraldean emakumezko kideen eginkizuna eta arriskua antzematea eragozten du.


Gizonarentzat profil handiak lan publikoa egiten zutenak ziren. «Gu isilaraztea interesatzen zaie». Zalantzarik gabe, haiek isilaraztea interesatzen zitzairen, hala nola Dalila isilaraztea. «Nik jada ibilbidea aldatu, analisia egin eta nire protokolo propioak bilatu izan nituenean, gauzak txikiago egin ziren. Beldurra izugarria zen».

«Ondo da —esan zuen—, orduan, zeren zain nago? Ni erailtzeko zain?»

«Nik ate bat jotzen badut, benetan behar dudalako da: oso harroa naiz, laguntza eskatzea asko kostatzen zait, benetan asko, aurrera jarraitzen dut beti. Beste norbaitek nik baino lehenago laguntza behar duela pentsatzen dut. Beti kanpora begira zaintzen nabil».

Dalilak estrategia propioak bilatu zituen. «Ni zelatatzen zeudenean, nik jada lau begi erne nituen. Nireak eta beste kideenak nituen, izan ere, nik lau laguntzaile nituen, lau lagun».

Horietako bi Ally eta Jairo ziren. Joan zen urtean erail zituzten, bera erbestean zegoela. Hildakoenera heltzen ez diren oihiak itotzen diren erraetan errota daudelako aipatzen ditu lagunak. Negar egitea eta salatzea posible da, baina Guapinolen suntsitutako gorputza ezin da Basoatik besarkatu. «Indarrez kendu zizkidaten. Hiru kide galdu ditut, bai. Eta hori ere nire baitan daramadan amorruaren zati bat izan da, kaka zaharra da. Eta beraiek bazekiten eta esan zidaten: "Entzun, geratuko gara"».



Bere aktibismoaren aurka seme-alabak bahitu ez zitzaizten, haien loa zaintzeko loezin izugarria oso goiz ezagutu zuen; Europaraino inportatzen dugun burdinaren mesedetan eraildako kideak ehortzi ditu; eta hilobira lagundu ahal izan ez dituenengatik erbestean egin du negar.

Baina garai hartan oraindik ere bizirik zeuden eta bere lagunak ziren. Bera laguntzeko prest zeuden. Etxean ere ezarri beharreko estrategia propioaren parte ere izan ziren lagunak. «Segurtasun neurriak hartu nituen, baina une hartan ez erabiltzea gustatu izango litzaidake».

«Askotan emakumeok gure buruari seme-alabak arriskuan jarri genituela esaten diogu. Ez da egia: gaizkileak dira gure seme-alabak arriskuan jartzen dituztenak, baina norberak bere erabakiak hartzen ditu: eta nola kudeatuko duzu hori?»

Dalila Sareko kideekin jarri zen harremanetan, jada aurretik Guapinolko emakume defendatzaileen egoeraren inguruan interesa zeukaten eta haiengana hurbildu izan ziren. Haiekin harremanetan jarri zen eta bizi zuen indarkeria eta egoera guztia kontatu zien.

... «Sare horrek libratu ninduen: gertatutako guztian konfiantza osoa jarri zuen.
... Hori ikustea eta partekatzea asko kostatu zitzaidan».

Sareak beste emakume batzuekin topaketa batera gonbidatu zuen, defendatzaile gisa egindako lanaren eta horren ondoriozko indarkeriak duen eraginaren inguruko kontzientzia hartzen hasi zen bertan. «Zaintzagunea zela esaten ziguten. Guztiz berria zen niretzat, oso arraroa. *Sentipentsatzea*... aurretik inoiz ez nuen hartu horrela sentitzeko denborarik. Beti gainontzekoei galdetu izan diet: “Zer moduz? Zelan zaude?” Ni neu nola sentitzen nintzen inoiz ez nion nire buruari galdetu izan».

Dalilak arnasa hartzeko denbora hartu zuenean, gorputza zaurituta zuela, lurraldean borroka nekaezinari aurre egin ziola eta beldur handia zeukala ikusi zuen. «Nire baitako hausnarketa horrek bizitzen ari nintzen guztia ulertzen lagundu zidan, pairatzen nuen indarkeria, normalizatutako gauza guztiak, nik indarkeria handia normalizatzen nuelako».

«Feminismoaren eta deseraikitzearen inguruan» hitz egiten entzun zituen. «Hauxe gune feminista izango da», esaten zuten Sareko kideek, eta Dalila arduratu egiten zen: «“Eta hemen bat egiten ez dudala esaten badut?” Hainbeste gauza ez jakiteagatik oso txikia sentitzen nintzen eta, aldi berean, nire buruari zenbatetan huts egin izan nion ikusten hasi nintzen. Kideak hitzeko indarkeria normalizatu behar ez genuela esaten entzuten nituen eta nire buruari galdetzen nion: “Eta halako astakeriarik bururatzen bazait?” Ez da erraza, hazi garen espazioan zure burua babesten lagundu dizun guztia gaineratik kentzea ez da erraza.

Nahaspila horrekin geratzen nintzen: “Mozala jarri behar al dut ahoan? Haiek jartzen dute guri erasotzeko ala? Ez. Isilik geratu diren guztiengatik, nik esango dut”. Ni nentorren espazioan esaten zidaten guztia eragin ziezadan utzi izan banu, ondoan nituen kabroiak edo aurre egiten nien militarrek deseraikitzen saiatu izan banintz, oso txarto egongo nintzatekeen, erotuta. Nire bizirauteko modua izan zen».

«Nire baitan nuen patriarkatua ikusten nuen. Nik irain egiten dut, kolpeak ematen ditut.... atzamarrekin baloratzen nuen feminista nintzen ala ez, eta ez nuen atzamar nahikorik barruan nuen patriarkatu guztia zenbatzeko». Eta bere buruari erregutzen zion: «Pazientzia pixka bat, nire burua deseraikitzen ari naiz eta».

Pazientzia apur bat, eta entzutea, eta norbere burua maitatzea, errazagoa beste batzuk alboan izanda. Horien artean, beldurraren muinean eusteko eta erbestera joateko aukerari aurre egin ahal izateko giltzarri bilakatuko zen emakumea: Yessica Trinidad, Yess, Sarearen koordinatzailea Hondurasen.

«Niri Sareak irakatsi zidan zaintza sareak baloratzen eta maitatzen, eta, nik besteak zaintzen ditudan bezala, zaindua izatea ere merezi dudala onartzen. Haiekin ikasi nuen gure artean espazio seguruak bilatzen».

Ordura arte inork haiengan pentsatu ez zuela dio. «Inor ez zen gu entzutera geratu, inork ez zigun galdetu: “Zer ari dira sufritzen emakumeak? Nola ari dira bizitzen heriotza? Zer iritzi dute? Nola ari dira amak bizitzen etxe barruko

indarkeria? Nola zeharkatzen ditu familia hausturak emakume hauek?” Sareak gure bizitza erdigunean jarri zuen eta guk ere hala ikustea eragin zuen, jarrera politiko gisa: bizitza erdigunean, zaintza erdigunean».

Hori baino lehen inork ez zien galdetu, eta haiek euren buruei ezta ere. «Beti» besteak zaintzen ikasi zuten. «Feminismoak begiak zabaldu zizkidan, eta gaur egun ere zabaltzen dizkit. Analisisiek, irakaspenek, beste emakume batzuen gogoetek nik ere hausnartzera eraman ninduten, arlo pertsonal eta kolektiboan».

Dalilak defentsa estrategia kanpalekua artikulatzearekin uztartu zuen. Bertan bidelagun asko egiten zekitenaren ekarpena eginez antolatzen ziren. Haiek izan ziren ibaiaren kutsaduraren inguruko alarma piztu eta erresistentziari ekin ziotenak eta haiek izan ziren kanpalekuko logistika mantentzeaz arduratu zirenak. Gehienak amak ziren eta haietako batzuek euren bikotekideen, euren seme-alaben aiten, espetxeratzeari egin behar izan zioten aurre.

Estraktibismoaren aurkako gatazkan dauden lurralde askotan errepikatzen den esperientzia da hori. «Gizonezko defendatzaileak gehiago kriminalizatzen dituzte, baina nork eusten dio borrokari kanpoan? Emakumeek. Nork eusten dio kaleari? Emakumeek. Nork mantentzen ditu seme-alabak? Emakumeek. Emakumeak erabat lotuta daude euren bikotekideak defendatzeari, errugabeak direla frogatzeari, seme-alabek jatekorik eduki dezaten pentsatzeari. Zama anizkoitza da.

Ez dut esan nahi ez dagoenik gizonik borrokan, erresistentzian jarraitzen dute, baina gehienbat emakumeak daude hainbat borrokaren buruan. Eta gorputza baino ez dute. Gorputz nekatu, kolpatu eta bortxatua. Beharbada inoiz gelditu ez den gorputza».

Seme-alabak mantendu eta euren bizitzetan gudu zelaia sar ez dadila saiatu; haiek bere gain hartzen duten rol hau konplexuena da, eta, era berean, aurrera egiteko kemenak dakarkie. Beldurrik gabe hazi ahal izango diren leku bat eraikitzearen eta erruaren artean borrokatzea, euren dena defendatzen duten bitartean. Muturreko zaugarritasunaren eta euren den etorkizun baten pizgarriaren artean: euren edateko ura, euren ibaia, laboreak, ama, aiton-amonak, komunitatea.

«Nik borrokan jarraitzen nuen nire seme-alabek daukaten gauza material bakarra eraiki genuen etxetxo delako». Lau urtez ibaiko harriak hartzen, margotzen, ospatzen genuen zuhaitz bakoitza maitasunez ereiten: mangoak, kokoak, ahuakateak, bananak, litchiak, limoiak, laranjak. Nire seme-alaben etxeak, euren dena eta, mendia dauka parez pare. Ni hamaka batean eseri ohi nintzen, goizeko bostetan. Maite nuen mendiei begira hartzea kafea, enaren kantua entzuten nuen bitartean. Inork ezin dit une hori lapurtu.

Hamaka horretan eserita, zeuden mehatxu guztiekin, nik pentsatzen nuen: “Gure ibaia desagertzen bada, burdina erauzteko erabiltzen duten merkurio guztiak lurra eta lurrazpia kutsatzen baditu, nire zuhaitz guztiak hilko dira. Zer jaki emango dizkigu lurrak? Nondik aterako dugu ura?”»

«Nola birkokatu daiteke komunitate oso bat beste leku batean? —galdetu du— Zer egingo du nekazariak lurra kentzen badiozu? Ergelkeria da. Lurraldeok hornitzen ditugu kapitalaren merkatuak». Dalilak Honduraseko meategien emakidak zenbatzen ditu: bakarrik bere departamentuan 56, herrialde osoan bostehun baino gehiago. Bere buruari galdetzen dio zein departamentutan ez dagoen meatzaritzarik. «Lurralde guztiok geneukan militarren bota gainean, nekazarien mugimenduek, lenka herriak, garifuna herriak... edonora begiratuta erresistentzia zegoen». Erresistentzia horretan, berak Berta Cáceresen papera ezagutu zuen, miresten zuen eta erail zutenean amorruez bete zen, «jakin gabe gerora ni ere egoera horretan egongo nintzela, nire herria zain eta muin defendatzen».

«Emakume guztiok hartzen dugu gure gain paper garrantzitsua komunitateetan, eta bat ere ez da bestea baino garrantzitsuagoa». Hori dio orain, eta Guapinolen bere rola hartzen duen bakoitzean. «Baina kontua da batzuek eragin handiagoa dutela gure bizitzetan, gure etorkizunean». Berea, bere etorkizuna, bidera ezina bilakatu zen bere lurraldean.

⋮ «Nik ez nuen entzuna *erbeste* hitza, ez nuen entzuna *asilo* hitza, ez nuen entzuna *deserrotze* hitza».

AEBra emigratu zuten bere neba-arrebek esan zioten dirua bilatu zezaketela hark Hondurasetik alde egin zezan, txikiekin. «Guk aterako zaitugu hortik», esaten zioten. Eta bera saiatzen zen aukera guztiak aztertzen: «“Eta bidean zerbait gertatzen bazait nire seme-alabekin? Nire alabari zerbait gertatzen bazaio? Zerbait egiten badiote nire aurrean? Zer egingo dut? Nora joango naiz?”»

Mila gauza sortzen zizkidan buruan, guztiz galduta nengoen: “Nola izan daiteke horrelako mila gauza egin izana beste jende batentzako eta orain ezin izatea?” Baina orain nire txikiei buruz ari ginen, bidean arriskuan jar gintezkeen. “Eta kartelak harrapatzen bagaitu? Eta ezin badut eurekin aurrera egin? Nola utziko ditut hemen? Nola izango naiz umeak hemen uzteko bezain ama txarra?”»

Dalila Besarkadaren Misioan (*Misión del Abrazo*) bildu zen Sarearekin, 2019ko urtarrilaren 25ean. Beste lurraldeetako defendatzaileekin egindako nazioarteko topaketa bat zen. «Ni lekuz kanpo sentitzen nintzen: defendatzaile handiak hemen eta ni, zalapartatsua, iskanbilatsua, kalekoa...»

Misioa zela eta, Hondurasen zeuden Yess eta beste ekimen eta erakunde batzuetako kideak ere, hala nola Hondurasko Sarearen parte den IM-Defensorak (*Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras*) ekimenekoak, edota Front Line Defenders eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeetakoak. Guztien artean aztertzen zuten Dalilaren egoera. Erabakia labankada baten antzera heldu zen: ez zegoen bere seme-alabekin alde egiteko modurik.

Alaba nagusia berarekin joan zen San Pedro Sula hirira arte, eta bere logelan egiten zuen lo kideek alternatibak bilatzen zituzten bitartean; seme txikia Guanipolen geratu zen. Bi tipok euren etxea zelatatzen zuten.

«Asiloaz hitz egiten entzuten nituen, Atzeritartasun prozesuez, eta esaten nuen: “Ze ostia da *Atzeritartasuna*?” Eusko Jaurlaritzaren babes programak ere ez zuen balio, une hartan ez zelako posible sartzea... ez dakit zer txorakeriagatik, ez zelako une hartako larrialdia.

Nik Yessiri esaten nion: “Zuk ulertzen duzu, ezta? Nik ez baitut ezer ulertzen”. Eta berak esaten zidan: “Ez kezkatu”.

Logelara itzuli nintzenean alaba lotan zegoen, eta gau deunga osoa negar eta negar bota nuen, ama gisa gaizki sentitzen nintzen, haserre bizian, seme-alabak bertan uztea eta nik alde egitea pentsatze hutsagatik. Alaba lotan ikusten nuen, hamar urte beteko zituen eta nire buruari galdetzen nion: “Nolatan izan naiteke ni, bere ama, arriskurik handiena?”

Gaingan neramatzan erruengatik egin nuen negar. Amorrugatik egin nuen negar, ezintasunagatik eta larritasunagatik, une hartan nire seme-alabentzako hoberena zer zen ez nekielako».

Sareak Guapinolen profila jaitea eskatu zion, ihesaldia antolatu bitartean. AEBko aukera konplexuagoa zen, bertarako migrazio prozesuan ezin zutelako lagundu eta bere kabuz egitea oso arriskutsua zelako. Egingarriena Espainiara hegazkinez etortzea eta nazioarteko babesa eskatzea zen. Dalilak seme-alabak eramateko moduan pentsatzen zuen. Analisisien eta beldurraren tartean, urrun egoteak haientzako arriskua txikitzea zekarrela onartzea lortu zuen. Goiz itzultzeko aukerari gogor heldu zion: «Ni banoa, behar beste denbora profila jaisten dut eta itzuli egiten naiz».

Konfiantzazko lagunek joateko bihotz eman zioten. «Dalila —esaten zidaten—, zure aukera bakarra da, jada ez da bideragarria hemen geratzea. Hobe da urrun egotea zu galtzea baino».

Yessek kolektibo eta erakunde desberdinei deitu zien eta ihesaldi prozesua antolatu zuen «(...) poz-pozik, baina baita barnean saminduta, Sareak ez duelako nahi kideak lurraldetik ateratzea, inork ez lukeelako ihes egin beharko. Ez nire baldintzetan, ezta beste edozeinetan ere ez».

Guapinoletik, bere etxetik, joan zen gaua gogoan dauka. «Gogorra izan zen. Bi urte eta erdiko semea nire besoetan hartu zuen loak. Ohe batean lotan utzi nuen. Autoa kanpoan zegoen jada, motorra piztuta: manifestazio batzuk egon ziren eta berriz ere egingo zituzten, lurralde guztiak zeharkatzeko eta San Pedrora iristeko bi manifestazioen arteko denbora-arrakala hori behar genuen.

Nire semea lotan zegoen, amaren besoetan, eta ohe batean utzi nuen. Behin eta berriz maite nuela eta berarengana itzuliko nintzela esaten nion. Nire alabak bazekien ama bazihoala, eta nik esaten nion: "Ahal bezain laster itzuliko naiz". Baina ez zegoen datarik. Bere ahizpa, aktibismoko aliatua, ardurak hartu zituen.

⋮ «Ihesaldiak emakume, ama eta alaba gisa markatu ninduen. Komunitatea ez nuen biztanle gisa soilik utzi,
⋮ baita defentsaren eta erresistentziaren kide gisa ere».

Dalilak Pilarreko Ama Birjinaren irudiari gogor heldu zion Barajas zeharkatu bitartean. Praktikatutik zuten: «"Promes baten entrega egitera nator, eta Bernabéu eta Koliseoa ezagutzera, baita Zaragozako Harresiak ere... oso elizkoia naiz". Bularreko dominatxoa hartu behar nuen. "Kaka zaharra, pentsatu nuen, agurmaria eskatzen badidate, nireak egin du." Adorea hartzeko gauza askoz zailagoak egin behar izan zituela esaten zion bere buruari. «"Hau ez da ezer. Guztia sinetsiko duzu: turismoa egitera eta hauxe ezagutzera zatoz..." Dena libreta batean idatzita neukan, Real Madrileko jarraitzaile sutsua nintzela».

Ez zen ezer baina asko zen, nahiz eta haien bizitza arriskuan egon, jatorrizko herrialdetik ihes egitea eragozteko diseinatuta dauden mugako politikei aurre egin behar zion, *made in Spain* eragozpena, baina hildakoak eragiten dituen.

2019ko apirilaren 4an Madril lur hartu zuen eta izugarrizko hotza sentitu zuen. Calala, REDHMI eta Front Line Defenderseko kideek neguko arropak bildu zituzten eta haren zain zeuden. Gorputza eta bihotza berotu zizkieten eta asfaltoa sentitzea ez zen hainbesteko izan. «Nondik hartzen du hemen lurra arnas?»

Gero urtebeteko pandemia Zaragozan igaro zuen. Itxialdia, poliziaz betetako kaleak, eta asfaltoa, beti asfaltoa. «Jada ez nintzen lurraldeko Dalila, segurua, bere bidea kudeatzeko gai zena... Mendien eta ibaiaren bila jarraitzen nuen, lurraren, usainaren eta nire zuhaitzen azalaren bila».

Zaragozan, kaleak arraro zeuden pandemia zela eta, militarizatuta (patruilak, alarmak, anbulantziak...), eta horrek lurraldeko beldurak gogorarazten zizkion. «Izu eta antsietate krisiak izan nituen. "Etxean geratzeko, lurraldea defendatzeko eta heriotza heltzen denean onartzeko eskubideak ez ditut defendatu", esaten nuen».

Lagunak, aliatuak eta kideak ere izan zituen, beste emakume migratzaileekin saretu zen. «Han eta hemen emakumeak ezagutzen hasi nintzen eta babestuta sentitu nintzen, zorionekoa, nik ere babesik, sarerik eta laguntzarik gabe eta diru gutxirekin datozenen istorioa entzun nuen. Ez daukate etxean hartuko dituen inor, ez daukate ezer.

Zorionekoa sentitu nintzen eta, egia esan, hala izan da. Nire buruari esaten nion: "Dalila, kexatzen ari zara baina laguntzen zaituen sarea daukazu", baina nire baitan dagoena ezin da lagundu, hori ezin da besarkatu».

Zaragozako bi urteak zailenak izan ziren. Europar lehenengo urteak izan ziren, pisu batean, etxetik, landatik, lurretik eta ibaitik urrun. Familiatik urrun eta pandemiaren dinamika guztiekin. Garai hartan ere galdu ez duen migratzaile kontzientzia hartu zuen. Bera ez bezala, laguntzarik gabe heldutako emakumeekin batera eraiki zuen, berdinetik berdinerari; erbestean bataren zein bestearen kategoriarik egiten ez duen emakume errefuxiatu eta migratzailearen kultura politikoa elikatzen duten elkartasun feminista eta elkartasun migratzailea ehundu zituen.

«Polizia gurekin nola aritzen zen ikustea, sistemak ahazten gaituela ikustea, komunitate migratzailea paperak izateko aukerarik gabe hiltzen edo kale gorrian uzten zituztela ikustea, lanetik kaleratzen zituztela ikustea, beste kideen mina entzutea...»

Berak dokumentuak zituen eta dokumenturik gabeko beste batzuen laguntza zuen, baina baita errepresio armatuari aurre egin dionaren beldur adierazezina ere. «Supermerkatura heldu eta gurutzatuko nuen tokian polizia patruilarik zegoen begiratzen nuen, oinak hosto egiten zitzaizkidan, "hau amaitu egingo da..." Pistolak hartuko zituztela iruditzen zitzaidan. Guztiz erne nengoen uneoro».

Behin beregana hurbildu ziren paperak eskatzeko eta shock egoeran sartu zen. Bere bila joateko lagun bati deitzeko gai izan zen eta ziur sentitu arte eutsi egin zion: «Ettxera heldu eta zorabiatu egin nintzen gelditzeagatik. Negar, negar,

negar eta negar aritu nintzen. Ez dakit hau zer den, ez dakit txoratuta nagoen edo zer demontre den», esaten zion bere buruari lehenengo antsietate krisietan.

IM-Defensorak eta Sareak Dalilarentzako beste toki bat bilatzea adostu zuten. 2021eko urtarrilaren 13an Arteara heldu zen, kolektibo antirrazistak lagunduta, Zaragozatik bidaia berarekin egin zuten. Dalilak bidean lo egin zuen eta, esnatzean, pinuen usaina ezagutu zuen. «“Gelditu, gelditu, gelditu!” hasi nintzen esaten, baina ero-eroan, autoan gelditzeko eta gelditzeko oihu eginez. Eta mendate batean gelditu ginen. Oraindik ere elurra zegoen. Usaintzeko autotik irten nintzen. Haize garbia zen, hostoen, zuhaitz azalaren, lurraren lurrina. Maitemindu egin nintzen, mendiez maitemindu nintzen. Zuhaitzak zeuden, sustrai sakoneko zuhaitz erraldoiak, zementurik gabeko zuhaitzak».

... «Hona heldu nintzenean eta zuhaitzen askatasuna berriz ere ikusi nuenean,
... sustraiak garatzeko askatasuna, ni hemen ere libre egon ahal izango nintzela
... sentitu nuen. Lurrari itxaroteagatik eskerrak eman nizkion».

Artean beste 30 pertsona ere zeuden zain, seme-alabekin, haien familiekin. «El Salvadorreko kideak zeuden eta Hondurasko kidea niretzako txahal zopa prestatzen ari zen, opil eta arrozarekin. Une hark gure familien tradizioetara eraman ninduen, urruneko ahaide bat datorrenean, mahaia prestatzen duzu eta ongietorri beroa emateko daukazun janaririk hoberena ateratzen duzu. “Zergatik egiten didate horrelako harrera?” esan nuen nik. Txora-txora eginda nengoen, ezin nion negar egiteari utzi. Eta niretzako loreak zituzten. Eta hain herri txikia ikusi nuen, guztiok elkar ezagutzen dute... komunitatea da».

Basoaren eta aktibismoaren artean, sisteman arnasa hartzeko arrakala ireki zen. «Berriz ere ametsak nituela sentitu nuen, etxean sentitu nintzen. Hazia erein nezakeen, nire ezagutzarekin lagundu nezakeen». Eskuak lurperatzea eta Basoako Asanbladarekin proiektua partekatzea.

«Ezin dut borrokarik gabe bizi — esan du—, erbesteak eta distantziak suposatzen duen guztia gorabehera, ezin dut borroka utzi. Hasiera batean, ez nuen nire burua legitimotzat hartzen distantzian defendatzeko. Erbestea zama emozional eta psikologiko handiko bizkar zorroa da. Bihotza bertan daukazunean, etxekoei gertatzen zaien guztiak min ematen dizu, jo egiten zaitu, akabatu egiten zaitu. Batzuetan zaila da sentitzen duguna deskribatzeko hitzak aurkitzea. Une bat heltzen da, non lur jotzen duzun, urratu egiten zaren eta ispiluan emakume akitua ikusten duzun; askotan jositako defendatzailea ikusten duzu, lur jotzea ekiditeko puntadaz josia dagoena. Zurea eta zure seme-alabena igaro behar duzu, hegorik gabeko txoriak bezala».

Bere buruarekin zorrotza eta gogorra izan da. Eta, indarkeria testuinguruetan eusten duten beste hainbat emakume defendatzailek bezala, bere burua geroratu egin du. «Autozainketaz aritzen gara eta gomendatzen dugu, baina gure buruari gutxitan eskaintzen diogu denbora, zaintzaile eginkizuna hain daukagu barneratuta... Horregatik ere sareak daude, zaintzaileak zaintzeko. Gure inguruan emakume, ahizpa, kide eta lagun ugari daude. Bertan daude guri esateko: “Gelditu behar duzu, erretiratu behar duzu, mediatu behar duzu”. Gehienetan ez dugu jaramonik egiten, baina saiatzen gara», esan du barrezka. «Horrela irabazten dugu. Ni ez nintzateke zutunik egongo pertsona horiek guztiengatik ez balitz. Lagunarteko une horiek, barre egiten dugunean, sano egonarazten naute, energiaz beterik. Kolektibitate horrek senidetuta sentiarazten dit».

Janaria horregatik prestatzen duela dio, Basoako suetan «txoratu» egiten dela, heltzen direnei maite dituela esateko modua da, maitasuna adierazteko modua. «Samintasunez oroitzapenean duen lurralde horren zatitxo bat». Tortillak eta txerriak prestatzen ikusi dugunok munduari jaten eman ahal diola dakigu.

Baina heltzen diren defendatzaileak, joan egiten dira. Haien jatorrizko tokietara itzultzen dira eta Dalila geratu egiten da. «El Salvador eta Guatemalako kide batzuk ditut gogoan, bira bat egiteko proposamenarekin etorri ziren eta astebetetz egon ziren hemen. Txoratu egin nintzen. Alde egin zuten egunean, negar batean egon nintzen komunean. “Haiekin alde egin nahi dut —esaten nuen—, noiz helduko zait ozeanoa gurutzatu eta etxera heltzeko unea”. Oso gogorra izan da laguntzea, haiek itzultzen direlako eta ni ez».

Spainiako estatuan nazioarteko babeseko asiloa jaso duen hondurastar bakarrenetakoa da Dalila. Barne Ministerioaren mende dagoen aitortpena da. Kanporatzeko arriskurik gabe geratzeko aukera eman zion errefuxiatu

estatutuak, bizileku eta lanerako baimenarekin, eta herrialdetik ateratzeko seme-alabei babes luatzeko baimenarekin. Baina ezin da herrialdera itzuli.

Babes hori gabe beste batzuek aurrera egin behar izateak ere «amorratzen» du. «Zergatik ez diote papera behar duten guztiei ematen? Zergatik klasifikatzen duten nor dagoen izorratuen?

Atzerriartasan sistema oso bortitza da, berriz ere biktimizatzen zaitu, egoera izugarrian jartzen zaitu. Bere lurraldetik kanpo dagoen edonork urteak eta urteak ematen ditu etxera itzuli ahal izan gabe, legalki ezin duelako, ekonomikoki ezin duelako edo lana dela eta ezin duelako. Gauza bat edo bestea dela, urteak eman behar dituzu etxetik kanpo, etxekoak ikusi gabe eta ekarri ahal izan gabe. Urruntasunaren eta distantziaren min hori guztiok bizi dugu. Ni horrekin guztiarekin sutan bizi naiz, normalizatzeari uko egiten diot».

Dalilak hiru urte eta erdi eman zituen seme-alabak ikusi gabe. 2019ko apiriletik 2022ko uztailara arte. Orduan, Hondurasko Sarearen eta IM-Defensoraren laguntzarekin El Salvadorra haien bila joan zen. Bidaia kudeatzen lagundu zioten, asiloko familia berrelkartze prozesua geldoegia baitzen. Alabak jada 13 urte zituen, nerabezaroaren hasieran zegoen, eta semeak 6 urte zituen, bizitza erdia zeraman ama gabe. Kalkulagailuarekin ezin da denbora hori zenbatu: «Urteak mende bihurtzen dira ama baten bihotzean».

Orain, erronka erbestean ama izatea da: «Ama senargabea izatea, haiei laguntzea, haien prozesuarekin eta nirearekin, oraindik ere osatu ez ditudan hamaika gauzeekin, laguntzen ditudan prozesuekin. Ekonomikoki ere bizitzeko modua bilatu behar dut, eta oraindik ere hango aktibismoan eta borrokan murgilduta egon nahi dut».

Goizaldeko hirurak eta laurak heltzen dira eta Hondurasen, Mexikon eta El Salvadorren gertatzen diren kontuei adi dago, AEBrako migrazio fluxuei, bahiketei, galdutako pertsonen, desagertutako senideei, kartzelatutako kideei... «Ez dakigu atsedeen hartzen. Ez dakit *atsedena hartzeko* kontua den edo *gure burua sentitzeko* kontua. Nik uste dut horren beldur naizela, nire buruaren beldur, nire zaurien beldur. Nire aitak behin eta berriz esaten dit: "Alaba, indartsua zara, adoretua zara, beti aurrera egiteko borrokatu izan duzu. Txikitatik aurrera eta aurrera egin duzu eta zure burua arriskatu duzu". Eta nik esaten diot: "Aita, nire baitan begiratu ahal izango bazenu..."»

Hunkitu eta denbora gutxian berriz lasaitzen da, sumindu eta samurtu egiten da. «Maitasuna bera» haserrea baretzen diona izateak harritzen duela dio. Eta haserrea bera da tristura baretzen diona. «Marratzuko banaute, eskuanugarra dudala marraztu nazatela, hori baita benetan irudikatzen nauena. Zapatistak marrazteko era gustuko dut, errebeldia horren irudian islatuta sentitzen bainaiz».

... «Logelan sutan dagoen hagin baten argazkia daukat. Piztu nuen azkenengo
... hagina izan zen. Nondik natorren gogoratzeko daukat hortxe. Nire
... erresistentziaren argazkia da».

«Lurraren alabak» dira eta daukaten guztiarekin defendatzen dute. «Otzan izateari uko egiten diogun emakume guztien errebeldia gara. Guk Guapinol gorputz eta arimaz zaintzen dugu».

Guapinol jada ez da duela bost urte alde egiten ikusi zuen berbera, errepresioaz, desagindako prozesuez, «epelak emandako» kideez blai dago, orain nolakoa izango den pentsatzen duen bitartean hausnartzen du. Kuban erbesteratutako batek esan zion: «Itzultzean beste Guapinol bat ezagutuko duzu eta Guapinolek beste Dalila bat ezagutuko du. Zu erbestean berriz ere jaio zinelako». Bere burua egunero berriro ezagutzen du —hori dio, berriro aurkitzen du—, baina isuri gabeko zuhaitz izerdia dauka, oinak dituen lurreen sustraitzen dena: «Nik nire herria maite dut eta nire herria sostengatzen duena defendatu behar dut, Ama Lurra. Orain arte egindako guztia, berari diodan maitasunagatik izan da. Hiltzen naizenean, bere besoetara itzuliko naiz eta bere alde borrokatu zuen alaba izango naiz».

«Esna dauden izakiengan», borrokatzen dutenengan, eta gorrotoa eta espolioazioaren aurka beste mundu bat eraikitzen dutenengan itxaropena du. «Neure begiekin etxekoen tortura ikusi dut, jendearen gorrotoaren ondorio. Nire buruan markak ikusi ditut... eta ez dut bertan bizi nahi. Beldur handia izan dut eta ez dut samurtasuna galdu nahi. Amorruek sostengatzen nauen bezala, maitasunak bat eginda mantentzen nau, txikie bezalakoa da... jende ugari dago itsatsita gauza politak eraikitzen, ehuntzen».

Etorkizuna irudikatzen duenean, seme-alaba «handiak» izango direnean, haien kabuz bizitza gidatuko duenean, batzuetan bere komunitateko mendian dagoela amesten du. Aitaren «lursailtxoan, kakaoz, kokoz, mangoz inguratuta, laboreak ikusteko altxatzen, oiloei jaten ematen, beharbada bakarrik, beharbada norbaitekin. Zergatik ez benetan geratuko den norbaitekin amestu? Ikusiko duenak eta nik bizi izandakoak ikaratuko ez duen norbaitekin?»

Beste batzuetan, igarotako guztiaren ondoren bere lurrean atzerritar sentitzearen beldur da. «Nire tokia ozeanoaren erdian dago».

Duela bi urte El Salvadorrera eta Mexikora bidaiatu zuen, eta bere burua Basoara itzultzeko etsi-etsian ikusi zuen. «Nik Chiapaseko eta komunitate guztietako indarkeria, militarrek armekin eta hori guztia ikusten nuen... Buff! Takikardia sentitu nuen berriz, segurtasun falta». Erne jarri zen berriz ere.

«Zuhaitz erori eder honen falta sumatzen nuen», esan du, kulunkak eskegita dituen eta etxearen alboan tolesten den haritz erraldoia seinalatzen duen bitartean. «Lo asko egiten hasi nintzen. Itzultzeko gogoa nuen, etxearekin amets egiten nuen, nire leku seguruarekin, babeslekuarekin amesten nuen.

Basoan oraindik ere asko daukagu ikasteko. Kontu ugari daude kudeatzeke eta sare ugari indartzeke, baina hainbesteko kaka aldatzeko ahaleginak egiten dituzten pertsona batzuk batu dira. Gune hau eraikitzeko ametsa partekatzen dugu, emakume defendatzaileentzako gunea da, sendatzeko gunea, basoko gunea, ibaiarekin eta inguruan daukagun guztiarekin. Dauden tokian daudela, nire egoeran bizi izan duten guztiek Basoaren zatitxo bat aurkituko balute!»

OHARRAK

¹ IM-Defensoras (2018). **#AlertaDefensoras HONDURAS / Criminalización, uso excesivo de la fuerza y violencia paramilitar contra defensoras del campamento Guapinol en defensa del agua**



ESKURATZEA

ETENIK EZ DUTEN INDARKERIAK:
ESKUBIDEAK ESKURATZEA EUSKADIN

Gure egunerokotasuna atzeritar jatorriko pertsonekin partekatzen dugunok, errefuxiatuak edo migratuak izan, jakin badakigu beren jatorrizko herrialdeetan pairatzen zituzten eskubide urraketak ez direla hona iritsitakoan desagertzen (iristea lortzen badute, noski). Aurretik Brenda ezagutu dugu eta Kolonbia uztera behartu zuten arrazoiak. Orain, ondo hezitako emakume irribarretsu eta atsegin honek Euskadin nola hartu dugun eta bizigarria den bizitza bat bizi (nahi) izateko egin beharreko oztopo lasterketa azalduko digu.

Brenda Bilbora iritsi zen. Bertan, larrialdi une batean, haren bizitzaren aurka eraso egiten saiatu zirenean, hegazkin txartel bat erosi, ihes egin eta gordetzeko dirua utzi zioten senide batzuk zituen zain. Baina, etxera iritsi bezain laster, lehen zaplaztekoa jaso zuen. Hiru egunez soilik har zezaketen ostatu. Nazioarteko babes eskatu aurretik, ostaturik ere ez zuen Brendak. Une hartan, ordurako jada nahikoa korapilatsua zen bere bizitzak jauzi bat eman zuen eta ziurgabetasuna gailendu zen. Izan ere, ziurgabetasuna izan zen bere istorioa kontatzerakoan gehien errepikatu zuen hitzetako bat.

Euskadin etxebizitza duina eskuratzeko zaila da, are gehiago, iritsi berria bazara eta nondik bilatzen hasi ere ez dakizunean. Are zailagoa gastuei nola aurre egin ere ez badakizu. Aurrerago hitz egingo dugu horretaz.

EUSKADIN DAUDEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENAK

Euskadiko arkitektura administratiboa etxebizitzarako sarbidea bezain konplexua da, eta zaugarritasuna eragiten du berez. Asiloari eta harrera sistemari dagokionez, eskumenak eta, beraz, eskubideen bermea eta gozamina, tokiko, probintziako, autonomia erkidegoko eta Estatuko administrazioen artean banatzen dira. Gainera, ezin dugu ahaztu harrera prozesu horrekin zerikusia duen guztia administrazio publikoetatik haratagokoa dela. Izan ere, hainbat gizarte eragilek funtsezko rola dute, bai eta herritarrek ere, oro har, pertsona guztientzako, baita errefuxiatuentzako ere, jendarte justu eta bidezkoago bat eraikitzeke ekarpena eginez.

Bizitza osoa maleta batean sartuta duen Brendak, oraindik jakin ez arren, konplexutasun hori guztia jasango du Bilboko Indautxuako plazan eserita dagoela. Eta orain... zer?

Estatuaren eremuan Espainiako Gobernuari dagokio nazioarteko babes eskaera izapidetzeko eta ebazteko eskumen eskusiboa, bai eta asilo eskatzaileen, errefuxiatuen eta nazioarteko babesaren beste onuradun batzuen, aberrigabeen eta aldi baterako babes araubideari atxikitako pertsonen harrera integralerako eta integraziorako sistema nazionala planifikatzeko, garatzeko eta kudeatzeko eskumen eskusiboa ere.

Autonomia erkidegoari dagokionean, Euskadiko erakundeak, Eusko Jaurlaritza eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako probintzia erakundeak dira errefuxiatuen harreraren alderdi materialekin lotutako eskumenak dituztenak, hala nola, osasun laguntzarekin, hezkuntzarekin eta hizkuntza ikastearekin, enpleguarekin, etxebizitzaren, gizarte politikekin eta gizarte laguntzekin lotutakoak.

Toki eremuan, ordea, udalek pertsona horiek bizi diren udalerrian integrazteko politiken eskumena dute, eskubideak eskuratzeko funtsezkoa den erroldatzetik hasita.

Argi eta garbi esanda, burokrasia nahaste berraste horrek izugarri zailtzen ditu Euskadira iristen diren pertsona errefuxiatu eta migratuen bizitzak eta euren jarduteko gaitasuna, ez baitute harrera ingurua ezagutzen. Bereziki konplexua da nazioarteko babes eskatzen dutenentzat, Brendarentzat adibidez. Sarri, egoera korapilatsu eta bortitzei aurre egin behar izaten diete eta gainera, batzuetan, administrazio publikoek beren jatorrizko lekuetan zailtasun horien parte izaten dira. Kasu askotan pertsona hauek euren buruak salbatzeko ihes egin behar izaten dute. Ezertxo ere planifikatu gabe, dokumentuak edo bestelako objektu baliotsuak (argazkiak edo oroitzapenak) jaso gabe ihes egin behar izaten dute, familia eta lagunak atzean utziz.

Nire diru zorroko pesoak nahikoa luzatuko ote dira edo nire gorputz eta eskuak izango ote dira? Hagak onartutako eta konpultsatutako batxiler diploma nire bizitza salbatzea baino garrantzitsuagoa al da? Sakelakoa? Setioaren, jazarpenaren, beldurren eta indarkeriaren erakusle diren argazki eta bideoz josia, ala nire seme alaben urtebetetzeetako edota noizbait zoriontsu izan nintzen tokien argazki eta bideoz beteta? Dokumenturik gabe, titulurik gabe, lanik gabe, izateko baimenik gabe.

Gainera, nabarmentzekoa da, asilo eskatzaileen egoera, juridikoki, honako hauen artean mugitzen da: atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko legea eta atzeritarren gizarteratzea, eta atzeritartasun legea

eta asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen (atzerritartasun legea eta asilo legea deitu ohi zaie), eta horrek harrera eta integrazio prozesuari eragiten dio.

NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEKO PROZEDURA

Nazioarteko babesa eskatzeko prozedura Estatuari dagokion eskumena da, Barne Ministerioari dagokiona, eta, zehazkiago, Asilo eta Babes Bulegoari.

Asilo eskatzaile askorentzat, lurralde seguru batera iritsi bezain laster ematen duten lehen urratsa, iheslariaren estatusa lortzeko izapidea abiatzea da. Brendak, bere herrialdean bizi zenean, asiloaren figura ezagutzen zuen, baina aireportuan eskatu behar zuela uste zuen eta horrek, beldurra ematen zion. Bere kasua azalduz gero, bere jazarleetako batek aurkituko zuela uste zuen. Bere burua arriskuan jarri eta aireportuan bertan zerbait gertatuko ote zitzaien beldur zen. Hala eta guztiz ere, Bilbora iristean, tramiteak egiteari ekin zion (erresidentzia baimenik ez izateagatik atxilotuko zuten beldurrez).

Asiloa eskatzeko prozesua ez da ez homogeneoa ezta estandarizatua ere, izan ere, Estatuko probintzia bakoitzak desberdin jokatzeko baitu. Eta Euskadi ez da salbuespena, hiru probintzietako bakoitzak hitzordua eskatzeko prozedura desberdin bat baitu.

Bizkaian, prozedura abiatzeko, Polizia Nazionalaren komisaldegira joan behar da. Brenda Bilbora heldu eta 2 egunetara joan zen, eta bertan, pasaportearen fotokopia bat eta telefonoa eskatu zizkioten, eta bidali egin zuten. Zur eta lur geratu zen. Gertatutako guztiaren ondoren, norbaitek entzun zezan behar zuen. Hala ere, prozedurak ez du horretarako espaziorik eskaintzen, aurrerago formalizazio garaian egiten baita, hau da, kontaketa egiten den eta horri buruzko oharra hartzen diren prozesuan. Hau guztia gutxi balitz, lehen kontaktua egin ondoren itxaron egin behar da eta horrekin batera ziurgabetasuna gailentzen da, inoiz ez baitakizu hurrengo hitzordua noiz izango den.

Gainera, ez dizute inolako frogagiririk ematen, eta hau legediaren urraketa larria da, eskatzaileak ez baitu inolako frogarik aurrera eraman nahi duen prozesua bere nahia dela egiaztatzeko. Hau da, ez du izapide hau hasi duela adierazten duen dokumenturik. Era berean, nazioarteko babesa eskatu duen pertsona gisa, eta, beraz, zaurgarritasun egoera larriagoan dagoen pertsona gisa, beharrak areagotu egiten dira; izan ere, pertsona horrek ezin du harrera sisteman sartu, eta agiririk gabeko pertsona bilakatzen da, atxiloteta posible baten aurrean horrek elar dezakeen arriskuarekin (zehapen espedienteak).

Prozedurarekin jarraituz, Poliziak elkarrizketa egiteko hitzordua emateko epeei dagokionez, izugarritzko gorabeherak daudela azpimarratu behar da. Elkarrizketa horretan, herrialdea uzteko arrazoiak zehatz mehatz azaldu beharko ditu eskatzaileak. Brendaren kasuan, komisaldegitik igaro eta 3 hilabetetara deitu zioten, eta egun horretarako eskaini zioten hitzordua. Brendak, larrituta, zer eraman behar zuen galdetu zuela kontatu digu, eta pasaportea eramatearekin aski zela jakin zuenean, zuzenean joan zen adierazi zioten komisaldegira.

Zehar Errefuxiatuekin elkarteko talde juridikoa prozedura hau nolakoa den azaltzen saiatzen da, zalantzak argituz, hitzordura konfiantzaz joan daitezkeen. Horretarako, elkarrizketa simulazioak egiten ditu (bideragarria dela irizten diogunean): haien historia gogorra izan arren eta kontakizuna mingarria izan arren, datak gogoraraztearen garrantzia azpimarratu... Prozesua, askotan, horren araberakoa izango da. Horregatik, hain zuzen, zaila da prozesua bakarka egitea. Poliziak emandako hitzordu eta elkarrizketen epe nahasgarri eta lausoek, laguntza prozesua zaildu eta oztopatzen dute, askotan, pertsonen euren gain duten konfiantza ahulduz eta, elkarrizketa eta prozesua bere osotasunean, gogorrak bihurtuz.

Horrez gain, eskatzaileak Bizkaian bizi direla egiaztatzeko, errolda eskatzen duten kasuak detektatu ditugu, bakarrik izapidea egitera etorri ez direla egiaztatzeko, alegia. Hala ere, legeak ez du inola ere erroldatuta egotea exijitzen.

Gipuzkoan, prozedura guztiz bestelakoa da. Astelehen arratsaldero hitzordu telefonikoa eskuratzeko kupoak irekitzen dira eta kexa nagusia hau da: telefonoa kolapsatu egiten dela. Astero 40 hitzordu banatzen dira, hitzordua lortu dutenen telefonoak identifikatzen dira eta azkenean hitzordura azaltzen diren pertsonen telefono hori eraman behar dute hitzordua euren eskatu dutela egiaztatzeko. Noski, aste luzez hitzordua modu honetan lortzeko saiakera egin eta azkenean amore eman duen jende asko ezagutu dugu.

Arabaren kasuan, eskabidea Polizia Nazionalaren webgunearen bitartez egin behar da, nahiz eta zailtasun handiak ere egon badauden: hitzordua sarri kolapsatuta dagoen aplikazio informatiko baten bitartez eskatu behar da eta ez du elkarrizketarako datarik esleitzen. Eta noski, esan gabe doa, pertsona askok ez dutela eskabidea egiteko ez gaitasun digitalik ezta ekipo informatikorik ere.

Egunak, asteak eta hilabeteak aurrera doaz eta horrekin batera, etsipena ere areagotu egiten da.

Lurralde berean hiru sistema ezberdin ditugu, eta hiruretako bat ere ez da eraginkorra. Kaleko ilara luzeak desagertu dira, bai, baina sistema ez da hobetu. Orain ilarak ikusezinak dira: telefono eta Internet bidezkoak.

Sistema honek ziurgabetasuna eta antsietatea eragiten ditu nazioarteko babes eskatu nahi duten pertsonengan, hitzordua eskuratzea oso zaila baita eta honek, frustrazioa eta aukera eza pertsona horien eguneroko ogi bihurtzen dira. Eta, are okerragoa dena, kasu askotan, ez informatzeaz gain, nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen prozesuarekin aurrera jarraitzeko gogoia eta motibazioa galtzen dute.

2024ko martxoan ehun bat migratzailek Madril eta Cadizeko Estatu eremuko hiru harrera zentrotan gose grebak abiatu zituzten Espainian asiloa eskatzeko zailtasunen aurkako protestatzat. Herriaren Defendatzaileak egun bakar batean ehun kexa erregistratu zituen arrazoi horrengatik². Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordearen arabera, "asilo prozedurarako sarbidean identifikatutako arazo larriek bere horretan jarraitu zuten. Asiloa eskatzeko aurretiko hitzorduen eskasiak eta aurreikuspen faltak, hitzorduen salerosketako merkatu irregularra sustatu eta elikatu zuen, babes beharrak ikusezin bihurtuz eta bederatzi hilabeterainoko epean milaka pertsonen babesgabetasuna eraginez"³.

Bestalde, aurretik adierazitako kasuetan kexak aurkezteko Herriaren Defendatzailearen Bulegora jotzeko iradokizuna ere alferrikakoa da; izan ere, eskumena duen administrazioak gai horri buruz Defentsa Erakundeak egindako gomendioei ez baitie jaramonik egiten.

Baina, tamalez, hitzordua eskuratzea ez da nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen oztopo bakarra, aitorpen tasa baxuek, kasuak banan banan ez aztertzeak, herrialde seguruen zerrenda bat egoteak eta oraindik erantzunaren zain dauden eskaera kopuru handiak kolektibo hori oso egoera zaurgarrian jartzen dute.

2023an ebazteke zeuden eskaeren kopurua %56 igo zen aurreko urtearekin alderatuta, 191.095 pertsona baitzeuden erabaki baten zain, eta erabaki horren menpe, euren bizitzak. Horietako askok ezezkia jasoko dute eta Brenda horietako bat izan daiteke. Gogoan izan dezagun, txosten honen lehen kapituluari azaltzen den bezala, 2023an Espainia EBko herrialderik murriztaileena bihurtu zela errefuxiatuentzako nazioarteko babesaren onarpenari dagokionez, kasuen %12k soilik jasotzen baitute baieztatu erantzuna⁴.

Salbuespen bakarra dago. Azken hiru urteetan, harrera sistema krisi oso zehatz batera egokitu ahal izan dela egiaztatu dugu: Ukrainako gerraren hasieran sortutako errefuxiatuen krisira, hain zuzen. Ukrainarrak hartzeko beharrari azkar erantzun zitzaien, eta horretarako baliabideak EB osoan zehar zabaldu ziren. Lekualdaketa masiboen kasuetarako diseinatutako Aldi Baterako Babesari buruzko Zuzentaraua⁵ martxan jarri zen (2001ean onartu eta 2025eko martxoaren 4ra bitarte luzatu zena). Babes mota hau, nazioarteko babesarekin alderatuta, ezberdina da, eta egin beharreko bidea atseginagoa egiten du.

Hona hemen adibide praktiko bat: Ukrainatik ihes egin zuten pertsonak bi eguneko epe laburrean dokumentatu zituzten, eta aldi baterako babeserako txartela berritzeko hitzordua lortzeko arazoak hasi ziren arren, txartelak automatikoki berritzeko baimena ematen zuen dekretu bat argitaratu zuten. Era honetan, sistema ez zen kolapsatu eta pertsona ukrainarrek ez zuten euren dokumentuan behar bezala izateko aparteko zailtasunik izan.

Borondate politiko falta da edo, hain zuzen, batzuk barne eta beste batzuk kanpo uzteko borondatea al dago?

Brenda, elkarrizketara joan zen egunean, polizia bat zuen zain, beste polizia bat formatzen ari zena. Heldu bezain pronto, bere kontakizuna irudikatzeko argazki edo frogak eskatu zitzioten, eta Brendak, zur eta lur, galdetzean pasaportea soilik eraman behar zuela esan ziotela adierazi zien.

Hala ere, Brendak adorea bildu eta bere historia kontatu zuen, frogak bere jatorrizko herrialdean zituela azpimarratuz. Tamalez, ihesi alde egin behar izan zuenez, ez zuen astirik izan haiek jasotzeko eta, beraz, behar zuten froga bakarra bera zela adierazi zien. Dena zuen buruan eta egiazkoa zen, ez zen berak armatutako istorio bat. Hain zegoen nekatuta izapide burokratiko eta egoera zailekin, ezen poliziari ondorengoa esan baitzion: "neure historiarekin balio badizue ondo, eta bestela ere bai". Honezkero berdin ziola.

Eta horrela agertzen dira, berriz ere, oztopoz betetako bide luze baten aurrean, etsipena eta frustrazioa. Bide horretan, erakundeek oso gutxitan laguntzen edo orientatzen dituzte salatzen ari garen indarkeria eta pobretzea eragiten duten sistema honen ondorioz arrisku eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak.

Prozeduran zehar egin zizkieten galderak orokorrak eta robotikoak ziren. Brendak azaldu digunez, bere istorioa kontatzen hasi zenean, artatu zuen funtzionarioak ez zion kontakizuna amaitzen uzten, eta etengabe moztu egiten zuen, gauza berari buruz galdetzeko. Poliziari arreta jartzea eta babesa eskatzeko arrazioen larritasuna ulertzea falta zitzaiola sentitzen du.

Beste sorpresa bat jasotzea falta zitzaion. Elkarriketa amaitu zenean, kontakizuna sinatzeko eskatu zioten. Brenda, irakurri gabe inoiz ezer sinatzen ez duena, txundituta geratu zen bere istorioa idatzi ez zutela konturatu zenean. Are gehiago, hainbeste ziren aipatzen ziren kontraesanak ezen ezin baitzituen pasatzen utzi. Hura ez zen bere istorioa, ezta bere egoera ere, beraz, sinatzeari uko egin zion.

Pertsona orok merezi duen errespetua exijitu zuen eta poliziak, egindako akatsaz jabetu zenean, elkarriketa berriz egiteko aukera eman zion.

Brendari gertatu zitzaiona, tamalez, ez da kasu isolatu bat. Prozeduretan laguntza lanetan aritzen diren gure abokatu kideek diotenez, prozesu honek ez du inolako aldaketarik jasan azken 20 urteotan. Zenbait funtzionarioen jardunbide txarrak salatu dituzte: pertsonak behar bezala tratatzen ez dituzten funtzionarioak, sakonera gutxiko elkarriketak, iritzi pertsonalak gehiegitan ematen dituzten interpreteak, funtzionarioek frogak onartu edo ukatzea edo aurkezten zaizkien alegazioei buruzko balorazio pertsonalak egitea, eredu formatuko erantzunak ematea (ebaki itsatsi) eta ebazpenetan berandutzeak.

Errefuxiatuei laguntzeko NBEren agentziarekin (UNHCR) izandako bilkura baten ondoren, ebazpen eredia duela urte batzuk aldatuko zela eta kasuak herrialdeka aztertuko zirela adierazi dute. Baina, Kolonbiako herritarren kasuan, ezezkoak sistematikoak dira eta denbora gutxian ebazten dira. 2023an, %4,6ak soilik jaso zuen baieztoko erantzuna⁶. Kasu mardulenak ebazteko denbora gehiago behar izaten dute.

Horretaz harago, prozedura eta sistema, oro har, edozeinek ulertzeko modukoa beharko luke, abokatu baten edo erakunde bateko gizarte talde baten laguntza izan edo ez. Bien bitartean, Brenda bere kasua ebaztearen zain dago.

Zehar Errefuxiatuekin elkartetik ukapen guztiak berraztertzeko errekurtsio edo auzi errekurtsio bidez aurkezten ditugu. Europako Parlamentuaren 2013/32/EB Zuzentarauan aurreikusitakoaren arabera, tresna horrek aukera ematen die nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonari lasai egoteko, harik eta kasua behin betiko ebazten den arte. Auzitegi Gorenak berak berretsi zuen prozedura hori, eta adierazi zuen pertsona bat bere herrialdera itzuli aurretik errekurtsio guztiak agortu behar zirela. Gainera, Zuzentzari honek, kasuak ebazti artean, pertsona hauei eskaera ukatu baino lehen zituzten eskubideak bermatzea ere aurreikusten zuen..

Asilo eta Babes Bulegoak (ABB) ADEXTRA izeneko polizia fitxategi batean grabatzen ditu baliabideak, eta, horrela, poliziak errekurtsioa zeinek jarri duen egiaztatzeko eskumena du. Gainera, babesa formalizatzen denean lortzen den dokumentuaren antzeko zerbait entregatu beharko litzateke, eta, horri esker, izapidea ebazten den bitartean, pertsona asko dokumentatuta eta lanean egoteko aukera lukete, enplegu bat lortzeko aukerak handituz, adibidez.

HARRERA SISTEMA

Gizarteratze, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa Estatuaren eremuan nazioarteko eta aldi baterako harrera eta babes sistemaz arduratzen da. Hau da, baliabide ekonomikorik ez duten nazioarteko eta aldi baterako babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen oinarritako premiak betetzeaz eta harrera egiten dion jendartean



gizarteratzeko prozesuan laguntzeaz. Sistema horrek baliabide eta zerbitzuen sare bat du, eta gizarte erakundeen laguntzarekin gauzatzen da, hala nola, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea, Gurutze Gorria, ACCEM, Bakearen alde Mugimendua eta Nueva Vida elkarteak, besteak beste.

Honetaz gain, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek eskumen batzuk dituzte, eta eskumen horiek autonomia erkidegoetan eta bizi diren udalerrietan nazioarteko babes premiak dituzten pertsonen inklusioa bultzatzearekin dute zerikusia. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak dira sistema hori aurrera eramatearen arduradunak.

Baina, zeintzuk dira nazioarteko babesa eskatzen eta lortzen duten pertsonen behar nagusiak?

Brenda Euskadira iritsi zela aipatu dugu eta soilik hiru egunez leku seguru batean ostatu hartu zuela, Poliziari nazioarteko babesa eskatu zion une berean. Baina, handik hiru hilabetera, hitzordua eman zioten arte, zer gertatu zen?

Brendaren senideek denbora gehiagoz hartu ezin zutenean, bere gauzak jaso eta Bilboko Indautxu plazan eseri zen, zer egin ez zekiela. Bakarrik zegoen, ez zuen baliabide ekonomikorik, ez zuen hiria ezagutzen eta ez zuen nora joan.

Bertatik lanera bidean zihoan emakume bat igaro zen eta Brendari begira geratu zitzaion, bere maleta eta poltsarekin eserita. Erabat blokeatuta zegoela kontatu digu, eta aterpetxe, ostatu eta horrelako baliabideei buruzko informazioa Interneten bilatzen saiatu zen arren, ez zuen ezer aurkitu.

Ordu batzuk beranduago, emakumea bide beretik itzuli zen lanetik eta Brenda toki berean ikusi zuen. Gaua zen, beraz, harengana hurbiltzea erabaki zuen, eta ea ondo zegoen galdetu zion. Brendak baietz esan zion, norbaiten deia zen zain zegoela. Noski, ez zen egia. Orduan, emakumeak berriz galdetu zion, tematuta, eta nahi bazuen, bere etxera joan zitekeela esan zion eta bertan itxaron zezakeela deia jaso arte. Momentu hartan Brenda negarrez hasi zen eta egia esan zion: "Ez dut lotarako tokirik gaur gauerako, ez dut inor esperoan eta ez dut nora joan".

Emakumea, nikaraguarra, ez zen harritu eta horrelako zerbait gertatzen zitzaiola pentsatzen zuela esan zion. Brenda eta bere maleta txikia besotik heldu eta bere etxera eraman zuen. Ez arduratzeko esan zion, han gelditu zitekeela. Brenda gau hartan ez zen lokartu hurrengo egunean zer egin behar zuen pentsatuz. Goizean, emakumeak lagun zezaketen erakunde edota elkarte batzuen izenak eman zizkion, eta azkenean, lasaitasun pixka bat sentitu zuen. Emakumeak jarraibide batzuk eman zizkion eta Brenda bere ideiak antolatzen eta benetan behar zuen laguntza bilatzen hasi zen.

ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA

Etxebizitza eskuratzeko arazo gero eta handiagoa dagoela ez da sekretua, eta bertako biztanleekin partekatzen den arazoa da. Baina nazioarteko babesak eskatzen eta jasotzen duten pertsonen kasuan, hori da aurre egin beharreko arazo larrienetako bat, eta egoitza laguntza ezinbesteko premia bihurtzen da haientzat.

Ikuspegi juridikotik, etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea zenbait dokumentutan ageri da, adibidez, 1951ko Genevako Konbentzioan⁷. Bertan, etxebizitza baldintza duinetan eskuratzeko lanetan ari diren pertsona horiei ahalik eta tratu onena ematea gomendatzen da.

Alokairua lau horma eta sabai bat baino gehiago da, eta oinarritzko eskubideak (osasuna, dokumentazioa, segurtasuna, duintasuna, hezkuntza eta lana, besteak beste) gauzatzea eta garatzea errazten duen oinarri bihurtzen da. Eta errefuxiatuak dira egoitza bazterketaren⁸ arrisku handiena pairatzen dutenak. 2023an, Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren %63,3 merkatuko prezioan bizi ziren alokairuan; Europako Batasuneko atzerritarren artean, ordea, merkatu prezioaren baitan bizi zirenak %52,6 ziren eta Espainiako biztanleen artean %11,2⁹.

Azken hamarkadan, alokairuaren prezioaren igoera 2,3 aldiz handiagoa izan da Estatuko etxeetako errentaren igoerarekin alderatuta, eta "etxejabeen eta maizterren arteko desoreka nabarmen areagotu da"¹⁰. Izan ere, alokairua duten pertsona autoktonoen etxeko errenta ia bikoiztu egiten da, Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrekin alderatuta: 23.434€ batz bestea, eta 12.261 €, hurrenez hurren¹¹.

Zehar Errefuxiatuekin elkartetik artatzen ditugun errefuxiatuek, alokairu egokia lortu eta horri eusteko hainbat arazo dituztela adierazten digute: jarduera arrazistak, diskriminazioak eta baztertzailak dituen alokairu merkatu bat dagoela, etxebizitzarako eskubidearen merkantilizazioa, etxebizitzaren eta alokairu sozialaren eskaintza eskasa, edo alokairua eskuratzeko, mantentzeko eta amaitzeko prozesuetan babes edo abal figurarik ez izatea.

Orokorrean, nazioarteko babesak eskatzen duten familia eta pertsonak, euren senide, herrikide edo haien sare sozialeko pertsonaren baten etxean hartzen dute ostatu. Hau izan zen Brendaren kasua. Iritsi zenean, bazuen nora jo, baina ez zekiena zen hain denbora gutxirako izango zela.

Nazioarteko eta aldi baterako babeseko harrera sistemak, eskatzaileak hartzen dituenetik bertan baja ematen dien arte ematen die zerbitzua, jendartearen gero eta autonomia eta gizarteratze eta laneratze handiagoa erraztuko dien ibilbideen bidez¹². Estatuan, hainbat erakundek kudeatzen dute harrera programa, eta horrek egoitza harrera bermatzen du, nazioarteko babes eskaeraren ebazpena jaso arte. Euskadiren kasuan, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR) da lehen harrera eskusiboki kudeatzeaz arduratzen dena.

Prozesua Hasierako Balorazio eta deribazio fasearekin hasten da. Fase horretan, pertsonen egoera banan banan baloratzen eta ebaluatzen da. Aireportuetan, geltokietan, eta, oro har, iritsiera guneetan jasotzen dira, Espainiara heldu bezain pronto. Ondoren, harrera fasean, pertsona hauei beren profil eta beharretara egokitutako baliabide bat esleitzen zaie. Sistemaren azken fasea autonomia fasearena da, gizarteratzea erabatekoa izan dadin¹³.

Euskadin, harrera sare bat ez duten pertsonentzako edo oraindik Estatuko harrera programan sartzerik izan ez dutenentzako baliabide publikoak daude. Hala ere, baliabide hauek ez dira nahikoak eta gero eta baldintza murritzailagoak dituzte.

Euskadin, azken urteotan, sistema hori osatzeko lan egin da, eta esponentzialki hazi bada ere, gainezka egin du, azken urteotan espainiar Estatura iritsi diren eta babesaren behar duten pertsonen kopuruak gora egin duelako. Eusko Jaurlaritzak, Estatu eremukoko asilo sisteman une batez edo era iraunkorrean tokirik gabe geratzen ziren pertsonen beharrei erantzunez, Oñatiko Larraña Etxean eta Tolosako Zuloaga Txikin toki gehiago irekitzeko aukera eman zuen. Azken honek ere herriko udalaren babesaren du, espazioaren erabilera guri utziz. Zehar Errefuxiatuekin elkartetik hiru lurraldeetan artatzen ditugun pertsonen egoerari erantzuna ematen dioten bi zentroetako 130 plazak kudeatzen ditugu.

Eskaera oso handia da zentro hauetan, eta plazetarako sarbidea egoera ahulenean dauden pertsonen lehentasuna emanez kudeatzen da. Azpimarratu behar da prozeduraren urratsetako bat atzeratzen denean, horrek eragina duela pertsonen bizitzarekin zerikusia duten gainerako aferekin, eta, beraz, gure zentroetan askotan ikusten ditugun denboran luzatzen diren egonaldiak. Besteak beste, prozedura hasteko denborak, polizia etxetan egin beharreko elkarrizketak edota Estatu eremukoko programetarako sarbidea atzeratu edo luzatzen direlako.

Udal eremuan, ordea, egoitza bazterketa egoeran dauden pertsonentzako baliabideak daude, eta 1 eta 3 gau bitartean ostatu hartzeko plazak eskaintzen dituzte. Adingabeak ardurapean dituzten familiek ezin dituzte baliabidea horiek eskuratu, eta, beraz, ostatu batean edo familientzako egokia den beste tokiren batean gau baterako geldialdia ordaintzen zaie. Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak ez dira baliagarriak egoera horietarako, ez baita haien eskumenen barruan sartzen.

Probintziaren arabera, administrazio publikoek, elkarrekin eta gizarte erakundeek kudeatutako baliabide gehiago edo gutxiago daude, arazo horri erantzuten saiatzen direnak. Hala ere, ez dira nahikoak. 2022ko Egoitza bazterketa egoeran dauden pertsonen egoera aztertutako VI. ikerketak¹⁴, 2018tik 2022ra bitarteko datuak jasotzen dituenak, zera adierazten zuen: 2018an etxerik gabe zeuden pertsonen artean %63 atzerritarrak ziren, eta 2022an, berriz, kopuru hori %78ra igo zen. Horietatik, gainera, 2018an, %25a 30 urtetik beherakoak ziren, eta 2022an %35.

Emakume nikaraguarrek Brendari emandako informazioa funtsezkoa izan zen bere prozesurako. Egin zuen lehen gauza, gurekin, Zehar Errefuxiatuekin elkarrekin, harremanetan jartzea izan zen. Egunean bertan artatu zuten. Brendak dio negar egitea zela egin zezakeen gauza bakarra, eta oraindik gaur egun ere hunkitu egiten da hura gogoratzean.

Programaren funtzionamendua azaldu zioten, sarbidea ez dela berehalakoa eta prozesu batetik igaro beharko zuela. Dioenez, momentu hartan nahi zuen gauza bakarra norbaitek zera esatea zen: "toki batera eramango zaitugu lo egin dezazun". Baina ez zen horrelakorik gertatu, beraz, hartu zuten etxera itzuli eta egun batzuk gehiago geratzeko eskatu behar izan zuen. Herrikide, migratzaile eta errefuxiatuen arteko elkartasuna ihesean ari direnen bizitza eusteko funtsezko zutabeetako bat da, eta, sarri, sistemaren gabeziak eta eskubideak eskuratzeko zailtasunak ordezkatzen ditu.

Salbuespen gisa, gure erakundeak etxebizitzarako hiru hilabeterako diru laguntza kudeatu ahal izan zion, eta, diru horrekin, emakume nikaraguarrek utzitako logela beste bi hilabetez ordaindu ahal izan zuen. Gero gelaz aldatu zen, erroldatzeko aukera emango zion bat behar baitzuen. Gaur egun, Brendari Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak kudeatutako Estatu eremukoko plaza bat egokitu zaio, nazioarteko eta aldi baterako babesaren emateko Estatuko harrera sistemaren parte gisa.

Errolda, izapide asko abiatzeko eta eskubideak eskuratzeko ezinbestekoa da. Hala ere, kasu askotan, errolda eskuratzeko zailtasunak izaten dira. Infraetxean bizi diren pertsonen edo bizilekurik ez dutenen udalerrian

erroldatzeko aukera dute bertan hiru hilabete baino gehiago daramatenean. Hori errolda sozialaren bidez egin daiteke. Dena den, egia da, errolda soziala ez dela behar bezala izapidetzen, eta zailtasun handienak dituzten pertsonak ezin dituzte egon badauden laguntzak eta zerbitzuak eskuratu.

ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALAK

Ikusi dugunez, bi dira pertsona hauek dituzten premia larrienak: etxebizitzaren afera eta nazioarteko babesa eskuratzeko prozeduraren zailtasuna. Behar horiek asetuz gero, horiei lotutako bestelako eskubide batzuk lortzeko aukera emango lieke, hala nola, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Eskubide hauek pertsona guztiei bermatu behar zaizkie, baita nazioarteko babesa eskatzen dutenei ere. Euskadin, erakunde publikoek eskubide horiek bermatzeko eskumen eta betebeharrak dituzte.

ENPLEGURAKO SARBIDEA

Bizi garen jendarte honetan, lana gure bizitzaren ardatza da, independentzia ekonomikoa eta egonkortasuna ematen baitizkigu. Gainera, gizarteratzerako funtsezko faktorea da. Horregatik, lan egiteko adinean dagoen edonork lan merkatuan sartzeko aukera izatea ezinbestekoa da, eta are gehiago zaurgarritasun egoeran dagoen pertsona bada.

Abiapuntua ondorengoa da: atzeritartasun legeak migratzaileak lanerako eskubidetik kanpo kokatzen ditu, eta asilo eskatzaileek ezin dute lanik egin asilo eskaera gauzatu eta 6 hilabete igaro arte. Gainera, hasteko, berez, lana aurkitzea ez da batere zeregin erraza, eta, normalean, hori gertatzeko, aldi berean hainbat faktore gertatu behar izaten dira.

Nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonentzat egoera are zailagoa da bertakoentzat baino: izan ere, lehenik eta behin, bizi diren leku berrira egokitu behar dute, sare sozial bat eta harremanak eraiki, ahal bada, eta, askotan, beren harrera herrialdeko hizkuntza eta egiteko moduak ikasi behar izaten dizute. Era berean, titulu akademikoak homologatzeko eta baliozkotzeko oztupoak izaten dituzte, bai izapideak online egiten direlako, denborak atzeratzen direlako, askotan, atzeritarrak izateagatik, pertsona arrazializatuak izateagatik edo beste kultura edo erlijio batzuekin identifikatzen dituzten ageriko sinboloak eramateagatik jasaten duten diskriminazio estraren ondorioz. Batzuetan, gainera, ez da ez bizi duten egoera konplexua ezta euren ezegonkortasun emozionala kontuan hartzen.

Hori dela eta, lan prestakuntza, lan orientazioa eta enplegu zerbitzu publikoak lortzea oso faktore garrantzitsuak dira laneratzea errazteko. Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak zeregin hori gauzatzeko eskura jartzen duen tresna nagusia da.

Prestakuntza ikastaro batzuek, hala nola, arreta soziosanitarioarekin lotutakoek, eskaera handia dute. Brendak ibilbide hori aukera du, nahiz eta bere jatorrizko herrian sektore horretan lan egin ez. Baina, azaldu digunez, pertsonen laguntzea gustuko du, eta, horregatik, prestakuntza eta praktikak egiten ari da, sektore horretan enplegua aurkitzeko itxaropenez.

DIRU LAGUNTZETARAKO SARBIDEA

Euskadin dauden diru laguntzei dagokionez, garrantzitsuena, Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bitartez, kudeatzen du: Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE). Gainera, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) ere badago edo udalek kudeatutako gizarte larrialdietarako laguntzak, besteak beste.

Diru sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak arautzen du DBEa¹⁵, eta, urteak igaro ahala, euskal jendartearen baitan gertatu diren aldaketetara egokitzen joan da haren erregulazioa.

Helburu bikoitza du: alde batetik, jasotzen dutenen gehiengoa muturreko pobreziatik babestea eta, bestetik, Euskadiko pobrezia eta gizarte bazterketa maila orokorren modu nabarmenean murriztea¹⁶.

Euskadi osoan, 2023an 65.246 pertsonak jaso zuten DBEa; horietatik %65,9k Espainiako nazionalitatea zuten¹⁷. Nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen kasuan, ez dago laguntza hau jasotzen duten pertsona kopuruaren inguruko daturik.

Lanbideko orientatzailearekin izandako hitzordu baten bidez, Brendak lehen aldiz entzun zituen DBE siglak. Eskaera egiteko aukerari buruz hitz egin zioten, baina, beharrezko dokumentu guztiak lortzen saiatu zen arren, ez zuen lortu, ez baitzuen alokairu azpi kontraturik.

Orain, harrera sistemaren barruan egonda, helburu garbia du: bere seme alabak salbu jartzea. Kolonbian oraindik ere arriskuan daude, eta arrisku hori agerian geratu zen ikerketa honen harira antolatu genuen eztabaida saioaren aurreko egunean. Izan ere, egun horretan bertan haietako baten aurka egin zuten.

OSASUN ARRETARAKO SARBIDEA

Euskadin, Estatuko gainerako lekuetan bezala, legeak errefuxiatuei osasun arreta ematea bermatzen du. Osakidetzak, OTIa (Euskadiko osasun txartela) lortzeko, Txartel Gorria (nazioarteko babesaren izapidetzen ari den pertsona dela egiaztatzen duen agiria), Txartel Berdea (Espainian aberrigabearen estatutua eskatzen duena)¹⁸ edo nazioarteko babes eskaera aurkeztu izanaren frogagiria aurkeztu behar ditu, eta ezin du erroldatuta egon.

Europar, errefuxiatuei osasun laguntza bermatzeko tresna nagusia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/33/EB¹⁹ Zuzentaraua da.

Dekretu honek eta lotesleak ez diren beste tresna juridiko batzuek adierazten dute asistentzia horrek osasun mental eta fisikoari erantzun behar diola. Gainera, asistentzia erabiltzaileak ulertzen duen hizkuntzan garatu beharra ere adierazten du. Tresna horiek guztiek, halaber, larrialdi egoeretan²⁰, osasun laguntza bermatzeko betebeharra dute.

Praktikan, OTIa eskatu den osasun etxearen arabera gaizki ulerturen bat gerta daitekeen arren, prozesua arazorik gabe egiten da, oro har. Brendaren kasuan, egitea gutxien kostatu zitzaion izapidea izan zen. Eskatutako dokumentazioa aurkeztuta, arazorik gabe eskuratu ahal izan zuen osasun txartela.

HEZKUNTZARAKO ETA HIZKUNTZA IKASTEKO SARBIDEA

Adin txikikoak

Hezkuntzarako sarbidea gizarteratze prozesuetako oinarritzko beste faktore bat da, batez ere adingabeak euren ardurapean dituzten familientzat. Haur eta nerabeak gizarteratzeko prozesua ardatzen du hezkuntzak, eskola haien sozializazio eremu naturala bilakatzen baita.

Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunekin lotutako alderdiak arautzen dituzten tresna juridiko nagusiek, hala nola, 1951ko Genevako Konbentzioak, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak (CFR) eta Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunen Europako Hitzarmenak (ECHR), eta Espainiako Konstituzioak, hezkuntza eskubide bat dela azpimarratzen dute, errefuxiatuen eta bertakoen artean baldintza berdinetan eman behar dena, eta, gainera, doakoa.

Euskadin, atzeritar jatorriko migrazioa gero eta handiagoa da, eta, euskal hezkuntza sisteman islatzen da hori. Komunitateak, eskolek eta administrazioak atzeritar jatorriko ikasleen eskolatzeko inklusiboa errazteko erronkari heldu behar diote, eta, aldi berean, ikasle guztien hezkuntza aukerak sustatu, jatorria edo egoera edozein dela ere²¹.

Derrigorrezko eskolatzeko adina 6 urterekin hasten da, lehen hezkuntzako zikloan sartzearekin batera, eta bi ikastetxe mota daude: publikoak eta itunpekoak. Hezkuntza doakoa da 16 urte bete arte, eta eskola materialerako, jantokirako eta testuliburuak eskuratzeko bekak daude.

Zehar Errefuxiatuekin elkarteko esku hartze sozialeko arloak adierazi duenez, nazioarteko babesaren eskatzen duten adingabeen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza arloaren bidez lehenbailehen eskolatzen dira ikastetxeetan.

Arabian eskolatzeko ezinbesteko baldintza erroldatuta egotea da, ez dute errolda ez den beste txosten edo dokumenturik onartzen.

Zailtasun eta erronkei dagokienez, Arartekoaren arabera, "EAEko hezkuntzari dagokionez, arazoak antzeman diren hiru alderdi nagusiak honako hauek izan dira: alde batetik, EAEko hizkuntza koofizialen ikaskuntzari dagokiona (gaztelania eta euskara); bestetik, atzerriko ikasleen banaketa ikastetxeetan, ikasle atzerriar gehiago baitaude euskal hezkuntza sareko ikastetxe publikoetan itunpeko ikastetxeetan baino; eta azkenik, 18 urtetik gorako pertsonen kasuan, hizkuntza ikastaroetan izena emateko denborekin lotutako zailtasunak"²².

Hizkuntza eredua, beraz, oso garrantzitsua da, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena da asilo eskatzaileek Euskadiko hizkuntza ofizialak ikasteko behar dituzten baliabideak eskaintzea. Baliabide horiek hizkuntza ikasteko eta eskolan adingabeei laguntzera bideratutako hainbat tresnaren bidez gauzatzen dira.

Oro har, 16 eta 17 urteko gazte eta nerabeen kasuak dira konplexuenak, ez baitaude derrigorrezko eskolatzeko adinean, baina oraindik adin txikikoak dira. Haien txertatze prozesuak eta babestuak eta integratuta sentitzeko prozesuak oso konplexuak izan daitezke horregatik.

18 urtetik gorakoak

Bestelako prestakuntza mota batzuk ere badaude, hala nola Helduen Hezkuntza (Helduen Eskolak) eskaintakoak edo lan merkatura sartzeko profesionaltasun ziurtagiriak.

Lehen aipatu bezala, atzerriko tituluak homologatzeko aukera ere badago, baina prozesu hori zaila da, eta ebazpen denbora nahiko luzeak behar dira, hainbat urteko tartea hartu dezaketena.

Haurrekin gertatzen den bezala, helduek ere baliabideak behar dituzte Euskadi hizkuntza koofizialak ikasteko. Laguntza horiek HHE bezalako doako baliabideetan eta hizkuntzak ikasteko diru laguntzetan gauzatzen dira, eta udal askok euskara ikasteko programak eskaintzen dituzte gizarteratzea errazteko.

Aurretik esan dugun bezala, Brendak prestakuntza ikastaro bat egin zuen Lanbideren bidez, eta, horri esker, lan praktikak egin ahal izan ditu. Bere herrialdean lortu zituen tituluak homologatzeko asmoa badu ere, oraingoz beste lehentasun batzuk ditu, eta, beraz, izapide hori aurreragorako utziko du.

Unibertsitateaz kanpoko tituluak homologatzeko eskumen autonomikoak, bai eta unibertsitate tituluekin homologatzeko Estatu eremuko eskumenak ere, hilabeteak luza daitezke. Hori dela eta, une honetan, Brendaren lehentasuna, nazioarteko babeserako izapidea hasteko beharrezkoa duen dokumentazioa biltzea da. Unibertsitate tituluen egoera 2024ko uztailaren 1ean aldatu behar zen, orduan Eusko Jaurlaritza Europatik kanpo eskuratutako tituluak homologatzen hasiko baitzen. Hauen egiaztatzea Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak egiten du. Hala ere, 2024ko uztailaren 24an, Auzitegi Gorenak kautelaz eten zuen neurri hura, eta 200 baliozkotze inguru utzi zituen ebazteke²³.

Bestalde, bere elkarriketa gauzatu zenetik sei hilabete pasa arte, Brendak ezin izango du lan ordaindurik egin.

Egoera zinez zaila da.

GIZARTE LAGUNTZA ESKURATZEA ETA HARRERAREKIN LOTUTAKO BESTE ALDERDI BATZUK

Nazioarteko babesa eskatzen edo jasotzen duten pertsonak, zaurgarritasun egoeran dagoen beste edozein pertsonak bezalaxe, gizarte zerbitzuek artatzeko aukera bera izan beharko lukete. Toki administrazioak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatzen ditu, nahiz eta eskumena autonomikoa izan; normalean, diru laguntzak kudeatzen dituzte eta gizarteratzea errazten duten bestelako zerbitzuetara bideratzen dituzte.

Aisialdirako eskubidea, aldiz, konplexua da, ez bakarrik kode kulturalengatik (hizkuntza barne) beti, gizarte gisa hautsi beharreko aurreiritzi eta oztupoekin batera beti gerta daitekeena, baizik eta kultura edo kirol jarduera jakin batean sartzeko baliabide ekonomikoak izateko beharraz gain, edo bertara joan eta etortzeko garraioa ordaintzeko ere. Izan ere, askotan, asilo eskatzaileak sostengatu eta prozesuan lagunduko dituen sare sozial indartsu bat izatea ezinbestekoa da.

Brendaren istorioak, asiloa eta harrera eskatzeko prozesuaren ezaugarriak erakusten dizkigu, baina Zehar Errefuxiatuekin elkartetik, Euskadin errefuxiatuek, migratzaileek eta aberrigabeek pairatzen dituzten errealitate konplexuei heldu nahi diegu. Beraz, pertsona bakoitzak identitate eta esperientzien konbinazio espezifikoarekin dakarrela aitortzen dugu, eta intersekzio horiek eskubideak eskuratzeko zein gure jendartean integratzeko nola eragiten dieten ulertzea funtsezkoa da.

Brenda gaztelaniaz dakien emakume gaztea da, aniztasun funtzionalik gabea... baina, nolako izango litzateke bere istorioa aniztasun funtzionalen bat izango balu? Ibilbidea askoz luzeagoa eta oztopoz betea izango litzateke, bereziki desgaitasun aitorturik ez dagoen kasuetan, besteak beste, eremu honetako erakundeek ezin dutelako inolako arretarik eskaini. Haurren eta nerabeen kasuan, haurraren interes gorena gailentzen da; beraz, ebaluazioak, osasun arreta, laguntza psikosoziala eta abar azkarrago egiten dira. Helduekin ez da gauza bera gertatzen. Asiloa eskatzeko prozesuan dauden desorekekin gertatzen den bezalaxe, aniztasun funtzional fisiko, kognitibo edo sentSORIALA duten errefuxiatuen artatzea eta euren eskubideen bermatzea, dagoen tokiaren arabera (udalerria edo lurralde historikoa) izango da.

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Legeak Euskadin nazioarteko babesa edo aldi baterako babesa eskatzen eta lortzen duten pertsonak eta pertsona aberrigabeak babesten dituen arren, duintasunez bizitzeko oinarritzko eskubideak eskuratzeari dagokionez, eragozpen eta oztopo handiak daude. Horietako batzuk, zinez larriak dira. Zehar Errefuxiatuekin elkarrekin oztopo horiek gainditzearen alde egiten du lan, eta gure lurraldean harrera prozesua ahalik eta bidezko eta justuena izan dadin nahi dugu. Gurera iristen diren pertsonak berriz biktimizatu eta diskriminatu gabe.

Brendarentzat, prozesua gogorra izan da eta bide luzea du oraindik egiteke. Gutxika gutxika, bidean zehar agertu zaizkion arazoei aurre egiten joan da Brenda. Bihotzez espero dugu bere asmo eta nahiak betetzen jarraitu ahal izatea. Hori bai, bakean eta toki seguru batean. Ez dezala ihes egiteko beharrik izan, eta bera zein bere seme alabak ez daitezela inoiz ere arriskuan egon.

OHARRAK

1 Lucas Areizaga S., Sobotovicova S., Zarauz Goyoaga C. (2020). **La situación de las personas refugiadas en la CAPV.** "Juan San Martín" Giza Eskubideen Bilduma, ARARTEKO (Herriaren Defendatzailea).

2 elDiario.es (2024ko martxoak 10). **Hartos de la falta de citas para pedir asilo: tres huelgas de hambre de migrantes y un centenar de quejas.**

3 CEAR, Urteko Txostena (2024). **«2024 TXOSTENA. Espainian eta European errefuxiatutako pertsonak».**

4 Ibid.

5 Directiva 2001/55/CE del Consejo, de 20 de julio de 2001, "relativa a las normas mínimas para la concesión de protección temporal en caso de afluencia masiva de personas desplazadas y a medidas de fomento de un esfuerzo equitativo entre los Estados miembros para acoger a dichas personas y asumir las consecuencias de su acogida"

6 OARen Datu eta Informazio Estatistikoa eta Barne Ministerioaren Urtekari Estatistikoak (2023).

7 Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioa.

8 Antón, F. Cortés, L. Martínez, C. Navarrete, J. (2008). La exclusión residencial en España. FOESSA Fundazioa. Espainian bazterkeriari eta gizarte garapenari buruzko VI. txostena (2008), 347 368, p.349

9 INE (2023). **Encuesta de condiciones de vida (ECV).**

10 Gil J., García Duch M., Vidal L., Martínez M. (2024ko apirila). El mercado de alquiler: fuente de desigualdad social. Grupo de Estudios Críticos Urbanos (GECU).

11 Ibid.

12 Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazioetarako Ministerioa (2024). Nazioarteko eta aldi baterako babeserako Harrera Sistema. **Cómo funciona y datos Migraciones.**

13 Ibid.

14 Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, GIIZ (2022). **VI Estudio sobre la Situación de las Personas en Situación de Exclusión Residencial 2022.**

15 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko.

16 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema.

17 Noticias de Gipuzkoa (2024ko maiatzaren 7a). **La RGI de Euskadi llega a familias de 118 nacionalidades y 845 apátridas.**

18 Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2021). **Acceso para personas inmigrantes al sistema sanitario de Euskadi.** 1. Edizioa: 2021eko martxoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.

19 2013ko ekainaren 26ko Europar Parlamentu eta Kontseiluko Zuzentaraua 2013/33/EB.

20 Lucas Areizaga S., Sobotovicova S., Zarauz Goyoaga C. (2020). **La situación de las personas refugiadas en la CAPV.** "Juan San Martín" Giza Eskubideen Bilduma, ARARTEKO (Herriaren Defendatzailea).

21 IKUSPEGI (2018ko urria). **La escolarización del alumnado de origen extranjero en el sistema escolar de la CAPV.** Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.

22 Lucas Areizaga S., Sobotovicova S., Zarauz Goyoaga C. (2020). **La situación de las personas refugiadas en la CAPV.** "Juan San Martín" Giza Eskubideen Bilduma, ARARTEKO (Herriaren Defendatzailea).

23 Javier Guillenea, El Diario Vasco (2024ko uztailaren 24a). **El Supremo frena la homologación de títulos con la que Euskadi preveía atraer a médicos.**



ONDORIOAK

Deserrotuak izena eman diogun lan lerro honen ibilbideari ekin genion, gero eta ugariagoak diren ‘migrazio klimatiko’ buruzko teoria akademikoak erantzuteko. Izan ere, teoria akademikoak klima aldaketaren ondorioei buruzko analisien alde egin du, aldaketa hori sortzen duen eredu desarrollistak ezartzen duen indarkeriaren analisien kaltetan.

Ez gara esateaz nekatuko: ‘gure mugetara’ heltzen den jendeak euren jatorrizko herrialdeetatik alde egiteko dituen arrazoiak gutxitan dira analisaren parte, eta alde batera geratzen ez direnean, sinplifikatu egiten dira. Hazkunde ekonomiko mugagabea —edo zehatzago esanda, kapitala esku gutxitan pilatzea— bateraezina da bizitza sostengatzearekin, ez bakarrik ondasun finituak ustiatzea eta planeta kutsatzea dakarrelako, baizik eta interes korporatiboa edo geostrategikoa duten lekuetan bizi diren pertsonen ustiapena, prekarizazioa, indarkeria eta desplazamendua dakartzalako.

Estraktibismo neokoloniala sektore estrategikoei eusteko ezinbestekoak bihurtu diren mineralen urritasunarekin —bipiltze historikoarekin— areagotzen da. Horien artean daude industria militarra, energia eta telekomunikazioak, besteak beste. Bipiltzea eta ustiapena deslokalizatzeari gehitu behar zaio kutsadura ere etengabe deslokalizatzea, kapital hazkundera eta ingurumenaren zaintza uztar daitezkeela adierazteko.

Gero eta gehiago dira, inbertsio akordioek, baliabideen ustiapenak eta migrazio kontrolak bat egiten duten diplomazia ekonomikoaren estrategiak —enpresa inbertsioz zein garapenerako lankidetzaz estaliz—. Bipiltzearen bidez baino ezin daiteke lortu metaketa. Eta bipiltzea euren dena eta bizitza posible egiten duena defendatzen dutenen desplazamendu eta desegiteen bidez baino ezin daiteke gertatu.

Arrazoi entzungor egitea, migrazioak mehatxutzat jotzen dituztenentzat da mesedegarria. Eta migrazioak mehatxutzat hartzen dituen kontakizun hegemonikoak indarkeriari egiten dio mesede.

EBren mugei buruzko politika oinarritzen da hiritarrak direnen eta ez direnen artean erabakitzeko ahalmenean, eskubideen titulartasuna dugunon eta besteon artean: hirugarren herrialdeetako nazionalak, interes geostrategiko eta ekonomikoen zerbitzura eta lan merkatuaren ‘premien’ zerbitzura dagoen harreman *de facto*, kolonial, legegile eta eraginkor baten mende geratzen direnak.

Migrazioen inguruko gobernantzaren eraketari buruzko analisi kritikoak egiten dituztenek sekuritizazio dialektika bat erakusten dute, mugak kontrolatzeko sistema legitimatzera bideratua, *de facto* zuzenbide penalaren mekanismoak erabiltzen dituen. Nazioz gaundiko gobernantza da, mehatxuaren eta segurtasunaren dialektikaren aitzakiapean, mugikortasun prozesu bati ekiten dioten pertsonen kriminalizazio sinboliko eta materialaren zerbitzura dagoen narratiba eta praxia sofistikatzeko dituen. Horrela legitimizatzen da pertsona horiek atzematea, atxilotzea, zentroetan sartzea eta Europako lurraldeetatik eta Europara heltzeko bidean igarotzen dituzten hirugarren herrialdeetatik kanporatzea.

Nazioz gaundikoak eta naziokoak bertakoak diren eliteek definitzen dute segurtasuna (edo segurtasun eza) eta horrekin berarekin amaitzeko ezohiko neurriak hartzen dituzte. Migratzaileak mehatxu bihurtzeak horiek indarkeriaz tratatzea legitimizatzen du. 1951ko Genevako Konbentzioaren arabera, herrialde seguru bat lortzeko eta babesa eskatzeko eskubidea duten errefuxiatuak ikusezin bihurtzeak, horiek indarkeriaz tratatzea legitimatzen du. Batzuekiko zein besteeikiko indarkeria larria iruditzen zaigu. Eta, aipatu bezala, kategoriek dituzten arriskuen jakitun gara.

Ez diogu horregatik utziko nazioarteko babeserako eskubidearen betebeharren urraketa salatzeari. Autoritateek errefuxiatuak babesteaz eta migrazio erregularra bultzatzeaz harrotasunez hitz egiten dute diskurtso ofizialetan.

Baina bidean dauden pertsonak ez dira asiloa bilatzen ari diren edo nazioarteko babes berezi duten subjektu gisa identifikatzen, administrazio legeen urratzaile gisa baizik.

Mugak kanporatzeak *de facto* jarduten du EBra iristeko ustezko nahiaren aurka: ez doaz delitu egintzen bila, aitzitik, EBko kide diren herrialdeetara heltzeko asmoa duten pertsonak eta bidean dauden subjektuak zigortzen dituzte, egin ez dituzten ekintzengatik. Eta, aldi berean, Batasunean sartu direnak Europan ez baleude bezala tratatzeko formulak legeztatzen dituzte. Eskubideak usurpatzera bideratuta dagoen zuzenbidearen sofistikazioak, hala, erraztu egiten du ez-itzulketaren printzipioaren urraketa. Izan ere, printzipio horrek estatuei debekatu egiten die pertsonak beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan dagoen edo tratu anker edo iraingarriak jasan ditzaketen herrialde batera itzultzea.

Sarrera ezaren fikzioa sendotu egiten da Europako ondarean Migrazio eta Asilorako Itunarekin, eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta Kanariar Uharteak praktika horien esperimentazio laborategi gisa txandakatzen dira.

Babes eta migrazio kategoriak finkoak izan ez, eta estraktibismo neoliberalaren garaiekin bat datorren kanporatze arrazoiak aztertzea eskatzen duen lerro jarraitu baten muturrak izateaz gain, mugetako politikak jazarpena jasaten duten errefuxiatuei Europara sartzeara eragozten saiatzen dira, 1951ko Konbentzioaren interpretazio konbentzionalago eta murriztaileago bati jarraiki.

Horren adierazgarri dira itsasoko erreskate humanitarioko lanei jarritako oztopo burokratikoak; Siria, Yemen, Palestina, Somalia, Senegal eta abarretik datozen pertsonen sarrera geldiarazteko aireportuetako zirkulazio bisak ezartzea; eskaerak lurraldean izapidetzeko polizia etxeetan hitzordua lortzeko ezintasuna; asilo legeriaren arautegi falta (2009ko Legea indarrean sartu eta 15 urtera), eta etsipen ariketa argi baten parte den EBko nazioarteko babes baxuenaren aitorten tasa.

Txosten honen xedea ez da izan Kanarietako artxipelagora iritsi diren haur eta nerabeei dagokien egoera espezifikoaz aztertzea. Arartekoak, UNHCRk egindako ikerketak aipatuz adierazi duenaren arabera, «Maliko gatazka armatuetatik» ihes egin duten haurrak dira gehienak, «giza eskubideen, sexu eta genero indarkeriaren urraketak jasan dituztenak, emakumeen genitalen mutilazioa edo ezkontza behartua eta goiztiarra barne, edo jazarpena jasaten dutenak LGBTIQ+ kolektiboko kide izateagatik, besteak beste». Erakunde horrek adierazten du premiazkoa dela administrazio zentralen eta autonomikoen arteko koordinazioa, haiei abegi egin eta nazioarteko babes eskubidea eskuratzeko.¹

Eskuinaren eta sozialdemokraziaren diskurtsoak desberdinak dira, eta ondorio desberdinak dituzte diskriminazioari, indarkeria sinbolikoari eta indarkeria fisikoari dagokienez. Baina kanporatzearekin, atxilotetarekin eta zentroetan sartzearekin lotutako jardunbideak ez daude haien artetik hain urruti. 2022ko ekainaren 24ko Melillako sarraskiak, Herritarren Segurtasunerako Legearen indarraldiak eta Migrazio eta Asilorako Europako Itunaren onarpenak harreman kolonialak betikotzeko joera erakusten dute, baita sozialdemokraziak gobernatzen duenean ere. Estatuak indar fisikoa eta indarkeria erabiltzea legitimatzen duen gainbehera penala da.

Bidean hiltzen direnen desagerpenaren normalizazioa «bestearen» bizitzaren mespretxurik handiena da: inplikaturako erakundeek ez dute ardura hartzen eta ez dituzte gorputzak berreskuratzen, ez dute desagertuen bilaketa errazten, eta familiak ziurgabetasunean geratzen dira, dolua egiteko eta maite dituztenak hilobiratzeko aukerarik gabe. Biktimak ez dira existitzen: hobi komunek eta haien gorputzen desagerpenak indarkeriari egiten diote mesede.

Bide legal eta segururik ez dagoenez, lehorreko eta itsasoko bideak —askotan itsasokoak izanik posibleak diren bakarrak— bizirik irauteko bakoitzaren aukeren mende geratzen dira. Emakumeak eta pertsona ez-normatiboak Europako gobernu sozialdemokraten genero indarkerien mehatxupean geratzen dira, nahiz eta gobernu horiek harrotasunez esan indarkeria horien aurka borrokatzen dutela.

Mugak militarizatzeak, Frontex erabiltzeak, jatorrizko eta bidean zeharkatzen dituzten herrialdeetako segurtasun indar eta kidegoak erabiltzeak (Espainiako Guardia Zibila barne), segurtasun pribatuko agentziak eta garraiolariak

erabiltzeak zirkulazioa maskulinizatu eta patriarkalizatu egiten du, eta emakumeen aurkako indarkeria areagotu — estatu kideen interesen defentsan—, transnazionalak sartzen diren lurraldeetan gertatzen den bezala.

Itunak larriagotu egiten ditu emakumeek eta pertsona ez-normatiboek eskubiderik gabeko guneetan jasaten duten talkarekin lotutako salatu ditugun egoerak, aurrera egiteko formulak aurkitzen dituzten bitartean bertan egotera behartuta egoten baitira. Besteak beste, Waki aipatu dugu, Libiatik igarotzen ari zela atxilotua, espetxeratua eta sistematikoki prostituitzera behartua. Haren esperientzia, bigarren kapituluan aipatua, Euskadira iritsi zenean ezagutu genuen.

Emakumeak ikusezin bihurtzea eta (ber)biktimizatzea mesedegarria da sekuritizazio politikarentzat. Izan ere, erraztu egiten du migrazio mugimenduak kriminalizatzea —gizon arrazializatuiei dagokienez—, eta emakumei errotik kentzen die agentzia eta herrialde seguru bat lortzeko eta nazioarteko babesak modu autonomoan eskuratzeko aukera.

Txosten hau amaitzean, lehen ministro britainiarrak, Keir Starmer laboristak, Giorgia Meloni iragarritako elkar ulertzeko memorandum berriarekiko interesa agertu zuen, Albanian agintariei itsasoan atzemandako pertsonak identifikatu, atxilotu eta kanporatzeko bi zentro eraikitzeko, eta horrela pertsona horien nazioarteko babes eskaerak kanporatzeko. Starmer nazioarteko zuzenbide humanitarioan aditua den abokatua da, eta nazioarteko zuzenbidea ez betetzeagatik Erresuma Batuak Ruandarekin duen akordioaren aurka dago. Meloniren politikekiko interesa, aldiz, «pragmatismo britainiarraren itzulera» dela defendatu du². Era berean, egun batzuk geroago, Europan zehar egindako biran, Alberto Núñez Feijóo, PPko presidentea, Italiako lehen ministroarekin bildu zen eta haren migrazio politikaren eraginkortasuna goraipatu zuen.

Zuzenbide estatua arriskuan jartzen dutenak ez dira migratzaileak eta errefuxiatuak. Haien aurka aplikatzen den erantzuna da Europako demokraziak mehatxatzen dituenak. Eskandalizatu egiten gaitu erakunde autonomikoetan eta Europako hauteskundeetan eskuin muturrak izan duen gorakadak, baina desplazatutako pertsonak eskuin muturreko neurri errepresiboak jasaten ari dira aspalditik. Sozialdemokraziak ere aplikatutako neurriak dira.

EBko estatuak ustez Europara iritsi nahi dutenen aurka erabiltzen eta azpikontratatzeko indarkeria, pertsonak beren jaioteritik alde egitera bultzatzen dituzten jazarpen arrazoia bezain muturrekoa bihurtu da. Indarkeria honek gauzak kontatzeko modu bat behar du, bestea mehatxupear jarriko duen kontaera berria. Kontaera hori izan ezean, ezingo dugu indarkeria jasan.

OHARRAK

¹ Arartekoa (2024ko uztailaren 30a) **“Situación de los menores extranjeros no acompañados en Canarias”**.

² elDiario.es (2024ko irailaren 14a) **“Starmer dice que quiere aprender de la gestión de la migración de Meloni porque es “pragmático”**.



ZOKORATZEN EZ DUTEN BIZI EREDUAK EREITEN EUSKAL HERRIAN. ALTERNATIBAK AGROEKOFEMINISMOTIK

Mar Garrote Calvo. Baserritarra, agroekofeminista, hezitzailea eta talde bideratzailea. Zerbatik #uzta agroekofeminista, Maskilu lantegi kolektibo agroekologikoa eta Etxaldeko Emakumeen parte da.

Oinak lurrean izanik eta zerura begira pentsatzea, lurraldea sentitzea eta batera irudikatzea nolakoa izango litzatekeen nahi dugun elikadura sistema. Zapalkuntzarik gabeko sistema bat, gai dena pertsonak, lurraldea eta natura elikatzeko eta zaintzeko, hau da, bizitza erdigunean jartzeko, azken finean.

“ESKANDALUZKO GAUZA” HORREN GUARDASOLAREN PEAN¹: NEKAZARITZAKO NEGOZIOAREN BASAKERIA, ZOKORATU EGITEN DUEN SISTEMA BAT.

Sistema ekonomiko neoliberal, kapitalista, patriarkal, arrazista eta klasista batean bizi gara, zeinaren existitzeko oinarria **baita** etengabe haztea eta lehengaiak eta giza energia kontsumitzea kapitala sortzeko. Etekin ekonomikoa du lehentasun nagusi eta erregai, eta bizitza merkantilizatzen du, pertsonak eta ondasun naturalak esplotatzen ditu, eta herriak eta planeta bera arpilatzen ditu.

Guardasol horren azpian, mugarik gabe ari da hazten elikatu gabe pozoitzen gaituen elikadura sistema, nekazaritzako industria intentsiboan oinarritua. Berotegi efektuko gas isurketen % 44 eta % 57 artean igortzen ditu², eta zuzenean bultzatzen du klima aldaketa. Ikusten dugu hiru enpresak kontrolatzen dituztela munduko hazien % 60, eta nekazaritzako kimikoen % 70, eta laboreen informazio genetikoaren banku handietarako sarbidea dutela. Hazien munduko merkatua kontrolatzen duten sei enpresetatik lau Europakoak dira. Elikagaien heren bat alferrik galtzen da³. 1900etik, biodibertsitatearen % 75 galdu da, eta, gaur, mundu elikagaien % 75 soilik 12 landaretatik eta 5 animalia espezieetatik eskuratzen da. Europar Batasuna da nekazaritzako produktuen lehen esportatzailea eta inportatzailea munduan. Poto bete lekalek 7.500 kilometro⁴ egiten ditu ekoizten denetik gure platerera heltzen den arte. Erein diren herrialdean biltzen dira, garraiatu egiten dira, gero, ontziratu, eta dendara heltzen dira, eta han erosten ditugu.

1992tik politika publikoak eta prezioak arautzeari utzi zitzaionez, merkatuari bide egin zitzaion, eta hark erabakitzen du nola ekoiztiko diren elikagaiak eta zer jango dugun. Hain zuzen, horrelaxe merkantilizatzen dira bizitza sostengatzeko funtsezko eremuak, esaterako, elikadura, eta elikadura funtsezko eskubidetzat ulertzen duen kontzeptua ahultzen da. Ikus dezakegu nekazaritzako munduko sistemak zuzeneko eragina duela, pertsonak, osasuna eta giza eskubideak baztertzen dituztelako, eta natura suntsitzen dutelako. Giza bizitza eta gizakiona ez dena arpilatzen eta pribatizatzen ditu, baita ondasun komunak ere, hala nola ibaiak, mineralak, basoak eta lurraldeak. Lurrak pilatzeak, deforestazioak eta ongarrri eta pestizida kimikoen erabilera handitzeak ekosistemak narriatzen ditu, ezberdinkeria sortzen du eta nekazarien bizimodua amaiazteaz dakar. Jasanezina da lurraldeentzat eta pertsonentzat, baina errentagarria da jateko kontuekin espekulatzen dutenentzat. Produktibotasuna eta dirua bihurtzen dira nekazaritzako enpresa handiak mugitzeko irizpide bakarrak.

Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien panorama ere hein berean dago gaizki. Pentsa dezakegu hurbileko elikagai osasungarri batzuk eskura ditugula, ekologikoak, baina ez da hala; egiaz, nekazaritzako industriak erabakitzen du zer jango dugun. Enpresa multinazional gutxi batzuek haien eskuetan dute elikagaien kontsumoaren zatirik handiena; jasanezina izan arren, ia elikagai guztiak kanpotik datoz, eta, oro har, haiek ekoiztearen oinarria esplotazioa da.

Eredu horren aldeko apustu instituzionalaren adibide garbiak daude: adibidez, tomateak lurrik gabe artifizialki ekoizteko Araban kokatutako 15 hektareako negutegi erraldoia, sistema hidroponikoa darabilena; inbertsio izugarria behar izan zuen eta energia eta ur asko eta asko xahutzen du. Horren guztiaren erakusgai dira Donostian haragi sintetikoa sortzeko instalazio bat onartu eta ezarri izana eta 10 000 behi ere hartu ahalko dituela aurreikusi den Caparrosoko makroetxaldea ere.

Horrez gain, nekazaritzako jarduerak dagoeneko ez dira gure ezein lurralderen oinarri ekonomikoa, gero eta hirikoagoak eta industrialagoak baitira. Hain zuzen, nekazaritzako finken erdiak baino gehiago desagertu dira azken urteotan. Gaur egun, populazioaren % 1,5 baino gutxiagok dihardu elikagaiak ekoizten, eta kontsumitzen denaren % 5 baino gutxiago da bertan ekoitzia. Gasteizen 2022an kontsumitu ziren 67.000 tona elikagaitatik, % 1,1 ziren Arabakoak, eta % 2,4, Gipuzkoa eta Bizkaikoak⁵.

Ez dago belaunaldi aldaketarik, eta titulartasuna gehienbat adinekoen, gizonen eta enpresen esku dago. Egoera latza da, baserritarren batez besteko adina gora egiten ari baita. Sektorean ez da jende berririk sartzen, eta zailtasun ekonomikoek ere ez dituzte gazteak nekazaritzan lana bilatzera bultzatzen⁶. Finken batez besteko tamaina handitu egin da, ekoizpena indartzeko beharra zutelako, eta finka txikiak desagertu egin dira. Horrek esan nahi du lurra gutxiagoren eskuetan dagoela, eta dirulaguntzak gutxi batzuen esku kontzentratzen direla, lurra ez landuta ere. Nekazaritzaren industriak gure despentsak bete ditzan uzten ari gara.

Emakume gutxiago egon arren, eta batez beste zaharragoak badira ere⁷, ikus dezakegu haien finkak txikiagoak eta dibertsifikatuagoak direla, eta horrek baserri eredua uzten du agerian. Emakume baserritarrek izan duten zeregina aintzatetsi beharra daukagu; izan ere, ehunka urtez, landa eremuetan ikusezin egin dituzte eta ez dituzte baloratu, bizitza sostengatzen baziharduten ere: pertsonak, elikagaiak, lurra, lurraldea eta, azken batean, planeta zaintzen. Gainera, ezin konta ahala jakintzaren zaindariak ere badira⁸.

ELIKADURA TRANTSIZIO AGROEKOFEMINISTAK

Kinka hau ikusita, alternatibak eraikitzen eta politika publikoak eskatzen jarraitu behar dugu. Agroekologiak, feminismoek eta zaintzek gakoak ematen dizkigute gure ametsetako elikadura sistemetarantz jotzeko. Herri eta lurralde biziez, ondasun komunez, zaintzez, lurraz eta sostengatzen gaituen naturaz mintzatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza. Baserritarrek egiten duten lanaren balioa aitortzen duen eredu bat⁹. Emakume nekazariak munduan duten zeregina aitortu beharra dago, historikoki ekoizpen eredu jasangarriak mantendu dituelako, lurraren zikloetan ondo errotoak eta erregai fosilen gehiegizko erabileraren (ongarriak, pestizidak, makineria, banaketa eta abar) eta ondasun naturalen esplotazio eta arpilatzearen mende dagoen eredu intentsibo eta industrialaren aurrean ondasun naturalak babestu dituztenak. Ikusezin egin dituzte lan produktibo eta erreproduktibo gogor eta aitortu gabe. Funtsezkoa den horren zaindariak, bizitzaren zaindariak lurrean, sukaldean eta lurraldean. Emakume baserritarrek plazan saltzen dugu, ortua zaintzen dugu, lurra lantzen dugu, jetzi egiten dugu, prestatu, kozinatu, haziak hautatu eta hurrengo urtera arte babestu.

Landa ez da hegoalde globala bakarrik, bai baitaude hemen ere baserritarrak, nekazariak, jornalariak, soldatapeko migratzaileak eta abar. Landa da iparralde globalaren periferietatik pentsatzea: elikaduraren gaia erdigunean jarri nahi dugu, elikadura eredu osasungarri eta bidezkoa abiapuntu izanik. Elikadura dekoloniala, ez estraktibista eta pertsonak zokoratzen ez dituen da gure apustua. Elikadura subiranotasun feminista behar dugu, zainketak ikusarazten eta baloratzen dituzten praktika agroekologikoetan oinarritua, eta gure proiektuak, jakintzak eta lurraldeak desmerkantilizatzeko proposamen zehatzak dituen.

Gaur egun nekazaritzaren negozioak gure egunerokoan duen eragina ulertzeak gakoak emango dizkigu trantsizioari ekiteko. Hona hemen galderetako batzuk: nola heltzen dira elikagaiak gure mahaira eta nondik datoz? Nork lantzen ditu? Nork saltzen? Nork sukaldean prestatzen? Zer eragin du horrek nekazaritzako elikagaien egungo sisteman? Zer jaten duten gaizki jaten dutenak? Zer jaten dute esku hartze sozialeko sistemetan daudenek? Nola eragiten die nekazaritzako negozioaren sistemak emakume migratuei? Nola funtzionatzen du elikaduraren kateak ekoizpenean, banaketan,

kontsumoan eta etxeetan? Zeintzuk izango dira trantsizio berri baterantz guztioi aurrera egiteko aukera emango diguten banakako praktikak, praktika kolektibo eta komunitarioak eta praktika publikoak? Nola eusten da nekazaritzako negozioa?

Duela gutxi arte, agroekologiaz eta elikadura subiranotasunaz hitz eginez gero, gure finketako praktikak eta ekoizpen ereduak aipatu beharra genuen, gizartearen eta ekologiaren arloan jasangarriagoak diren ereduatarantz trantsizioa egiteko urratsak identifikatzeko. Elikadura subiranotasuna defendatzeko antolatutako borroka batzuk, feminismo komunitarioen, ekonomia feministaren eta desazkundearen zenbait ekarpenekin batera, gauzak berrizendatzen hasi dira, proposamen eta praktika agroekologikoei beste era batera begiratzen eta horiek berrikusten. Hori horrela, Etxaldeko Emakumeek¹⁰ agroekofeminismoa proposatu dugu, etengabe eraikitzen ari garen kontzeptu bat, zeinarekin elikadura subiranotasunaz kutsatu nahi baitugu feminismoa, eta feminismoz nekazarien mugimendua. Hortxe gurutzatzen dira agroekologiaren eta elikadura subiranotasunaren bideak; feminismoak eta ekonomia feminista; ekologismoa; internazionalismoa eta komunitate begirada; hortxe elikatzen da gure ekarpenez.

Elikadura subiranotasunaz eta agroekologiaz elikatzea: herriek eskubidea dute elikagai osasungarriak eta kulturalki egokiak izateko, sozialki bidezkoak diren metodoen bidez ekoiztiak, ekologikoki osasungarriak eta jasangarriak; eta herri horien eskubide kolektiboa da haien berezko elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko politikak, estrategiak eta sistemak ezartzea. La Via Campesina mugimenduak proposatu zuen 1996an eta, ordutik, munduko beste milaka antolakunde eta mugimendu sozialek heldu zioten horri. Nekazaritzako agroekologia elikagai nutritiboak, irisgarriak eta kulturalki egokiak era jasangarrian eta ekologikoan ekoizteko tresna da. Jakintza tradizionalak berreskuratzen direnean, biodibertsitatea errespetatzen da, elikagaiak pestizidarik eta kimikorik gabe lantzen dira nekazarien finketan eta nekazaritzako jarduera oso-osorik ulertzen da, ekonomiaren, politikaren, gizartearen, kulturaren, ingurumenaren eta energiaren alorretan dituen alderdiak barne.

Feminismoez elikatzea: emakume nekazariok gutxienez hiru zapalkuntza ardatzek gurutzatzen gaituzte. Gizarte heteropatriarkalean emakume izateak gurutzatzen gaitu, gizarte hirizentristan landakoak izateak, eta nekazariak izateak eta elikagaiak sortzeak gizarte kapitalistan. La Vía Campesinako emakumeen nekazaritzako feminismo herrikoia lurraldeen eta gorputzaren aitortzan oinarritutako proposamen politiko bat da, antzinako pentsamoldeak, jakintzak eta praktikak berreskuratu nahi dituena. Emakume nekazarien, indigenen eta afrikarren ondorengoen borroka aldarrikatzen du ikusmolde intersektionaletik, justizia soziala erdiesteko, ezberdinkeria sistema gisa hegemonia lortu duen sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren aurka. Nortasunak eraikitzen dituzte, bizitzaren jasangarritasunerako eta ondo bizitzeko erresistentzia mekanismoa gisa.

«Nekazariena» da landako errealitatean duelako abiapuntua, eta «herrikoia», «klase xeheen» feminismo bat delako (baserritarrak, langileak, migratzaileak, nekazaritzako soldatapekoak, indigenak, afrikarren ondorengoak eta abar). Hiriko mugimendu feministetatik ikasi dugu egiten duguna bezain garrantzitsuak direla egiteko moduak eta egiteko kideak. Nekazariok, irauteko, funtsezkoak ditugu bidaideak. Ekonomia feministak erakutsi zigun nekazari ekonomia aztertzen denboraren kudeaketari, sostengatzeko lanen banaketari eta gure lanak norberaren onuratik harago duen eraginari dagokienez. Hau da, ulertzen «pertsonala dena politikoa dela».

Ekologismotik elikatzea: onartzea bizi garen planeta honek baliabide mugatuak dituela, lurralde baten parte garela, etengabe ari garela harremanean eta elkarbizitzan bizirik mantentzea ahalbidetzen diguten beste izaki bizidun batzuekin eta beste sistema eta ziklo natural batzuekin. Beste izakiei eta gure lurraldeei gertatzen zaienak eragina du gugan. Hori dela eta, gizaki eko-dependenteak gara, gure bizitza eta jarduera guztietarako darabiltzagun baliabideak eta ondasunak naturatik datozelako. Horrez gain, elkarrekiko mendekotasuna ere badugu; izan ere, ezinezkoa da irudikatzea gizabanako bat beste gizabanako baten laguntzarik gabe¹¹. Ekofeminismoak lotura bat hautematen du mundu naturalaren esplotazioaren eta narriaduraren eta emakumeak lan erreproduktiboekin eta zaintzakoekin duten loturagatik azpiratzearekin eta zapaltzearekin.

Naturaren eskubideez elikatzea: urrats bat gehiago egitean datza, ingurumena zaintzeko eta soilik gizakion eskubideetatik harago ikusteko. Jaiotzen eta existitzen den oro da natura, pertsonok barne. Osagarriak dira giza eskubideak eta naturaren eskubideak. Lurra, euria, ibaiak, animaliak, landareak, elikagaiak, pertsonak, lurraldeak... Ingurumen eskubideak ez bezala, naturaren eskubideak eskubide ekologikoak dira, bizi zikloak babesteko helburua dutenak; eta, hortaz, ekosistemak dituzte ardatz, eta horien existentzia bermatzea. Haien xedea ez da gizakioi kalte ordainak ematea ingurumenari egindako kalteen truke, baizik eta ukitutako ekosistemak lehengoratzeko eta berroneratzeko saiakerak.

Internazionalismoaz eta ikuspegi kolektiboaz elikatzea: internazionalismoari esker ikusi dugu nola arpilatzen duten hegoalde globala Europako eta iparralde globaleko nekazaritzaren industriako enpresa multinazional handiek. Kontsumitzen dugun elikagaietako asko eta Europan erabiltzen ditugun ondasun naturaletako asko Amerikako, Asiako eta Afrikako nekazari txikiek ekoitzi dituzte. «Globaliza dezagun borroka, globaliza dezagun itxaropena»¹² esaldiak gogorarazten digu borroka guztion artean egin beharrekoa dela. Ikuspegi kolektiboa eta elkarlana ezinbestekoak dira landa gunea eta elikadura sistemak eraldatzeko, hala hegoalde globalean nola iparralde globalaren periferietan. Gure erosketek mundu osoan dute eragina, eta ikusi behar dugu bideragarria ote den elikadura dekolonial bat, estraktibista ez dena eta pertsonak zokoratzen ez dituen.

Agroekofeminismoaren beste apustu bat da elikadura katea osoa eraldatzea, eta, are gehiago, kate begiak ugaritzea. Ikertzea eta proposatzea gure jardunetik, egiten dugun modutik eta sortzen diren harremanetatik, lau mailatan:

- Ekoizpena eta eraldaketa: agroekologia feminista ez da soilik alderdi «teknikoan» (erein, txandakatu, uzta jaso) oinarrituko; baizik eta «moduan» ere bai. Nola banatzen diren erabakiak eta lanak, nola kudeatu finkak, nola zaindu besteak eta geure burua, nola kudeatu denborak, lana, aisia eta atsedena familiako sistemetan zein sistema kolektiboetan.
- Banaketa eta merkaturatzea: hurbiltasuna aldeztu da, merkaturatzeko sistema laburren eta zuzeneko salmentaren (asteko merkatuak eta plazak), ekonomia zirkularraren eta zero hondakin sortzearen alde.
- Kontsumoa, erosketa, kudeaketa publikoa eta erosketa publikoa: helburua ez da soilik gure erosketetara mugatzen, eskoletako jantokietara, egoitzetara, ospitaleetara, elikagai biltegi publikoetara eta udal zerbitzuetara ere heltzen da, eta irizpide jasangarrietan oinarritutako erakundeek erosketa publikoen alde apustu egitera.
- Etxeak: janaren inguruan nola antolatzen garen kontuan hartzea; nork kozinatzen duen, denborak, lan produktiboak eta erreproduktiboak aintzat hartzea.

Alternatibak eta proiektuak ezagutzen ditugu kate begi guztietan, bide egokia da, baina batzuetan oso nekeza da proiektu horiek zutik mantentzea, ez baitago horiek bultzatzeko politika publiko errealik. Ikasi behar dugu horiek «jasangarritasunaren, bideragarritasunaren eta bizigarritasunaren» irizpideetatik begiratzen, alternatiba erreal moduan baloratzeko.

Prozesuetatik ikasteaz gain, garrantzitsua da inor bazterretan ez gelditzea. Ikusgaitasun txikia du pertsona ez-binarioen, emakumeen eta LGTBQIA+ kolektiboko pertsonen errealitateak. Zokoratzen ez duen eta zaintzen duen eredu batez ari bagara, errealitate hori izendatu beharra daukagu, eta erreparatu egin behar diogu. Dena den, bide luzea daukagu aurretik dibertsitatea guztiz txertatzeko¹³ eta landa eremuetan eta gure proiektuetan indarkeria matxistaren eta arrazismoaren aurka erreakzionatzeko konpromisoari dagokionez. Gero eta emakume migratu eta arrazializatu gehiagok egin nahiko luke nekazaritzako proiektuen alde apustu agroekologiatik eta elikadura subiranotasunetik, nekazaritzako autonomo gisa, baina soldatapeko gisa egitera behartuta daudela ondorioztatzen dute, eta, askotan, prekario, Atzeritarren Legeak erregularizatzeko eta lan baimen bat lortzeko ezartzen dituen betekizunak tarteko.

Agroekofeminismoak ardatza zainketetan eta ondasun komunetan jartzen du, era transbertsalean, eta jarduera produktiboa eta erreproduktiboa lotzen ditu. Gure aburuz, zainketa pertsonak zaintzea baino gehiago da. Uste dugu lurra, haziak, ura, animaliak, lurraldeak eta jakintzak ere babesten dituen sistema baten beharrean gaudela. Elikadura zainketen gakoetako bat da, eta eguneroko jardunetik eta eremu politikotik berreraiki beharra daukagu. Zainketa elikaduratik ere badator, eta ezin dugu zainketa sistema bat antolatu ez badago elikadura osasungarria erdigunean jarriko duen sistema antolaturik: zainketa eskubide kolektibo gisa eta elikadura subiranotasuna guztiontzako elikadurarako eskubide gisa ulertzen duenik. Zainketa eta elikadura guztion beharrak dira, bizitza posible egiten dute, eta horiek lortzea ez da norberaren kontu bat, baizik eta erantzukizun publiko bat, komunitatearena; erantzunkidetasun kontua da. Elikadura ekintza politikoa da. Behin entzun nuen gosaltzea eguneko lehen ekintza politikoa dela. Dena den, uste dut interesgarria dela jakitea nork egin duen gosaria, nork erosi edo landu dituen elikagaiak, norberarentzat edo besteentzat prestatu diren, eta nolakoa den sukaldea, banakakoa edo komunitarioa.

ERRONKAK ETA ZAILTASUNAK

NATURAREKIN DESKONEKTATZEA

Elikadura sistema ezin da eraldatu eguneroko bizimoduak eraldatu ezean. Planto egin behar dugu. Hori da, planto egin behar dugu, lurra zapaldu, sustraiekin konektatu, arnastu eta poliki joan. Ibaiak, euriak, haziak eta intsektuak behatu behar ditugu, eta urte sasoiak sentitu, hirian zein landa gunean egon, baliteke gure esentziarekin konektatzeko beharra izatea. Izaki ekodependenteak eta interdependenteak garela konturatu behar dugu. Elkarrekin konektatu behar dugu, eta gure mugimendu eta ekintzek besteengan eta lurraldean duten eraginarekin. Errotzea da gure gorputzen eta bizi garen lurraren mugak aitortzea, besteekiko eta gainerako izaki bizidunekiko loturak aitortzea, baita ekosistema osoarekikoak ere. Bizitzak funtzionatu ahal izateko, armiarma sare bat behar da, sarri, batera egin ezean, ikusteko gai ez garena. Jakin minez, ikertu behar da zer dagoen erremolatxaren edo tomate landarearen azpian, zergatik hazi den hain eder. Haren sustraiak, mikroorganismoak, mineralak, zizareak eta ura behatu behar dira. Bizitza sostengatzeko erari balioa eman behar zaio, elikadura berrantolatzeke.

IRUDITEGI BERRI BAT BELAUNALDI ALDAKETARAKO

Estatistikek agerian utzi dute kontsumo ekologikoa hazi egin dela munduan eta hemen bertan, baina ez dago belaunaldi aldaketarik landa gunean. Sindikatuak, GKEak, masterrak, fundazioak... Horrelakoak badaude, eta denek egiten dute agroekologiaren alde. Eskola askok nahi dituzte kilometro asko egin gabeko jakiak eta glifosatorik gabeko parkeak. Baina zerbait gaizki egiten ari gara. Nork landuko du lurra? Nork baratza? Nor arituko da artzain? Uste badugu gizarte moduan elikadura eredu bidezko, tokiko, ekologiko, dekolonial eta ez-estraktibistarantz jo behar dugula, nekazariak, artzainak eta arrantzaileak izan behar dugu. Ezin dugu elikadura erdigunean jarri kate begi baterako eskurik gabe. Nekazaritzako ekoizpenaz dugun iruditegia askotan nekazaritza industrialean dago errotuta. Begiak ixten baditugu, traktoreak ikusten ditugu, gizonek lursail handietan gidatuta. Ekoizpen intentsiboa ikusten dugu, petrolioaren, dirulaguntzen, teknologien eta intsumo kimikoen mendekotasun handia duena.

Kontakizun eta iruditegi erakargarri berriak behar ditugu, landa eremuari balioa aitortuko diotenak, alderdi bukolikotik edo folklorikotik kanpo. Hirikoa-landakoa, landa hiria, jakintza prestakuntza, antzinakoa-moderno, ikasia-ikasi gabea dualtasunak hautsi behar ditugu. Kategoria horiek pisu handia dute gizartearen ideien artean, eta landa eremuko pertsona askoren bizitzak baldintzatzen dituzte, bereziki emakumeenak. Hori dela eta, belaunaldi berriek nahiago dute hirietara lanera joan, dagoeneko ia sostengaezinak badira ere. Estrategiak eta egoera posibleak amestu behar dira Euskal Herrian landa eremu bizia eta baserritarrez betea izatearen balioa ikusgai egingo duten bestelako kontakizunak idazteko.

LURRAREKIN ESPEKULATZEN

Lurraren balioa elikagaiak emateko gaitasunean oinarritzen da. Espekulazioarekin hasi ziren lursailak, diru gehiago ematen dutelako. Lur emankorrak pilatu egiten dira, urbanizatu egiten dira etxeak, poligonoak eta industriaguneak egiteko. Gaur egun, proiektu eolikoak eta fotovoltaikoak, aerosorgailuak eta eguzki plakak jartzekoak, eguzki baratze izen okerra ematen dieten horiek, zuzeneko ondorioak dituzte biodibertsitatean, baina lurraren prezioari eragiten ere hasiak dira. Energia eredua deskarbonizatzeko behar larriari aurre egiteko erantzunetako bat izateaz gain, atzean badu espekulazio nahia ere, eta horrek zuzenean eragiten dio lurraren prezioari, igo egiten baita, eta horrek kalte egin diezaioke hainbat jarduerari, esaterako, nekazaritzari eta abeltzaintzari. Zenbait mugimenduk, hala nola Euskal Herria Bizirikek, apustu egiten du balio handiko landa lurrez eta lur bankuez diharduen trantsizio baten alde, etorkizuneko elikadura eta ur sareen babesa bermatzeko¹⁴.

Kezkagarria deritzogu erakundeek landareak lurrik gabe lantzeko ikerketak egiteko joerari, hala sistema hidroponikoaren¹⁵ nola bertikalean lantzekoaren ingurukoei. ¹⁶ Garapen teknologiko horiek eraginkorrak direla diote, eta, horien bidez, kapitalismoak erroka historiko handienetako bat gainditu nahi du: elikagaien ekoizpenak lurrarekin izan duen mendekotasuna etetea. Ikuskizun daude oraindik horrek ekarriko dituen ondorioak.

NAHASMENA. EZBERDINTASUNEN JOKOA

Ekoizpen intentsiboko ereduak gero eta kritika handiagoa egiten zaie, haien eragina dela eta, baina ikusi dugu nekazaritzaren negozioa apurka-apurka berdez eta morez jantzen, jasangarritasunaz, sistema ekologikoaz eta nekazaritza

birsortzaileaz hizketan. Hitzak desjabetzen eta despolitizazioz blaitutako alternatiba errealean halo batez apaintzen ditu, eta guk geuk ere askotan gure egunerokoan txertatzen ditugu. Horrenbestez, guk beste kontakizun batzuk idatzi nahi ditugu, geureak, nahita, eta lengoaia komun bat eraiki nahi dugu agroekologia feministarantz trantsizioa egiteko. Geure burua desmerkantilizatzeke, gakoa da oinarritzako kontzeptuak partekatzea eta haien esanahia aldatzea: «ekoizleak» beharrean, elikagaiak lantzen dituzten pertsonak, nekazariak edo baserritarrek; «ekoiztea»ren ordez, elikagaiak lantzea eta biltzea, kontserbak egitea; «ustiatzea»ren partez, nekazaritzako espazioa, baserria, finkak. «Produktuak» ez, baizik eta elikagaiak, kontserbak, gaztak.

Horrez gain, azken urteotan elikagai ekologikoei gora egin dute, eta, horrekin batera, gezur eta estrategia olde handia piztu da, elikaduraren industriak diseinatutakoa, nekazari txikiei terrorismo burokratikoak aplikatzen dieten administrazio batzuen laguntzaz. Hedabide handiek eta publizitateak informazio kontraesankorra ematen dute elikagai ekologikoei eta etiketei buruz, eta horrek nahasmena sortzen du. Kontzeptu ugari dauzkagu esku artean, askotan nahastu egiten gaituztenak (label, eko, bio, hidropnikoa, tokikoa 0km eta abar). Osasungarriagoak eta justuagoak al dira? Klima aldaketa ekiditen al dute? Ziur ez dutela kimikorik? Gorakada horrekin merkatu hobi bat topatu dute, eta ez dute ihes egiterik nahi. Elikadura industrial eta prozesatuaren multinazionalak lortu dute haien lerroek egiaztagiri ekologikoa izatea.

Lurraren Adiskideen Sarearen txosten batean «naturan oinarritutako irtenbideak» (NOI) deritzenak lantzen dituzte, eta horiek ere nahasmena sortzen dute, enpresek proposatutako irtenbide klimatiko aizunak baitira, itxurakeria hutsa. Horri lotuta, ikusi dugu duela gutxi SAI Platforms sortu zela, «irabazi asmorik gabeko sare bat, mundu osoan 180 kide baino gehiago dituen. Nekazaritza jasangarri eta birsortzaile baten alde egiten du apustu, mundu hobea lortzeko». Ez du itxura txarra, harik eta ikusi arte kideen artean enpresa kimikoak eta bioteknologiakoak daudela, esaterako, Bayer eta Syngenta, gehien saldu duten pestizidetako baten ondorioz erle samaldak hil izanarekin zerikusia dutenak, edo milioi ugari salaketa kolektiboak dituztenak Roundup plagizida kantzerigenoa dela eta. Unilever, Nordzucker, Cargill, Innocent drinks, PepsiCo eta Nomad Foods, Starbucks, McDonald's eta abar ere parte dira. Tira... Mekanismo horrek, enpresen kooptazioak, agroekologiari bere botere eraldatzaile guztia erauzi nahi dio.

Dieta agroekologikoak nahi baditugu, eta ez nekazaritzaren industriakoak, zazpi ezberdintasunak topatzeko jolasean ibili beharra daukagu. Ez da erraza, baina garrantzitsua da zertaz ari garen jakitea. Nekazaritza jasangarria bideragarria eta bizigarria bada gizakiontzat eta gainerako izaki bizidunentzat, lurrarentzat, lurraldearentzat eta

OHARRAK

1 "Eskandaluzko gauza" horretaz ari garenean, Donna Harawayen (1991) eta Amaia Pérez Orozcoren hitzak darabiltzagu izena emateko ezberdinkeraren ardatz askoren bidegurutzean eraikitako sistema konplexu horri: sistema kapitalista, heteropatriarkala, arrazialki egituratua, (neo)koloniala eta ingurumenaren harraparia denari. Pérez-Orozco, Amaia (2014). "Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida." Madril: Traficantes de sueños.

2 Gaint (2011) **Alimentos y cambio climático: el eslabón olvidado.**

3 FAO (2011). **Perdidas y desperdicio de alimentos en el mundo.**

4 Lurraren Adiskideen Sarea (d.g.). **Alimentos kilométricos. Las emisiones de CO2 por la importación de alimentos al Estado español.**

5 Ingurumen Gaietarako Ikastegia (2023). **2022ko memoria** (55. or.).

6 Finken jabeen % 3k 35 urte dituzte, eta % 40k, 64tik gora. 2003an, nekazaritzan ziharduen populazioa 18 900ekoa zen; 2023 amaitzean, apur bat gora egin bazuen ere, 2003koen erdia baino gutxiago zen. Emakumeen presentzia are txikiagoa da, guztien % 28,2 baitira. Bizkaian dute presentzia handiena. Euskal Estatistika Erakundea (2024ko apirilaren 29a). **Prensa oharra. Nekazaritza zentsua 2020.**

7 Ustiategi baten titularrak diren emakumeen ehunekoa % 25,6ra jaitsi da, eta batez besteko adina ia 60 urtekoa da. 20 hektareatik beherako ustiapenen %25ek emakumezko titularra dute, eta ehunekoa txikitu egiten da finkaren tamaina handitu ahala. (Ibid.)

naturarentzat, agroekologia eta elikadura sistema justuek, tokikoez, sasoikoez eta ekologikoez ari gara. Hala izango balitz, ziurrenik enpresa handiak ez leudeke hor, ezingo bailukete espekulatu.

LURRALDEARI LOTUTAKO POLITIKA PUBLIKO AGROEKOLOGIKOAK. «DENONTZAT DENA»¹⁷

Nekazaritza industrialak, kontsumorako beste produktu batzuekin gertatzen den bezalaxe, prezio baxuak lortzen ditu eskalako ekonomien, laneko esplotazioaren, dirulaguntza publikoen eta ingurumena kutsatzearen bizkar. Orduan, jaten dugunaren balioa lausotu egiten da. Elikagai arruntagatik ordaindutako euro bakoitzeko, beste bat ordaindu beharra dago ingurumeneko arazoen kostua ordaintzeko, eta beste bat osasun gastuei aurre egiteko¹⁸. Produktu arrunta, hortaz, garestiagoa da ezkutuko gastuengatik.

Kontsekuentea izateko, ohitura berriak behar ditugu gure erosketetan, esaterako, elikagai bakoitzaren sasoia aintzat hartzea, elikagai freskoen kontsumoa handitzea edo hurbileko elikagaiak erosteko establezimenduak topatzea, baina guztia ezin da norberaren arduraren gain egon. Badago elikagai agroekologikoak jan ezin dituenik, baliabiderik ezagatik edo bestelako arrazoiak tarteko. Elikagai nutritiboak lortzea giza eskubidea da, eta ez luke pribilegio bat izan beharko. Elikagaiak aurrekontuen bihotzean jarri nahi ditugu, gure nekazaritza eta elikadura sistema gobernatzen duten politika publikoek natura babesten duen eta lurraldean eta baserrian oinarrituta dagoen eredu baterantz jo ahal izan dezaten. Esparru bat behar da, politikoa, arau arlokoa eta aurrekontuen ingurukoa, elikadura sistemaren lau kate begietan neurriak ezarriko dituen, eta bizitza eta zainketa erdigunean jarriko dituen, pertsona berriak nekazaritzara batzea erraztuko duena eta landa mundu bizi eta jasangarria bultzatuko duena. Askotariko esperientziak daude, tokikoa, ekologikoa eta kolektiboa dena erdigunean jartzen dutenak, baina ezin dute banakako ekimen edo aktibismo kolektibo hutsak izan.

Emakumeek mantendu duten baserriar eredura itzuli behar dugu, eta agroekofeminismoaren begirada eraldatzaileak txertatu behar ditugu, gure proiektu ekoizle agroekologikoak inspiratzeko, eta zainketak eta bizitza erdigunean dituzten espazioak, pertsona eta belaunaldi guztien arteko erantzunkidetasunez beteak. Uste dugu elikadura ez dela nekazarien erantzukizuna soilik. Elikadura zainketen funtsezko parte gisa ulertzen eta baloratzen duen gizarte bat nahi dugu, eta baserrietako ekoizpena jasangarritasunaren eta planetaren zainketaren erdian jarriko duena. Horrek guztiak, lurralde bati lotuta, subiranotasuna emango liguke, pertsonak haien jatorrizko lekuetatik mugiaraziko ez lituzkeena, eta jendearen bizitza prekarizatuko ez lukeena.

8 Garrote, Mar. EHNE (2023). **Zaintzen duten emakume baserritarrak. Pertsonak, lurrak, lurraldeak eta planeta.**

9 Baserriar sareak elikagaiak lantzeko nekazaritzako lurren % 25 baino gutxiago erabiltzen ditu, eta populazioaren % 70 baino gehiago elikatzen ditu. ETC Group (2017) **¿Quién nos alimenta? ¿La red campesina alimentaria o la cadena agroindustrial?**

10 Etxaldeko Emakumeak elikadura subiranotasunaren aldeko emakume baserritarren, landa eremuko emakumeen eta emakume aktibisten talde irekia da. Etxaldeko Emakumeak.

11 - Herrero, Yayo (2012). "Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con una vida buena. Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica". (55-64 or.). Reas Euskad.

12 La Vía Campesinaren lema.

13 - Vía Campesinaren Europako Koordinakundea eta Sindicato Labrego Galego (2021eko ekaina). **Abrazar la diversidad. Géneros y sexualidades en el movimiento campesino.**

14 El Salto Diario (2024) **Energías renovables Euskal Herria Bizirik: "Las renovables pueden ser el sustento de hoy, pero serán la miseria de pasado mañana".**

15 NEIKER (2023ko otsailaren 8a). **Letxuga handiagoak eta planeta gehiago errespetatzen dutenak.**

16 NEIKER (2024ko ekainaren 12a). **Indoor vertical farming: labore bertikalak, elikagaien ekoizpen jasangarria optimizatzeko.**

17 Zapatisten lema: «Denontzat dena, eta guretzat, ezer ez».

18 FAO.

(zøhar)

errefuxiatuekin